

**VII. GERRIKO
IKERLAN SARIKETA**

**Goiherriko Euskal Eskola
Maizpide Euskaltegia
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea**

**Jose Felix Amundarain Muxika
(Zegama, 1755 - Mutiloa, 1825),
Goierriko Euskal idazle ezezaguna**

**Antton Idiakez, Pello J. Aranburu,
Marian Bidegain, Iñaki Rezola**

GERRIKO IKERLAN SARIKETA

© Sortzailea:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
Antolatzaileak:	<ul style="list-style-type: none">• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea Elosegi, 16, 1.a ezker. 20210-Lazkao Tfnoa.: 16 02 82• Maizpide Euskaltegia Elosegi, 40-bis. 20210-Lazkao Tfnoa.: 88 92 31• Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza, z/g. 20210-Lazkao Tfnoa.: 88 64 08
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)
Zuzendari Zientifikoa:	Joxemartin Apalategi Begiristain Antropologo Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea
Laguntzailea:	Zegamako Udala eta Zegamako Kultur Etxea
Egileak:	Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezola
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga
Azala:	Bixente Kerejeta Goena
Fotokonposaketa:	Mertxe Dorronsoro Mintegi
Inprimategia:	G. Lizarra, S.L. - Lizarra
I.S.B.N.:	84-922191-2-2
L.G.:	Na-521-1998

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctrinetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

AURKIBIDEA

Agurra	9
Eskaintza	11
Laburdurak	13
Sarrera	15
Aurkezpena	17
I. BIZITZA (Zegama,1755-Mutiloa,1825)	19
1. Jatorria, sendia, eskola (1755-1771)	27
2. Goi-mailako ikasketak, apaiz (1771-1791)	31
3. Mutiloko bikario (1791-1825)	37
4. Amundarainen bizitzako argi-ilunak	53
II. ‘JAQUIN-BIDE IRITARAUTIA’	57
1. Sarrera	59
2. Ingurune politiko-soziala	61
3. ‘Jaquin-bide Iritarautia’	73
4. Lexikoa	81
5. Zati hautatuak	105
III. SERMOIAK	109
1. Ingurune literarioa	111
2. Sermoiak	119
3. Hizkuntz azterketa:	121
3.1. Sarrera.	121
3.2. Ortografia	121
3.3. Lexikoa	124
3.4. Esamoldeak	153
3.5. Deklinabidea (Morfologia, etab.)	155

3.6. Aditza (Morfologia, etab.)	161
3.7. Joskera	174
4. Erkaketa	187
5. Sermoi hautatuak	189
Bibliografia	265
Eranskinak	269

“...Bacarric diot, nere neque labur, chiqui onec berorren ontasunaren estalpean nai, ta ez arrera ona izango duala; berez ecerez bat baita, autor det viciro; baña alaz guciarren ere, Eusquel Erritaraco prochu andicoa deritzat. Berorren itzalaren azpian bacarric ventura liteque; etartu beza arren, eta Arranoac, aidean dijoala, bere humetara becela, ala bere Erritar gucien zorionera veguira beza. Ala det uste; cerren jayotzatic nun nai, eta izan dan lecu gucietan ezagutu da beti berorregan vorondate ona, eta prestutasunera guztiz issuria, eta etziña. Izan bez, nic deseo becela, beti, eta urte ascoan suerte on...”

(Jose Felix Amundarainek Migel Zumalakarregiri)

ESKAINZA

Jerardo Elortzari: Ikerlan honi ekitera animatu, berau burutu ahal izateko hainbat material oinarritzko eskuratu eta makina bat aholku jakintsu borondaterik borondatetsuenaz eskaini digun oñatiar langile aspergaitzari.

LABURDURAK

atz. = folioaren atzealdean
aur. = folioaren aurrealdean
k. = IAAko agiri multzoak: kartoia
ler. = lerroa(k)
mf. = mikrofilmea
or. = orrialdea(k), folioa(k)
zk. = zenbakia(k)

DEHA = Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Histori Artxiboa
IAA = Iruñeko Apezpikutegiko Artxiboa
OGPA = Oñatiko Gipuzkoako Protokolo Artxiboa
SUA = Segurako Udal Artxiboa
TGAO = Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorra
UUA = Urretxuko Udal Artxiboa
ZUA = Zegamako Udal Artxiboa

DEV = EGIPVko Diccionario Enciclopédico Vasco
EGIPV = Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco
EGL = Euskaltzaindiaren “Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna”
EGLU = Euskaltzaindiaren “Euskal Gramatika, Lehen Urratsak”
RM = *Relación de los Méritos...* agiria

SARRERA

VII. Gerriko Ikerlan-Sariketako fruituak, nahikoa eguzki goxo hartu ondoren, ondo heldutako fruituak, bitaminaz beteak, sasoikoak eta zure osasunari mesede besterik egingo ez diotenak dakarzkizugu, irakurle:

- *Jose Felix Amundarain Mujika (Zegama, 1755 - Mutiloa, 1825), Goierriko euskal idazle ezezaguna*
Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain, Iñaki Rezola
- *Zegamako euskara*
Joxe Migel Azurmendi

Gerriko Ikerlan Sariketako bilduman 12. eta 13. liburukiak izango dira honako hauek.

Uzta jasotzea nori ez zaio gustatzen? Gu geu ere noiznahi gaude horretarako prest. Baina, jakin ondo dakigunez, ereiten ez bada ez dagoela zer bildurik, egonean egon ordez, urte guztian etengabe aritzen gara lurra prestatzen (oinarriak argitaratzen), hazia ereiten (oinarriak zabaldu eta ikertzaileak lanean jartzen), ongariak botatzen (jasotako ikerlanak epaitu eta zuzentzen) eta, azkenean, uzta jasotzeko moduan izaten gara (liburuak!).

Ikerlanak egin dituztenenak dira liburuak, dudarik gabe, baina ezin aipatu gabe utzi bakoitzak bere arloan, isilean beti ere, lanean aritu den lan-taldea:

- Zuzendari zientifikoa:
Joxemiel Apalategi jn., antropologoa eta irakaslea.
- Epaimahaikideak:
Koldo Zuazo jn. filologoa eta irakaslea.
Iñaki Gaminde jn., filologoa eta irakaslea.
Jon Sarasua jn., kazetaria eta bertsolaria.
- Hizkuntza eta forma aldetiko zuzentzailea:
Dionisio Amundarain jn.

Argitaratu eta aurkezten dizkizuegun bi ikerlan hauek, gai aldetik ez dira erabat berriak GERRIKO ikerlan sariketean, hau da, “Jose Felix Amundarain Mujika ...”

liburua Goierriko idazleen liburu biografikoen artean laugarrena da, Juan Inazio Iztueta, Klaudio Otaegi eta Jose Ignazio Gerrikoren biografia eta obraren azterketen ondoren dator.

Filologi aldetik, berriz, Goierriko bi euskalki aztertu eta argitaratu dira sari-keta honetan: Ataungoa lehenengo eta Zegamakoa oraingo honetan.

Lau lan biografiko horien egileak ikertzaile berak izan dira, Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezola eta bi lan filologikoak egin dituen ere Joxe Migel Azurmendi ikertzailea.

Gai interesgarri horiek, beste bakar bat ere baztertu gabe, leku berezia hartu dute Goierri buruz argitaratu ditugun liburuen bilduman. Dena dela, aldian aldiko epaimahaiak egindako azterketaren ondoren ondo merezitako saria ematea besterik ez dugu egin antolatzaileok.

Zorionak ikertzaile guztioi, bai sarituoari eta baita saritu gabe geratutakooi ere. Segi lanean aurrera, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak Goierri buruzko bibliografia geroz eta zabalagoaren alde lanean jarraitzeko asmoa baitugu. Horretarako, VIII. edizioko oinarriak kalean dira eta hutsik egin gabe aurrera egingo dugu.

Lazkaon, 1997ko urrian.

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL

GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

MARIAN BIDEGAIN

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA

Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

AURKEZPENA

Jose Felix Amundarain Muxika, 1755ean Zegaman jaio, hamahiru urtez Iruñea, Oñati, Zaragoza, Valladolid eta Madrilen Filosofia, Legeak eta Kanon Sakratuak ikasten eta irakasten ihardun, hogeita hamalau urtez Mutiloko bikario izan eta 1825ean herri honetan hil zen goierritar apaiz eta idazle ezezagunaren bizitza eta euskarazko lana ikertu eta eskaini nahi dugu gure lan honetan.

Lana hiru partetan banatu dugu:

Lehen atalean, Amundarainen bizitza korapilatsua arakatzen ahalegindu gara.

Bigarrenean, *Jaquin-bide Iritarautia*, 1820an 1812ko Cádizko Konstituzio liberala berriro indarrean jartzean, Konstituzioa eskoletan eta euskaraz irakasteko euskarara itzuli zuen Doktrina Politikoa ikertu dugu.

Hirugarrenean, 1824 aldera, argitaratzeko asmoz edo, idatzi zituen sermoiak izan ditugu aztergai.

Lan honen bidez, izango ahal du Goierriko euskal idazle klasiko batek, orain arte ilunpean ahaztua eduki badugu ere, ongi merezia dukeen argia ikusteko eta gozatzeko zoria.

I. BIZITZA (ZEGAMA,1755-MUTILOA,1825)

Gure ikerlanaren lehen parte honetan, hainbat artxibotako agiri zaharretan oinarriturik, Jose Felix Amundarain Muxikaren bizitzako gorabehera nagusienak arakatuko ditugu. Atala lau azpiataletan banatu dugu:

1. Jatorria, sendia, eskola (1755-1771)
2. Goi-mailako ikasketak, apaiz (1771-1791)
3. Mutiloko bikario (1791-1825)
4. Amundarainen bizitzako argi-ilunak



Zegamako Postaetxean jaio zen Jose Felix Amundarain.



Zeraingo aitona-amonon Jauregin urte askoan bizi izan zen Jose Felix.



Jose Felixen aita Ordizia-Arrasate bideko postari izan zen Urretxuko Postaetxean.



Oñatiko Unibertsitatean erdietsi zituen Amundarainek Kanon Sakratuetako lizentziatu eta doktore graduak.



Mutiloko elizaren inguruan: Juan Oria sakristauren Maisu-etxea eta Gerriko benefiziatuaren Elizalde (XVIII. mendekoak) eta Udaletxea (1806) eta Plazagoen (1807).




Plazagoen, Udaletxea eta eliza.



Plazagoen, bikario-etxearen atalburua.



Plazagoen.




“Jaquin-bide Iritarautia”ren lehen orrialdea.

Utroque tandem hinc Emgonesco de
 formali Inguinuetate critica autu,
 ifinid.
 Sermoi daverne Castellare Francesei
 Eddera italtaco Christian-Urtico
 ditatican; eta Sermojas Barria, Ch
 Jeneri, Alcañillan, Lela, Equilto, eta
 noyandte artian, eta supurritime.
 Sargai labur au Emgonesco Apico
 vedean equindu P. P. Ino Seta de
 Barria, Mutiloan Emi noblaron
 Sargaghere Vicaritate aguta iam
 gazon urtean; icu viri, nequada
 autu verrat Sermoi Emgonesco
 hira, eta varti ifineta.
 Di Liburutu cabitecuirado Tandte
 gazine; hira liburutu Abentate
 to Corano ipa nora urtean Tandte
 eta hira verrat Barria Mutiloan
 acaboraraño.
 2. Liburutu
 hira verrat, aguta langarri

Sermoi-bildumako bigarren liburukiaren lehen orrialdea.

R A Z Ñ
D LAS SEPULTUR.
Y SUS DUEÑOS
D LA PARROQ.^L
D MUTILOA, EN 1806



“Razón de las Sepulturas” liburutxoaren larruzko azala.



“Razón de las Sepulturas”eko marrazki artistikoa: “Parochus ipsius fecit propius”.

	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	11.	12.	13.	14.
Corona	Orca	Alondra	Parochus	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra
Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.
15.	16.	17.	18.	19.	20.	21.	22.	23.	24.	25.	26.	27.	28.
Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra
Fol. 5.	Fol. 6.	Fol. 6.	Fol. 6.	Fol. 6.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 5.	Fol. 6.	Fol. 6.	Fol. 6.	Fol. 6.
29.	30.	31.	32.	33.	34.	35.	36.	37.	38.	39.	40.	41.	42.
Nano.	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra
Fol. 6.	Fol. 7.	Fol. 7.	Fol. 7.	Fol. 7.	Fol. 4.	Fol. 8.	Fol. 4.	Fol. 8.	Fol. 8.	Fol. 9.	Fol. 9.	Fol. 9.	Fol. 9.
	43.	44.	45.	46.	47.	48.	49.	50.	51.	52.			
	Opia	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra			
	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.			
	53.	54.	55.	56.	57.	58.	59.	60.	61.	62.			
	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra	Alondra			
	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.	Fol. 10.			

“Razón de las Sepulturas”eko sepulturen krokisa.

1. JATORRIA, SENDIA, ESKOLA (1755-1771)

1.1. Jose Felix Amundarain Muxika¹, Bartolome Antonio eta Ana Teresaren seme zaharrena, Zegamako Olaberria auzoko Postaetxean jaio zen, 1755eko azaroaren 19an. Hurrengo egunean bataiatu zuen Martin Aseginolaza bikarioak herriko San Martin parrokian, aitaponteko Manuel Muxika apaiza (amaren anaia, Zegama eta Zeraingo benefiziatu, Legeetan lizentziatu eta Errege Kontseiluetako abokatua) eta amaponteko Teresa Senpertegi (aitaren aldeko amona) izan zituelarik².

1.2. Aita: Bartolome Antonio Amundarain Senpertegi, Mirandako Frantzisko eta Ordiziako Teresaren seme zaharrena, Zegamako Diego Amundarain eta Aguraingo Frantziska Okerruri eta Antonio Senpertegi eta Frantziska Agerrista (Akerrista?) ordiziarren biloba, 1731n jaio zen, Zegamako Olaberria auzoko Intxaurren don. Sei anai-arreba izan ziren. Lanbidez postari izan zen, 1777 arte bere herrian eta gero Urretxun. Ez zuen Udal-kargu edo postu garrantzizkorik izan: aita eta bi ak pare bat alditan baino ez dira azaltzen Udal-aktetan lekuko gisa (1754-11-30 eta 1758-01-16an)³. Bai, haatik, Juan Antonio anaiak.

1.3. Ama: Ana Teresa Muxika Arrese, Jose eta Maria Ignaziaren alaba, Zeraingo plaza alboko Jauregi oinetxe eder, bikainean jaio zen. Manuel anaia apaizak, seguru asko, eragin handia izan zuen bere besoetako Jose Felixen ikasketetan. Ana Maria ahizpa, Juan Frantzisko Gerriko Azkortarekin ezkondua, Jose Manuel Gerriko (Zerain, 1758-01-11), berrogei urtez Zeraingo benefiziatu eta 1824tik aurrera Iruñeko apezpikutegiko Bikario Nagusiaren ama izan zen. Ana Teresa gazterik hil zen, 1760-1761ean, lau seme-alabatxo, bost urtez azpikoak laurak ere, umezurtz utzirik.

¹ Agiri zahar gehienetan, ez beti, *Feliz*; Amundarainek berak ere horrela idazten du bere ize-na. Eta *Muxika*.

² DEHA, Zegamako San Martin Parrokiako Bataiatuen 5. Liburua (1714-1774), 196. or., atz.= A, 1, 6, 380. mf.

³ ZUA, Libro de Acuerdos y Decretos de esta Villa de Cegama, Año de 1709, 1, 1, 185, 1.

1.4. Gurasoen ezkontza: Bartolome Antonio eta Ana Teresa Zeraingo parrokian ezkondu ziren, 1754ko abuztuaren 17an, Jose Altolagirre bikarioaren eta Juan Ignazio Gerriko lekukoaren aurrean⁴.

Egun batzuk lehenago, abuztuaren batean, bi aldeetako gurasoek, Zeraingo Jauregin Segurako Jose Antonio Suinaga notarioaren aurrean elkarturik, senar-emaztegai gazteen ezkontza-hitzarmen ekonomikoa zertu zuten: Bartolomeri gurasoek beren ondarearen oinordekotza eman zioten. Jaraunspen-ondarekoak ziren Intxaurren jaiotetxea eta Postaetxea. Egoitza berri honetan jarri ziren bizitzen ezkonberriak. Dena den, gurasoek, alde batetik, zenbait lursailen erdiaren eta etxe bion jabetza eta bertara bizitzera joan ahal izateko eskubidea berentzat erreserbatu zuten⁵; eta bestetik, Bartolomek huts egitera, beste bost seme-alabek oinordekotzaren lehentasunean izango zuketena ordena ere zehatz-mehatz xedatu zuten⁶.

Zeraingo Jauregiko Mujikatarrek ere beren alabari dote bikaina eman zioten: 700 dukat...

1.5. Senideak: Bartolome Antoniok eta Ana Teresak lau seme-alaba izan zituzten: Zaharrena Jose Felix bera.

Frantzisko, 1757-07-31n bataiatua⁷. Oso umetan hil zen.

Ana Maria, 1759-03-12an bataiatua⁸. Lazkaoko Zistertarren Santa Ana komentuan moja sartu zen. 1782-01-29an gurasoek 1 500 dukateko seniparte-dote bikaina eman zioten. Maria Gurutze Amundarain Otaegi lehengusina ere komentuan berean sartu zen, bestearen egun berean dote-hitzarmen berdina egin ziotelarik gurasoek⁹.

Maria Manuela Kontzepzion, 1760-09-22an bataiatua¹⁰. Donostiako Kalonje

⁴ DEHA, Zerain, Ezkonduen Liburua, 47. mf.

⁵ OGPA II, 2702. sorta, 97-101 orr.

⁶ Oinordekotza-lehentasuna, hurrenez hurren: Aurrena mutilak, neskak atzetik:

1. lekuan: Bartolome Antonio.

2. lekuan: Frantzisko. 1734an jaioa. Garai hartan, hogeituroko, ikasle. Zer ikasketa ari ote zen egiten?

3. lekuan: Juan Antonio. 1766, 1767 eta 1768an herriko alkate (OGPA II, 1554, 1555 eta 1768. sortak). 1799-04-01ean Zegamako hainbat baserri eta kaletxeren jabe: Zatzizabal Txiki, Zuloagamuñoa, Elorregi, Altziturrigarakoa... (OGPA, Zegama, H, 578, 164. or., 24-34 lerr.). 1808an Zegamako Mazkianaren batean bizi zen (ZUA, Libro Alardes, 2, 2, 1, 205, 1). Juan Antonioren alaba bat, Maria Gurutze, Lazkaoko komentuan moja sartu zen; beste bat, Maria Manuela Amundarain Otaegi, Martin Jose Zumalakarregirekin (Zumalakarregitar ospetsuen anaiarekin) ezkondu zen (ikus geroago).

4. lekuan: Maria Manuela Kontzepzion. 1808an beste Mazkianaren bizi zen (ZUA, Libro Alardes, 2, 2, 1, 205, 1).

5. lekuan: Maria Juana Bautista, 1736an jaioa, eta

6. lekuan: Maria Bizenta, 1743an jaioa. Denak zegamarrak.

⁷ DEHA, Zegama, A, 1, 6, 380. mf.

⁸ DEHA, Zegama, A, 1, 6, 380. mf.

⁹ TGAO, PT, IPT, 3030. sorta, 90-96 orr.

¹⁰ DEHA, Zegama, A, 1, 6, 380. mf.

Erregularren San Bartolome monasterioan sartu zen moja 1785-09-09an¹¹.
Senide guztiok, beraz, elizgizon/emakume izan genituen.

1.6. Bartolomereren bigarren ezkontza: Ana Teresa, Jose Felixen ama, 1760-1761ean hil zen. Handik gutxira, Bartolome, ezkontza-hitzarmen berria zehaztu (1761ean) eta 1762an Rosa Irimorekin ezkondu zen. Bigarren emaztearen eskubi-deak bermatzeko, 1766-02-04an Bartolomek testamentua egin zuen Bernardo Irimo notarioaren aurrean (Bernardo eta Rosa ahaide ote ziren?). Albazea Juan Antonio anaia ezarri zuen¹².

1777an Bartolome eta Rosa, Zegamako etxea eta lana, San Adrian bideko postaritzara, utzi eta Urretxura aldatu ziren bizitzera (ikus geroago).

Badirudi lehen ezkontzako umeak ez zirela aita eta amaordearekin joan herri berrira. Itxura guztien arabera, Zeraingo Jauregin izan zuten babesera, ama zenaren aldeko aiton-amonen etxean eta altzoan: Jose Felix 1777. urtean Zerainen bizi zen. Horrela azaltzen da herri honetako Martin Jose Odriaren adin txikiko umeen testamentu-lanetan ibili zela adierazten digun agirian¹³. Maria Manuela Kontzepzion arreba gazteena ere serora joaterako Zerainen bizi zen¹⁴.

1.7. Lehen ikasketak: Non egin ote zituen bere lehenengo ikasketak Jose Felixek? Gure Amundarainen haurtzaroko aldi garrantzitsu honetaz ezin izan dugu inolako argibiderik aurkitu. 15-16 urterekin Iruñean azaltzen zaigu goi-mailako ikasketei ekiten. Aurretik zerbait ikasi bide zuen: doktrina, irakurtzen eta idazten, oinarrizko eragiketa matematikoak eta, seguruenik, oinarrizko *humanitateak*: latina, gramatika, literatura... ere bai. (Gogoan izan garai haietan Unibertsitateko ikasketak latinez zirela). Baina non?, Zegaman?, Zerainen?... Bere aitaponteko Manuel Muxika, lehenengo Zegamako eta geroago Zeraingo apaiz benefiziatuarekin? Kontuan izan behar da garai haietan artean irakaskuntza-sistema batere egituratzeko zegoela, herri handi samarretan bakarrik zeudela nolabaiteko eskolatxoak, elizaren inguruan edota partikularren diru-laguntzekin sortuak. 1822an, artean, ez zuten *lehen letretako eskolarik* Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal, Olaberriak...¹⁵; Segurak bai. Gipuzkoako irakaskuntza-sarea XIX. mendean hasi zen itxura antzean egituratzen, Batzar Nagusiei, Diputazioari eta hainbat pertsona partikularren ahalegin bortitzei esker.

¹¹ OGPA I, 4152. sorta, 225. or., atz., 7-14 lerr.

¹² OGPA II, 1554. sorta, 46-48 orr.

¹³ TGAO, PT, IPT, 3025. sorta, 221-228 orr.

¹⁴ OGPA I, 4152. sorta.

¹⁵ 1822an Gipuzkoako laurogeita hamaika herritan egin zen inkestaren arabera, artean leku askotan ez zegoen mutikoentzako *lehen letretako eskola* txikirik. Are gutxiago neskatoentzakorik: Lasa 1968: 53-54 orr.

2. GOI-MAILAKO IKASKETAK, APAIZ (1771-1791)

2.1. Iruñean: 1771n Iruñean azaltzen zaigu gure Jose Felix, 15 urteko gaztea: 1771ko uztailaren 14an Juan Lorentzo Irigoien Dutari apezpikuaren eskutik *prima tonsura* (apaizgintzarako lehen pausoa) hartu zuen¹⁶. Lehenagotik ere ba ote zebilen Iruñean ikasketak egiten edo?

Iruñeko Domingotarren komentuko Santiago Unibertsitatean, 1771-1774 bitartean, Filosofiako hiru ikasturte egin zituen. Honela ziurtatzen du 1778-03-26an Oñatiko Unibertsitateko Frantzisko Xabier Urtaza idazkariak: “Cursos de Filosofía. En el convento de N.P. Santo Domingo, de la ciudad de Pamplona ha estudiado tres años de Filosofía”. Idazkari berak 1782-09-18ko *Testimonio de méritos*: “...Que estudió con aplicación y aprovechamiento tres años de Filosofía en la Universidad de Santiago de la orden de Predicadores de la Ciudad de Pamplona”¹⁷. 1790-09-22ko “Relación de los Méritos, Grados y Ejercicios Literarios del Doctor Don Joseph Felix de Amundarain y Mugica, Presbítero, Confesor, Predicador y opositor á Prebendas de oficio”n (RMn) ere berdin esaten da. *Curriculum vitae* edo *espediente akademiko* antzeko agiri honen kopia Jerardo Elortza jaunak, Bergarako UNEDeko irakasleak, aurkitu zuen Lazkaoko Beneditarren monasterioko liburutegian eta gure eskuetan jarri. (ikus gure lanaren 1. Eranskina).

2.2. Oñatin: Iruñetik Oñatira etorri zen. Hemengo Unibertsitatean beste hiru urtetan (1774-1777) Legeetako Batxiler gradua lortu zuen: “...Que curso tres años la facultad de Leies en esta dicha Universidad de Oñate, y asistió a la Academia de esta facultad, arguyendo, y defendiendo en ella las veces que le toco. Que defendio un acto publico en la misma facultad. Que recibio en dicha Universidad el Grado de Bachiller en Leies á Claustro pleno habiendo sufrido el acostumbrado examen, con arreglo al methodo de estudios en ella”¹⁸.

Amundarain ikasle izan zen garaian Oñatiko Unibertsitatea Penintsulako ospetsuenetakoa zen. Peñafloidako kondearen eta Bergarako Errege Mintegiko Az-

¹⁶ IAA, 2308. k., 10. zka., 14. or. Halaber, Ibisate 1994: 162. or., 29-30 lerr.

¹⁷ OGPA, C, 5, 1, 13 eta 17. Agirion aurkikuntza ere Jerardo Elortzari zor diogu.

¹⁸ OGPA, C, 5, 1, 13 eta 17. Halaber, RMn.

*koitiko Zalduntxo*en eraginez, hiru Herrialdeetako Foru-Diputazioen diru-laguntza garrantzitsuak jasotzen hasi zen (1 500 erreale Herrialde bakoitzeko). Zuzenbide eta Lege saileko hainbat katedra sortu ziren. Goren graduak emateko eskubi-dea erdietsi zuen. Irakasle lizentziatuok osatzen zuten klaustroa: Domingo Ibarrola errektoreak, Juan Frantzisko Inurriagarrok, Mateo Jose Areizagak, Jose Antonio Agirrek, Frantzisko Antonio Lizarrak, Tomas Saratxagak, Tomas Zaballak eta herriko eskribau eta Unibertsitateko idazkari zen Frantzisko Xabier Urtazak (EGIPVko DEV XXXIV 1992: 143-144 orr.).

Aldi hartan, Jose Felixek, Zerainen bizi zelarik, 1777ko maiatzaren 25ean herri honetako hutsik aurkitzen zen kaperautza Irigoien gotzainari eskatu eta bereganatu zuen. Kaperautza hau Tolosako Manuel Fernando Lapasa Barrenetxea Castanarrek aspaldi sortua zen eta Zeraingo Jauregiko Maria Josefa Zarautz Ganboa andereak 1 400 dukateko fondoa ezarririk zuen. Fondoaren etekinak, aurrerantzean, ama Jauregi oinetxekoa izan zuen Jose Felixek jaso eta gozatu zituen¹⁹.

2.3. Zaragozan, ikasle, irakasle eta apaiz: Oñatitik Zaragozara joan zen. Hango Unibertsitatean, 1777-1781 bitartean, Kanon Sakratuetan Batxiler gradua eskuratu zuen: “...Que haviendo estudiado y ganado en la Real Universidad de Zaragoza tres cursos de Canones, y haviendo defendido un acto publico en esta facultad se graduo de Bachiller en Canones en la misma Universidad. Que por nombramiento del Claustro de ella mantubo repaso publico a crecido numero de estudiantes en la facultad de Canones con grande celo y suma aplicacion de sus Discipulos. Que presidio unas conclusiones de Canones y otras de Leies en la referida Universidad de Zaragoza”²⁰. RMn ere berdin. Ikasle eta irakasle ere bai, beraz.

Zaragozan bizi izan zen bitartean, 1778ko azaroaren 13an Ordiziako kaperautza bat eskuratu zuen. Kaperautza hau Martin Alkainek sortua zen²¹. Espedientean adierazten denez, Amundarain Zerainen bizi zen eta Legeetan Batxiler eta *akolito* (apaizgintzarako 2. pausoko lau ordena txiki-txiki bat) zen²².

1780an, berriro, Martin Alkainek Ordizian sortutako beste kaperautza bat bereganatu zuen, aurrekoa eta oraingo berria batuz. Honela, hogeita bost urterako, Goierriko hiru kaperautzaren jabe azaltzen zaigu zegamar-zeraindarra. Espedientean ordena txikidun dela adierazten da²³.

Iruñeko apezpiku Agustin Lezo Palomequek (jatorriz Pasai Donibanekoa eta geroxeago Zaragozako artzapezpiku izango zenak) emandako *baimenen* bidez,

¹⁹ TGAO, PT, 3025. sorta, 201-202 orr.

²⁰ OGPA, C, 5, 1, 17. Halaber, gure 1. Eranskina.

²¹ Aranburu, eta beste batzuk 1995: 23. or., 15-19 lerr.: “Martin Alkainek (Jose Ignazio Gerrikoren herenamonaren anaiak) XVII. mendearen erdialdera Mutiloan sortutako *kaperautza kolatiboa* hutsik geratzean, 1766ko maiatzaren 22an, beharrezko agiriak aurkeztu eta genealogi zuhaitza frogaturik, Gerrikoren eskuetara pasatzen da (IAA, 2015. k., 6. zk., 22-23 orr.)”. Gerrikoren bizitzan azaltzen zaigun Martin Alkain hau eta Amundarainekoa pertsona bera ote da? Ahaideak?

²² IAA, 2308. k., 10. zk. Halaber, Ibisate 1994: 161-162 orr.

²³ IAA, 2322. k., 3. zk. Halaber, Ibisate 1994: 162. or., 30-34 lerr.

Zaragozako artzapezpikuak, 1780ko abenduaren 9an, subdiakono (*Epistola irakurle*) egin zuen; 1781eko otsailaren 3an diakono (*Ebanjelio irakurle*) eta, azkenik, 1781eko martxoaren 21ean egin zen apaiz gure Jose Felix Amundarain, 25 urteko unibertsitario ibiltaria, bere herritik urruti²⁴.

2.4. Valladolid eta Madrilen: Zaragozan ikasketak bukatu, apaiz egin eta, oraingoan, Gaztelarantz abiatu zitzaigun gure apaiz berria, ikasten lau urte gehiago emateko asmoz (1781-1784). Valladolideko Unibertsitatean Zaragozan Kanon Sakratuetan ateratako Batxiler gradua errebalidatu zuen: "...Que en la Real Universidad de Valladolid revalido el Grado de Bachiller en Canones recibido en la de Zaragoza habiendo para el efecto sufrido el acostumbrado examen. Que en dicha Universidad gano un Curso de Canones, y en el Gimnasio de Canones a que asistio con toda puntualidad y aprovechamiento durante un curso practico en los ejercicios que siguen: En 22 de Noviembre de 1781 ascendio al asiento de classicos nemine discrepante ...En 13 de Diciembre del mismo año defendio ...En 6 de Febrero de 1782 defendio ...En 22 de Febrero del mismo año ...En 23 de Marzo del mismo año defendio ...En 20 de Abril del mismo año arguio ...Que el día 21 de Febrero ...Que en dicha Universidad de Valladolid incorpore el Grado de Bachiller en Canones recibido en la de Zaragoza habiendo sufrido el acostumbrado examen".

Eta segidan: "Que igualmente incorpore en la Real Universidad de esta Villa (Oñatin) el mismo Grado precedido el correspondiente examen. Que se halla graduado de Licenciado y Doctor en Sagrados Canones en esta dicha Universidad habiendo tenido para ello el examen y demas ejercicios literarios".

Halaber: "Que como Doctor é Individuo del Claustro de esta referida Universidad ha concurrido y concurre a examen y censura de Grados mayores arguyendo todas las veces que le toca su turno..."²⁵.

Honela, bada, 1782. urtean eta Oñatiko Unibertsitatean egin zen Amundarain Kanon Sakratuetako Lizentziatu eta Doktore. Gainera, graduok erdiestean, Unibertsitateko klaustrokide egin zen eta aztertzaile. Gerora, 1784tik aurrera, jarraitu ote zuen langintza honetan, Goierritik Oñatira joanez?

Valladolideko San Lorentzo parrokian apaiz-lanetan ihardun zuen bi urtez, RMn aipatzen den legez. 1783an bere lehengusu Jose Manuel Gerriko, bi urte gazteagoa, Valladoliden zebilen Lege-ikasketak burutzen. Hiriburu honetan apaiztu zen. Ikasketa garaiotan, geroago bezala, elkarrekin harreman handia izango zuten, seguru asko.

Eta ondoren Madrila: "Por espacio de otros dos años fué Académico de la Real Academia de Sagrados Cánones, Liturgia, Historia y Disciplina Eclesiástica de España con la advocación de San Isidoro, sita en la Real Casa-Oratorio de San Felipe Neri de esta Corte (Madrilen, alegia)...". Hor azaldu eta defendatu zituen gaien zerrenda luze eta zehatza eskaintzen zaigu RMn.

²⁴ IAA, Libro Matrículas de Lezo y Palomeque, 17, 29 eta 37 orr.

²⁵ OGPA, C, 5, 1, 17. Halaber, RMn.

Madriilen ere apaiz izan zen, San Ildenfontso abadian.

Bestalde, 1783an “Hizo oposición á la Prebenda Doctoral de la Real Colegiata de San Ildenfonso en el año de mil setecientos ochenta y tres, cuyos ejercicios se le aprobaron por el Cabildo de ella *nemine discrepante...*”. Eta segidan Zegaman apaiz azaltzen zaigu: “...y desde el año de mil setecientos ochenta y cuatro hasta el presente (1790-09-22 arte) en la Parroquial de la Villa de Cegama su patria”. Horrela adierazten da RMn. Beraz, Madrilgo aipatu elizako kalonje doktoral izateko oposizioak gainditu zituen, baina etxera itzuli zen. Zergatik? Oposizioak gainditu arren, ez zuelako prebenda edo postua lortu, agian? Eta, gainera, Zegamara, ez Zeraina. Zergatik?

Gaztelako egonaldi bitartean, Amundarainek bere ondasunak kudeatzeko Jose Muxika, Zeraingo aitona eta Manuel Muxika aitapontekoa izendatu zituen, 1782-10-15ean notario aurrean egindako botere-emate bidez²⁶. Ez zen aitaz oroitut. Zergatik?

2.5. 1784-1791: Mutiloko bikario izan aurreko zazpi urteok Zegaman eman bide zituen apaiz. Horrela dio berak. Baita Fausto Arozenak eta Ignazio Iparragirrek ere²⁷.

Baina aita Bartolome Antoniok 1785-09-09an Ordizian kokatzen digu bere semea: “...De dicho matrimonio con la referida Theresa de Muxica tubimos por nuestros hijos al Dr. Dn. Joseph Feliz de Amundarain Presbitero Capellan y vecino de la villa de Villafranca...”²⁸. Izan ere, Ordizian kaperautza bikoitzaren jabe zen Jose Felix. 1791n, Mutiloko bikario izateko utzi zion kaperautzari²⁹.

Garai honetan, Ordiziako bikarioak bere eskumeneko apaizak *aztertu* eta Iruñeko apezpikuari txosten bat bidali zion. Hona bikarioak Jose Felix Amundarain kaperauari buruz dioena: “Dn. Joseph Felix Amundarain, Confesor. Es Doctor: Tal vez será corto; es asistente y sin nota en conducta”³⁰. Zer esan nahi ote du *tal vez será corto* esaldiak? Ikasketetan motel samarra zela!!! Eta *sin nota en conducta*: Moral aldetik portaera oneko apaiza zela? (Gure lanaren lehen parte honen

²⁶ TGAO, PT, IPT, 3030. sorta, 433-434 orr.

²⁷ DEV I, 650. orko Fausto Arozenaren artikulua. Eta Iparraguirre 1975: 59. or., Arozenarena errepikatuz: “Amundarain, José Félix de. Después de haber hecho oposiciones a diversas prebendas eclesiásticas, se retiró a su pueblo natal (Zegamara), donde ejerció la cura de almas, dejando testimonio de una bondad extraordinaria”. Eta gehitzen du: “Era el padre de todos, sobre todo de los pobres”.

²⁸ OGPA I, 4152. sorta, 2234. or., atz., 12-16 lerr.

²⁹ IAA, Libro 14 del Registro de Títulos, 71. or. Hutsuneak adjudikazio-espeditu berria irekiarazi zuen 1792an (IAA, 2576. k., 15. zk.). Ordiziako kaperautza hutsa Jose Manuel Zumalakarregi, Zumalakarregitar ospetsuen anaia eta Amundarain hiltzean, Mutiloko bikarriotza lortu zuenak irabazi zuen 1826-06-27an (IAA, Libro 76 del Registro de Títulos, 178. or.). Halaber, Ibisate 1994: 162-163 orr. eta 5. eta 6. ohar.

³⁰ IAA, “Lista de los eclesiásticos de diferentes Pueblos de este Obispado con nota sobre su ciencia y costumbres. Pamplona y enero de 1796”, 394. k., 1. zk., 35. or., atz. Halaber, Ibisate 1994: 161. or., 15-22 lerr.

amaiera aldera egingo dugu *iruzkintxo* bat moral-kontu honetaz). Agiria datatu gabe badago ere, gure ustez, 1784az gerokoa da: Apaiz (*Confesor*) (1781) eta Doktore (1782) dela esateaz gain, *es asistente* ere badio: Ordiziako kaperau legez, parrokiako apaiz laguntzaile zela, alegia.

Bestalde, beren etxean jaso zuten aiton-amonez eta bertako kaperautzaz ere ez zen ahaztuko, ziurrenik.

Gure ustez, 1784-1791 urte bitarte ilun honetan gure Jose Felix apaiza eta Kanon Sakratuetan doktorea alde batetik bestera ibili zitzaigun: Zegaman, Ordizian, Zerainen..., egoitza finko iraunkorrik gabe, aurreko urte luzeetan bezalatsu.

2.6. Relación de los Méritos...: Amundarainek 1790eko irailaren 22an ordurarteko bere ikasketa, unibertsitateko irakaskuntza eta apaizgintza-lanen *curriculum* luze eta zehatza eskuratu zuen: “Relación de los Méritos, Grados y Ejercicios Literarios...”. Orijinala Madrilen kontserbatzen omen da. Ikus oso-osea gure lan honen 1. Eranskinean. Zertarako ote zuen? Mutiloko bikarioria lortzeko? Oposizio edo postu berriren baterako? Sei hilabete lehenago, martxoaren 13an, Iruñeko Apezpikutegiko Bikario Nagusiak egindako *portaera oneko ziurtagiria* ere jaso zuen.

2.7. Aita Bartolome, Urretxuko postari: Frantzisko Ibero arkitektoak aurkeztutako San Adriango posta-bide zaharraren berrikuntza baztertu egin zuten Elgoibarko 1737ko Batzar Nagusiek. 1770eko hamarkadan, arkitekto berak zuzenduta, Irun-Leintz errepidearen plan berria eraikitzen ari ziren, ordurarteko San Adrian goa zaharkitua, saihestua geratu zelarik³¹.

Bestalde, Floridablanca ministroak 1776an Espainiako Posta Zerbitzua berrantolatu eta eraberritu egin zuen: *Montepío de Correos* izeneko erakundea sortuz, egunkari eta aldizkarien posta-bidezko harpidetza eta banaketa ahalbidetuz...³².

Garai honetan, Jose Felixen aita Bartolomek, Zegamako San Adriango postariak, bera bizi zeneko Postaetxea eta gainerako ondasunak hipotekatu³³, jaioterrira utzi eta 1777an Urretxura aldegin zuen bizitzera eta lanera, Rosa Irimo bigarren emaztearekin, seme-alabak Zeraingo aiton-amonekin geratzen zirelarik.

Aurrez, Manuel A. Enderiz, Donostiako Estafetako administratzaile nagusiarekin zerbitzu berriaren lau urterako hitzarmena sinatu zuen 1777-11-03an. Hitzarmenaren arabera, Bartolome Amundarainek Ordiziatik Arrasateraino jendea, fardelak eta posta garraiatu behar zituen, astean behin gutxienez. Horretarako, postariak bere etxean bost zaldi gobernatu behar zituen, beti prest edukiz; zaldi-

³¹ Astiazarain 1995: 48, 74-75 orr.

³² Espasa Calpe 1907-1930: XV, 922-923 orr.

³³ OGPA, Zegama, H. 578: 43 eta 49 agirietan Bartolomeren ondasunen gaineko bi hipoteka ageri dira, data ezberdinetan eginak.

gidariak (*postiloiak*) jendearekikoa egiten ongi ikasia izan behar zuen ...Zerbitzuagatik 5 144 errealeko lan-saria jasoko zuen³⁴⁻³⁵.

Urretxuko postaritzaz-zerbitzuaren hitzarmena 1782-X-18an berritu zuten, Ordiziako Frantzisko I. Muxika notarioaren aurrean, aldaketaxoren batzuk ezarri: Bi zaldi gehiago eduki eta mantentzea; lansaria 7 201 errealerara jaso zitzaion...³⁶.

XVIII. mendeko azken hamarkadetan, bada, Urretxuko postari ageri zaigu Jose Felixen aita. Zenbait kexa ere sartu zituen garai honetan: Zumarragako Eizagako eta Bergara aldeko aldapetan (Azkarragan, egungo Deskargan?) arazo larriak izaten bide zituzten zaldiek...³⁷.

Soldata polita jaso arren, badirudi Bartolomeren egoera ekonomikoa nahikoa estua zela: Lehen emaztearekin izandako azken alabak, Maria Manuela Kontzepziornek, moja sartu nahi zuela eta dotea eskatu zionean, Jose Felix semeari laguntza eskatu beharrean gertatu zen: "...aunque deseo concurrir de mi parte á tan buena vocación, me hallo al presente con falta de caudales entre manos para concurrir a los muchos gastos que han de ocasionarse por el crecido dote que es necesario..."³⁸.

Semeak lagundu zion aitari, antza, baina Bartolomek, (ordainetan edo?), 1785-09-09an, bere gurasoek utzitako ondasunak eta horietatik eratorritako esku-bideak Jose Felixi transferitu zizkion, bigarren emaztearekin egindako ezkontza-hitzarmena eta testamentua aldatuz eta baldintzatuz³⁹.

Urte batzuk geroxeago, 1799-02-02an, Jose Felix Amundarainek, ordurako Mutiloko bikario, gurasoengandik jasotako ondasunak Maria Manuela Amundarain Otaegi lehengusinari utzi zizkion⁴⁰.

1800-05-08an, artean, bizi zen Bartolome, semeak senipartea jaso izanaren agiria egin baitzion aitari⁴¹.

³⁴ TGAO, PT, IPT, 3025. sorta, 472-475 orr.

³⁵ Koldo Argandonak, Urretxuko Udal-artxibozainak borondate su erakutsi digunez, Bartolome Amundarainen Postetxe hark oraindik zutik dirau, zerbait aldatuxea aurkitzen bada ere, Labeaga kaleko 8. zk.n. Zegamako Postaetxeak ere zutik dirau, herritik Otzaurterako bide ertzean.

³⁶ OGPA, 3030. sorta, 437-440 orr. Hitzarmen berria OGPA, Zegama, H, 578 Liburuan ere erregistratua azaltzen da.

³⁷ Astiazarain 1995: 123. or., 8-12 lerr.

³⁸ OGPA I, 4152. sorta, 225. or., atz., 14-19 lerr.

³⁹ OGPA I, 4152. sorta, 224-229 orr. Halaber, OGPA, Zegama, H, 578, 61. agiria.

⁴⁰ TGAO, PT, IPT, 2259. sorta, 386-392 orr. Halaber, OGPA, Zegama, H, 578. Maria Manuela Amundarain Otaegi, Jose Felixen lehengusina, Martin Jose Zumalakarregiren emaztea, (Zumalakarregitar ospetsuen koinata, beraz), Zegamako Mazkieran etxean bizi zen. Etxe honetan hil zen, agidanez, Tomas Zumalakarregi jeneral karlista ezaguna.

⁴¹ OGPA II, 2802. sorta, 129-132 orr.: Urretxuko notarioari erantzunez, Segurakoak egindako agiria.

3. MUTILOKO BIKARIO (1791-1825)

3.1. Iruñea, Oñati, Zaragoza, Valladolid eta Madrilgo Unibertsitateetan hamahiru urte luzez ikasten eta irakasten ibili eta hainbat titulu eta gradu eskuratu ostean, bere jaioterrira erretiratu zen gure Jose Felix Amundarain. Mutiloko elizako arduradunak proposaturik, bertako zaindari edo patroiak, Valmedianoko markesak, hots, Lazkaoko jaunak aurkeztu⁴² eta Iruñeko Esteban Antonio Aguado Rojas

⁴² Elizaren Zuzenbide Kanoniko zaharreen, eliza baten fundatzaileek eta oinordekoek zenbait betebeharrak eta eskubide (*hamarrene* zati bat jasotzea, etab.) zuten. *Patronatu* deitu sistema honetan, elizaren *patroi* edo zaindariaren eskubideetako bat bere ardurapeko elizako postuetarako apezpikuari gizon egokiak *aurkezteko* zen. Horretarako, hautagaiak, Amundarainen kasuan bezala, bere eskaera egin ohi zuen (*Relación de los Méritos... horretarako prestatua izan ote zen?*).

Larramendi 1969: 121-125 orr.: "En Guipúzcoa tienen jurisdicción dos señores obispos, y son de Calahorra y de Pamplona. Mejor fuera que Guipúzcoa tuviese su obispo y particular ... Los lugares que tocan al de Calahorra son solamente Eibar, Elgoibar, Vergara, Plasencia, Oñate, Elgueta, Arechabaleta, Escoriaza y Salinas y las anteiglesias de Léniz. Toda la marina y el resto de Guipúzcoa hasta Irún son del obispado de Pamplona. Ninguno de los obispos tiene diezmos ni parte de ellos en Guipúzcoa. El rey tiene aquí muchos patronatos de Iglesias ... y los va proveyendo en caballero benemérito por una, o por dos, o por tres, o cuatro vidas ... Hay otros patronatos diversos, que tienen caballeros particulares ... y en éstas los patronos son los que dan y nombran a los beneficios y curatos ... estos patronatos están obligados en conciencia a dar la congrua suficiente al cura y beneficiados y atender con decencia a las necesidades de la parroquia y del culto divino. En esto, en muchos de ellos, hay graves descuidos, pues desatendiendo a esta obligación y al fin santo por que se dan los diezmos, o los llevan todos, o dejan tan poca parte de ellos para los beneficiados, que murieran de hambre si la piedad de los pueblos no les franqueara de qué vivir, en entierros, honras y otras funciones. El patronato en otros muchos pueblos está incorporado en los mismos pueblos y sus vecinos, y en ellos se conserva la disciplina eclesiástica antigua en la provisión de beneficios y curatos, que se dan por votos de todos. Y aunque en la antigüedad en todos éstos se proveían de esta suerte, hoy no en todos se proveen así, porque viendo muchos de los pueblos que de este modo de votar los beneficios se originaban pleitos, odios y escándalos, convinieron en depositar su derecho de votar todos en pocos vecinos, que comúnmente son los cargohabientes y algún eclesiástico, y éstos votan y nombran a los beneficiados en nombre de todo el pueblo ... En ellos los beneficios son decentes, porque perciben los diezmos; pero en los que los patronos son este particular y el otro, son muy tenues, y muchos no son congrua suficiente por la avaricia de los patronos...". (1756 aldera idatzi zuen liburu hau Larramendik. Honelakoa ote zen Amundarainen garaiko Mutiloko egoera? 1789ko Plan benefizialaren aurretik hamarrene 3/4 Lazkaoko jaun patroiak eramaten zituen (IAA, 2498. k., 1. zk.). Planaren ostean, 4/10 (IAA, 2816. k., 15. zk.). Ikus 3.3. eta 3.4. puntuak).

Apezpikuaren Bikario Nagusiaren bidez, 1791ko maiatzaren 9an, aipatu herriko hutsik zegoen **bikario kargua** hartu zuen Amundarainek⁴³. Hogeita hamalau urtez, 1825ean hil zen arte, izan zen Goierriko herri txiki honetako bikario, denboraldi honetan guztian laguntzaile bakar Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga benefiziataru segurarra, “Cristau Doctrina guztiaren esplikacioaren sayaquera” liburu mardularen egilea izan zuelarik⁴⁴. Amundarain Mutilora iritsi aurretik, Gerriko bera (1790-07/12 bitartean) eta Juan Frantzisko Gorosabel (1791-01/04, lau hilabetez) izan ziren bikario ordezko.

Amundarain bikarioak eta Gerriko benefiziatuak elkarlan estu-estu zuzendu zuten Mutiloko eliza, bakoitzak bere karguari zegozkion eginkizunak betetz:

Sakramentu-liburuak (Bataio, Ezkontza eta Heriotza Agiriak) Amundarainek eraman zituen. Honela, lehen Bataio Agiria (1791-06-03koa) eta azkena (1825-10-31koa) bikarioak idatzi eta sinatuak ageri dira. Dena den, tarteka-marteka, Gerrikoren eskua ere azaltzen da Eliz Liburuotan. Adibidez, Amundarainek idatzitako zenbait Heriotza Agiriren ertzean Gerrikoren *Testó. Está definido* esaldia agertzen da. Hau da, herrian hildakoek testamentuan elizaren alde utzitako ondasunen *segimendua* egin zuen benefiziatuak, bikarioaren aginduz edo.

Herriko zentsu eta kaperautzen (mezak emateko edota elizkizun berezietarako baserriko ondasun eta fruituen gain ezartzen ziren *zorren*) gorabeherak ere benefiziatuak eraman zituen, zehatz eta zorrotz eraman ere. Adibidez, 1822-10-04an

Eta mende bat geroago, berdintsu: Gorosábel 1972: II. tomoa, 417-421, 513-514 orr.: “Los patronatos de las iglesias parroquiales de esta provincia ... son de tres clases: Unos pertenecen a la Corona Real, la cual, o bien conserva en sí esta regalía, o bien tiene hecha su merced a personas particulares, sea temporal o perpetuamente, en recompensa de algunos distinguidos servicios prestados al Estado. Hay quienes reúnen la calidad de diviseros, o sea de derecho hereditario, en las familias de ciertos caballeros desde tiempo inmemorial. Por último, otros corresponden a los respectivos pueblos representados en sus Ayuntamientos (Gipuzkoako gehienak) ... A los poseedores de semejante prerrogativa toca, por consiguiente, la provisión de las vicarías o rectorías, así como ... de los beneficios. Por la misma razón, la administración de los fondos de las fábricas de las iglesias parroquiales incumbe de derecho a los mismos patronos, pero esto no obsta para que en muchos pueblos esté delegado este cuidado a las Juntas compuestas por lo regular del Alcalde, cura párroco y el mayordomo de la iglesia (Mutiloan bezala) ... Patronos diviseros de diferentes iglesias son los caballeros ... El marqués de Valmediano, de las de Lazcano, Zumárraga, Ataun, Idiazábal, Mutiloa y Olaverriá, como poseedor de la casa solar de Lazcano ... En Guipúzcoa no hay más Clero que el parroquial, compuesto de los párrocos, llamados en unos pueblos con el nombre de curas y en otros con el de vicarios o rectores (Mutiloan, *bikario*), y de beneficiados, hoy coadjutores ... Como las iglesias de la provincia son del patronato, ya pertenezca éste al rey, a particulares o a pueblos, ha habido también diferencias en la forma de proveer los curatos y beneficios. Si el patronato ha radicado en un sólo individuo, la provisión se ha hecho por medio de una escritura de elección, que el interesado ha presentado en el Tribunal eclesiástico para su aprobación y obtener después la colación canónica” (Hauxe izan zen Mutiloko Amundarainen kasua).

⁴³ IAA, Libro 61 de Rexistros de Títulos de Esteban A. Aguado y Rojas, 1791, 30-31 orr.

Maiatzaren 21ean hartu zuen bikario-jabetza, Frantzisko Antonio Zumalakarregi, Mutiloko eskribauaren ziurtapenaz (SUA, E, 4, III/1-25). Frantzisko Antonio Zumalakarregitar ezagunen aita izan zen.

⁴⁴ Goierriko idazle klasiko honen bizitza eta obrari buruz, ikus Aranburu eta beste batzuk 1995.

parrokiako “Libro de Censos...” en ohar luzeak idatzi zituen Gerrikok. 1763-1819 bitarteko urteurrenetako meza guztien ziurtapenak Gerrikok egin zituen: Bikario-en sinadurak sarritan falta dira, baina Gerrikorena, hilabetez hilabete eta berrogeita hamasei urtez, inoiz ere ez! Amundarainek 1819an *Zentsu Liburu* berria hasi zuen, baina ez zuen ezer askorik idatzi bertan, 7. orrialdean amaitzen baita.

Elizako diru-kontuen ardua ere benefiziatuak izan zuen, 1815 arte behinik behin: “...las ultimas quantas de Fabrica -1815ekoak- dadas por mi...” dio Gerrikok bere testamentuan.

Garai hartan, herri guztietan bezala, baziren Mutiloan ere hiru bat kofradia edo kongregazio: *Aldareko Sakramentu txit Santuarena* (1771n Gerrikok sortua), *Jesusen Bihotzarena* (1747an Sebastian Mendiburuk -eta ez Agustin Kardaberazek, liburu batzuetan irakurri dugun bezala- sortua) eta *Errosariokoa*. Kofradia hauek bi apaizek zuzendu zituzten: Adibidez, *Errosarioko* kongregaziorako meza kantatuak Gerrikok ematen zituen, diru-kontuez Amundarain arduratzen zelarik⁴⁵.

3.2. *Plazagoen* bikario-etxea

Amundarain Mutilora iritsi zenean, elizaren inguruetan bizpahiru eraikin baino ez ziren: Juan Oria sakristau eta *maisua*rena, elizaren aurrean; Gerrikoren *Elizalde*, 1776tik aurrera jaso eta, agian, Udaletxea (udaletxe, ostatu eta kartzela zerbitzua egiten zuena). Bi arrebak moja joanak, aita Urretxun, non jarri ote zen bizitzen bikario berria? Benefiziatuaren etxean, senideren batenean, bere aurreko bikarioak bizi izan ohi ziren etxeren batean: non igaro ote zituen Jose Felixek Mutiloko bere lehen urteak? Zeraingo aiton-amona maitagarrien Jauregi ere oso hurbil zuen.

Dena den, Jose Felix Amundarainek berak eraiki zuen Mutiloko bikario-etxea, *Plazagoen*, XIX. mendearen lehen hamarkadan, urte batzuk lehenago Gerriko benefiziatuak berea eraiki zuen bezala: “...Item segun resulta de la declaracion echa por el mismo Dn. Juan Jose de Aizquibel en treinta de Enero de mil ochocientos y ocho de las obras executadas por el Carpintero y ensamblador Francisco de Mendia en la nueva Casa del difunto Dn. Amundarain...”⁴⁶. Amundarainek eraikitako apaiz-etxea, izenak berak adierazten duen bezala, plazaren goialdean dago, oraindik ere zutik eta bikain. Halere, Gerrikok ez bezala (honek bere poltsikotik ordaindu baitzuen berea), Amundarainek egundoko arazoak izan zituen *Plazagoen* ordaindu ahal izateko: Elizako dirua erabili zuen horretarako eta hil zenean, Frantzisko Mendia etxegilearekiko zorrak kitatzeke zituen artean, testamentuan agertzen denez (ikus geroago).

⁴⁵ Aranburu eta beste batzuk 1995: 22-37 orr. Halaber, DEHAN Mutiloko Elizako Liburuak: Sakramentu Liburuak (adibidez, Gerrikoren aitaren Heriotza Agiria Amundarainek egin zuen); Zentsu Liburuak (lehena, Gerrikok egina eta Amundarainek bukatua; bigarrena, Amundarainek hasia, baina bertan behera utzia); Kofradietako Liburuak ... Bikarioaren eta Benefiziatuaren, bien eskuak ageri dira Liburu guztietan.

⁴⁶ TGAO, PT, IPT, 2487. sorta, 285. or.

Orduko ohiturak izaki, bi neskame izan zituen Jose Felixek: Maria Migel Telleria, etxeoandre-lanetarako (*ama de llaves*) eta Josefa Antonia Esnaola, enkar-guak egiteko, etab. Testamentuan hirugarren bat ere azaltzen da: Josefa Arrieta, bikarioak hil aurreko erialdian ondoan zaindari izan zuena. Morroiren bat ere izango zuen, ziurrenik, segidan aipatuko dugun *Plan Benefizialean* xedatzen zen legez, bikarioak *Azken Igurtzia* ematera urrutiko baserrietara joan ahal izateko bere kontura eduki behar zituen zaldiak gobernatzeko eta. Apaizek etxean bi zerbitzari izateko ohitura oso hedatua eta bakoitzari zegokiona zehatz arautua zegoen garai haietan⁴⁷⁻⁴⁸.

3.3. ‘Plan Benefizial’^a

XVIII. mendearen azken herenean, Iruñeko Elizbarrutiko bazter askotan ordurarteko Elizaren egitura eta antolamendu orokorraren berrikuntzari ekin zitzaion. Mutiloan ere burutu zen *Plan Benefizial* hau, 1771-1789 bitartean. Plan honek Mutiloko elizarekin nolabaiteko lotura zuten guztien (Iruñeko Gotzaitegiaren, elizaren patroik edo zaindari zen Lazkaoko jaunaren, elizaren arduradunen, hots, Mutiloko Udalaren, bikarioaren eta benefiziatuaren) interesak, eskubideak eta betebeharrak aztertu, eztabaidatu eta zehatz-mehatz zedarritu ziren. Honela, Mutiloko herrirako bi apaiz nahikoa zirela, hamarrenak nola banatuko ziren, etab., etab. xedatu zen. Hona segidan Planeko xedapen batzuk:

“...Declaran que en virtud de este arreglo, y combenio, desisten, y se apartan ambos Cabildos Ecclesiastico y secular de esta Villa, de todas las pretensiones de aumento de congruas que pudiesen tener con motivo del Plan Beneficial ... y prometen no continuar de su parte el expediente de este asunto en tiempo alguno por quedar suficientemente dotados a toda su satisfaccion, asi el Bicario, como el Beneficiado, y ser suficientes, y bastantes los dos para suministrar abundantemente el pasto espiritual a esta feligresia ... han acordado y convenido en que el actual Beneficiado, y sus sucesores tengan obligacion de ser confesores, con aplicacion y exercicio, y de servir y desempeñar personalmente las cargas y obligaciones del Beneficio, residiendo para ello en esta Villa; y quando por falta de edad, por ocupaciones de estudios, ó por otro motivo justo no puedan servirlo por si mismos, tengan obligacion de poner sirviente idoneo que sea confesor; y Predicador ... han convenido todos los sobredichos otorgantes en que el actual Beneficiado y sus sucesores tengan obligacion de explicar catequisticamente la doctrina christiana al tiempo de la Misa Maitinal los Domingos y días solemnes de precepto entero de oír Misa exceptuandose los días cortos de Imbierno, y los muy ocupados en el confesonario sin que por ello pueda eximirse el Vicario

⁴⁷ TGAO, PT, IPT, 2486. sorta, 525. or., atz., 5-12 lerr.

⁴⁸ Aranburu 1995: 4. Eranskina.

de la obligacion que tiene de explicar la doctrina á sus Feligreses durante la Misa mayor en los Domingos y dias festivos ... han convenido todos los otorgantes en que el actual Beneficiado, y sus sucesores, tengan obligacion de ayudar al Vicario en el desempeño de sus Ministerios, haciendo sus veces en las indisposiciones de corta duracion que padeciese, y en las justas ausencias que haga de uno ú otro dia, y quando estubiese dicho Vicario ocupado en la asistencia de uno ó mas enfermos ocurra urgente necesidad de acudir a la administracion de Sacramentos ó agonizacion de otro tenga el Beneficiado obligacion de acudir a ello dandole siempre el Vicario una Cavalleria si el tiempo ó la urgencia lo permita; pero en los demas casos fuera de los explicados, es de obligacion privativa del Vicario cumplir todas las cargas de la Cura de Almas por si ú por medio de interino puesto á sus expensas ... han acordado y convenido en que los actuales Vicario y Beneficiado, y todos sus sucesores ademas de las obligaciones particulares de cada uno ... han de tener en comun los dos, la de cantar despues de las diez, y aplicar Pro populo alternativamente por mitad, las Misas mayores de todos los Domingos, y Fiestas del año en que el Pueblo tiene obligacion de oír; la de cantar tambien Pro populo las dos Misas mayores precedidas de un Noturno cantado en los dias de la Conmemoracion general de Animas, y de la particular de esta Villa: La de celebrar la Misa de los difuntos con la misma alternativa todos los Lunes del año: La de asistir en esta Iglesia á Vísperas en todos los Domingos y dias festivos, cantandolas los dias muy solemnes, y rezandolas los menos solemnes; La de cantar la Salve en todos los Sabados del año, y en las visperas de las cinco festividades de Maria Santissima ...”⁴⁹.

Planaren arabera, bada, bikarioak eta benefiziatuak zehazki xedatuak eta mugatuak zituzten beren eliz lanak, beren apaiz-betebeharrak⁵⁰.

⁴⁹ IAA, 2498. k., 1. zk., 189-191 orr. Hauxe dio espedientearen fitxak: “Mutiloa (1789) Expediente de formación del Plan benefical de la parroquial de Mutiloa, servida hasta ahora por un vicario y un beneficiado. Su patrono es el Sr. Marqués de Valmediano, quien percibe tres cuartas partes de los diezmos. Se nombra juez comisionado a D. Juan Antonio de Arizti, beneficiado de Gaviria, quien procede a la formación del proceso instructivo. El año 1788, el patrono, cabildo eclesiástico y concejo, otorgan una escritura de concordia que quedará integrada en el Plan benefical sancionado por su Majestad. Contiene el proceso instructivo (1771-73), concordias antiguas (1510, 1636, 1776); concordia de 1788; Real Cédula conteniendo y aprobando el Plan benefical. 201 fols. Irisarri”.

⁵⁰ Batzar Nagusiak aspalditik ari ziren Elizaren antolamenduaren berrikuntza eskatzen. 1780tik aurrera Gipuzkoako herri gehienetan burutu zen *Plan Benefizial* delako hau: “...cada pueblo arregló el plan benefical de su iglesia parroquial ... De aquí resultó su gran variedad ... dichos planes beneficales, aunque mejoraron algún tanto el servicio interior de las iglesias parroquiales, no llegaron a hacer las reformas que la provincia había indicado en sus Juntas Generales (1678, 1707, 1750, 1779an..., besteak beste), siendo apoyados por el mismo Clero ... Parece que en lo antiguo los beneficiados de las iglesias de esta provincia no tenían obligación de ser confesores, por conside-

3.4. Apaizen mantenu edo kongrua egokia

Gerra-garaiak ziren: Karlos IV.aren errege-aldian 1789ko Frantziako Iraultza burges liberal eta errepublikazaleak Espainiako indar atzerakoen mesfidantza sorrarazi zuen eta, ordurarteko Luis XVI. arekiko aliantza monarkikoa etenik, auzotarren aurka ekin zioten, oraingoan Ingalaterrarekin elkaturik. 1793an Espainia-Frantzia arteko gerra, *Konbentziokoa* deitua, piztu zen. Gudaroste frantziarrak, Bidasoan barrena, Gipuzkoan sartu ziren, Hondarribia, Pasaia, Donostia, Tolosa, Bilbo, Gasteiz ... bereganatuz. Gipuzkoako burgesia, errege Borboien jokabide politiko eta legeria zentralistarekin haserre, *Konbentzio* errepublikazalearen alde jarri zen. Itun bat ere prestatu zen, frantsesek gure Herrialdeko ohitura eta legeak eta erlijio katolikoa errespetatuko zituztela aginduz. Itun honen pean, *Gipuzkoako Errepublika* sortzea ere pentsatu zen. Bizkaiko burgesia ere, Donostiakoa bezala, frantsesen alde zegoen, Batzarrak erregearen aldeko samar azaldu baziren ere. Herriak ere ez zuen gogo handiegirik azaldu frantsesen aurka borrokatzeko (Ikus geroago Amundarainen frantsesei buruzko pentsaera). Baina, *Konbentzioaren* inguruan *Euskal Errepublika* zertzeko zorian zegoelarik, 1795-07-22an *Basileako Bakea* izenpetu zen, gauzak gerra aurretik bezalaxe geratu zirelarik. Euskaldunei ez zitzaienta zigorrik ezarriko agindu zuen errege espainiarrak, baina XIX. mendean hasieratik aurrera Herrialdeon aurkako jarrerak (legeak, zergak, etab.) areagotu egin ziren gobernu zentralaren aldetik. (Euskaldunon eskubide historikoen murizketak etengabeak izan ziren XIX. mende osoan zehar. Foruen aurkako erasoan azken ostikada gerra karlisten amaieran gauzatu zen, beraien erabateko deuseztapenarekin, hain zuzen ere).

1796-1805 urteetan Espainia, Frantziarekin bat eginik, Ingalaterra eta Portugalen aurka ibili zen gerran, tartean hainbat Hitzarmen eta Bake sinatu bazuten ere.

Eta gerretako gastu itzelak kitatzeko aitzakian zerga berriak sortu ziren Madrilen, eta hauen ordainketa zorrotz exigitu. Elizgizonak ere ez ziren *libratzen* zama hauetatik.

Besteak beste, 1800-08-03an Pio VII.a Aita Santuak Karlos IV.a erregeari *hamarrenen bederatzirena* izeneko zerga jaso ahal izateko eskubidea eman zion hamar urterako; apaizek jasotzen zituzten hamarrenen bederatziren bat erregearentzat izango zen aurrerantzean, alegia.

Idazteunean oinarriturik eta Elizaren Zuzenbide Kanoniko zaharraren arabera, elizgizonen mantenu edo kongruaren oinarria hamarrenak eta hasikinak ziren, hau da, lurraren emaitzen hamargarren zatia. Trentoko Kontzilioaz geroztik, apezpikuek xedatu ohi zuten elizgizonen kongrua. 1803-11-25ean 600 dukatean (6 600 errealean) jarri zuten.

considerarse, seguramente, semejante ministerio propio del cura párroco ... (Hauxe zen, hain zuzen ere, herritarren eskabideetako bat, konfesoaren premia gorria baitzegoen), ... pero en los planes beneficios establecidos en diferentes pueblos, fueron satisfaciendo en parte los deseos de éstos...” (Gorosabel 1972: 514-521 orr.).

Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko apaizak haserre bizian zebiltzan: batetik, zerga berriak zirela eta, bestetik, kongrua berria arras eskasa zelako. 1804-12-04an Tolosan bildu eta apaiz ordezkariak arazo larri hau luze-zabal eztabaidatu zuten⁵¹. Astebetara, Juan Bautista Agirre Diputatu Nagusiak Veremundo Arias Teixeira Iruñeko apezpikuari Gipuzkoako apaizek egoki bizi ahal izateko behar zuten diru-kopuruari buruzko idazki luze bat zuzendu zion: Idazkian arrazoitzen zenez, bikario bakoitzak, batez beste, 11 972 errealek behar zituen urtean, gutxien gutxienez, eta benefiziari batek 8 542 errealek. Alde ederra zegoen, bada, apezpikuek ezarritako kongruaren eta Agirrek, apaizen izenean, eskatzen zuenaren artean!⁵². Amundarainek ere, geroxeago ikusiko dugun bezala, hartu zuen parte bileran horretan.

Haatik, Mutiloko bi apaizek, beste apaizei aurrea hartuz, plan bat burutu zuten, beren egoera ekonomiko gorria zertxobait konpontzeko asmotan: Helburua Mutiloko hamarrenekin ez zirela kongrua egokira iristen eta Iruñeko apezpikuari aipatu zergaren ezinbesteko exentzioa eskatzea zen, zerga hori ordaindu beharrik ez izatea, libre geratzea, alegia.

Apezpikutegi aurreko izapidetzak burutzeko Iruñeko Bizente Graziari eman zioten boterea, Segurako Jose Antonio Gorrotxategi notarioak egindako hiru ziurtagiriren bidez:

Lehen bi agirietan (1804-06-11koetan) Gerrikoren benefizio-tituluko eta Plan benefizialeko apaiz bien eskubideak eta betebeharrak ziurtatu ziren. Amundarainek sinatuak daude agiri biok.

Hirugarrenean, eta garrantzitsuenean (1804-10-27koan), lau lagunek (Jose Manuel Gerriko apaizak, Isidro Igartzabal alkateak, Jose Lorentzo Telleria diruzainak eta sinatzen ez zekien laugarren batek) hilabeteetan burututako txosten luze baten ziurtapena egin zen. Batzorde berezi honek, elizako kontu-liburuak zehatz-mehatz azterturik, 1799-1803 bost urteetan Mutiloko parrokian jaso eta banatutako hamarrenen berri eman zuen.

Hamarrenen lau, aipatu Plan benefizialaren arabera, Lazkaoko jaunarentzat, elizaren patroiantzat, ziren⁵³; hiru bikarioarentzat eta bi benefiziatuarentzat. Azken hamarrena, berriz, erregearentzat⁵⁴.

⁵¹ DEHA, Korriedoak, A, 3, b, 59. espedientea.

⁵² Aranburu 1995: 4. Eranskina. (Txit interesantea garai hartako apaizen gastuak, elikadura, bizimodua ... ezagutzeko).

⁵³ Larramendi nahikoa kritikoa azaldu zen eliz patroien jauntxokeriazko jokabide honen kontra. Ikus 42 oin-oharra.

Halere, Amundarainek berak bere sermoi batean bero-bero defendatu zuen jauntxo patroien eskubide hau (ikus II.3.5).

⁵⁴ *Gracia de Excusado* edo *de la casa Excusada* deitu zerga edo eskubide hau antzina-antzinatik zetorren. Benedikto XIV.a Aita Santuak 1757an betiko eman zien eskubide hau Espainiako erregeei.

Hona bost urte horietan bildutako hamarrenen erdiaren (hots, bi apaizei zegokienaren) taula zehatza:

1799-1803 urteetan Amundarainek eta Gerrikok hamarrenetan jasotakoa:

	1799	1800	1801	1802	1803	Guztira
<i>Garia: anega, lakari</i> erreal: 33	65	68	68,7	67,8	92,3	361,2 11.817=8
<i>Artoa: anega, lakari</i> erreal: 22	80	78	95	100	42,8	395,8 6.401
<i>Baba: anega, lakari</i> erreal: 30	0,10	0,12				1,6 41=4
<i>Oloa: anega, lakari</i> erreal: 10	2,4	2	5,5	4,1	1,4	14,14 148=25
<i>Zekalea: anega, lakari</i> erreal: 20	5	6	16	3,12	25,10	56,10 1.232,1/2
<i>Lihoa: libra</i> erreal: 18	350	240	365	400	550	1.905 477=32
<i>Gaztaina: anega</i> erreal: 15	10	12	8	13	11	54 810
<i>Sagarra: anega</i> erreal: 8			128,1/3		110	238,1/3 1.906=22
<i>Sanjuanetakoa, erreal.</i>	50	55	125	58,8	50	338,8

Beraz, bost urte horietakoa guztira: 23 173,11 erreal. Bostena, hots, urtebete-koa: 4 634,22 erreal. Amundarain bikarioari zegokiona: 2 357,1 erreal (fruituen bilketa-gastuena: 423,11 erreal kenduta). Gerriko benefiziari zegokiona: 1 671 erreal (bilketa-gastuena: 282,22 erreal kenduta). Bistakoa den bezala, kopuru hauek ez ziren kongrua ofizialera hurbildu ere egiten!

1807-06-15ean lortu zuten Mutiloko apaiz biek aipatu zergaren exentzioa⁵⁵.

⁵⁵ IAA, 2816 k., 15. zk., Mutiloa, Exencion Noveno Decimal (1804-1816). Espedientearen fitxa: "Mutiloa (1804) D. José Félix de Amundarain y José Ignacio de Guerrico, vicario y beneficiado de la parroquia de Mutiloa, solicitan ser eximidos de pagar el noveno decimal, atendiendo a la incongruidad de sus rentas. Se les declara exentos. Tablas de repartos y tazmías, declaración jurada del vicario y testigos. 37 fols. Villar".

Hamarrenen taulak aparteko balioa du gure arbaso goieritarren nekazaritzako sistemaz eta produkzioaz idciatxoren bat bederen izateko.

Egia esan, hamarrenez gain, apaizek bazituzten beste diru-iturri batzuk ere: meza-diruak, kaperautzak, zentsuak, limosnak, etab. Gainera, Jose Felixek, bere lehengusu Jose Manuel Gerrikorekin batera, bazituen *akziotxo* batzuk ‘Banco Nacional de San Carlos’ en eta Filipinetako Konpainian, garai haietan hain ohiko zen legez⁵⁶.

3.5. Kongregazioko diputatu

Amundarainen garaian, Hego Euskal Herriko Eliza bi Barrutitan banatua zegoen: Iruñekoa, Nafarroa eta Gipuzkoa gehiena hartzen zuena, eta Kalagorrikoa, Araba, Bizkaia eta gure Herrialdearen mendebaldea, Leintz aldea, hartzen zuena. (Banaketa hau erromatarren garaiko euskal leinuen eremu geografikoaren arabekoa zen, gutxi gorabehera). Mutiloa, beraz, Iruñeko apezpikutegian sartzen zen.

Iruñeko apezpikutegi peko Gipuzkoa bi Artzapez Barrutitan banatzen zen: Artzapez Barruti Nagusiak Herrialde gehiena hartzen zuen eta *korriedo* edo bailaratan banatua zegoen. *Gaztañagako* korriedoa Urola Garaiko eta Goierri aldeko hamabi parrokiak osatzen zuten: Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio, Itsaso, Gaboria, Ormaiztegi, Astigarreta, Arriaran, Segurako Santa Engrazia (garai hartan Segurak bi parrokia zituen), Zerain eta Mutiloak. Artzapez Barrutiko apaizen ordezkariak, diputatuak, urtean bitan bildu ohi ziren Kongregazio edo Batzarrean, Tolosan eta Azpeitian, beren arazoak eztabaidatu eta konpontzeko. Diputatu Nagusi bat hautatzen zuten bileratik bilerara bitarteko auziak izapidetzeko, apaizen arteko koordinatzaile izateko eta Apezpikutegiarekiko harremanak bideratzeko⁵⁷. Amundarainen garaian Juan Bautista Agirre, Asteasuko erretorea, izan zen Diputatu Nagusi⁵⁸. Eta hau ezindu zenean, Jose Xabier Aierbe, Idiazabalgo bikarioa.

Gaztañagak bi ordezkari bidaltzen zituen Kongregaziora eta Amundarain sarritan izan zen lan horretarako hautatua:

1801-06-19an Tolosan.

1801-08-05eko Tolosako ez-ohiko batzarrean Zeraingo txosten bat aurkeztu zuen Amundarainek.

⁵⁶ OGPA II, 2798. sorta, 271-272 orr.: 1796-08-17an Madrilgo Jenaro Faustino Rinconi boterea eman zioten akzioen etekinak jasotzeko.

⁵⁷ “...El clero que pertenece al obispado de Pamplona está dividido en dos arciprestazgos, mayor y menor. El mayor comprende toda la marina, desde Motrico hasta San Sebastián inclusive, y desde Segura por una parte y por otra desde Legazpia hasta Astigarraga inclusive, que es lo más de la provincia. El menor comprende solamente a Fuenterrabia, Irún, Oyarzun, Pasaje de allende (Jaizkibel), Lezo, Rentería. El arciprestazgo mayor tiene su diputado general y secretario, que son nombrados en congregación plena por los congregantes junteros y poderhabientes de todos los cabildos eclesiásticos del arciprestazgo. El diputado es el que despacha en nombre del clero todo lo conducente a su buen gobierno ... Tiene junta o congregación regular todos los años, ya en Tolosa, ya en Azpeitia, y también congregaciones extraordinarias en otros lugares, según las necesidades que ocurren, más o menos urgentes. En ellas examinan sus dependencias, memoriales, pretensiones, quejas ... se reparten los gastos, se toman las cuentas, etc ... Este clero y su congregación la componen solamente los curas y beneficiados en propiedad...” (Larramendi 1969: 121-125 orr.). Halaber, Aranburu eta beste batzuk 1995: 45-46 orr.

⁵⁸ Euskal idazle klasiko handi honen bizitza eta lana ezagutu nahi izanez gero: Aranburu 1995.

Tolosan 1804-12-04ko batzarrean eztabaidatutako gaia apaizen kongrua edo mantenu egokiarena izan zen, aurreko puntuan ikusi dugun legez.

1805-07-09ko Tolosako bileran Gerrikoren “Cristau Doctrina...” aurkeztu zuten. Gaztañagatik Amundarain eta Itsasoko benefiziataua joan ziren. Apaizen batzarrek Jose Felix eta Jose Xabier Aierberi, Idiazabalgo bikarioari, Gerrikoren lana aztertzeko agindua eman zien: “...para que examinen la obra de Guerrico, y espongan en la próxima Congregación su dictamen...”.

Azpeitian 1806-06-26ko batzarrean Gerrikoren *Doctrinaren* aldeko epaia eman zuten Amundarainek eta Aierbek. Gaztañagaren izenean, Amundarainekin batera, Legazpiko bikarioa izan zen.

1816-07-17ko Tolosako batzarrean Amundarainek bere benefiziatuak egin-dako kudeaketak aipatu zituen, erregearenganaino jotzeko asmoa ere bazuela azpimarratuz.

Azpeitian 1824-05-05ean, hirurogeita bederatziz urterekin.

Amundarain, bada, gogoz saiatu zen bere benefiziatuaren obra argitaratzeko ahaleginetan. Esan dezagun, bestalde, aldi honetan Agirreren eta Otaegiren, Beizamako erretorearen, lanak argitaratzeko saio ugari egin zela⁵⁹.

3.6. Udalari eskutitza

Badu Amundarainek herriko Udalari 1803-01-05ean zuzendutako erdarazko eskutitz bitxi-bitxi bat⁶⁰. Eskutitza 2. Eranskinean eskaintzen dugu, baina hemen ere iruzkintxo bat edo beste egin nahi genuke:

Eskutitzean Mutiloko bikarioa bere herritarren arazoez kezkatua eta Udalaren erabakiekiko kritiko gogor azaldu zitzaigun:

Udalak erdi erorian zegoen Udaletxea konpontzeko asmoa omen zuen. Bikarioaren ustez, bazegoen herrian aurreragoko lanik: uholdeen ondorioz zeharo hondatuta zeuden herri-bideak konpontzea. Bideok nola konpondu behar ziren ere zehatz-mehatz azaldu zien herriko arduradunei.

Udaletxea konpontzeak egundoko gastuak ekarriko zituzkeen. Hobe berria egitea, ez baitzatekeen garestiago aterako. Gainera, kontuan izan behar zen Udaletxeko eraikinean bertan zeudela taberna-ostatua eta kartzela ere. Ez bata, ez bestea ez zen beharko zatekeen egoera egokian aurkitzen: Tabernariak kartzela erabili behar izaten zuen lastoa gordetzeko eta tabernazaleak zigarroa pizten lastategiaren inguruan batera-bestera ibili ohi zirenez, etxe osoak su hartzeko arrisku bizia zegoen.

Obra berriok nola ordaindu? Udaletxearen asmoari ez zeritzon oso egokia. Gainera, herri-sailak eta gaztainadiak enkantean jartzekotan, kontu handiz, zuhur

⁵⁹ DEHA, Korriedoak, A, 2, b, 22-28 eta A, 3, b, 56-64 espedienteak. Halaber, Aranburu eta beste batzuk 1995: 65-69 orr.

⁶⁰ OGPA II, 2805. sorta, 4-6 orr. Eskutitzean azaltzen diren arazo guztioi buruz luze-zabal ihardungo zuten herrian; Amundarain bera ere arituko zen herritarrekin eta agintariekin solasean eta eztabaidan, eta cuskaraz, jakina. Baina, gero, Udalari eskutitza erdaraz zuzendu zion: gure hizkuntzaren egoera diglosikoaren ezaugarri nabarmena!

jokatu behar zen, legeak xedatzen zuen prozedura osoa zehatz eta zorrotz betez. Hona hemen Amundarainek herri-agintariei proposatu zien diru-iturri interesgarri bat: azken aldi hartan asko antzean edaten zen pattarraren gaineko zerga berezia ezartzea!

Udalari zuzendutako idazki honetan gure Jose Felix legegizon, arkitekto, ekonomian eta finantzetan aditu ... azaltzen zaigu. Ez genuen kamutsa Mutiloko bikarioa, ez horratio!

3.7. Hilerria

Mutiloko hilerrri edo kanposantua Amundarainek eraiki zuen, obra-gastu gehienak Udalak ordaindu bazituen ere⁶¹. 1809 arte hildakoak, herri guztietan bezalaxe, eliza barruko zoruaren azpian, hilobietan, ehorzten ziren; hilerrri berria eta bertarako bidea egitean, ehorzketa-sistema aldatu egin zen ⁶².

Hiru urte lehenago, liburuxka bat idatzi zuen, erdaraz jakina: “Razon de las Sepulturas y sus dueños de la Parroquial de Mutiloa, en 1806”. Idazki honetan eliza barruko 62 hilobien kokapena, krokis eta guzti, eskaini zien herritarrei, hilobi bakoitzaren zenbakia, jabearen baserri-izena eta zenbait datu argigarri zehaztuz. Liburuxka berean 1800-1809 bitartean Mutiloan hildakoen zerrenda, data eta nor zein hilobitan ehortzia izan zen ere adierazi zizkigun. Ehorzketak kanposantu berrian egiten hastean, ondorengoek beren arbasoen hezurrek eliza barruan zein lekutan atseden hartu zuten gogoan izan zezaten balio zuen⁶³⁻⁶⁴.

3.8. Independentziako gerraren ondorioak

XVIII. mendearen azken hamarkadako eta XIX.aren lehen urteetako gerrate eta hauen ondorio latzei buruz zerbait esan dugu 3.4. atalean. Independentziako gerratik ere gorriak ikusi zituen gure Jose Felixek, beste hainbat eta hainbat elizgizon eta herritarrek bezalaxe: “...empezo para mi desgracia la tormenta sangrienta de las guerras mas tiranicas con un Enemigo sanguinario, que nada aborre-

⁶¹ DEHA, Mutiloko *Libro de Fábrica*, 272. or.tik aurrera. Elizak 1 200 erreál jarri zituen, igel-tseroen lana ordaintzeko eta.

⁶² Ehorzketak eliza barrutik kanpora aldaraztearen arrazoia osasun edo sanitate-kontua zen. Horretarako lege ugari eman zen Borboien garaian (1787-04-03koa, besteak beste). Kristau-herri xeheak, haatik, ohitura zaharretan tinko, ez zuen begi onetz ikusi berrikuntza eta urteak joan ziren pentsaeraz aldatu eta forma berrietara egokitzerako. Kristauak, animaliak bailiran, elizaren babesetik eta arbasoen hezurretatik urrun lurperatzea onartezina zen; eta egundokoak egin ziren zenbait herritan. Egoera goxatzeko, lurra sagaratzear gain, elizatxo eta kaperak eraiki ziren kanposantu berrian (Aranburu eta beste batzuk 1995: 34. or., 14. oharra).

⁶³ DEHA, Mutiloa, “Razón de las Sepulturas...”. Eliza barruan azken hobiratua Klara Usabiaga izan zen (1809-04-08an), eta hilerrri berrian lehen hobiratua Maria Ramona Garmendia (1809-05-09an).

⁶⁴ Amundarainen erdarazko liburuxka honek, balio erlijiosoaz gain, badu besterik ere: Bertan esaten zaigu XIX. mendearen haseran Mutiloan zenbat sendi bizi ziren, sendi bakoitza zein baserri-takoa zen, etab.

cia mas que las Iglesias, personas Eclesiasticas y Religiosas de ambos sexos...⁶⁵. Bere sermoietan ere nabarmena da frantsesen kontrako amorrua.

1809-04-20an Diputazioa, apaizen ordezkariak, Donostiako Udala eta Frantziako Kontsulatua bildurik, zerga-bilketa berria ezarri zen, gerrako gastuei aurre egin ahal izateko. Mutiloko apaizei 3 400 erreale ordaintzea exigitu zieten; horrela adierazi zien Juan Bautista Agirrek, Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu nagusiak 1809-04-22ko zirkularren bidez. Gerra amaitzean, zorrotz erantzun zuen Amundarainek, 3 400 erreale baino gehiago ere eman zuela Mutiloko elizak esanez. Honela justifikatu zituen ordainketak: 1812an Gaspar Jauregiren bitartez 1 360 erreale ordaindu zituen. 1813an Seguratik Diputaziora 855 erreale bidali zituen. Gainera, urte horretan bertan, Jose Bidaolaren bidez Zegamako ospitalera 855 eta 427 erreale bi txandatan. Urte berean hamar anega arto eta hamaika anega gari ere ordaindu zuen. Beraz, guztira 3 400 errealeko zerga ondotxo ordaindua zuten Mutiloko apaiz biek⁶⁶.

Gainera, eraso bortitzak nozitu zituen bere Plazagoen etxean: txikizioak, miaketa, lapurreta...: "...pues á los principios de la ultima guerra me forzaron la Puerta-ventana de mi quarto los Ladrones, entraron siete, y por espacio de hora y media me trageron por todos los rincones de la Casa preguntando por la trampa, ó escondrijo que tenia para guardar las cosas; y desengañados empezaron á robar quanto pudieron, á cuya razon me dio un destemple, y los dependientes les importunaban con que se llamase al facultativo, y apurados, habrieron la papelera, y encontrandose con tres libras de polbora, por desgracia las rollaron..."⁶⁷. Nortzuk ote ziren lapurrak? Pertsona arruntak, ala gudaroste frantsesekoak? Eta zertarako ote zuen Jose Felixek polbora?

Halaber, hirutan bahitua, arrastatua izan zen: "...y una de las tres beces que me arrestaron los Franceses tube que agradecer al Comandante de Plaza para evitar que me trasportasen á Francia..."⁶⁸. Urretxun eta Ordizian egon zen bahitua. Zergatik arrastatu ote zuten frantsesek? Inbaditzaileen aurka sermoietan-eta epe-lak botatzen zituelako edo? Gerriletan nahastua zebilelako ez behintzat, gure ustez.

Gerra ostean, 1814an, Mutiloko Udalera jo zuen bikarioak, bere pertsekuzio eta sufrimenduen aurrean laguntza eskatuz. Udalak txosten guztiz baikorra eskuratu zion: apaiz-jokabide bikaina, bi gerrateetan herria ez abandonatu izana, frantsesen aurka azaldu izana, etab. gorai patuz: "...que la conducta de dicho Señor Vicario en todo este tiempo que son cumplidos veinte y tres años, ha sido exerciendo la Cura de Almas, y demas funciones de Parroco, con continua residencia y sin intermision y entera satisfaccion en esta N. villa y todo su vecindario, sin que tampoco hubiese emigrado en alguna de las dos guerras ocurridas en su tiempo de Parroco con el Frances, ni menos huviese manifestado adesion al gobierno

⁶⁵ IAA, A, 25, 10. zk. Ikus gure 3. Eranskina.

⁶⁶ DEHA, Korriedoak, B, 3, c, "Correspondencia de varios Cabildos con el Colector General...".

⁶⁷ IAA, A, 25, 10. zk. Ikus 3. Eranskina.

⁶⁸ IAA, A, 25, 10. zk. Ikus 3. Eranskina.

intruso, y si mucho amor a la Religion, al Rey, y a la Patria, interesandose por lo mismo en ocasiones por la buena causa; por manera que por dos veces fue arrestado por la tropa Francesa, á las Guarniciones en Villafranca, y Villareal de esta Provincia de Guipuzcoa, habiendo sido rescatado en virtud de haverse interesado y presentado el sr. Alcalde que lo era de esta expresada villa, al Sr. Comandante de Plaza en Villareal: Y para los efectos que le combengan se le provea del testimonio que solicita...⁶⁹. *Portaera oneko ziurtagiri* honen arabera, Amundarain bitan izan zen frantsesek bahitua; bikarioak berak hirutan zioen. Bestalde, Jose Felix erregezale eta frantsesen etsai azaldu zitzaigun, baita apaiz zintzo ere.

Herrian eta eskualdean ere estimatua genuen, bada, Mutiloko bikarioa: Familia arteko bakeak egiteko sarritan izan zen aukeratua⁷⁰, eskriturak prestatzen lagundu zien herritarrei, lehenago Gerrikok egin zuen bezala, etab.⁷¹.

3.9. 1819ko gotzain-bisitaldia

Aurrena, aipa ditzagun Amundarainen garaiko Iruñeko gotzainak: Gaspar Miranda Argaiz (1742-1767). Juan Lorentzo Irigoien Dutari (1768-1778): *Prima tonsura* hartu zuen. Agustin Lezo Palomeque (1779-1783): Gotzain honekin egin zen apaiz. Esteban Antonio Aguado Rojas (1785-1795): Honek egin zuen Mutiloko bikario. Lorentzo Igual Soria (1795-1803). Beremundo Arias Teixeira (1804-1814): Amundarainek eta Gerriko benefiziatuak *hamarrenen bederatzirenaren exentzia* eskatu zioten. Eta Joakin Xabier Uriz Lasaga (1815-1829)⁷².

Uriz Lasaga apezpikuaren ordezkariak 1819-05-04an Segurara egin zuen artzain-bisitaldian (herri honetara joaten baitziren Mutiloko apaizak ere), Amundarain bere parrokiako diru-kontuak argitu ahal izateko arazo larriekin aurkitu zen.

Jose Felixek Sakramentu Liburuak zuzen eta zehatz eraman bazituen ere, ez zen horrelakorik gertatu *Cuentas de Fábrica* edo diru-kontuekin. Gerrikok 1792-06-17an zehatz-mehatz aurkeztu zizkion ordurarteko kontuak bikario berriari. Bikarioak agiria onetsi eta bere sinadura ezarri zuen. Orri berean 27 urte geroago izandako bisitaldi pastoraleko oharra azaltzen da, Seguran 1819-05-04an sinatua. Hogeita zazpi urtez aski baztertuak, erabat abandonatuak ez esatearren, eduki zituen, beraz, parrokiako diru-kontuei buruzko paperak eta agiriak. Kontuok argi-

⁶⁹ SUA, E, 4, III/1-25. Udalaren agiria 1814-10-12koa da: Jose Antonio Gorrotxategi notarioaren aurrean, Martin Murgiondo alkatea, Isidro Igartzabal errejidorea, Migel Aszentsio Bidaola sindikoa, Jose Antonio Muxika amankomuneko diputatua, Ignazio Murgiondo amankomuneko sindikoa eta Frantzisko Etxeberria, Jose Migel Apaolaza eta Jose Esteban Alustiza zinegotziak bildu ziren. Urretxu eta Ordiziako Udal Artxiboetan, saiatu arren, ez dugu bi gerrateotako agirien artean Jose Felixen bahiketei buruzko aipamenik aurkitu ahal izan.

⁷⁰ OGPA II, 2805. sorta, 106-108 orr.: Idiazabalgo Labat aita-semeen arteko istiluak konponzen ibili ziren Jose Felix eta Ormaiztegi Juan I. Muxika 1803-06-18an. OGPA II, 2835. sorta, 122-124 orr.: 1811-03-18an, Jose Felixek eta bere lehengusu Jose Manuel Gerrikok bi sendiren arteko liskarrak baretu zituzten.

⁷¹ TGAO, PT, IPT, 2488. sorta, 287. or.: 1819-02-06an Txintxurreta notarioaren eskritur lanetan.

⁷² Ikus Goñi Gaztambide José 1991: VII-IX tomoak.

tzeko, Iruñeko bisitariak batzorde bat izendatu zuen: Idiazabalgo Jose Xabier Aierbe bikarioa, Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu nagusia; Ze-raingo Jose Manuel Gerriko lehengusua eta zegamar bat. Batzordeak oso epe la-burrean burutu behar izan zuen bere egitekoa, baina, itxura guztien arabera, ez zen kontu luze eta ilun horien korapiloa askatzeko gauza izan.

Halere, gotzainaren bisitaldiaz kezkatu edo, egun batzuk lehenago Amun-darainek eskutitza bidali zuen Iruñera. Bertan bere jokabide *susmagarria* nolabait zuritzen ahalegindu zen, egoera ekonomiko txit gorrian zegoela, etab. adieraziz. Antonio Labairu, gotzainaren idazkariak maiatzaren 3an, bisitaldia amaitu bezpe-ran, zorrotz hartu zuen eta kontuak agudo argitzeko exigitu. Jose Felixek, haatik, berean jarraitu zuen hil arteraino. Geroxeago ikusiko dugun bezala, Amundarain hil eta hurrengo urtean argitu ahal izan ziren, azkenik, Mutiloko elizako kontuak⁷³.

3.10. Azken urteak

1820an *Jaquin-bide Iritarautia*, 1812ko Konstituzioa, eskoletan irakasteko Doktrina Politikoa itzuli zuen euskarara. 1824 aldera idatzi zituen bere sermoiak, argitaratzeko asmoz edo.

J.I. Gerrikok 1821-02-23ko bere testamentuan albazea ezarri zuen. Gainera, testamentu osteko eranskina (*Memoriala*) egiten lagundu zion: “Por encargo espe-cial de ... Guerrico ... inserto en este papel, ó memorial los siguientes capítulos ... que así declara; y firmará (Gerrikok) en caso de posibilidad, y en defecto quiere lo haga yo (Jose Felixek)...”. Testamentuaren eranskin horretan bertan esaten du Gerrikok: “...Amondarain celebra por mi la mitad de todas las Misas Populares (Meza Nagusiak), que son de mi obligacion, é yo celebro por el Vicario otras tan-tas Misas rezadas de su Capellania del Oratorio. Y por el favor grande que me ha-ce...” Errosarioko Kofradiak enkargaturiko meza kantatuengatik kobratzeko dau-kana bere bikarioari uzten dio⁷⁴. Gerrikoren testamentuaren arabera, Amundarai-nek bazuen Mutiloan ere kaperautza bat.

3.11. Heriotza, testamentua

Jose Felix Amundarain Muxika 1825eko azaroaren 27an hil zen, goizeko 11etan, 70 urte zituela. Hurrengo egunean, goizeko 10etan, izan ziren herriko hi-lerrian lurra ematea eta San Migel parrokian hileta-elizkizunak⁷⁵.

⁷³ IAA, A, 25, 10. zk. Espedientearen fitxa: “Mutiloa (1819) El vicario expone las graves cala-midades bélicas que han ocurrido y que han desconcertado sus cuentas de administración de rentas primiciales. Se dirige al Sr. Obispo y hay contestación de éste.”. Ikus arazo honi buruzko guztia 3. Eranskinean.

⁷⁴ Aranburu eta beste batzuk 1995: 35-36 orr.

IAA, 2579. k., 9. zk.n eta 2879. k., 20. zk.n Mexikon bizi den Frantzisko Murgiondo mutilo-arak 1751n bere herrian sortutako kaperautza baten 1799 arteko historia jasotzen da. Bertan Fermin Murgiondo, Kasimiro Larrañaga, Jose Lorentzo Intsausti, Isidro Etxeberria, Jose Agustin Murgion-do, Rafael Jeronimo Larrañaga eta Manuel Usabiaga azaltzen dira nahastuak. Ez dugu Amundarai-nen kaperautzaren informaziorik aurkitu.

⁷⁵ DEHA, Mutiloko Hildakoan 1. Liburua (1747-1877), 135. or., aur.= A, 1, 7, 70. mf.

Denboralditxo batean, Jose Etxeberria, Arantzazuko fraideak bete zuen Mutiloko bikario-ordetza. 1826an Jose Manuel Zumalakarregik⁷⁶ hartu zuen herri honetako bikarioritza, 1883-01-01 arte. 1826-09-06an, herriko elizaren arduradunek 52 agiriren (fundazio, zentsu, ondasunen) berri zehatza eman zioten bikario berriari.

Hil baino ordu batzuk lehenago, Plazagoen etxeko ohean, egin zuen testamentua korrika eta presaka, sinatzeko ere astirik gabe. Plazagoen, etxearen egile izan zen Segurako Frantzisko Mendiaren Ramona alaba bakarrari utzi behar izan zion, artean etxegilearekiko zorrak erabat kitatzeko baitzituen: "...con la condicion de que Francisco de Mendia su Padre no pueda reclamar cosa alguna contra la herencia en razon a las cuentas que entre nosotros tenemos pendientes..."⁷⁷.

Plazagoenen bizitzen jarraitzeko eskubidea, etxeko tresneria eta Lazkaoko jaunarengandik jasoko zituen 100 dukat Maria Migel Telleria neskameari utzi zizkion, hileta-gastuak ere beronen kontu geratzen zirelarik (familiarik edo ez zuen seinale).

Azkenaldian erizain izan zuen Josefa Arrieta eta Josefa Antonia Esnaola, bigarren neskamea ere, gogoan izan zituen. Lehenari: "...Asi mismo mando se la de á Josefa de Arrieta que me asiste en esta mi indisposicion ... una cama dos veces vestida, y cuatro reales de vellon por cada dia que ocupe en dicha asistencia ..."

(Azkenaldi hartan gaixorik zebilen eta bat-batean, ustekabean hil bide zen gure Jose Felix). Josefa Antoniarri ere ohe bat eta bi ohe-arropaldi oso utzi zizkion⁷⁸.

Bere liburutegia Jose Manuel Esnarrizagari oparitu zion. Eta gainerako ondasun guztien oinordeko eta albacea Domingo Zumalakarregi⁷⁹ eta aipatu Jose Manuel ezarri zituen.

Dena den, ez ziren horrela amaitu testamentu-kontuak, Amundarainek, hil zenean, zor dexente utzi baitzuen. 1826-02-04an San Migel parrokiako inbentarioa egin zen: Eliza aski hornitua utzi zuten Gerriko benefiziatuak eta Amundarain bikarioak⁸⁰; Lierniako ermitarena ere egin zuten hiru aste lehenago, 1826-01-15ean⁸¹. 1826-05-18an, Segurako Santa Engraziako parrokia etxean Amundarai-

⁷⁶ Amador Carrandi 1951: 193. or. Jose Manuel Zumalakarregi Imaz (1791-1883), Zumalakarregitar ospetsuen anaia zen. Gorago esan bezala, honek jaso zuen Amundarainek hutsik utzitako Ordiziako kaperautza bikoitza. Ormaiztegiko bikarioa ere, Eusebio Antonio (1778-1853), anaia zuen. 1826-06-27an egin zen Mutiloko bikario (IAA, Libro 76 del Registro de Títulos, 178. or.).

⁷⁷ TGAO, PT, IPT, 2486. sorta, 526. or., 4-7 lerr.

⁷⁸ TGAO, PT, IPT, 2486. sorta, 525-527 orr. Silbestre Txintxurretak, Zeraingo notarioak hartu zion testamentua.

⁷⁹ Amador Carrandi 1951: 193. or., 5-7 lerr. eta 196. or., 19-20 lerr.: Domingo Zumalakarregi Amundarain (Zegama,1790-Segura,1861). 1818an ezkondu zen Segurara. Gurasoak: Zegamako Mazkiarango Martin Jose Zumalakarregi Aseginolaza (Zumalakarregitarren anaia) eta Maria Manuela Amundarain Otaegi (Amundarainen lehengusina. Ikus 40. oharra).

⁸⁰ TGAO, PT, IPT, 2487. sorta, 73-75 orr.

⁸¹ TGAO, PT, IPT, 2487. sorta, 378-379 orr.

IAA, A, 17, 202 eta 203. zk.: 1826ko "Licencia para obras de saneamiento de la iglesia en los lados del Poniente y Mediodia. Presupuesto detallado" eta "Licencia para obras de reparación en la basílica de Ntra. Sra. de Liernia. Presupuesto".

nen testamentuko eta Mutiloko parrokia eta Liernia ermitako 36 urteko diru-kontu ilunak, aski ilunak, argitzen saiatu ziren bertan bildutakoak: Frantzisko Ignazio Igartzabal alkatea; Isidro Igartzabal, elizako diruen arduraduna; Jose Xabier Aierbe, Idiazabalgo bikario eta Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu nagusia, Iruñeko gotzainaren eta Jose Manuel Esnarrizagaren izenean; Jose Antonio Alustiza, bikario hil berriaren hiru zerbitzarien ordezkoko gisa eta Katalina Alustiza, Jose Lorentzo Ormazabal ordezkatzuz. Arazoa nolabait argitu, denak ados jarri eta egun batzuetara, ekainaren 12an, Zeraingo Silbestre Txintxurreta notarioaren aurrean, Jose Felix zenaren ondasunak, 58 816 erreal guztira, hartzekodunen artean banatu ziren: Hartzekodun nagusia parrokia bera zenez, honek 41 969 erreal jaso zituen, Plazagoen bikario-etxea barne; (Ramona Mendia, etxegilearen alaba, etxerik gabe geratu zen, beraz). Gainerako hartzekodunek 11 414 erreal jaso zituzten. Eta honela, Amundarainen urteetako zorrak kitaturik geratu ziren⁸².

⁸² TGAO, PT, IPT, 2487. sorta, 283-298 eta 316-319 orr. (bi eskritura).

4. AMUNDARAINEN BIZITZAKO ARGILUNAK

4.1. Sendi-harremanak

Jose Felixek ume-umetan galdu zuen ama, sei urte bete aurretik. Aita berriro ezkondu zen eta amaordeak ez zuen hutsunea bete. Itxura guztien arabera, Zeraingo Jauregiko ama zenaren aldeko aitona-amonek egin zuten guraso-ordezkapena, oporraldietan beren etxean jasoz, etab. Espainian barrena ikasketak burutzen zebilerarik, aita eta amaordekoa Urretxura aldatu ziren bizitzera. Jose Felixek bere ondasunen kudeaketa aitonaaren esku utzi zuen, ez aitarenean. Zergatik? Garai hartako dokumentuak arakatu ditugularik, Urretxuko aitarekin trukaturako pare bat gutun baino ez zaigu azaldu; biak ere diru eta jaraunspeneko seniparte-kontuak, kontu hotzak, aipatzeko bakar-bakarrik (ikus 2.7. atala). Nolakoak izan ote ziren Jose Felixen haurtzaro eta gaztaroko harremanak aitarekin eta Rosa Irimo amaordearekin? Gure ustez, ez oso sakonak; nahikoa hotzak izan zirela esaten ere ausartuko ginateke. Ama berriak izan ote zuen eraginik auzi honetan?

4.2. 1784-1791

Ikasketak amaitu eta Mutiloko bikario egin bitarteko Amundarainen bizitzako zazpi urteok ilun samar geratzen zaizkigu. Non ibili ote zen, eta zertan? Zegaman, Zerainen, Ordizian, apaiz-lanetan?

4.3. Jose Felix, haur baten aita

Orain arte aipatu ere egin ez dugun zera bitxi bat azaldu behar dugu: 1801-10-29an, Segurako Nikolas Bizente Aranburu notarioaren eta bi lekukoren aurrean, Jose Felixek haur baten aita zela aitortu zuen: Mutiloko Katalina Apaolazarekin izandako haurrari Jose Domingo Amundarain Apaolaza izen-abizenak ezarri zizkiotela eta mutiko hau, ama jadanik hila, bere gogoz Mexikora zihoala, han bizi zen osabarengana⁸³. Seme naturalari ez zion, gizalegez jokatuz, aitatasuna ukatu. Zerk bultzatu ote zuen aitoren gogor hau egitera? Noiz izan ote zuen seme hau? Mutiloan apaiz izaten jarri ostean? Horrela izatera, Jose Domingok Mexiko-

⁸³ OGPA II, 2083. sorta, 189 orr.

rantz abiatu zenean hamar urte baino gutxiago izango zituen. Gazteegia iruditzen zaigu horrelako bidaietarako. Ala lehenago, 1784-1791 urte ilun horietan? Ameriketara aldeindako semearekin harremanetan jarraitu ote zuen? Guk ez dugu argibide gehiagorik aurkitu ahal izan. Testamentuan ere ez da aipatzen seme horren izenik.

4.4. Pentsaera politikoa

Geroago ere aipatuko dugu alderdi hau, garrantzi handikoa baita, baina aurre-rapen gisa esan dezagun, zenbaiten ustez⁸⁴, Amundarain apaiza liberala izan zela. Egia da 1820an Cádizko 1812ko Konstituzio liberala berriro indarrean jartzean, Konstituzio hau eskoletan euskaraz irakatsi ahal izateko Doktrina Politiko bat euskaratu zuela, eta berorren hitzaurrean Migel Antonio Zumalakarregi politikoa liberalaren miresle sutsu agertzen zaigula. Dena den, guk eskuartean erabili eta arakatu ditugun sermoietan behintzat ez da horrela nabarmentzen; are gehiago, erregezale bezain frantsesen etsai amorratu eta 1820-1823ko gobernu liberalaren jokabidearen kontra arras gogor, zakar ikusten dugu gure Amundarain sermoilaria. Gure lanaren bigarren partean luzeago jorratuko dugu Amundarainen liberaltasunari buruzko auzi hau.

4.5. Diru-kontuak

Gure ustez, Amundarainek diru-kontuetan arin, zabar samar, zuhurtzia handi-egirik gabe jokatu zuen: Aitak alaba gazteenari moja-dotea emateko diru-laguntza eskatu zionean, semeak lagundu, lagundu zion, baina ordainetan (?) eta seni-parte gisa Zegamako ondarea jaso zuen (Intxaurrondo, Postaetxea, etab.). 1799an, ordea, ondasun guztiok Maria Manuela Amundarain Otaegi lehengusinari oparitu zizkion donazio gisa. Zergatik?

1804an apaizen mantenu egokirako diruaz zeharo kezkatua azaltzen zaigu eta benefiziatuarekin batera, beren egoera ekonomiko larriaren berri emanez, gotzainari txosten luze eta zehatza zuzendu zion.

XIX. mendearen lehen hamarkadan Plazagoen bikario-etxe berria eraiki zuen. Baina hil zenean, artean, etxegilearekiko zorrak kitatzeke zituen. Frantzisko Mendia etxegilearen alabari Plazagoenen jabetza utzi beharrean aurkitu zen testamentuan⁸⁵.

Independentziako gerraren ondorioz, diru-egoera estuan, elizako fondoetatik *hartu beharrean* aurkitu omen zen: "...Con la cortissima renta que tengo, recargos extraordinarios, contribuciones extraordinarias para ambos Ejercitos, granos de trigo, y maiz para el Frances, y Paisanos, me vi sin poder subsistir, ni atender á cosa alguna, y en este lance eché mano del caudal de la Iglesia y lo he gastado sin poder decir á punto fijo quanto ... podrian ser seis á ocho mil reales de ve-

⁸⁴ Juan San Martín eta Angel Ibisate: Ikus 2. partean. Mikel Alberdi, Ormaiztegiako *Zumalakarregi* Museoko arduraduna ere antzeratsu: Arano 1995-06-25: 39. or.

⁸⁵ TGAO, PT, IPT, 2486 sorta, 225-226 orr.

llon...”⁸⁶. 1819an gotzainari zuzendutako eskutitzeko kontuak dira hauek; testamentuan ez du elizarekiko zorrik aipatu ere egiten. Zenbat hartu eta gastatu zuen ere ez da ondo gogoratzen!

Amundarain Mutilora etorri geroko Kontu Liburuetan hutsune luzeak, urteetakoak, ageri dira. San Migel parrokiako herri-arduradunek alde ederra ikusi zuten Gerriko benefiziatuaren eta Amundarain bikarioaren diru-kontuak eramateko eran: Gerrikoren kontuak zehatzak, ezin zehatzagoak dira, azkenerainoko xehetasun eta ñabardura guztiak idatziz jasoz eta sinatuz. Amundarainek alde honetatik aski zabar jokatu zuen; utzikeria handi samarra sumatu dugu. Gerrikok Elizalde bere poltsikotik ordaindu zuen, Amundarainek Plazagoen ez. Gerrikoren kontuetan beti ageri da diruzainaren (*maiordomoaren*) lekukotasun sinatua; Jose Felix ez zen, antza denez, gehiegi fidatzen diruzain ez-adituez: “...y no se gobiernne por administración de legos, por quanto nada produce...” azaltzen dio gotzainari 1819ko gutunean⁸⁷. Izaeraz ote zen horrelakoa gure Jose Felix? Aldi latz haiek *behartu* ote zuten horrela jokatzera?

Horra, bada, Jose Felix Amundarain Muxika, 34 urte luzez Mutiloko bikario izan zenaren bizitzako hainbat alderdi ilun, enigmatiko. Noizbait norbaitek argituko ahal dizkigu, argitzerik badago⁸⁸.

⁸⁶ Ikus Ichenago ere aipatu dugun 3. Eranskina.

⁸⁷ Ikus 3. Eranskina. Halaber, Aranburu eta beste batzuk 1995: 29-34 orr.

⁸⁸ Amundaraini buruzko aipamen labur-laburrak: Arrue 1956: 36. or. Guerrico 1858 I. tomo-ko sarrerako *Breve noticia del autor y sus escritos*: IV-V orr.

II. JAQUIN-BIDE IRITARAUTIA (1820)

Jose Felix Amundarain Muxikak, Mutiloko bikario doktoreak, euskarazko bi lan utzi zizkigun: 1820an euskaratu zuen erdal Dotrina politiko bat, 'Jaquin-bide Iritarautia', eta 1824 aldera idatzitako sermoiak.

Lehenik 'Jaquin-bide Iritarautia' aztertuko dugu. Parte hau bost ataletan banatu dugu:

1. Sarrera
2. Ingurune politiko-soziala
3. 'Jaquin-bide Iritarautia'
4. Lexikoa
5. Zati hautatuak

1. SARRERA

1987ko martxoan Hondarribiko Aita Zubeldia kaputxinoak, beren liburutegi-ko paper zaharren artean, oso txukun koadernatutako eta 'Dr. D. J.F.A.' siglez sinatu zuen apaiz gipuzkoar baten 1820ko eskuizkribu bat aurkitu zuen. Eskuizkribuaren izenburua: '*Jaquin-bide Iritarautia / Españiaco / Neurquidaren, edo Constitucio / berriaren erara adrezatua / Erritarren arguidoraraco, / Gazteen icasbideraco, / eta / Escola-maisuen usoraco / Erderatic Eusquerara itzulidu / Apez Vicario / Dr. D. J. F. A. Guipuztarrac / 1820 urtean*'.

Juan San Martin euskaltzainak liburuxka ezin bitxiago hau aztertu eta 1991-12-31n 200 ale (1etik 200era zenbakituak) argitaratu zituen faksimile-edizioan, egilea nor zen jakin gabe¹.

Gure lanerako Ormaiztegiko 'Zumalakarregi' Museoa gordetzen den 115. alea erabili dugu.

1994an Anjel Ibisatek aurkitu zuen 'Dr. D. J.F.A.' siglapean ezkutatu zen pertsonaia misteriozua: On Jose Felix Amundarain Doktorea, hain zuzen ere².

¹ San Martin 1987. Eta 'Jaquin-bide Iritarautia'ren faksimile-edizioa, 1991-12-31, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, Eibarko AZ Publicidad-en 200 ale.

² Ibisate 1994.

2. INGURUNE POLITIKO-SOZIALA

Amundarainen Doktrina politikoaren azterketari ekin aitzinean, garai hartako egoera politiko eta sozialari buruz zerbait esatea derrigorrezkotzat jotzen dugu, lan berezi hau, berezia baita zinez, egoki kokatu ahal izateko.

2.1. 1820 arte

Gizarte-istiluetan oparoa izan genuen XVIII. mendea. Honek Euskalerriko gizarte-klaseen *betiko oreka* apurtzen, desagiten hasia zela adierazten digu; klaseen artean diferentziak handitzen eta nabarmentzen, eta batzuk besteen aurka jartzen ari zirela: Alde batetik, jauntxoek klasea, gero eta aberatsagoa, eta, bestetik, herri xumea, gero eta txiroagoa. XIX. mendean diferentziok (eta, ondorioz, istiluek) areagotu egin ziren. Gerrate karlisten supiztaileetako bat, besterik beste, gizarteko talde ezberdinen arteko diferentzia ekonomiko hauxe izan genuen.

Elizaren barnean ere sumatzen ziren maila-diferentzia hauek. Apezeria nekazarietarako etekinak ateratzetik bizi zen, hamarrenek sortutako diru-iturriek esker, funtsean. Baina diru-iturri hori desberdin banatzen zen apezeriaren barruan. Behe-mailako apaizak, baserri-giroko eliztarren zerbitzuan zihardutenak, pobrezian bizi ziren. Goi-mailako apezeriak xurgatzen zuen lehen aipatu dugun diru-iturri horren gehiena. Beraz, apaiz xumeak iraupenezko egoeran zeuden bitartean, goi-mailakoak egoki eta erosoago zebiltzan. Fraide eta serorak ere hamarrenen bidez, lursailen errenten bitartez edota nekazarietarako egindako maileguetatik bizi ziren, baina hauek herriari itzuli ohi zioten zati bat eskola, kultu-leku, etab.en bidez.

XIX. mendearen lehen herenean hamarrenetan jasotako zati handi bat Estatuaren kutxetara joaten hasi zen, liberalen politikaren ondorioz. Honek, noski, galera gorriak ekarri zizkion apezeriari.

Krisialdiaren izaera ez zen ekonomi arlokoa bakarrik. Euskalerriko Foru-erakundeak, gure Herrialdeen politika-sistemaren oinarriak, dar-dar hasi ziren, eta herri xehe eta apezeria xumearengan egundoko mesfidantza sortzen ari zen, betidanako jauntxoenganako begirunea ere galtzeraino.

Nekazariak analfabetoak ziren; asteen behin entzuten zuten apaizaren sermoia izaten zen beren kultura-bide apurra. Euskalerrri osoa, Frantziako ideia berriek, entziklopedismoak eta liberalismoak ukitutako *ilustratu* gutxi batzuk izan

ezik, kristau katoliko zintzo zenez, bistakoa da Elizaren (eta honen hurbileneko ordezkarien: apaizen eta fraideen) eragina erabatekoa zela. Herriak jasotzen zuen *ideologia* bakarra (elizkizun, sermoi, doktrina, irakurgai eta eguneroko harremanetan) Elizak eskaintzen ziona zen. Herri handietan (Donostian, Irunen...) bestelakoa zen giroa; 1795erako baziren talde errepublikarrak... Liberalismoaren ideia berriek, bada, gizartea laikitzea zekarten, eta hori ezin izan elizgizonen gustuko...

Burgesia zen, bada, goraka zihoan klase berria, merkataritzatik bizi zena eta, neurri apalagoan, industriatik. Klase berri hau Europako ideia eta aire berriak bereganatzen ari zen. Frantziako 1789ko Iraultzak suspertu egin zuen mugimendu kultural eta politiko hau: monarkiaren aurka, errepublikazale; absolutismoaren kontra, liberal; Euskal Foruak ere, burgesen interes ekonomikoetarako atzerakoi eta kaltegarri, nonbait, susmagarri bilakatzen hasi ziren; Eliza ere bai hein berean. Hauxe izan zen, funtsean, garaiotako politika-gorabehera nahastu eta istilutsuen, Estatu arteko gerra ugariaren eta, geroago, karlistaden oinarri, eta, neurri handi batean, Euskalerriko Foru-sistema politiko tradizionala deuseztearena ere.

Merkataritza-alorrean, 1728an “La Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas” sortu zen, Amerikarekiko harreman komertzialak bideratzeko. Konpainia hura 1785ean “La Real Compañía de Filipinas” bilakatu zen, bere egoitza Madril eta Cádiz aldatuz. (Amundarainek bazituen akzio batzuk konpainia honetan).

Kultura-alorrean, berriz, 1765ean “La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País” sortu zuten ‘Azkoitiko Zalduntxo’ *ilustratuek*. Eta 1776an ‘Bergarako Errege Mintegia (Seminarioa)’. Biak ere erakunde laikoak eta, jakina, Elizaren ez oso gustukoak; zenbait apaiz *ilustratu* aldeko izan bazituzten ere (Ubillos, Iturriaga...). Ilustratu hauen euskarazko lana ere, Elizaren produkzioa nagusi, ez zen gehiegi estimatua izan.

XVIII. mendearen 2. partean eta XIX.aren lehenean Borboi jatorriko erregeek (Fernando VI.ak (1746-1759), Karlos III.ak (1759-1788), Karlos IV.ak (1788-1808) eta Fernando VII.ak (1808-1833) ezarri zuten zentralismoak, urteak aurrea eta are gogorragoak, arazo larriak sortu zituen euskal erakunde foralen eta Madrilgo gobernuen artean. 1802an Bizkaiko Batzar Nagusiak haserre bizian azaldu ziren Madrilgo antiforalismo galgarriaren kontra. Aipatzekoa, beste gehiagoren artean, Juan Antonio Llorenteren “Noticias históricas de las Provincias Vascongadas” (1806) liburu setatsu eta iraingarria. Halaber, Karlos IV.aren Godoy ministroaren jokabide politiko antiforalista. Liberalen politika ere berdintsua izan zela esan behar, tartean euskaldun *handi* ugari azaldu bazitzaigun ere.

Eta gerrak, gerra ugariak: 1761-1763 eta 1779-1782 bitartean, Frantziarekin bat eginik, ingelesen kontra. 1793-1795 bitartean, Ingalaterrarekin bat, frantsesen kontra. 1796-1805 urteetan, berriro frantsesekin, Ingalaterra eta Portugalen kontra..., tartean makina bat Bake Hitzarmen hutsal sinatu bazuten ere.

1807an Napoleon I.aren armada Espainian sartu zen, Erresuma honen inbasioari ekinez (bigarren frantsese aldia; lehena, 1793ko ‘Konbentzioko gerra’ garaiakoa izan zen). 1808ko Aranjuezko mutinaren ondoren, Karlos IV.ak bere seme

Fernando VII.aren alde abdikatu zuen, baina Napoleonek, Baionako elkarrizketan, bere anaia Jose Espainiako errege ezarri zuen, eta frantses gudarosteek Fernando bahitu eta Valençayko gaztelura eraman zuten.

Gobernua, ihesi, Cádizko Leon uhartean babestu zen. 1814 arte Cádiz izan zen Espainiako politiko, intelektual, elizgizon errefuxiatu anitzen kabia eta bilgunea. Euskaldun merkatari, itsasgizon eta politiko ugari ere bazen bertan, hantxe baitzegoen Ameriketarako merkataritza-gune nagusia.

1810-09-24an, Leongo uharteko antzokian, hasi ziren beren Batzarrak egiten exilioko Gorteak. 1811-02-24an San Felipe Neri elizara aldatu zuten egoitza. Frantsesen kontrako Independentziako gerra amaitu ostean, 1814-01-15ean itzuli ziren berriro Madril.

Cádizko aldi honetan Gorteek lege aurrerakoi mordo prestatu eta aldarrikatu zuten: inprenta-zentsuraren (1810-11), feudalismoaren (1811-09), Inkisizio Sainduaren (1813-02) abolizioa..., absolutismo tradizionalaren kontra eta 1791ko Frantziako Konstituzio liberal burgesa oinarritzat harturik. Eta batez ere, Konstituzioa (*Constitución política de la Monarquía española*, 1812-03-19an aldarrikatua): nazioren subiranotasuna, askatasun indibidualak, hiru aginte edo botereen banaketa eta bereizketa, monarkia konstituzional moderatua, Erresumako erlijio bakartzat Eliza Katolikoarena... ezarri. Euskalerriko aduanak Ebrotik itsasaldera aldatu ziren eta euskal Herrialde Historikoak Erresumako gainontzeko Probintziekin parekatu eta bateratu (zerga orokorrak, derrigorrezko soldaduzka...). Probintzia eta herrietako buru egungo Gobernadoreen pareko *Jefe Politikoak* izendatu ziren...

Espainiarrek, frantsesen aurkako gerra bete-betean, pozarren onartu zuten beren legezko agintariak burututako legeria eta Konstituzioa, Erresumako lehena, hain zuzen.

Euskal Herrian ere, hasieran, susmo gaiztorik gabe onartu zen, Foruen aurkako izango ez zelakoan. 1813ko udan eta udazkenean aldarrikatu, argitaratu eta zina egin zen: herri batzuk erabat aldeko agertu ziren, beste batzuk ez hain aldeko. Elizgizonak nahiz herri-agintariak ere berdintsu. Batzar Nagusiak, haatik, nahikoa zuhur, uzkur eta Foruak galtzeko arrisku hurbilaren beldur azaldu ziren.

1814an, Fernando VII.ak, Frantziako exiliotik Espainiara itzuli bezain laster, Konstituzioa baliogabetu eta sei urteko aginte absolutista berrezarri zuen. Liberalek gogor jo zituen, Inkisizioa berriro indarrean jarri...

1814-07-29an Foruak gordetzea agindu zuen. Aduanak, atzera, Ebron ezarri ziren. Batzar Nagusiek Errege aldarrikatu zuten... Halere, Foruen aurkako gorrotoa eta politika indarberritu egin zen³.

³ Puntu hau osatzeko dokumentazioa: Aranburu, eta beste batzuk 1995: 40-44, 48 orr. Angulo 1976: 27-36 orr. Montoya 1971. San Martín 1987. Zenbait entziklopediatako hainbat artikulua: Larousse, Nueva Enciclopedia 1984. Espasa Calpe 1907-1930. Elhuyar 1993 Hiztegi Entziklopedikoa. Lur Hiztegi Entziklopedikoa 1993.

XVIII-XIX mendeetako giro politiko-sozialaren ikuspegi orokorra izateko, besteak beste, ikus: Altuna, eta beste batzuk 1989 (Valverde: 192-222 orr. eta García de Cortázar: 226-243 orr.) eta Paul Arzac 1986: 222-298 orr.

Frantseste-aldian elizgizon asko bere parrokia edo komentua laga eta hiri handietan ezkutatu, babestu zen. Beste batzuk gerriletan sartu ziren (batez ere, Nafarroan). Atxilotuak eta atzerriratuak ere ugari izan ziren. Gainera, gehienak gerrako zergak ordaindu ezinean ibili ziren urteetan.

Elizgizon hauen kontrako dekretu, zirkular eta polizi bando anitz aurkitu dugu Urretxuko Udal Artxiboan. Adibidez, Jose Maria Soroak, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, apaiz iheslarietako buruzko informazioa eskatuz 1810-09-26an herrieta-ko alkateei igorritakoa: "...Ha llegado a mi noticia que algunos eclesiásticos, después de haberse presentado a sus respectivas parroquias a consecuencia del decreto del 14 de junio, pasan su vida en los pueblos crecidos más inmediatos a los de su feligresía, lo que no debiendo tolerarse ... dándome aviso de cualquier infracción que hubiere en esta parte ...". Berdintsu, 1811-04-17an. Berrito berdintsu, 1811-05-01ean ere ... Halaber, Trifon M. Etxeberriak, Donostiako intendenteak (armadaren diru-kontuen arduradunak) 1812an gerrako zergak ordaintzeko nagi antzean dabilzan Leintz eta Gaztañaga korriedoetako apaizen kontrako lauzpabost zirkular, gerrako zigilu eta guzti ... Halaber, gerrilari-taldeen kontra Joakin Mitxelena poliziburuak igorritako zirkularra, etab., etab.⁴

Amundarainek ere jasan behar izan zituen bereak eta bi: erasoak, bahiketak, atzerriratze-arriskuak, diru-arazo larriak ... Halere, gorriak pasa arren, beti errege-zale sutsu eta frantsesen etsai amorratu agertu zen eta ez zuen inoiz bere herria utzi (ikus gure lanaren lehen parteko 3.8. puntuan). Sermoietan ere maiz kanporatu zuen bere pentsaera.

2.2. Hirurteko konstituzionala edo liberala (1820-1823)

Riego jenerala Cabezas de San Juanen matxinatu, militarrek garaipena lortu eta berriro 1812ko Konstituzioa ezarri zen. 1814-1820 bitarteko absolutismo-aldian atzerriratu beharrean gertatu ziren politiko anitz Erresumara itzuli eta agintea hartu zuten. Fernando VII.ak martxoaren 9an zin egin zuen Konstituzioa. 1812ko erakunde konstituzional liberalak berriro indarrean jarri ziren. Gorteak uztailen hasi ziren biltzen eta aurreko sei urte absolutistetan zokoratutako legeria eta egitasmo politikoei gogotsu ekin zieten.

Martxoaren 16an Konstituzioa argitaratzeko eta espainiar guztiak zin egiteko agindua eman zen: herritarrek, apaizak, fraideak, denak zeuden zin egitera behar-ituak. Herriak aurreko aldian bezalatsu hartu zuen oraingoan ere Konstituzio zaharra eta liberalen gobernu berria: gehienek pozik, ilusioz. Baita Euskalerrian ere. Halatsu apaizeriak ere.

⁴ UUA, E, 7, I, 3, 1 eta 2; eta E, 5, I, 3, 2. Ikus, halaber, Goñi Gaztambide 1991, IX: 106. or.: 1809-05-01ean Jose Bonaparte erregeak ihesi zebiltzan elizgizonak kontrolatzeko dekretua eman zuen; ondorioz: "...el 12 de septiembre de 1810 el regente de este reino (Nafarroakoak), obedeciendo órdenes del mismo ministro, pidió una lista exacta de todos los sujetos que no concurrían a su iglesia, con indicación de la fecha y motivo de su ausencia, paradero actual, y si deben ser comprendidos en el decreto del 1 de mayo de 1809..."

Bi alderdi edo joera politiko nagusi aurrez aurre, buruz buru jarri ziren: tradizionalista edo absolutistak (*zerbitzailleak*), aldakuntzen kontrako kontserbadoreak eta liberal edo konstituzionalistak, aldakuntzen aldekoak eta Frantziako Iraultza begi onez ikusten zutenak. Dena den, hasieran, ideietan-eta elkarrengandik aski hurbil aurkitzen ziren bi joerok; setakeriak eta elkarren arteko borroka geroxeago berpiztuko ziren eta liberalen agintealdiko *gehiegikeriak* nabarmendu ahala, areagotu egin ziren, gerra berri bat pizteraino iritsiz⁵.

Liberalak berak ere zatituak aurkitzen ziren: alde batetik, moderatuak, erregearekin ondo konpontzearen aldekoak; bestetik, liberal sutsuak, erradikalak, erreforma sakonen aldekoak, *sociedades patrióticas* izeneko taldeetan elkartzen zirenak.

1821-03-01ean erregea, bere *betidaniko* eskubideak arras murrizturik sumatzean, haserre azaldu zen. Tartean elizgizonen baten hilketa susmagarria ere gertatu zen. Gobernuak ezin izan zuen egoera kontrolatu eta 1821 bukaera aldera dimititu egin zuen. Moderatuek hartu zuten agintea. Bitartean, erregeak azpilanean ziharduen, absolutista-taldeak xaxatuz. Katalunian eta Nafarroan, bereziki, ideia berrien kontra gogor altxatu ziren, matxinada eta borroka ugari sortaraziz. Hasieran hitzezko borroka soila baino ez zena, gerra odoltsua pizteraino ailegatu zen. 1822-07-07an matxinada gertatu zen, baina huts egin zuen. Gobernuak, berriro, dimititu egin zuen eta erradikal gogorrek hartu zuten agintea. Bitartean Seo de Urgellen ezkutuko erregeordetza sortu zuten, frantsesen laguntzaz. Minak talde matxinatuok suntsitu eta erregezaleak Frantziara ihes egin beharrean gertatu ziren. Erregeak Europako *Aliantza Sainduko*ei laguntza eskatu zien. 1823-04-07an, gudaroste erregezaleak, *San Luisen Ehun Mila Semeak* deituak, Angulemako dukearen pean, Irundik barrena, Euskalerrian zehar, Espainian sartu ziren, Erresuma hirugarren aldiz bereganatuz, gobernu hankaz gora botaz eta errege absolutista agintean jartzeko asmoz. Madrilgo Gorteek, beldurrak airean, erregea bahitu eta Sevillara ihes egin zuten, eta hemendik Cádiz. Gerra absolutistek irabazi zuten (Donostia izan zen azkena errenditu zen hiribildua, 1823-09-27an). Liberalek erregea aske utzi zuten, konstituzionalistek ez zutela inolako zigorrik jasango agindu ostean, 1823-10-01ean.

Euskal Herriko erakunde publiko gorenak (Batzarrak eta Diputazioak), 1812an bezalatsu, nahikoa zuhur eta kezkatuak agertu ziren hirurteko liberalaren hasiera-hasieratik. 1820-03-25ean, Azkoitian bildurik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek batzorde berezi bat osatu zuten Konstituzioan Foruen aurkako zer ote zegokeen aztertzeko; izan ere, Herrialdeen eta Erregearen arteko lotura historikoa etenik, Erresumaren subiranotasuna Gorteetan zetzala aldarrikatzen baitzuen liberalen Konstituzioak. Bi lege nagusien arteko hainbat desadostasun topatu bazuten ere,

⁵ "...Así, dos mentalidades se enfrentan. La Realista para quien la Constitución de Cádiz "amenaza de una próxima destrucción a la Religión Católica" (Gorostidi) y la mentalidad constitucionalista, anhelante de un cambio de estructuras institucionales más acordes con los tiempos modernos ... Ambas mentalidades chocarán, violentamente, sin la menor tolerancia..." Montoya 1971: 67. or.

itxaropentsu onartu zuten Konstituzio berrezarria. Aurreko urteetako eskarmentua nahikoa ez, sobrare! Diputazioek ere berdintsu jokatu zuten. Halere, Konstituzioak eta hemendik eratorritako gobernu zentralak (eta zentralistak) Espainiako probintzia guztiak berdindu egin zituen, 1820-05-23an; aduanak Ebrotik Pirineoetara aldatu zituzten; derrigorrezko soldaduzka ezarri zen; Erresuma osoko zergak ezarri ziren...; hitz batean, hasierako susmoak, errezelokak eta beldurra egia triste bilakatu ziren azkenean.

Udal askok gogotsu onartu eta zin egin zuten Konstituzioa (Donostiak...); beste batzuek ez.

Elizak ere 1812an bezalatsu jokatu zuten: apaiz asko Konstituzioaren eta honen inguruko giro liberalaren alde azaldu ziren (Amundarain, Ormaiztegiko eta Zeraingo Zumalakarregitar anaiak...); beste batzuk kontra. 1820-03-15ean, Toledo eta Bartzelonako artzapezpikuek, Konstituzioaren apologia sutua eginez, elizetan irakurtzeko artzain-gutunak atera zituzten. 1820-07-31n Valentziako artzapezpikua ez aldeko, ez kontrako azaldu zen. Igande eta jaiegunetako mezetan pulpitutik Konstituzioa azaltzeko eta irakasteko agindu bitxia eman zuten gobernuak; eliz agintari gehienek, erabat ados ez bazeuden ere, amore eman zuten. Konstituzioaren aldeko zina egiteko aginduaren aurrean ere hainbat desadostasun eta arazo sortu ziren. 1820-08-15ean, Kalagorri eta Iruñeko gotzainak Konstituzioaren kontra azaldu ziren.

Eliza, bada, politika-kontuetan zeharo nahastua azaltzen zaigu garaiotan: alde nahiz aurka. Elizaren kezka nagusia, Konstituzioak Erresumako erlijio ofizial bartzat Katolikoa xedatu arren, erlijio honek galerak izango ote zituen edo zen. Bestalde, liberalen legeriak Elizaren ohiko ondasunak eta pribilegioak murriztuko ote zituen beldur zen. Eta beldurra egia gertatu zen: hamarrenak erdira jaitsi ziren (erabat kentzeko asmoak ere azaldu ziren), Inkisizio Saindua desegina, kongregazio erlijiosoak desagertaraziak eta hauen ondasun batzuk konfiskatuak (desamortizazio-legeen bidez)...; zenbait elizgizon, apaiz eta fraide, kartzelaratuak izan ziren, beste batzuk erbestera aldegin beharrean gertatu ziren, bat edo beste afusilatua ere bai ... Liberalen gehiegikeria eta ankerkeria guztiok Elizaren haserea piztu zuten⁶.

Honela, bada, Konstituzioa eta liberalen agintea hasieran gehienek onartua izan bazen ere, denbora gutxira, liberalen aldakuntza sakonek arras sumindurik utzi zituzten asko eta asko (Amundarain bera, besteak beste). Euskal Herrian ere,

⁶ "...En la parte de Guipúzcoa perteneciente a la diócesis de Pamplona y en la parte confinante de Navarra el liberalismo encontró una resonancia mayor, tanto entre los miembros del clero secular como entre los religiosos ... El obispo vio claro que en el conflicto entre realistas y constitucionales había un fondo ideológico de gran transcendencia. Es difícil admitir que a medio plazo las reformas liberales mejorasen las condiciones de vida de la mayoría de los párrocos rurales y ampliasen los horizontes de vida de los religiosos que deseaban abandonar los conventos. La implantación del medio diezmo "condenó a muchos sacerdotes a la miseria". La clase campesina tampoco ganó nada con la rebaja del diezmo ... En Guipúzcoa el régimen liberal había perseguido a los eclesiásticos, que les retiró las licencias y les privó de sus cargos..." Goñi Gaztambide 1991: 335, 357 orr.

ordurarte gehiengoak ontzat, mesedegarritzat aurrikusia, kontrako bihurtu zen, eta hortik sortu ziren ondorengo nahaspilak, iskanbilak eta gerrak.

Leku gehienetan bezala, Euskal Herrian ere gerrila-taldeak sortu eta borrokan hasi ziren armada ofizialaren kontra. Gipuzkoan bi apaiz nabarmendu ziren buruzagi gisa: 1821eko 01-10eko eta 05-03ko taldetxoan ostean, Frantzisko Jose Ezeiza Pagadi, Beizamako benefiziatuak eta Frantzisko Maria Gorostidi, Anoetako benefiziatuak (lehengusuak biak) hartu zuten Gipuzkoako gerrila-taldeen gidaritza. Gazte asko sartu zen taldeotan. Honen arrazoietakoa bat liberalek ordurarte ezezaguna zen derrigorrezko soldaduzka ezarri izana zen. Diputazioa eta Villafuerteseko kondea, Herrialdeko buruzagi politikoa, ere jabetu ziren kontraforu iraingarri honetaz. Gorostidi apaiz gerrilariaren manifestuan hiru helburu nagusi aldarrikatu ziren: 1) Erlijio Katolikoa, hondatua izateko arrisku bizian zegoena, defendatzea; 2) Erregeren askatasun osoa lortzea; 3) Herrialdearen Foruak eta eskubide historikoak gordetzea. 1822-08-24an hiru Herrialdeotako gerrilaburuak (Arabako Uranga, Bizkaiko Zabala eta Gipuzkoako Gorostidi) *Mejor servicio de Dios y del Rey* lemapean elkartu egin ziren. 1823an Frantziako gudaroste inbaditzaileekin bat eginik borrokan jarraitu zuten, erregea berriro agintean ezarri arte⁷.

2.3. 1823tik aurrera

Frantziarren inbasio berriari esker, erregeak bere agintea eskuratu zuen, eta 1823-1833 bitartean 2. aldi absolutista, aurrekoa baino arrunt zakarragoa, ezarri zen Espainiako erresuman. Aurreko politika aldiko erabaki eta legeria osoa balio-gabetu egin zen: Euskal Herriko aduanak Ebron berrezarri ziren, kongregazio erlijiosoak berriro legezatu eta hauen kontrako konfiskazioak indargabetu, Elizaren hamarrenak berriro indarrean jarri ziren ... Inkisizio Saindua indarrean jartzeko saiortxoren bat edo beste egin zen, baina jadanik zaharkitua zegoen erakunde errepresibo honek ez zuen gehiago bere burua altxatu ahal izan...

Batzar Nagusiek Erregea onartu eta aurreko agintealdiko legeria osoa balio-gabetzat jo zuten: "...declaró nulos e ilegales, como obra que fue de fuerza, los actos efectuados a nombre de esta Provincia bajo el régimen constitucional ... que había jurado con repugnancia la Constitución de Cádiz, el 31 de julio de 1813 y el 25 de marzo de 1820...". Eta ekintza *sinboliko* bat egin zuten: "Las Juntas hicieron la tontería, por no llamarle otra cosa, de quemar un ejemplar de la Constitución de 1812 y los poderes que dieron a los diputados..."⁸. Hala eta guztiz ere, Hego Euskal Herriko probintzietako Foruek berdin nozitu zuten liberalismoak aurreikusitako zentralizazioa.

Gerraren ondorioak latzak izan ziren, zinez: Foruak suntsitzea; Udalak gerrako zerga eta zorren pean eta armada erregezalea mantendu ezinean (herri-sailak saldu beharra; nekazarien txirotzea, errentak ordaindu ezinik); fraide sekularizatu anitz, beren komentuetatik kanpo ... Eta errepresioa: mendeku-egarria eta elkar

⁷ Azpialat hau moldatzeko dokumentazioa: 3. oin-oharrean aipatzen dena bera.

⁸ Angulo 1976: 36. or.

eraman ezina tarteko, aurreko konstituzionalista nabarmen eta ez hain nabarmen asko eta asko akusatua (gezurrezko salaketa asko), kartzelaratuak, erbesteratuak eta afusilatuak izan ziren gerra osteko lehen urte haietan.

Elizgizonekin ere berdintu jokatu zen: apaiz konstituzionalista eta ilustratu askok jasan behar izan zituzten nola hiritar erregezale mendekuzaleen hala gobernu berriaren edota Elizaren beraren salaketak, pertsekuzioak, zigorrak. Honetan frantses aliatuek askoz moderatuago jokatu zutela esan behar. “No es posible precisar el número de curas y religiosos liberales. Se sabe que en el clero parroquial se distinguieron ... (zerrenda luzea) ... En Pamplona figuraban en las listas de liberales que había que detener ... los vicarios de Mutiloa (Amundarain, jakina) y Lizarra ... (eta zerrenda luzea) ... En Guipúzcoa el régimen liberal había perseguido a los eclesiásticos realistas. Algunos de ellos fueron procesados por la autoridad civil, otros por la autoridad eclesiástica, que les retiró las licencias y les privó de sus cargos ... Tan pronto como se tambaleó el sistema constitucional, se utilizaron idénticos procedimientos contra sus partidarios. Los procesos, las delaciones, las ansias de venganza, las cárceles, las sospechas y el espionaje dominaron la escena diocesana ... José Silverio de Irure, desde Deva, pidió que se procediese contra los curas liberales por cuanto sus ideas eran iguales a las de los regulares secularizados. El mejor medio de acabar con todos los exaltados consistía en arrojarlos a las hogueras de la Inquisición ... (Amundarainek ere, bere sermoi batean, antzeratsuko ideiak azaldu zituen. Ez ote zen, orduan, bere buruaren kontra ari? Ikus II.3.5.) ... El obispo se vio obligado a colaborar en la represión de los constitucionales exaltados, como antes en la represión de los ultrarrealistas ... Fray José de San Miguel, prior de los carmelitas descalzos de Lazcano, asegura al obispo, recién vuelto a la diócesis, que está sirviendo por medio de dos religiosos de su convento la rectoría de la villa de Ormáiztegui y la vicaría de San Gregorio de la anteiglesia de la villa de Ataun. Sirve la rectoría de Ormáiztegui desde el mes de noviembre de 1822 con título de interino expedido por el gobernador eclesiástico Dr. Migel José Irigoyen a petición de Eusebio Antonio Zumalacárregui, rector de la misma. Y la vicaría de San Gregorio desde primeros del corriente año 1823 a petición de José Antonio de Olano, vicario, el cual le pidió servidor, al parecer, con anuencia del Gobierno. Ambos párrocos se ausentaron de sus parroquias desde dicha época, dejándole delegadas todas sus facultades y, cuando empezaron a entrar los ejércitos franceses, se ausentaron enteramente, el primero, al parecer, a la plaza de San Sebastián y el segundo al interior del reino con las tropas nacionales ... Jose Javier Ayerbe, vicario de Idiazábal y diputado del clero de Guipúzcoa (Agirrerren ondoren), está en disposición de aportar precisiones sobre algunos regulares, pero en general se halla peor informado ... El provisor de Pamplona desterró a Cestona a don Agustin Pascual Iturriaga, beneficiado de Hernani, sin indicarle la causa ... (apaiz ilustratu eta idazle bikain honek ere gorriak ikusi zituen garaio-tan)...”. Baina apaiz liberal edo liberal ustekoeren errepresioan gehien nabarmenduzena Jose Manuel Gerriko, Amundarainen lehengusua, izan genuen. Berrogei urtez Zeraingo benefiziatu izan ondoren, gotzainak bere ondora eramanez

1823an, apezpikutegekiko Bikario Nagusi eginez. 66 urte zituen; eta "...le tocó entender en todas las causas de eclesiásticos acusados de adhesión al sistema constitucional, mostrándose duro...". Besteak beste, bere inguruko bi apaiz akusatu zituen: Ormaiztegekiko erretorea eta Zeraingo bikario-ordea, bere buru izana, alegia: "...Guerrico facilitó noticias de los tres hermanos liberales del futuro general carlista, Tomás Zumalacárregui. "Mi compañero actual (José Manuel) el hermano de don Miguel Zumalacárregui, uno de los autores de la Constitución, y del rector de Ormaiztegui (Eusebio Antonio), por el interés que esperaba o no sé por qué, opinaba como ellos, comunicando a menudo con el de Madrid (Miguel). Este vicario interino ha sido más moderado que el hermano rector, de modo que sería dificultoso probarle cosa que merezca castigo mayor, aunque en el púlpito y en conversaciones todos han conocido su exaltación y liberalismo". Sugiere un plan para quitarle el cargo...". Zigor gogorra, zinez; halere, handik gutxira Mutiloko bikario izendatu zuten, Amundarainen ondorengo. Bestalde, Gerriko Bikario Nagusiak ez bide zuen hain gogor jokatu bere lehengusu Jose Felixekin; (honen aurkako ezer ez dugu aurkitu Iruñeko Apezpikutegekiko Artxiboan).

Dena den, handik laster, apezpikuak bakebiderako gutun bat atera zuen, apaizek sermoietan beren *hutsegiteak* apal-apal aitortu zituzten (hunkigarria izan omen zen Iturriaga jipoiuaren parrokoak 1823-07-19an egindako sermoia) eta indultu antzeko zerbait eman zitzaizkien⁹.

Fernando VII.a hiltzean, bere anaia Don Karlosen eta azken emaztearekin izandako Isabel alabaren arteko gerra, Karlistada, hasi zen, 1833an. 1839an amaitu zen, *Bergarako Besarkadaz*. Gorteek Foru Diputazioak gainerako probintzieta-koen mailan jarri zituzten; 1837-09-16an Batzar Nagusiak kendu zitzaizkigun ... Bestalde, 1835-1855 tartean, desamortizazio-lege ugari kaleratu zen. 1876an, azken karlistadaren ondoren, Foruen erabateko suntsitzea etorri zen¹¹.

Giro nahaspilatu honetan bizi izan zen eta lan egin zuen (bai 'Jaquin-bide Iritarautia', bai sermoiak) gure Jose Felix Amundarain apaiz liberalak.

2.4. Zumalakarregitarrek

Amundarainek bere 'Jaquin-bide Iritarautia' ren sarrerako eskaintzan egundoko goraipamenak egiten dizkio Migel Antonio Zumalakarregiri. Jaso ditzagun, bada, Zumalakarregitarroi buruzko datu batzuk ere:

Frantzisko Antonio Zumalakarregi Muxika ormaiztegiarra (1741-1792), lanbidez eskribau (Mutiloko elizaren eta udalaren agirietan ere sarritan azaltzen da), bitan ezkondu zen:

⁹ Goñi Gaztambide 1991: 334-335, 357-360, 364-366, 460 orr. Oso interesantea IX. tomo osoa.

¹⁰ Goñi Gaztambide 1991: 367. or. Gerra osteko errepresioari buruz, luze-zabal: Montoya 1971: 243-267, 271-294, 297-325 orr.

¹¹ Azpialat hau moldatzeko dokumentazioa: 3. oin-oharrekoa bera.

Maria Kontzepzion Aseginolaza Olaranekin 1761ean Zegaman. Herri honetan hiru seme-alaba izan zituzten:

1. Pablo (1763-1792).
2. Jose Antonio (1764), Arantzazuko frantziskotarra. Eta
3. Martin Jose (1765-1790). 1784-11-15ean Maria Manuela Amundarain Otaegirekin (Jose Felixen osaba Juan Antonioren alabarekin) ezkondu zen. Gurasoen Zegamako Mazkiaran etxean jarri ziren bizitzen. Etxe honetan hil bide zen Tomas jenerala. Bikotearen seme Domingo Amundarainen oinordeko izan zen. (Lanaren lehen partean sarritan aipatu ditugu kontuok).
1769-06-18an Maria Ana Imaz Altolagirre (1748) ataundarrarekin ezkondu zen. Idiazabala joan ziren bizitzera eta lanera. Hamaika seme-alaba izan zituzten; lehen laurak Idiazabalen:
4. Ana Maria (1770-1792).
5. Migel Antonio (1773-02-20). Zuzenbide ikasketak egin zituen. Cádizko Gorteetan, Gipuzkoako diputatu ordezkoko gisa, Konstituzioaren prestakizun-lanetan hartu zuen parte, inoiz Gorteetako idazkari eta buru ere izan zelarik, (1812ko Konstituzioaren egileetako bat dugu, beraz). 1815ean frankmasoitzat salatua eta epaitua izan zen. Fernando VII.aren bialdi absolutistetan ez zuen politikan parte hartu; bai, ordea, liberalen hiru urteko aldian (1820-1823). 1820-05-27an Justiziako Auzitegi Goreneko Ministro izendatu zuten (Amundarainek 'Jaquin-bide Iritarautia' "Goitico Consejo Justiciacoaren Ministroari" eskaintzen dio). 1824-10-01ean, Fernando VII.ak bere bigarren manifestua aldarrikatzean, politikatik erretiratu egin zen. Erregea hiltzean, 1834-1836 bitartean Burgosko Errege Entzutegiko errejente izan zen. Lehenengo Karlistadan, gobernu liberalaren aginduz, bere anaia Tomasek gerra utz zezan saiatu zen, baina Migel Antonioren ahaleginak hutsalak izan ziren. Tomas hiltzean, 1836an, Justiziako Auzitegi Goreneko Ministro hautatu zuten berriro. 1842an Grazia eta Justiziako Ministro. Espainiako Gorteetako kide ere izan zen. Bentura Larrearekin ezkondu zen; ez zuten familiarik izan. 1867an hil zen Madril. Liberalen buruzagi izan zen gizaseme goierritar honixe eskaini zion Amundarainek bere Dotrina politikoaren itzulpena.
6. Frantzisko Antonio (1774).
7. Maria Ignazia (1776). Eta Ormaiztegin:
8. Eusebio Antonio (1778-1853), Ormaiztegiko bikario. Liberal sutsu samarra izan bide zen. Bere parrokia Lazkaoko fraideen eskuetan utzi eta Donostia hiribilduan ezkutatu zen, errepresioaren beldur edo. Amundarainek harreman ugari izan zuen Eusebio Antoniorekin, biak ere Gaztañaga korriedokoak izan baitziren.

9. Juana Bautista (1781-1839).

10. Silberia (1783).

11. Migel Romualdo (1785).

12. Margarita (1786-1788).

13. Tomas Antonio (Ormaiztegi, 1788-Zegama, 1835). Ormaiztegiko Iriarte etxean jaio zen 1788-12-29an. 15 urterekin Idiazabala joan zen Pedro Urreta eskribauaren ondora, lanbide honetan trebatzeko asmotan. Geroago, Iruñera joan zen apaiz- ikasketak egitera. Baina, Independentziaren gerra piztean, Zaragozara aldegin zuen borrokan parte hartzera. Hiri hau bigarren aldiz setiatu zutenean, frantsesek preso hartu zuten, baina ihes egitea lortu eta jaioterrira itzuli zen. Gaspar Jauregik Gipuzkoan osatutako boluntario-taldean sartu eta bataila askotan hartu zuen parte (1809-1813). Freire jeneralaren aginduetara zegoen armada pasa zenean, kapitain zen eta San Martzialgo batailan parte hartu zuen (1813). 1820an, absolutista zelakoan, Lopez Baños jeneralak armadatik bota egin zuen; ondoren, Quesadaren zerbitzura jarri zen eta teniente koronel izendatu zuten (1822). Portugalgo mugara bidali zuten, eta han izandako zenbait ekintzari esker koronel gradua lortu zuen (1829). Ferrolgo gobernadore militar izan zen, baina La Granjako altxamenduaren ondoren, absolutistekin bat ez etortzea leporatu zioten eta Iruñera bidali zuten (1832). Fernando VII.a hiltzean, Iturraldearen agindupean zegoen armada karlistan sartu zen (1833). Geroztik, karlisten buru eta armada-antolatzaile izan zen. Espainiako iparraldeko armadako jeneralen kontra borrokatu zen behin eta berriz (Sarsfield, Valdés, Quesada, Rodil, Mina) eta armada sendoa eratu zuen. Borroka gogorrak izan zituen liberalen kontra; ia Nafarroa osoa, Bizkaia eta Gipuzkoa (hiriburuak izan ezik) karlisten esku jarri zituen. Don Karlosen aldeko armadarekin gorabeherak izan zituen: Zumalakarregik Gasteiz eskuratu eta Madril aldera jo nahi zuen eta karlistek, britainiarren laguntza lortzearen, Bilbo setiatzea erabaki zuten. Otxandio eta Durango aldera joan eta 1835eko ekainaren 10ean hasi zuten setioa; 15ean zauritu egin zuten; osatzeko asmotan Zegamara ekarri eta 1835-06-24an hil egin zen, Martin Jose anaia zenaren Mazkieran etxean, agi danez.

Pentsaeraz, beraz, Migel eta Tomas anaiak oso desberdinak izan ziren.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Elgoibarren bildurik, bi anaia ospetsuei monumentua eraikitzea erabaki zuten, baina 1886-12-13an Tomasi bakarrrik jaso zioten Zegamako eliza barruko mausoleoa, Migelez erabat ahazturik. Eta

14. Jose Manuel (1791-1883). Eusebio Antonio anaia baino moderatuxeagoa. Zeraingo bikario-ordeko zelarik, bere benefiziatu izan zen Jose Manuel Gerrikok, jadanik Bikario Nagusiak, akusatua izan zen, kargua kentzea

proposatuz. Amundarain hiltzean, Mutiloko bikario. (Sarritan aipatu dugu lehen partean)¹².

Honela beraz, Jose Felix Amundarain Migel Antonio Zumalakarregiren anai-ordearen lehengusu izan genuen.

¹² Amador Carrandi 1951: 177-197 orr. Halaber, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa 1993: 1761. or. Halaber, Lur Hiztegi Entziklopedikoa 1993, X: 510-511 orr. Eusebio Antonio, Migel Antonio eta Tomasi buruz: Gil Novalles: 716. or.

3. 'JAQUIN-BIDE IRITARAUTIA'

3.1. Lehenago esan bezala, '**Jaquin-bide Iritarautia**' eskuizkribua gaztelerazko Doktrina politiko baten euskarazko itzulpen zuzena dugu, 1812ko Espainiako Konstituzioa eskoletan-eta irakasteko Amundarainek euskaratutako Doktrina politikoa.

15x10 cm-ko 108 orrialdetan letra txukun, garbiaz idatzitako izkribu honek, Juan San Martin euskaltzainaren esanetan, egundoko balio historikoa eta juridikoa du¹³. Izan ere, gure literaturan ez baitzaigu 1820 arte honelako lanik azaltzen. Ia oso-osorik erlijiosoak den euskal literaturan (sermoiak, dotrinak...), benetan estimatzekoa eta mirestekoa da lan politiko-juridiko batekin topo egitea, berau itzulpena bada ere¹⁴. Alor honetan, bada, aitzindari izan genuen gure Amundarain.

Doktrina politiko honek, Izenburuaren eta Migel Zumalakarregiri zuzendutako Eskaintzaren ostean, 18 kapitulu, 'Iracurza', ditu:

1. Neurquida edo Constitucioaren gañean.
2. Dierrri Españatarraren gañean.
3. Leguearen gañean.
4. Españatarren eta Españaco Iritarren gañean.
5. Gobiernuaren gañean.
6. Uribatzarren gañean.
7. Legue ezarcearen eta Erregueren bitezarcearen gañean.
8. Ecautuen bilguma beti iraulearen gañean.
9. Uribatzarre oiezlacoen gañean.
10. Erregueren gañean.
11. Secretario Naidarteguicoen gañean.

¹³ San Martin, faksimile-edizioko oharra.

¹⁴ Erlijio-liburuak, gramatikak, hiztegiak alde batera lagata, Amundarainen aurreko lanak: Sarako Etxeberri medikuaren "Escuararen Hatsapenac edo Ethorquia" (1712) eta "Lau-Urdiri Gomen-diozko Carta" (1718); Barrutiaren "Gabonetako ikuskizuna" (1759); Muniberen "Gabon-Sariac"; Juan Antonio Mogelen "Peru Abarca" (1804rako idatzia); Juan Jose Mogelen "Baserritar nequeza-leentzaco escolia" (1816), eta ezer gutxi gehiago. Geroxeago azalduko zaigu Iztueta bere "Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira"rekin (1824).

12. Egoitzaren Consejuaren gaiñean.
13. Tribunalen gaiñean.
14. Justicia eguitearen gaiñean.
15. Provincia eta Errien gobiernu barrucoaren gaiñean. Erri batzarren gaiñean.
16. Provinciatarren Ecauteen gaiñean.
17. Soldadu Dierritarren gaiñean.
18. Taldiquiden edo Contribucioen gaiñean.

‘Jaquin-bide Iritarautia’k 1812ko Cádizko Konstituzioa azaltzen du, Astetez geroko Kristau-Ikasbide txikien (eta handien; adibidez, Gerrikorenaren) erara, hots, *galdera eta erantzun* sistema jarraituz. Eta bere helburua, Izenburuan adierazten denez, *Erritarren arguidoraraco, Gazteen icasbideraco, eta Escola-maisu-en usoraco* da; laburtuz, Konstituzio ezarri berria eskoletan euskaraz irakastekoa, hain zuzen ere.

Eskaintza: Amundarainek Migel Zumalakarregiri egiten dion Eskaintza (*donkitzea*) Axularrek “Gero”ko *Gomendiozko Kartan* Bertrand Etxausi egiten di-onaren *kalko* garbi-garbia da, perpaus osoak hitzez hitz kopiatzen dituelarik: “...*arranoac, airean dohanean, bere umetara bezala...*” (Axularrek) = “...*Arranoac, aidean dijoala, bere humetara becela...*” (Amundarainek). “...*Zure gerizan doha: zure itzalaren azpian benturatzen da, errezibi ezazu bada...*” (Axularrek) = “...*Berorren itzalaren azpian bacarric ventura liteque; etartu beza arren...*” (Amundarainek) ... Amundarainek ezagutzen zuen, beraz, Axularren “Gero”.

Bigarren parte honen 5. azpiatalean jasotzen dugun eskaintza hau eta jarraian ezartzen ausartu garen Axularrena irakurtzean, nabarmen-nabarmen azaltzen zaigu Amundarainek, bere lanari ekiterakoan, begien aurrean izan zuela Sarako apaizaren obra.

3.2. Erdarazko orjinala: Ibisateren esanetan, Amundarainek itzuli zuen erdarazko Doktrina politikoa

<p><i>“Catecismo político, arreglado a la Constitución de la Monarquía española: Para ilustración del pueblo, instrucción de la juventud, y uso de las escuelas de primeras letras”</i> da.</p>	<p>Amundarainen itzulpena: “Jaquin-bide Iritarautia Españiaco Neurquidaren, edo Konstitucio berriaren erara adreztua Erritarren arguidoraraco, Gazteen icasbideraco, eta Escola-maisuen usoraco...”</p>
---	---

Egilea: D. J.C. siglapean, Amundarain bezalaxe, ezkutatu zen anonimoa. (Don Juan Corradi, segurur asko).

Asteteren Kristau-Ikasbideko galdera-erantzun metodo bera jarraituz, Doktrina konstituzional ugari argitaratu zen Espainian 1812tik aurrera, denak anonimoak: 1812an Córdoba eta Cádiz, 1813an Liman -Ameriketarainoko hedapena izan zuten- ... 1816-02-09an Fernando VII.ak debekatu egin zituen. Eta 1820an Bartzelonan, Vichen, Valentzian ... Azken hauetakoren bat erabili ote zuen Amundarainek eskuartean? Oso interesantea litzateke puntu hau zehaztea, mutiloarraren itzulpen-lana aztertu ahal izateko¹⁵.

3.3. Itzulpen gehiago: Amundarainen itzulpena ez zen bakarra izan. Vinsonek bere Bibliografian itzulpen elebidun bat jasotzen digu: “Cartilla civil del ciudadano español constitucional: Galdeac, ta eranzubac, ceñetan Espaiñaco uritarrai eracusten zayen beren gobernu-legue edo Constitucioac aguintcen dien bearric edo obligacioric audienac”, J.M. La Lama, Tolosa, 1820¹⁶.

Bada besterik ere, ordea. Pío Montoyak Serapio Muxikaren Bildumako 49. kajoian Villafuertesko kondeak, Gipuzkoako buruzagi politikoak (egungo gobernadore zibilen parekoak) Tolosatik, 1820-11-14an herrietako alkateei zuzendutako gutun hauxe aurkitu zuen: “...el ciudadano Manzanares, profesor de Medicina, y titular del Valle de Léniz, quien me ha entregado doce egemplares de la “Cartilla del ciudadano español constitucional” con su versión al vascuence, impresa a sus espensas, y siendo *la primera en este idioma*, excito a V.S. a que sirva disponer, que los maestros de primeras letras, recojan del citado Manzanares, los ejemplares que gusten, para sus respectivas escuelas...”¹⁷.

Vinsonek aipatzen duen itzulpena anonimoa da. Muxikarena Manzanares Leinzko medikuarena dugu. Itzulpen bera ote? Ala bi ezberdin? Honela izatera, batek ez ezik, bik ere aurrea hartu zioten Amundaraini. Zenbaterainoko hedapena izan ote zuen/zuten Doktrina politikoaren euskal bertsiok/bertsioek? Haxe izan zitekeen Amundarainen itzulpen-lana ez argitaratu izanaren arrazoia; jadanik argitaratua baitzegoen eta bigarren baten premiarik ez zen ikusiko.

3.4. Zergatik egin ote zuen itzulpen-lan hau Amundarainek? Garai haietan ez zen batere ohikoa elizgizonak honelako langintzetan ibiltzea. Seguru asko, Mutiloko bikarioa pentsaeraz liberala izan genuen: kanpo-herrietan urte luzeak emana eta hango *aire berriek* gogor erasan zioten, antza. Gogoan izan liberal susmagarritzat joa zegoela Iruñea aldean. Bestalde, ingurukoek ere bultzatu bide zuten, batez ere Ormaiztegi eta Zeraingo Zumalakarregitar apaiz liberalek; hauekin harreman es-

¹⁵ Ibisate 1992: 222-227 orr.; eta 1994: 159. or.: “catecismo político de notable éxito en su tiempo”, eta 168. or.: Gipuzkoako herrietan erabiltzen omen zen. Adibidez, 1822-05-10ean Bidaniako Udalak herriko eskolarako crosi zuen (168-169 orr.).

¹⁶ Vinson 1984: 269. or., 188. zk. Halaber, Sorarrain 1984: 168. or. Halaber, Bilbao 1973, EGIPV, Bibliografía III: 557. or.

¹⁷ Montoya 1971: 65. or.ko 17. oin-oharra. ‘*la primera en este idioma*’ etzanak gureak dira.

tuak, sakonak izango zituen, Mutiloa, Zerain eta Ormaiztegi elkarren auzo baitira. Gainera, Amundarain Zumalakarregitarrokin ahaide egiten zen¹⁸.

Ibisatek aipatzen duen beste arrazoi hau ere jasotzekoa iruditzen zaigu: 'Jaquin-bide Iritarautia'ko sarrerako "...nere neque labor, chiqui (honi) ... Eusquel Errietaraco prochu andicoa deritzat" esaldian oinarrituz, "...Acaso el deseo de evitar a sus pequeños feligreses de Mutiloa el suplicio añadido de tener que aprender materias tan abstrusas en una lengua extraña desconocida..."¹⁹. Izan ere, hone-lako gaiak, erdaraz ere txit ilunak eta ulergaitzak, erdara tutik ez zekiten ume eta gaztetxoek irakastea ezinezko lanbidea zen, zinez.

3.5. Amundarainen liberaltasunaz: Amundarain liberala izan ote genuen? Orain arte azaldu dugunaren arabera, horrela dirudi: 'Jaquin-bide Iritarautia', Konstituzio liberalaren Doktrina politikoa euskaratu zuen; itzulpenaren sarreran Migel Zumalakarregi politikoa liberal peto-petoari egundoko gorapamenak eta laudorioak egin zizkion; bestalde, lehenago ere esan dugu baina, hirurteko konstituzionalaren ostean, Euskal Herrian ireki zen *sorgin beltzen* ehize-garai hartan, Amundarain atxilotu beharrekotzat azaldu zen Iruñea aldeko salatarien zerrendetan. Zergatik? Itzulpenagatik? Baina nor zegoen Amundarainen *bekatu larri* honen jakinaren gainean? Zumalakarregitarrak bai, seguru asko. Bere lehengusu eta lagun Jose Manuel Gerriko? Honek ere zerbait baino gehixeago jakingo zuen, baina isilik geratu zen, lehengusuaren kontra inolako salaketarik egin gabe. Gure ustez, Mutiloko bikarioa, hirurteko liberalaren hasieretan bederen, sermoietan eta herritarrekiko solasetan liberalen aldeko azalduko zen; beharbada, nahikoa sutsu ere bai.

Baina 1824 aldera idatzi zituen sermoiak aztertzen baditugu, guztiz alderantzizko gauzak ikusten ditugu. Egokiena, beraz, bere sermoietan jaulkitzen digun ideologia aztertzea izango dugu.

Hona segidan bost sermoi-zati:

Azken hogeita hamar urte haietako Espainiako gobernu eta politika guztiguztiak arbuiauz:

"...;Hispania, Hispania! ... ¡O! España, España: viurto zaitetz Jaungoicoagana ... esanzadazute eguiatz, eta pasio gabe: ¿Oté dagoan Españían gaurdan egunean ichumen guichiago, orduan Jerusalemén aurquitzen zan baño?; ... ¿Cer dacusgú castigua, azotea, naigabea besteric aspaldico urteetan? Ogueta amar urte onetan gueldizaca guerra, eta izurri artean vici guerade Españían; Erbestearrac ascco ecic; gueroc, gueron buruai guerra portitza publicatu diztegu. Esan lezaquean eran bata bestearequiñ aserratu guerade, ... Ez diote barcatu senideac senideari; aideac aidea-

¹⁸ San Martín 1987: 393-397 orr.: Amundarain liberala izan zela argi eta garbi ez badio ere, testu osotik ondorio hori atera daitekeela uste dugu. Ibisate 1994: 166. orr.: Oso zuhur: "¿Motiva la dedicatoria sólo una afinidad de pensamiento, un común ideal liberal?"

¹⁹ Ibisate 1994: 169. orr.

ri; adisqueac adisqueari; Gurasoac semeari, eta Semeac gurasoari. ¿Cembait lotsagarrizco eriotza guertatu dirade; cembait Sacerdote; cembait Religioso; cembait persona honrradu plazaren erdian il dituzte guezur bat dalario? ¿Cembait Eche saqueatu dituzte; cembait familia ondatu dituzte bazterretan?; Cembait Eliza lapurtu dituzte; cembait sacrilegio, mesprecio deshonrragarri guertatu da España ederrean, fedearen Jaureguian? ¿Eta cer aleguiñac eguiñ dituzte fedea Españiatic alderanceco, Ynquisicio santua eragotzi, edo debeatuaz; Aita Santuari errespetoa galduaz; Eliz-Arzayai Erbesta eraguiñaz; eta azquenic norc esan cezaquean, Españatarrac beren Erregue onegui triste erruquirena, bere familiarequiñ batera, cativo artu, eta gentalla gaiztoac berequiñ eramango zutela; España guztia galceco asmo osoan? ... Hispania, Hispania convertere ad Dominum Deum tuum...” (Doma. 9a. post Pentec.).

Antzeratsu:

“...Eta dacusgunez, gueran egunetan, esan lezaque, ateetan daucagula juicioco egun negargarri au: bada ezta besteric icusi, baicican Templo santuetan lapurretac, ministro sagraduetan eriotzac, Eliz Arzayac iguesi, eta beren artaldetican iguesi, eta alderanduric, gente gucia contribucioa contribucioaren gañean goaituric, Christau leguea naasturican; eta bazter guztia ondaturic, deseguinduric, Erregueac beren jarlecutic botaric, itz batean, azpicoac gora España guztia itzuliric. ¡O! Españatar erruquirenac! Orate autem, ut non fiat fuga vestra in hieme, vel in sabbato. Oracio eguizute, zuen iguesa, zuen lasterra izan ez dedin neguan; edo aste aitzenean...” (Doma. 24.a post Pentec.).

Hamarrenak erdira jaitsi izana kritikatu:

“...Gure Eliza Santaren bostgarren mandamentu santuac berac arguiro asco dio: Jaungoicoac ematen dizquigun ondasunetic Amarren, Primiciac eguin ditzagula. Onetan Necazari, eta beste Christau modu ascoren artean, eta cinzoro legue santua ezagutzen duten artean, ezta icusi dudarican batere, ariqueta gure Españian, eta gure egunetan Guizon verri jaquinsuac, edo obeto esateco, verrichuac aguertu diraden bitartean; ez ezagutcen etzutelaco obligacioa, baicican gente comuna, eta iñocentea engañatceagatic, ondo cetorquion eztiqueri pisca onequiñ. Aguindu zuten bada bacarrican amarren, eta Primicien erdiac pagatceco; uste izan cezan necazariac prochu guztizcoa cetorquiola onembesterequiñ; bada ez dute caltea beste aurrerapenic icusi. Eta gueyago dana; nai izan cituzten amarren, primicia guztia erabat quendu guizon verri jaquinsu sortu verriac; cerren bere asmo dollor, madaricatuac guidatcen cituzten Religio santua galcera, bere Ministraquiñ batera ... Jaquin bear zuten guizon Verri oriec amarren, primiciac ciradela ... Ja-

quiñazute, nere Christauac, ascotan, guiza aldi gucietan izan dituala Eliza santac alde gucietara Etsai errutsuac, eta madaricatuac ... Bañan alaz guciarren ere, gure demporan aguertu diraden guizon verrijario oyen eran, eta batere ichuragabe, oraiñdaño ez diote, zuzen eta batetan eraso auserdi andiarequiñ Elizari bere legue santuetan, eta dotriña, edo icasvidean; inguruca, edo ozta ezagun zala eguiten cioten alde batetican, edo bestetican; cerren cequiten ondo Erregue justuac beren tronu, edo Jarlecuetan aurquitcen ciraden demporan disteatu, eta gaiñezca eguiten zuala piedadeac, caridadeac, eta Religio santua conservatceco ansia eguiazcoac, eta indarsuac. Orduoro, instanteoro, Erreyneu gucietan icusten zan zaleturic, eta alaituric gentea Templo santuac honrratceco bere ministroaquiñ batera. Gure Españiaco Erregue, eta Principe andiac onetaraco eguiñ dituzten aleguiñac, mundu guciac dacus, dudatzaca mirariz betetaco Templo sagradu ugari orietan ... Erreguetaraño-co guciac daude obligaturican oró Jaungoicoari, eta bere Eliza Santari amarrenac pagatcera. Eta premia estuetan aldartez Erregueac beartu badirade amarren zati batzuac erreservatcera; au eguin dute, ez berezez, baicican Aita Santuen baibenarequiñ. Itz batean esateco Españiaco uso-costumbrea, edo oitura izan da beti, premia demporetan licencia escatcea Aita Santuai, Amarrenac edo beren zatiac arceco, premia estalceco aldarte estuetan; baita ere Elizaren amparatzalle, guizon honrradu prestuai eman zaizte amarren zatiac ascotan; argatic emendican dacarte asiera Eliz-Patroyac, eta ematen zaizte amarren zatiac Eliza ascotan...” (Doma. 22. post Pentec.).

Inkiszioa berriro ezartzearen alde:

“...Orain nere Españatar maiteac, Jesu Christoren Españiaco soro estimagarrian Etsayac naastu duan ezquero Deabruaren dotriña madaricatuac: Inimicus fecit hoc: ... Jaquiña da, gorputcean trabajua errazago sartcen dala, ateratcen dan baño; ala ere boticacoac luce, edo labur sendatu oi dituzte trabajuac, ateratcen dute gaitza gorputcetic: eta Españian, Jaungoicoari esquerrac, badegu guztizco boticacoa, guztizco erremedioa, modu orretaco gaitzac ateratceco Españiatic. ¿Badaquizute boticaco onen verri? Bai, jauna, esango dezute, nerequin batera. Da Inquisicio Santua leengo oñean ifintea. Icentatuaz beste gabe, ayenatuco dirade liburucho zalcadunac, eta ayen jabe triste, erruquirenac. Jaungoicoari nai daquiola, alic leenena ifintea Tribunal Santua...” (Doma. 5a. post Pentec.). (Amundarainen ‘Jaquin-bide Iritarautia’ bera ere ez ote liburutxo zalkaduna?).

Berriro Inkiszioaz eta liburutxo zalkadunez:

“...¿norc esan cezaquean icusico zala Españian fede santua coloca buru colocac diralario? Norc esango zuan, emacumetáraño guciac atse-

guiñ artuco zutela fede santuaren Gaztelu, eta muralla andia, ceña dan Inquisicio santua quencea indarrez, Aita Santua mespreciatuaz, eta gañeraco Eliz-guizonac illaz, eta oñazpiratuaz? ¿Norc esango zuan, Españiaco damachoen escuetan Aita Astete, edo Cartilla, eta Aita Sn. Ignacio Loyolacoaren liburuen ordean, icusico ciradela Erbesteco liburuchoa pintatuac, heregiaz landatuac? ¡Ha!...” (Doma. 13. post Pentec.).

Sermoi-zatiok begi-bistan, segidako ondoriook ateratzen ditugu:

1. Lehenik eta behin, Amundarain azken hogeita hamar urteetako politika oso-osoaz zeharo etsia, gogaitua eta nazkatua agertzen zaigu. 1793az geroko, hots, *Konbentzioko* gerraz geroko Espainiako politika guzti-guztiak (hiru aldi absolutistak, bi aldi liberalak eta hiru frantsese-aldiak) arbuia-garrizat jotzen ditu, denak zorro berean sartzen ditu: gerra, galera eta hondamena besterik ez du ezagutu bere Hispania maiteak azken hogeita hamar urteotan. Absolutista, liberal edota frantses, denak dira errudun eta egoera ezin negargarriago haren erantzule.
2. Errege kuttunarenganako maitasun kabugabea. Halaber, Espainiarentzako.
3. Frantsesenganako gorrotoa. Eta
4. Liberalei egundoko erasoak. Elizaren, erlijio katolikoaren eta elizgizonen kontra egin dituztenak ahazteke, salaketa konkretuak:
 - a) Inkisizio Saindua derogatu izana; berriro ezartzea eskatzen du, gainera. (1808an Jose Bonapartek, Espainiako errege frantsesak, Inkisizioaren ondasun eta funtzionario guztiak bahitu egin zituen. 1813an Cádizko Gorteek, agintea hartzean, derogatu egin zuten. 1814-07-21ean Fernando VII.ak berriro indarrean jarri. 1820-03-09an (Amundarain itzulpen liberala egiten hasterako, beraz) herriak Inkisizioko espetxeetako atek txikitu, funtzionarioei eraso eta altzari eta agiriak erre egin zituen; ondorioz, gobernu liberalak berriro derogatu egin zuen. 1823an berriro indarrean jartzeko asmoak azaldu ziren, baina ez zen berpiztu, eta 1834an Maria Kristina erreginak betiko derogatu zuen).
 - b) Elizaren hamarrenak erdira jaitsi izana, eta erabat kentzeko asmoak ere agertu izana. Erregeak ez ezik, eliz patroik edo zaindarien ere hamarrenak jasotzeko duten eskubidea sutsu defendatzen du, gainera; eta hori, Lazkaoko jaunak, Mutiloko elizaren patroiak, hamarrenen erdia bereganatzen zuelarik, herriko apaizak miseria gorrian lagaz! (Espainian Koroak hamarrenen zati handiak jasotzen zituen, eta 1821-06-29 arte ez zen inolako aldaketarik egin alor honetan, *berritsu berrijario bazter endredatzaile eta hondatzaile* haiek erdira jaitsi zituzten arte!).
 - c) Erregea bahitu izana. (1808an frantsesek Baionara eraman zuten Fernando VII.a. 1823an, Europako absolutista erregezaleen aldeko guda-rosteak Espainian sartzean, gobernu liberalak, beldurrez, erregea bahitu eta Sevillara eraman zuen berekin).

- d) Eliz artzainek erbestera aldegin behar izana. (Liberalen gobernu aldian apaiz eta, batez ere, erlijioso asko eta asko izan ziren atzerriratuak edota ihes egin beharrean gertatu zirenak. Joakin Xabier Uriz Lasaga, Iruñeko gotzaina bera ere bai).

Amundarainen sermoietan, egia esan, ez da liberalen Konstituzio eta gobernuko *espiritu* izpirik ere sumatzen. Are gehiago, absolutista erregezaleen ideietatik hurbilago dakusagu Mutiloko bikario xaharra. 1820an liberal azaldu bazitzai-gun ere, oso urte gutxiren buruan egundoko aldaketa jo zuen, alafede! Beraz, gure ustez, 1820an, Amundarain, herritar gehienak bezalatsu, liberalen eta hauen berrikuntzen aldeko bero-bero azaldu zen; baina, handik gutxira, gobernu berriaren politikak berebiziko etsipena sorrarazi zion, hasierako poztasuna tristura eta amorrazio bihurtuz. Herritar asko eta askori gertatu zitzaiona bera gertatu zitzaion gure Jose Felixi ere²⁰.

Beste hipotesi bat jaurtitzen ere ausartuko gara: Baliteke Amundarainek azkeneraino liberal izaten jarraitu izana, baina, 1823tik aurrera hedatu zen errepre-sio ankerraren atzaparretatik ihes egiteko edo, eta aurreko aldiko bere *bekatua* nolabait estali, ezkutatu nahirik, sermoietan liberalen aurkako erasook botatzea; hots, sermoietako ideologia *zurikeria* hutsa baino ez izatea. Izan ere, egia esan, ez ziren batere erosoak, samurrak izango Jose Felixen bizitzako azken urte biak; herritar eta elizgizon askori gertatu zitzaien bezala, salatua, atxilotua eta zigortua izateko arrisku bizi-bizian igaroko zituen, ziur aski, bere azken urteak Amundarainek.

²⁰ San Martin 1987: 396-397 orr.: 'Jaquin-bide Iritarautia'z ari delarik: "... Honako liburuxka hau eta hitzaurre gisa daraman eskaintza, lekukokotasun bat gehiago dugu Cádiz-ko Konstituzio hura Euskal Herrian orokorki onartua izan zenarena. Baina 1820-23. hirurteko aginte hartan ... libera-
lek sartu zituzten aldakuntzak sumindurik utzi zuen Euskal Herria. Ordurarte gehiengoak ontzat ikusia, kontrako bihurtu zen eta hortik sortu ziren geroko nahaspilak, iskanbilak eta gerrak...". Eta geroroxeago: "...gauza bat utzi behar dugu garbi: Cádiz-ko Konstituzio bera ... orogandik onartua izan zela; baina ondoko Hirurteko hura ... ez...".

4. LEXIKOA

Amundarainen lan hau txit berezia dugu: Gaia ordurarte ia inork inoiz erabili gabea. Eta gaia berezia izaki, beronen tratamendua ere (lexikoa, estiloa...) berezia izan behar, nahitaez. 'Jaquin-bide Iritarautia'ko lexikoa lexiko politiko-juridikoa da, lexiko teknikoa, 1820 aurretik euskal literaturan landu gabea. Beraz, nondik jaso lexiko tekniko, berezi hori? Ordurarteko hizkuntza literariotik ezin, ezer ez baitzegoen; mintzatutik ere ez, mailegu huts gutxi batzuk izan ezean. Nahitaez hiztegi berezitu batera jo behar. Eta horretarako hiztegi egoki bakarra Aita Manuel Larramendiren, Andoaingo jesuita handiaren, 1745eko "Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín" zen. Larramendiren hiztegi ederrean aurki zitekeen halako itzulpen tekniko bat itxuraz, gaiak agintzen zuen zehaztasunaz burutu ahal izateko lexiko aproposa eta zehatza, lexiko teknikoa, alegia.

Amundarainen sermoietako morfologia (deklinabide-atzizkiak eta aditz-formak) eta sintaxia 'Jaquin-bide Iritarautia'koaren berdin-berdinak dira; ez, haatik, lexikoa. Sermoietan oso gutxi erabiltzen du Larramendiren hiztegia (zertxobait bai; ikus III.3.3.), gainerako apaizek beren lanak burutzean bezalaxe, jadanik egi-na, finkatua baitzegoen lexiko-mota hura; itzulpenean, ordea, Larramendiren hiztegi-hitz *fakultatibo*etara etengabe jo beharrean kausitu zen Mutiloko bikarioa. 'Jaquin-bide Iritarautia' Larramendiren *hitz berriez* josia, goitik beheraino josia, agertzen zaigu²¹.

Berdin-berdin jokatu behar izan zuten gainerakoek ere eliz gaiak ez ziren lanak, lan apurrak, gauzatu ahal izateko. Besteak beste, bi goierritarrek: Juan Ignazio Iztueta zaldibiarrek bere "Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira" (1824an argitaratua. 1820an, beraz, liburua prestatzen arituko zen) eta "Gipuzkoako Probintziaren Kondaira" (1847) moldatu ahal izateko²², eta Klaudio Otaegi zegamarrak, urte batzuk geroago, bere itzulpenak eta hainbat lan gauzatzeko²³.

²¹ San Martín 1987: 395-396 orr.: "...gipuzkeraz idatzia, baina Larramendiren hiztegiak ondo kutsaturik...", eta geroxeago: "...Larramendiren hiztegiak kutsaturik dagoen arren gipuzkera jatorrean idatzia da...".

²² "Ez dakit zenbat jende baliatu zen Larramendik sortutakoaz ... (Hiribarren ez; Asteasuko Agirre, neurri zuhurrean, bai). Orduko idazleek, kontuz erabili zituzten hitz asmaberriak, sortzailearen oinazetan, pozoitsu zitezkeelako, dirudienez, harraldi larriegitan. Ezagunik baztertu bazen usuario horretatik 1850 arte, Iztueta izan zen hori. Honek ... ezinesanezko gosez ekin baitzuen arbola erdi

Hego Euskal Herriko literaturan (batez ere, gipuzkera eta bizkaierakoan) Larramendiren eragina funtsezkoa, erabakiorra izan zen. Jesuita handi honek (eta bere hurbileneko jarraitzaileek: Kardaberaz, Mendiburu, Ubillosek...) euskal literaturaren eraberrikuntza oso-osoa ekarri zuen, euskal literaturaren planteamendu berria egin zuen eta garaiko eta ondorengo (XIX. mendearen erdi aldetik aurrera indarberriturik plazaratuko zitzaigun literaturako) idazle ugariari eskaini: Ordurarteko euskalkien muga estuak gaindituz, bateko eta besteko, Euskal Herri osoko hitzak (liburuetakoa zein herri-hizkerakoak) jaso eta hedatu; aprobetxatu beharreko maileguak aprobetxatu; hitz eratorriak eta atzizki-sistema, ordurarte nahikoa murrizta zabaldu; erdarakada larriegietatik hizkuntza *garbitu...*; hitz batean, hizkuntza idatzia (eta mintzatua: sermoietakoa-eta) erdararen morrontza penagarritik askatu, nortasun berria eman, burua tente ibiltzen irakatsi zien/zigun Larramendik ondorengo idazle eta hizlariari.

Larramendiren eta honen jarraitzaileen eraginari buruz azterketa sakona egin digute, batez ere, Ibon Sarasolak²⁴, Joseba Andoni Lakarrak²⁵ eta Xabier Alzibarrak²⁶, oso-osorik irakurtzekoak diren artikulu bikainetan.

debekatuaren fruituei ez ezik, baita hosto eta adaxkei ere ... Bazterrak ongi arakaturaz gero, Iztueta ez legoke hain bakarti. Hau izan zen, halaz guztiz, Larramendiren bidea saiatu zuena inork baino lehenago eta areago, mundu honetako gauzak (dantza zein erabateko kondaira) tratatzeko. Gure egunotaraino begira egon gabe, horrexek erakusten digu Larramendi izan zela, lehenengo eta behin, *aldiritarren* hizkuntza hiritartu nahi izan zuen euskaltzalea...". Eta beste leku batean: "... Iztuetak ondorengo gutxi utzi zuela pentsatzen duena ez dabil guztiz zuzen, 1876tik aurrera ... idazle laikoak ugaritu ahala..." (Mitxelena 1988, EIG VII: 33-34, 55. or. Eta Sarasola 1984, I: 15-16 or.). Dena den, *Larramendizaleatasun* honetan Amundarainek aurrea hartu zion, lau urtez, Iztuetari.

²³ Aranburu eta beste batzuk 1994: 122-123 orr. Sarasola 1986: 203-204 orr.: Lakarraren lehenagoko lana komentatuz: "...Ipparraldeari dagokionez, Lakarrak aipatu obrei, 1828ko *Testamentu Berria* gaineratu behar zaie. Hau da agian, Iztueta eta Egiategiren idazlanen ondoan, Larramendiren eragina nabariarik azaltzen duen Lore-Jokoen garaiaz aurreko liburua ... Lore-Jokoen garaia dago-kionez eta haien inguruan sortu zen hizkuntz eraberritzean badago oraindik zer azterturik...". Baina Lore-Jokoak dexente geroxeagoko kontuak dira.

²⁴ Sarasola 1986: 203-215 orr.: "...Larramendiren eragina neurtzeko ez da aski *agerkidatu, jaiera* edo *leinargiti* agertzen diren testuen bila aritzea. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen baditugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu direnak ... Kontu berean, *Hiztegi Hirukoitzari* eskerrak hegoaldeko idazlangintzatik desagertzen -edo bakantzen- diren hitzak sartu beharko lirateke ... Hemen ere mailak leudeke: denek edo baztertzen dituzten hitzak ..., eta idazle 'txukunenak' soilik ... baztertzen dituztenak ... Arazoa oro har harturik, Larramendiz aurreko eta ondoko idaztancerak dira erkatu beharko liratekeenak ... Ia erabateko eraberritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea ... 1750-1900 bitarteko testuen 'larramenditartasuna' ez da autoreen arabera banatzen -ondoko garbizaletasunetan oro har gertatu ohi denez-, erabiltzen den tankera eta mailaren arabera baizik ... Hegoaldean, bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa ... gainditu duten euskal idazlan gehienetan atzean Larramendiren eragina -zuzena nahiz zeharkakoa- nabari daiteke. Eta maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahi ta ez jo behar zen haren hiztegiari. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik ... 1900 urtea arteko euskal idazleentzat Larramendiren hiztegiari ezin zitzaion hizkuntz aldetiko aitzakiarik jarri; hortaz, gaiaren nolakota-

Hitz eratorrien (aurrizki, artizki eta atzizkidunen) erabilera ere, sermoietako-aren aldean, oparora dugu itzulpenean; honetan ere Larramendi eta ondorengoei jarraituz²⁷.

kultur edukiak alde batetik, eta irakurleagoak -ustezko irakurleagoak- bestetik, baldintzatzen zuten, beste ezerk baino areago, haren erabilera...” (204-205, 211-212 orr.).

²⁵ Lakarra 1985: 11-50 orr.: “...Larramendik ‘El guipuzcoano no tiene noticias si no es de la porción de voces que se estilan en Guipúzcoa, o aunque la tenga no quiere valerse de las de Guipúzcoa; y como cada una de estas porciones no alcanzan para la universalidad de los objetos vulgares, se califica, pero sin razón, de pobre al vascuence’ (Dic. Tril. Pról. XL). Egoera hau gainditzeko jartzen ditu hiztegia, inolako euskalki bereiztasunik gabe, bildu ahal izan dituen euskarazko hitz guztiak, Euskal Herri guztietara zabal litezen eta denetan ezagut. Hauen ondoren erderatiko mailebu bertakotua sartzen ditu ... eta, azkenik, soilik zientzia eta teknikerarako, berbak asmatzen. Hauek bai, guztiak asmatzen ditu, euskara gai horietan oraindik saiatu eta trebatu gabe bait dago: *El bascuence no ha necesitado...*” (26. or.).

²⁶ Lakarra eta beste batzuk 1992: “...Larramendiren (1690-1766) Gramatika (1729) eta batez ere Hiztegia (1745), ideia eta maisutzak bultzatutako giputz-euskara idatziaren eraberrikuntza eta apaintzarekin eta ondorengo Kardaberaz (1703-1770) eta Mendibururen (1707-1782) liburuekin sortzen da literatur-gipuzkera. Larramendiren eraginezko eraberrikuntza hiztegiara ez ezik euskara idatziaren arlo guztietara hedatzen da ... Lagundiko aipatu hirukotearen ideia eta idazkiek bideratu zuten gipuzkera idatzia. Bere liburua geroxeago, 1785ean, atera zuen Ubillosek (1707-1789) Mendibururen eragin handia du ... Guztiek ezagutu zuten Larramendi eta Maisutzat hartu ... Bestalde, egile hauek ereduariak gertatu ziren ondorengo idazle bikainentzat ... Idazleagoaz esan behar dugu gure idazle klasikoak ez direla nornahi, ikasketa on eta bikainekoak -kanpoan gehinetan- baizik, latinez ondo jantziak ... Idazleok berek latinez edo gaztelerez ikasi eta moldatutako gaiok bihurtu behar harko dituzte euskarara. Hori bai, euskara ondo zekiten eta arteko euskal idazlanak ezagutzen zituzten, hots, idazkera tradizioaz jabetuak ziren eta, beraz, beraien jaioterri txikiko hizkera gainditzen zuten ... Maila apalekoentzat ez ezik jakintza gaiok erabili ez dituen hizkuntza batean beroriek moldatu edo bihurtu beharrak (hasteko, gaiotarako hitzak falta dituen hizkuntza batean) baldintzatzen du euskal idazle on idazlangintza, taiutzen testuon hizkuntzamoldea eta hizkuntza maila ezartzen ... Argi dago Larramendik hegoaldeko euskararen berrikuntza nahi zuela eta tresna batzuk eskaini zituela, batez ere hiztegia eta gramatika ... Euskara beregain nahi bide zuen kultur hizkuntz gisa eta beste hauen pareko. Beregain hiztegia, gramatika, hitzordenan, ortografian e.a. Hiztegiari dagokionez, berak gai guztietakoa nahi zuen, orotarikoa eta orotarakoa. Hitzetan euskarak duen eskasiaz oharturik, eta ez dela aski euskalkietakoekin eta zahar galduxeekin, batez ere hitz tekniko edo fakultatibo deriztatenen arloan, hitz berriak sortzeko bideari ekin zion, mailebuak onartzu aldi berean. Larramendik arauak nahi zituen euskarari eta horregatik egin zuen bere Arte edo Gramatika: arauak morfologian, joskera eta hitzordenan, prosodian, ortografian ... Arauok badukete baliorik euskara idatzirako. Gipuzkerarentzat ereduak nahirik -beste euskalkientzat bezala- bere jaioterritik ekialde-rago jo zuen, Beterrirantz ... Larramendik, bada, literatur-gipuzkeraren batasunaren arazoa praktikan planteatu zuen ... hiztegiari dagokionean garbiagoa, baliabide ugariagokoa -ez soilik ‘edo’ gaztelaniatiko mailebua sartzeko-, atzizki askoz gehiago, e.a. ... Hiztegiari dagokionez, aipatu ditugu Larramendiren garbiketa eta berrikuntza asmoak, baita laburki hark irekitako bideak. Hauen arteko bat, euskalki bakoitzean eta hizkuntza-maila batean beste euskalkietako hitzez baliatzea zen ... Beste bide bat galduxeak diren hitz zaharrak erabiltzea ... Hitz tekniko edo *fakultatibo* edo jakintza arloko hitz berriak ez ezik latin edo gaztelaniatiko euskarari mailebatuak ere onartzen ditu Larramendik ..., euskarakoak ondoan eransteko gomendatuz ... Hitz berriak Larramendik gehienetan eratorpen bidez taiutzen ditu (batzutan aurrizki edo artizkien, asko eta askotan atzizki bat edo biren, zenbaitetan kasu atzizki baten eransketaz), beste batzutan hitz elkarketaz...” (326-327, 332-333, 336-337 orr.).

²⁷ Aurreko oin-oharretan aipatutako idazleek (Sarasolak, Lakarrak, Altxabarrek) berariaz azpimarratzen dute atzizki-sarearen hedapen eta finkatzean Larramendiren eragina. “...bada Euskal lite-

Bestalde, Amundarainek, XVIII. mendeko maisu eta gidari handion gomen-
dioak jarraituz, hitz *berria*, Larramendirena eta ezagunagoa, *zaharragoa*(?), mai-
legua, bata bestearen ondoan ezartzen ditu 'edo' juntagailuaren bidez (noiz edo
noiz 'eta' emendiozkoaz ere bai). Honela, sinonimo bikotez josia agertzen zaigu
itzulpena. Gainera, bikoteak behin ezartzea nahikoa ez bailitzan, testu osoan zehar
etengabe errepikatzen ditu, nolabait esateko, helburu *didaktikoa* bilatuz, gaiaren
ulermena errazteaz batera, hizkuntza landu, dotoreagoren baten atzetik²⁸. Adib.:
*neurquida edo constitucio, adiunde edo audiencia, aldimaitza edo comisio, vegui-
ranza edo administracio, araude edo erreguela, aucidoaita edo proceso, banaita
edo diferencia, bidaguera edo tirania, ecadoi edo juez, diputadu edo ecautu, ba-
carquida edo consul, birtera edo aldaera, taldiquida edo contribucio, bacaronda
edo monarchia, beamuga edo chede...*

Eta beste batzuetan, oso dotore gainera, hitzak alboratze hutsezko juntaduraz,
koma soilez, ezartzen ditu elkarren segidan, Axular eta maisu handien gisara; ira-
kurketa bizituz, bizkortuz, arinduz.

Hona segidan 'Jaquin-bide Iritarautia'ko lexiko aberatsaren hustuketa zabal
samarra. Bertan denetik ikus dezakegu: gipuzkeraren erdian (tartean Goierrikoren
bat edo beste ere bai), beste euskalkietakoak (bizkaierakoak eta ekialdekoak),
maileguak erruz eta lasai eta Larramendiren hiztegikoak (tekniko edo fakultati-
boak, eratorriak barra-barra)²⁹:

ratur hizkuntzaren bilakaeran ene ustez frogaharri gertatzen dena, orain arte egin zaion hutsaren hu-
rrengo jaramona gorabehera. Euskal atziki-sistemaren bilakaera eta aurrcerabidea da. Izan ere koer-
lazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzean eta bertan gertatzen den hitz eratorrien
kopuruaren artean ... Gaur erabiltzen ditugun eratorrietako asko Larramendiren eskutik heldu
zaizkigu; beste askok, aski bizirik -gaur proposatzen zaizkigun beste zenbait baino biziago- irau-
n zuten, mendearen hasieran Arana birgarbizalearen eta Azkue populistaren eraginez baztertuak ger-
tatu ziren arte..." (Sarasola 1986: 206-207 orr.).

²⁸ Lakarra 1992: Altzibarren artikulua: 337. or., besteak beste. Halaber, lan beronetako 334.
or.ko 16. oin-oharra (txit interesantea). Halaber, Iztueta 1990: 66. or.: "...Obra au izkribatzen asi
nintzanean, csan izan ziraten euskara maite zuten gizon jakinti askok, bear nuela ezarri izkuntza be-
rean, gatzelaniaren kutsu gabetanik. Baña ikusirik gure izkera gozoaren itz erazko anitz, gaurko egu-
nean ez daudena usuan, oen ondorean ifinten ditut erdararenak. Egia da izango dezuna, irakurtzeko
denboran, arazo piska bat; baña bidez, ikas ditzaketzu azturik arkitzen diraden zure etxapekoak,
errazkiro..." Lau urte lehenago, asmo eta xede berdin-berdinaz ziharduen gure mutiloarrak.

²⁹ Larramendi 1853. Hona segidan, lagin gisa, Amundarainek darabiltzan Larramendiren Hiz-
tegiko hitz batzuk: administración: *beguiranza*; apostólico: *apostolarra* (Amundarainek: *apostulu-
arra*); audiencia: *adiundea*; ayuntamiento: *batzarrea, bilguma*; católico: *gucieracoa*; civil: *gozan-
decoa*; comisión: *aldimaitza*; constitución: *neurquida*; cónsul: *bacarquidea*/consulado: *bacarqui-
da*; contribución: *taldiquida*; Cortes: *Urien Batzarrea*; delito: *arauzte*; diferencia: *banaita*; distri-
bución: *emasquida*; Estado: *Egoitza, Barrutia, Menpea*; general: *baquida*/genéricamente: *baqui-
daro*; gerarquía: *batinchequia*; monarca: *bacarondea*/monarquía: *bacaronda*/monárquico: *baca-
rondarra*; natural: *ecarrai*; obispado: *apezpicugo*; regla: *araua*; tiranía: *bidaguera, bidaguera-
yoa*/tirano: *bidaguea*; tumulto: *guenasdea*/tumultuante: *guenastaria*...

Halaber, Altuna 1967: 139-300 orr.. Artikulu honetan Altunak Larramendi bera euskal sa-
rrerazko hiztegia prestatzen hasia zela azaltzen digu, eta hiztegi bukatu gabe hori (eskuizkribua) es-
kaintzen digu.

aaztu, aztu: aaztu-erazo
 aci, acitu; aciera
 aconsejatu
 adieraci
 adigarri
 adimentu
 adiñ, adiña: *on eta adiñon*
 adisquidetasun
 aditu: auciac eta demandac aditu
 Adiunde edo Audiencia
 administracio: veguiranza edo administracio aguirico
 adrezatu, adreztu
 aduana
 agorra (= iraila)
 aguerta; aguertu
 aguinta edo erabaqui/edo mandamentu/edo ordena/edo Soberandiaren equersia;
 aguintari; Aguintari Nagusi; aguintari orde edo beragoco; aguinde; aguindu;
 aguinduquizun
 aguiri (= publiko): aguirico escola/ondasun aguirico
 aguitz, aguiz
 aide: *Arranoac aidean dijoala bere humétara ...*
 imbat, ambait, ambat: ambateco
 aimbaista; aimbastundu
 aimbeste, aimbestebait
 aiñ
 aipe: aipez
 Aita Santu
 aiatu
 aitzahui, aitzahua, atzahui
 aitzitic
 al; almen eta escualde; almentsu
 alacoztu edo señalatu
 alaitu eta sucaritu
 alaz guciarren ere
 alcar; alcar aditu: alcar aditce; alcargo, elcargo: elcarguico; alcartu: bildu edo
 alcartu
 Alcate
 alchatu
 aldacoi
 aldaera: birtera edo aldaera: aldaeraco eta gueldieraco auciac
 aldate
 aldatu, alderatu: itzuli edo aldatu
 alde
 alderandu (= baztertu)
 Aldérri
 aldiazca
 Aldimaitza edo Comisio

ale: *ale batec* (= inork ere)
 aleguiñ: *aleguiñ guztizco andiac*
 alfer izan (= alferrik izan)
 aloguera: jornal edo aloguera/edo sueldo
 alorde: alordeco
 amarrutsu
 amparatu
 anchitu; anchitzenda
 ancina: lénagoco edo ancinaco
 andi; andinai; andizcatu
 anz
 aparteco
 Apez Vicario
 Apezpicugo
 Apostular
 apremio
 apuco: apucogabe
 apur: *lan apur au*
 Aragoe
 araitzi, araitian (= arestian)
 araude edo erreguela: araudezco
 arauzte edo gaiztaqueri, gaiztaqueria/edo hoben, oben; arauzle edo culpapun/edo
 gaitzguille: legue-arauzle
 arbaldu: argaldu edo arbaldu
 arbatu: bildu edo arbatu
 arbola: arbola ifiñte
 arceco: zorusta edo arceco
 arduragabe
 argal; argaldu edo arbaldu; argaltasun
 argui: arguiro; arguidora; arguidoratu, arguidatu
 ariqueta (= harik eta)
 arma; armada; armadun: iritar armadun; armatu, armac jaso: indar armatu
 arpetza: autormen edo arpetza
 arpezquiro edo guztiz
 arrano: *Arranoac aidean dijoala bere humétara...*
 arrazoi: prueba edo arrazoi
 arrazquero (= harrezkero)
 arren
 arrera: arrera on
 arrestatu, arrestutu: arrestatce
 arreta: arretaz; arretatu
 arrigarri: arrigarriac (= harrigarritzko gauzak)
 arroztegui
 artaraco
 articulu
 artu: contu artu; artu eman; arzai: preso arzaia edo arrestatcea
 arunz: ichasoaz arunz

arutci

ase

asmo: *asmo char*; *dollor*: asmoac eguiñ; asmatu

asqui

Asturia, Asturias: Asturiaco Principe

ateratu edo bilguratu: atarea

Atlanticoa (mugaturik)

atsecabe: pena edo atsecabe; atsecabetu

atzera (= berriro)

auci: dudac, leyac, auciac: auci obendunac eta gozandezcoac; aucigai; auci joaitatu;

auci juez: leendabico auci juezac; aucilari

aucidoaita edo proceso

Audiencia: Adiunde edo Audiencia: Audiencico Magistradu

auquera: auqeran icentatu; auqeratu edo legoitzatu

aurberri eche

aurpegui eman

aurqueztu; aurqueztari

aurquitu

aurrera: aurreco, aurreraco (= berriro, aurrerantzean); aurrerapen; aurreratu

auto: auto eracaitua

autor: autor-erazo: autor det; autormen edo arpetza: vorondatezco autormen; autor-
rera; aitor: aitorra: aitorra artu

autsi: auste: legue auste/fede auste/neurquida auste; autsiezcor: iraunlari edo autsiez-
cor: autsiezbearreco

autu (= hautatu); ez-autu edo camporatu; autuera (= hautaketa)

azalde edo icen; azaldu

azgarri, señaile edo character

azpi: azpian (= mendean, menpean); azpiratu: legue-azpiratu

azquenic

aztura (= ohitura)

Bacaronda edo Monarchia; bacarondar edo monarchico

Bacarquida edo Consul

bacarric: *bacarric diot*...

bacartu

bacoitza edo nor bera

baguetu: libertadeaz baguetu

baiben: licencia edo baiben; baibendu; baiben edo veguicuste

baicic

bainande edo condicio; doai edo bainande

baldin

Balearac: Ugarte Balearac

balio; baliatu; valimentu

Ballera

banaca; banacatu

banaita edo diferencia; banaitu, banaitatu edo diferente

banati

baña (erkaketako *baino*)
 baquida edo general/edo guciequico: chede baquida: baquideco: baquidaró
 barcatu edo legasquetu
 barrera
 barru: barruco: Gobiernu barruco; barrugayac edo Gobiernuari dagozcanac
 barruntatu
 Barruti edo Egoitza (= Estatu)
 barrutu: erdijotu edo barrutu
 batar
 batasun
 batinchequi edo gerarqui
 batu; batun, batune: batune zucena; batutza
 batuci; batuciar edo norberaren: batuciarquiró
 Batzarre: Uri-Batzarreac edo Gorteac, Erri-Batzarre edo Juntamentu (= Udal)
 batzunde
 beamuga edo chede
 beaquida
 bear (= lan)
 bearordu: bearorduan
 becaldu edo berdindu
 begoitu; begoite edo gastu
 beguerri: gainquidari edo beguerri
 veguicuste: baiben edo veguicuste
 veguiranza, beguiranza edo administracio; veguiratu
 beguirune: errespeto edo beguirune
 beguitacio
 beneficio
 veneracio: errespeto, veneracio
 venganza
 ventura: venturaz; venturatu
 beraurque: etorarte, beraurque edo bilduera
 veraz
 bercequiro edo modu ascotara
 berdindu: becaldu edo berdindu; berdintasun: leguezco berdintasun
 berebat, orobat
 bere buruaren jabe
 bere casa
 beregaiñ
 berendu
 berequigobaguetasun edo jaundera
 berez: berezco: berezco ontasun
 berezde edo partiera: meneen berezde; bereci edo particio/edo erreparto; berecitu edo
 partitu
 berori
 berotasun
 berpatce, birpatce
 berritu, berrirrotu: berritce; berritasun (= berrikeria)

berriz, berriro
 bertarau
 berticuste
 veto
 beyeste edo malla
 biaili edo baiben
 bialdu, biraldu
 Vicario: Apez Vicario
 vicia: vicia luzatu: viciro; vicimodu; vicigarri: janari edo vicigarri; vicitu
 Vidaguera, Bidaguera, Vidaguerayo edo Tirania
 bidarri
 bide eman; bidea eraman: *arrazoyac bere bidea eramanic...*
 bidechigor
 bidequite
 bider: *diot berriz eta milla bider...*
 bidezco; bidegabe: bidegabeco
 bildu edo arbatu/edo alcartu, bitu; bildera, bilduera: guiza bilduera: etorarte, beraur-
 que edo bilduera
 bilgo
 Bilguma: Ecauta Bilguma (= Diputatuen Kongresu)
 bilguratu: ateratu edo bilguratu
 billabide: billabide labur
 billaldi, billa aldi edo hitzeraquida
 billasquida edo modu
 villautu
 biñaquidatu
 viotz
 birtera edo aldaera
 birteztatu, biteztatu edo onzat eman/edo erabaqui: bitezarce; bitezarde, bitezarte, bir-
 teztarte eta araua; bitezar: bitezarrac; bitezargaiac edo Egoitzarenac
 birtucitu edo erreparto
 virtute: virtutezco; virtuotsu
 visitatu
 bitarte: bitarteco; bitartecotasun
 biurtu
 bizoditu edo zucendu
 boillerdi: Erregencia boillerdi, boillerdi bietacoa
 vorondate: guicien vorondatea; vorondatetsu: *vorondate vorondatetsuarequin*
 borratu
 Bulda
 buru: buruzco: buruzco jarlecu
 burugabe
 burucarde edo dirutalde
 burutengo: burutengoz: gurariz, burutengoz
 buruz bératu
 buruzagui

cabitu: ersquidatu edo cabitu
 cabu: *asi zanetic caburaño*
 calabozo edo lurpeco ciega
 calte edo ezegoqui: calte eguiñ; caltegarri; caltegabetu
 campo: campo seguranza; camporatu: ez-autu edo camporatu; campotar edo erbesteco
 cantidade: cembate edo cantidade
 Capillau
 character: azgarri, señale edo character
 carcela; carcelaratu; carcelazai
 carga; cargatu
 cargo: jarduera edo cargu: cargu eguiñ; cargudun
 Carta: Erritar-Carta/Iritar Carta
 caso
 Catalonia
 catholico edo fededun
 cativo: esclavo edo cativo
 caudal edo diru
 causa (= auzi)
 cearca
 cembait (= zenbat): cembraitezco (= hainbesteko)
 cembate edo cantidade
 cerren
 chede: beamuga edo chede
 chiqui: chiquicho (= oso txiki)
 chit
 chori malo
 ciazalce edo plan baibendu
 ciazcatu: firmatu edo ciazcatu
 ciega: lurpeco ciega
 cilleiquinde: cilleiquindez
 ciluza edo linea
 cimendu, cimentu; cimentatu, zimentatu
 civill edo urico
 cobratu
 cobru eman
 cohecho: emazqui edo cohecho
 coitadu
 Comisio: Aldimaitza edo Comisio
 comundatu: ogundatu edo comundatu
 condenatu
 condicio, urguitza edo muga
 conforme: (= -z conforme)
 Conseju: Goitico Conseju Justiciacoa/Egoitzaco Conseju; Consejalari
 conservatu
 consideratu: Dierrri-leguera consideratu; consideragarri
 Consul: Bacarquida edo Consul
 Continente edo Lutugue

contiño (= segidan)
contra
contu: contu artu edo examiñatu/contu eguiñ/contu, contuac eman/*demagun con-
tu.../contugabe*
conturatu edo gogartu
contuz: contuz goardatu
conveni
convertitu
Coroa
correo
cortes: cortes izcuntza edo tratamendu
cotiza
culpa; culpadun: arauzle edo culpadun
cumplitu edo osequi-erazo
cuticia, diru gose

debecatu
defensa: escudago edo defensa
demanda: auciac edo demandac
dempora
derecho edo margo
desaraude
desequindu; desequinza
deseo
desoltu
despotico: locabe edo despotico
diabeta
dicha
dierondear edo errepublicano
Dierri edo Nacio; dierritar
diferencia: banaita edo diferencia
dinde
diña (= adina)
diñade, diñadi; diñatasun
Diputadu edo Ecautu
diru: *diru gose*; dirutalde: burucarde edo dirutalde; diruguite
disteatu
doaca: *dempora char, doaca*; doacabe
doai edo bainande
dollor
donati
donquitu: esqueñi eta donquitu
dudac, leyc, auciac; dudagabe, dudatzaca
duiquiñ; duiquinda

Ecadoi edo Juez: ecadoiquiro; ecadoite; ecadoitu, equidaitu edo juzgatu; Ecadoitegui
edo Tribunal, Tribunale; ecadoitza edo justiciaguite

Ecaitari edo Intendente
 ecaitz: ichas-ecaitz
 ecarrai edo eguicunde
 Ecauta: Provinciatar Ecauta (= Diputazio); Ecautu: Diputadu edo Ecautu; ecautear
 ecerez: ecerez bat
 eciñdatu
 ecurte edo servicio
 edertasun
 edolaric
 egemplo
 egocaritu
 egoi alde
 Egoitza edo Estadu/Barruti edo Egoitza
 egoquitasun
 eguiaz
 eguicari; eguicaritza: guarda edo eguicaritza
 eguicunde: ecarrai edo eguicunde
 eguiñ: eguiñerazo: eguinzaca; eguiteco edo lan bide; eguille; eguinza: oficio edo
 eguinza
 eguiñarte
 eguipide
 eguitezco (= de facto): eguitezco eta leguezco
 eguiztatu
 eguzquiaren irtera (= ekialde); eguzquiaren sarrera (= mendebalde)
 elcarga, alcargo
 Elizbatzarre; elizguizon; eliztar
 emanzalle
 emasquida edo particio; nuntoqui edo emasquida
 amazqui edo sobornu/edo cohecho
 Embajadore
 embarazogarrri; embarazotzaca
 emparatu
 Emperadore
 empleo
 en fraganti, au da gaiztaqueria egitean bertan
 envidia
 engaño eta trampia: engaño edo guezurraz
 entregatu
 equersia: derechoen, Soberandiaren equersia; equersitatu; equersilari
 equersitu edo indar armatu
 equidarau edo guisa
 equiñarte
 era: eraro; eratu
 erabaqui edo ordena/edo sententia; erabaquitza, erabaquinza
 erabat: *erabat eta itz batean esateco...*
 erabesta edo trasladu
 eracai edo motibo; eracaitu: auto eracaitua

eracaste; eracusbide; eracutsi: eracuste
 eragotzi edo debecatu/espetu edo eragotzi; eragotzigarri
 eraldatu edo jarraitu
 eransi (= erantsi)
 eranzuera edo fianza; eranzun bear, eranzuqui: eranzuqui azpian; eranzungarri; eranzuquitu; eranzule
 eraratu; eraratuti
 eraso edo guerrate
 eraspe edo sorpresa
 eraude, erazguite: molde edo eraude/edo erazguite
 erazcode: icabear edo erazcode
 Erbeste: erbesteco: campotar edo erbesteco; erbestear, erbestetar; erbestera
 erdera
 erdi: *erdiz erdi* (= erdiak eta erdiak)
 erdijotu edo barrutu
 erligio, religio; erligioso
 eroso
 erraztu
 erreal (= Erregeri dagokiona)
 erregalo edo sari
 Erregente; Erregencia
 Erregidore
 Erregue (beti mugagabea)
 erreguela edo league: arau de edo erreguela/edo neurri/edo muga; erreguelatu edo zucendu
 Erreinu, Erreynu; Erreina aldi
 erremediatu
 errenca (= segidan)
 errenta
 erreparto: bereci edo erreparto
 errepublicano: dierondear edo errepublicano
 errespeto, veneracio/edo beguirune; errespetatu; errespetagarri
 Erri: Erri-Bazarre edo Juntamentu (= Udal); Erritar Carta; erritartu; erritarte
 errierta
 errigoqui
 erromatar
 errotu: ondasun errotuac
 erruqui: *erruquiren ...*; erruquigarri
 ersquidatu edo cabitu
 esaeraz (= esate baterako)
 escaera: goguiben edo escaera; escabide; escabidetu
 esclavo edo catibo/edo lotequi
 escola: escola eta icasbide: gazteen escola/escola-maisu
 escribitu
 escu: bere escu iduqui; escura: guiza escura; escucotu; escuperatu
 escualde edo etorarte
 escudago edo defenza; escudatu edo gorde erazo

escuarqui
escusatu
esequigobaguetasun (= independentzia); esequigobague
España, España; españatar, español
espetu edo eragotzi
esqueñi edo donquite
estalpe: *ontasunaren estalpean*
estimagarri
etartu
etorarte: escualde edo etorarte; etorartetu eta baibendu
etsai; etsaitasun
etziñ (= etzan)
euqui; ez-euquia
Eusquel Erri: *Eusquel Errietaraco, iru Eusquel-Provinciac*; eusquera
eutsi
examiñatu
ez-autu edo camporatu/edo mespreciatu
ezagüera: ezagüera falta; ezagutza; ezagun izan
ezarri edo sarrartetu: legue ezarri; ezartari; ezarlari; legue ezarlari; ezarzalle
ezaude edo pribilegio
ezauscor edo iraupeneco
ezbaya
ezconza
ezegoqui: calte ezegoqui
ezjaquiñ; ezjaquiñez edo oarpez

familia
fede auste; fededun; fedegabe
fianza
fiñ edo muga
firma; firmatu edo ciazcatu
fondo edo tincondo
frances; franteste
frutu

gabetanic
gainde, gaiñde: gaindeco lecuán
gainquidari edo beguerri
gaiñqui
gaitz
gaiztaqueri, gaiztaqueria edo arauzte; gaiztaqueriguille, gaitzguille edo arauzle;
gaitztratatu
gaiztopa
galdu; galcen utzi; galgarri
galguiraiti
gallaldi, gallende edo pribilegio
gañez eguiñ

gañera: gañeraco
 gañetico: Justiciaren Tribunal Gañeticoa
 gastigu (= zigor): gastigutzaca, castigutzaca
 gastu; gastatu
 gaurdan egunean (= gaur egun)
 Gaztela Zarra/Berria
 general
 gente
 gerarqui: batinchequi edo gerarqui
 gloria
 goardatu: contuz goardatu; gorde: gorde erazo; goardalla; guardia
 Goatemala
 gobiernu, gobierno; gobernatu; gobernatzalle
 gogarmen; gogartu: conturatu edo gogartu
 gogata
 goguibendu edo zucendu; goguiben edo escaera
 Goiarauquiñ edo Magistradu
 goitico: Goitico Conseju Justiciacoa, Justiciaco Tribunal Goiticoa/Goitico Icustea
 goitirichi edo pretenditu
 goitu
 Gordairutegui edo Tesoreria; Gordairuzai: Tesorero edo Gordairuzai
 gordecitu
 gorputz erdia: Erregueren gorputz erdia (txanponetakoa); gorputz pena
 Gorte, Gortecac edo Uri-Batzarreac
 goyande, goyende
 gozacaitu edo libratu
 gozande: gozande aucu/legue gozande: gozandeco, gozandezco (= zibil)
 gozatu; gozamen, gozamentu
 Gracia eta Justicia
 guarda edo eguicaritza
 gucieraco: Erligio Gucieracoa (= Katolikoa)
 guci: guciro: guztiz; gucitu
 gudartari edo soldadu: Errico gudartari
 gueitu
 gueldiera edo arresto; gueldieraco aucu; guelditzaca
 guenastari edo turbatzalle; guenascarrero
 gueroeneco
 guerra, guerrate: guerratea ifiñi; guerrari
 guertatu; guertaera, guertaldi, guerta aldi
 guerturo
 guezurrezco
 guichi; guichitu
 guidamentu; guidatu eta zucendu
 guipuztar, guipuzcoatar: *guipuzcoatarren odol garbi, noblea*
 guirguillu eta latesta
 guisa: equidarau edo guisa
 guiza aldi

guizagajo
gurariz, burutengoz
guras-oncarri

Hacienda
heredero
heriotza
heritu; heritegui
hitzeraquida, itzeraquida edo sesio(ac) (Batzarretakoak)
hoben, oben: arauzte edo hoben; hobendun
honore, onore, ohore
hospitale edo heritegui
hume, ume
humiltasun; humillgarri edo menderagarri

ya (= jadanik)
icabear edo erazcode
icaragarri: icaragarriac (= ikaragarrizko gauzak)
icasbide: escola edo icasbide
icasola
icentatu, izentatu, icendatu, icendadu: izendatce; icentamentu, izentamentu
icetanquinde: icetanquindez
ichasi
ichas-bazter; ichas-ecaitz; ichasoaz arunz; ichasonci; ichaslanbide; ichasquinda;
 Ichaso Paquetsua
ichequi; ichequitza; ez-ichequitasun; ichecoquitu, ichecoiguitu edo ratificatu
ichustu (= itsusitu)
icuste: Goitico Icuste; icusierazo; icusquizun (= zerikusi)
iduqui
ifar alde
ifiñi: arbola ifiñte; ifiñiera
igaro: *ogueta bost urte igarotaco personac*
igues eguiñ
igüi
ilzorlan
indar: indar armatu: indarrez; indartu; indarsu
indiatar
Infante
Intendente: Ecaitari edo Intendente
iñocente
iñolaz ere
ipenza
irabiatu
iracorri; iracurza (= lekzio: *Jaquin-bide Iritarautia* 18 Irakurzatan banatua dago)
iraule: Ecauta beti Iraulea (= Diputazio Iraunkorra)
iraun; iraunlari edo autsiezcor; iraupen: iraupeneco: ezauscor edo iraupeneco

irichi
irigoqui
iritar: iritar-talde/Iritar Carta; iritaritza; iritarau, iritaraude; iritarauti edo politico
iritzi
irmo; irmotu edo segurutu
irudi; irudin (= iruditu)
irunaca
isequi
issildu
issuri: *prestutasunera guztiz issuria*
itzal: *berorren itzalaren azpian*
itzeguiñ; *itz batean esateco ...*
itzeraquida, hitzeraquida edo sesio(ac) (Batzarretakoak)
itzlan
itzuli: erderatic eusquerara itzuli
itzuri edo eragotzi
izandu (= izan)
izatez: *izatez eta bere jayot-iturrian*
izcuntza

jabe: *bere buruaren jabe*; jabetu; jabetasun
janari edo vicigarri
jaquin-bide: Jaquinbide Iritarautia (= Doktrina edo Instrukzio Politikoa)
jaquinsu; jaquiunde; jaquiñaren gañean
jardun; jarduera edo cargu/edo empleo: betico jarduera
jarlecu: buruzco jarlecuan
jarraitu: eraldatu edo jarraitu
jaso: armac jaso
jatorri: *jatorri ederrac*
jaun: jaun menati
jaundera: berequigobaguetasun edo jaundera: jaundera dierricoa
jaundi: jaundi españatar
jauregui
jayotza; jayotteri; *izatez eta bere jayot-iturrian*
jolasgarri
jornal edo aloguera/edo sueldo
Juez
Juntamentu: Erri-Batzarre edo Juntamentu (= Udal)
juramentu: juramentu eguiñ/juramentu artu/juramentutzaca
justicia: justicia eguiñ; justiciaguite: ecadoitza edo justiciaguite
justu: justutzaca
juzgatu edo erabaqui/edo ecadoitu/edo equidaitu

labur: *neque labur, chiqui onec...*

lagun (= konplize); laguntasun, socorru (= laguntza); lagundu

lanabes

lan bide, lanvide: eguiteco eta lan vide

languiñ
 lantegui (= lan)
 lapurreta
 lasaldi edo utsaldi
 lasari: Aduanen lasariac
 latesta: guirguillu eta latestac
 leenbici, leendabici; leenago, lénago: lénagoco edo ancinaco
 legarauco: seme legaraucoac edo ezconzatic datozenac
 legasquetu: barcatu edo legasquetu
 legoitzaz; legoitzatu: auqueratu edo legoitzatu
 legue: legue ondequidar/legue auste/legue ezarri/legue-azpiratu; legue-emalle; legue-
 baguetu edo borratu; leguezco; *leguez ta bidez eta arrazoi andiarequin*
 lenasta edo principal: lenastecoac
 letra
 leya; leyatu
 leyaltasun
 libre eta esequigobague: librequiro edo naierara; libratu: gozacaitu edo libratu;
 libertade
 liburu: liburucho
 licencia edo baiben: licenciatzaca
 lista: lista eguiñ
 locabe edo despotico: locaberó
 logratu
 lotequi: esclavo edo lotequi
 lotsatu; lotsagarri
 lurlaunza edo necazaritza
 Lutugue: Continente edo Lutugue
 luzatu

machinada; machino
 macurtu
 Magestade
 Magistradu: Goiarauquiñ edo Magistradu
 maisu: escola-maisu
 maitautsi edo guciequico dirutaldearen zorra
 malla
 mallezpetu
 manaita
 mandamentu: aguinta edo mandamentu
 maneatu
 manera, molde edo erazguite: barruco manera (= organizazio); maneratu edo zucendu/edo ifiñi/edo señalatu (= organizatu)
 mantendu
 margo edo derecho
 Marrueco
 medioz: (= -ren medioz)
 mempe: mempe Erriac; mempeco; mempedun; mempegabe; mempetu, memperatu

mendastu

mende: mende lagunac; mendeco; mendedun; menderatu; menderagarri

mene edo mende/edo almen/edo escualde/edo nausitasun: mene osequi; menati edo

meneco

mercataritza

mereci; merecimendu, merecimentu: merecimenduzco

mesede

mespreciatu

Ministro

mirabetasun: echecho mirabetasun

miragarri; mirarizco: obra mirarizco

missio

moderatu

modestia: *modestia paregabe*

modu edo bide: persona modu/guizamodu; modutu

molde edo eraude/edo erazguite; moldatu edo maneratu/edo zucendu

moldizquia edo moldez escriptcea; moldizquiratu

moldurri

Monarcha: Bacaronda edo Monarcha; monarchico: bacarondear, bataronde edo

monarchico

mota

motibo, motivo: eracai edo motibo

muga edo bainande/edo neurri, fiñ edo muga edo erreguela

muguitu

mulsati: gente mulsati

murguildu

murriztu edo guichitu

naaste; naastu, nastu

Nacio edo Dierrri

nagusitasun, nausitasun

Naidartegui: Naidarteguico Secretario

naiera: librequiró edo naierara

naigabetu

nai ta ez; naita-nayeztu

naiuste eta locaberó: naiustez edo nolanaí/edo locaberoz

Naparroa

necazari; necazaritza: lurlaunza edo necazaritza

neque: *neque labur, chiqui onec...*

neurri, muga edo erreguela

Neurquida edo Constitucio *Andia*; neurquidatu; neurquidar

noble: *odol garbi, noble...*

nola nai

nolatan edo cer moduz

non, nun: nondican/nun nai: *nun nai eta izan dan lecu gucietan ...*

nor bera: bacoitza edo nor bera

nuntoqui edo emasquida

oarpe: ezjaquiñez edo oarpez: oarpegabetanic; oarterazo
 obeditu; obedimentu; obedille
 obeena (= onena, hoberena), obeen (= onenen, hoberenen)
 oben, hoben: arauzte edo hoben: obenquiró; obendun edo criminal: obendun au-
 ci/legue obendun
 Obispo; Obispadu
 obligacio; obligatu
 obra: obra aguiri/berri/zar
 Ocentari edo Mayordomo Nagusi
 odei: *odeyetan gora alchatu*
 odol: *odol garbi, noble*; odolquirodi: pena odolquirodi
 ofendigarri
 oficio edo eguinza
 ogundatu edo comundatu
 oiezbecelaco, oiezlaco: Uribatzarre oiezlacoac
on eta adiñon
 oncarri: guras-oncarri
 onciratu; onciquindegui
 ondarquida; ondarquidar
 ondasun: ondasun aguirico/Erri ondasun
 Ondequida edo Fundacio; ondequidar edo cimenduco: legue ondequidar
 ondorengo; ondorengotasun
 ondorero eta contiño (= segidan)
 ongabequida
 onguille; onguite edo piedade
 ongunde
 onore, honore, ohore
 onrratu (aditza); onrradu (izenondoia): familia onrradu
 ontartu edo maite: *Godoi ontartua*
 ontasun: berezco ontasun
 onzat eman
 Onzur: Errico Onzur Gubernua; Onzurte
 oñ: leguea bere oñean egon (= indarrean egon)
 oñace, oñaza
 opa
 Oquindari: Sindicu Oquindari
 oraiñgoiz (= jadanik)
 oratu
 ordañ
 ordeco: aguintari ordeco
 ordena edo aguinta/edo aguinte/edo erabaqui
 oro
 orobat, berebat
 osasun
 osequitu edo cumplitu: osequi erazo edo cumplierazo/osecaritu; osequiar; osequilari;
 osequitari: escualde osequitari
 osoró

ostean
ostu
otsandaraci
ozta
Oztugarte edo Peninsula

pagu; pagaquizun; pagatu
paque
paregabe
parregarri
parte: parte edo contu eman
particio: bereci, emasquida edo particio; partiera: berezde edo partiera; partitu eta ba-
natu/edo berecitu
peita edo falta
peleatu
pena edo gastigu/eta atsecabe; gorputz pena
pensamentu; pensatu
perseguitu
persona
pezarri edo pensio
piedade: onguite edo piedade
pisu
piztu
plan: plan baibendu
politico: iritarauti edo politico
por cierto: *bai por cierto, ez por cierto*
portatu
postac
premia: indar premia; premiorduan
preso; preso artu; preso arzaia edo arrestatcea
prestame
prestu; prestutasun: *prestutasunera guztiz issuria eta etziña*
pribilegio edo gallaldi/edo ezaude
primuar edo jatorrizco
Principe: Asturiaco Principe
Provinci, Provincia; provinciatar
proceso: aucidoaita edo proceso; procesoguite
prochu
prueba edo arrazoi; probatu; probatzaca
publicatu

queja

religio, erligio; erligioso

sacrificatu
sagradu

salaqueta; salatu; salatzalle
 salbenta
 sarrartetu: ezarri edo sarrartetu
 sarrera; sartu irten
 Secretaria; Secretario
 secular
 seguru; segurutu: irmotu edo segurutu; seguranza: campo seguranza
 sentencia: erabaqui edo sentencia
 sentitu
 señaile: azgarri, señaile edo caracter: señaiquiro: batez ere edo señaiquiro; señaillatu:
 maneratu edo señaillatu; señaillamentu
 servicio: ecurte edo servicio; servitza: servitza señaillatuac; servitu; servitzari
 sesio(ac) edo itzera/edo hitzeraquida, itzeraquida
 sillu
 Sindicu: Sindicu Oquindari
 sinistu
 Soberandi, Soberandia: aguinta edo Soberandia; Soberano
 sobornu: emazqui edo sobornu/edo cohecho
 socorru
 soldadu: soldadu dierritar: gudartari edo soldadu; soldadutza; soldadesca
 somari
 sorpresa: eraspe edo sorpresa
 sortaraude edo derecho natural
 sorterri; sortetorri: Carta Sortetorricoa: sortetorricotzaca; sortu: sorcetic; sortezco
 edo izatezco/edo natural; sortitza; sortuera
 sosegu
 sosten; sostendu
 sotarquita edo vicimodu
 subsidio edo lagunza
 sucaritu: alaitu eta sucaritu
 sueldo: aloguera edo sueldo/edo jornal
 suerte; suertotsu; suertatu
 sufriquizun

 taldiquida, talquida edo contribucio/edo emanquizun zucenac eta zucenezac
 Tesoreria: Dierrico Tesoreria/Gordairutegui edo Tesoreria; Tesorero edo Gordairu-
 zai/edo Ipigandezai
 testigu
 tincatu edo zulcatu/edo ifiñi
 tincondo: fondo edo tincondo
 tirano; tirania: vidaguera, bidaguera, bidagerayo edo tirania
 titulu
 tormentu
 traidore
 trampa: engaño eta trampa
 traslado: erabesta edo traslado
 tratu; tratamendu: cortes izcuntza edo tratamendu

Tribunale: Ecadoitegui edo Tribunale
tronu edo jarlecu
tropa
trucada; trucatu
turbatzalle: guenastari edo turbatzalle

ucatu
ugarte: Ugarte Balearac
unio edo elcarte
urconde: Urconde Ezcutitza edo Carta Sortetorricoa; urcondear edo vecino
urduri (= urduritasun) eta berotasun
urguitza edo muga; urguitce
Uri: Gorteac edo Uri-Batzarreac, Urien Batzarreac; urico: civill edo urico/legue uri-
co; uritar
urrironde: gobiernu urrironde
urteoro; *urte ascoan suerte on*
usadio, usario, uso, uso costumbre: uso libre; usoa egon; usatu
ustecabe
utsaldi: lasaldi edo utsaldi; uts eguiñ: utseguite; utsitu: ugarte utsitu (= huts)
uzoi edo divisio

zaitiraundu; zaituraunde
zai edo tutore
zor; zorpagaatce
zorusta edo arceco
zorion, zorionecotasun
zubiguite
zucen; zucende; zucenez: talquida zucenezac; zucendu
zucen bide; zucen bidetu
zucejaunde
zulcatu: tincatu edo zulcatu

‘Jaquin-bide Iritarautia’ko morfologia (deklinabidea eta aditza) eta sintaxia lanaren 3. partean aztertuko ditugu, sermoiekin batera; izan ere, lehenago esan bezala, ez dago alderik batetik bestera.

5. ZATI HAUTATUAK

‘Jaquin-bide Iritarautia’ nolabait ezagutzeko gogoia dukeenarentzat bi zatitxo hautatu ditugu: sarrerako eskaintza eta azken kapitulua, faksimile-edizioa (200 ale) eskuragaitza baita.

5.1. Izenburua eta eskaintza

“Jaquin-bide Iritarautia Españiaco Neurquidaren, edo Constitucio berriaren erara adrezatua Erritarren arguidorarako, Gazteen icasbideraco, eta Escola-maisuen usoraco Erderatic Eusquerara itzulidu Apez Vicario Dr. D. J.F.A. Guipuztarrac. 1820 Urtean.

Dn. Miguel de Zumalacarreghi Goitico Conseju Justiciacoaren Ministroari donquitua.

¿Nori besteri berorri baicic leguez, ta bidez, eta arrazoi andiarequin esqueñi, eta donquituco diot erdèratic eusquerara itzultitaco liburu berez chiquichoa, baña izatez, eta bere jajot-iturrian chit andia, eta aldegucietara miragarria dan au? Eciñ bear adiña andizcatulitzaque liburucho onen birtezarateac, eta araudeac Españatarrai ecarridizten zorionac, eta ondasunac; bera izanic eguiatz ilzorian aurquitcen guiñaden Españatar gucioi vicia luzatu diguna: izanic bera gucion argaltasuna indartuduana gañeraco Erreinu, eta mempedun gucien arrigarriac, eta icaragarriac eguiterañ: izanic bera azquenic, erabat, eta itzbatean esateco, Erbesteco gucien envidia, eta moldetzat erai aurreraco servitendizten Constitucio, edo Neurquida, Andiarequin oraiñgoiz mundugucian icentatcen dana.

¿Nori besteri, diot berriz, eta millabider, berorri baicic donquitudeiqueot gaizqui moldatutaco nere lan apur au vorondate vorondatetsuarequin, jaquinaren gañean, ezduala berorrec, dudagabe, parteric chiquiena izandu obra mirarizco au asizanetic caburaño? Gauza aguiria da: cerren bestela etzuan iñolaz ere berorrec aimestebait Etsai izango, ezta ere aimeste pena, eta atsecabe sufriquizun; baña gueroeneco arrazojac bere bidea eramanic, ondo ezagundirade berorrec Españatarren mesedean beti eguiñizandituan, eta eguitendituan aleguiñac.

Bere jatorri ederrac, bere Guipuzcoatarren odol garbi, nobleai eransicion sorcetic berorri lejaltasunaren sillu estimagarria. Bere (?) asizan guizon prestuen, eta virtutezcoen aurrerapenac eguiten; eta guelditzaca bilduditu ambait merecimentu, nun eta disteatudute Españatar gucion viotcetan; eta argatic dacusgu gaurdan egunean aurquitcen dan, eta chit ondo dagoquion buruzco jarlecuan bere Erritarren, ta familia onrraduaren dicha andiraco.

Ezdet nai ichustu, ezdet nai lotsatu berorren humiltasuna; ezarrico nituzque emen berori odejetan gora alchaturcolucaten gauzaric asco; baña isilcen naiz berorren modestia paregabearen indarrez. Bacarric diot, nere neque labur, chiqui onec berorren ontasunaren estalpean nai, ta ez arrera ona izangoduala; berez ecerezbat baita, autordet viciro; baña alazguciarren ere, Eusquel Errietaraco prochu andicoa deritzat. Berorren itzalaren azpian bacarric venturaliteque; etartu beza arren, eta Arranoac, aidean dijoala, bere humetara becela, ala bere Erritar gucien zori onera veguirabeza. Aladet uste; cerren jajotzatic nun nai, eta izandan lecu gucietan ezagutuda beti berorregan vorondate ona, eta prestutasunera guztiz issuria, eta etziña. Izan bez, nic deseo becela, beti, eta urte ascoan suerte on.

Berorren Servitzari, eta Capillauric chiquiena Dr. D. J.F.A.”.

(Aipatzekoa: berorrikako tratua).

Eta hona jarraian Axularren “Gero”ko Eskaintza, laburtua:

“Gomendiozko Karta. Ene iaun Bertrand de Echaus, Tursko Arzi-pizpiku, Frantziako Lehenbiziko errémusinari: Ordenako aitonon seme, eta erregeren Konseillari famatuari Zeruko Loria ... Baiña ... erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera ... Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatu baitzaitza. Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du? Nor da euskal-herrian alde edo molde, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua ... Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua ... iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme ... Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leiñutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu ... ioan zinen Gorthera: eta han anhitz travaillu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, géro ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua ... Adimendu eder bat, memoria handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasu-

nera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baiteratzu ... Eta guztiz ere zure zerbitzari ttipi hunen travaillu aphur haur ... Zure gerizan doha: zure itzalaren azpian benturatzen da, errezihi ezazu bada, defenda ezazu, alde zakitza, egiozu begitarte ... Zeren halatan eta harekin batean, ibiliko den lekhu guztietan, burua gora ekharriko du, burupe izanen du eta nehoren guti beldurrik, iendartera, bere begitarte, ausartki atherako du ... eta arranoak, airean dohanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana bègia edukiko duzula ... Iainkoak hala nahi duela. Zure zerbitzari ttipiena, eta obligatuena. P. de Axular”³⁰.

5.2. Azken kapitulua

“XVIII. Iracurza Taldiquiden, edo Contribucioen gañean.

P. ¿Nolatan sostentzen dirade Dierriaren servitziariac Secretarrietan, Tribunaletan, Soldadescan, jardueretan, eta beste gobernuaren lanteguetan?

R. Onelaco persona moduac nola eciñduten eratu beren sostena, dauzcaten cargüen medioz, Dierriac caltegabetu bearditu jornala, edo aloguera beren jardueraren erara ifiñiaz, edo maneratuaz.

P. ¿Nondican atera beardirade, gastu ojetaraco, eta Egoitzan Equersituaquin, Armadaquin, Onciquindegüetan, icasoletan, aguirico Escoletan, eta beste modu ascotara eguitendiraden gastuetaraco fondo, edo tincondoac?

R. Nola gucion prochuraco diraden jarduera ojec, guciac eman beardute sostenceco diña; eta argatican ifiñten dirade Taldiquidac, edo Contribucioac.

P. ¿Españian nori dagoquio ifiñtea, edo señalatzea?

R. Nola legue bateraco becela Taldiquida, edo Contribucioetan gucion vorondatea bear dan; cerren guciai dagoquiten beren ecarraja Uribatzarrei dagoquite taldiquidac ifiñtea, edo onzat ematea, naiz zucenac, naiz zucenezac, guztienac, Provinciacoac, irigoquiac, leenagocoac bere oñean daudela ariqueta debeatu artean, edo berriro ifiñi bitartean. (Art. 338)

P. ¿Ote dagoan iñor libre taldiquidac pagatzetic?

R. Eztago iñor ere libre; cerren neurquidac jaquiundez dio, Españatar gucion artean partitu beardutela bacoitzaren, edo nor beraren ondasunen erara, ezaude, edo pribilegio gabetanic. (Art. 338)

P. Suerta ote liteque gaizqui gastatzea, galcea, edo beste engaño, eta trampiaric taldiquida ojen begoitean, artu emanetan?

³⁰ Axular 1643: 3-9 orr.

*R.Ez: cerren arretaz neurquidac erabaquitzen du Dierrico Tesore-
rian gorde beardan erreguela, eta cer moduz urteoro contuac eman Die-
rriari ondasun aguiricoen, sartu irtenaren, eta paguaren gañean; era
onetan eragoztenda Carlos IV. demporan eguiñ oizana eguitea; ceñetan
Erritar erruquirenac, cargaturic, murguilduric, buruz bèraturic Taldi-
quida icaragarriaquin, ojec arduragabe gastatzenciraden Godoi ontar-
tuaren, edo maitearen cuticia, diru gosea asetzeco.*

*P. ¿Eta atzera biurtu oteditezquean dempora char, doaca ajec, ce-
ñetan Españatarrac villauturic, mallezpeturic, eta azturic lénagoco, edo
ancinaco legueezaz, chori maloac becela, guizon baten, edo norbai-
tzuen parregarri, jolasgarri izatera?*

*R.Ya Españatarrac berendu dituzte locabeac ostu cizten beren
derechoac, eta beren esequigobaguetasuna gordetzeco eguindituzten,
eta eguitendituzten aleguiñ guztizco andiac, dirade prueba, edo arrazoi
gainquidariac, edo beguerriac, aurrera ezdutela galcen utzico beren li-
bertadea, neurquida bear becela, eta contuz goardatzean seguraturic,
zimentaturic dagoana, juramentuarequin batera”.*

(Carlos IV.aren eta Godoyren garaiko gobernu eta politika absolutistaren kri-
tika ugari, aski gogorak, eta Konstituzio *Handiaren* defentsa eta aldeko apostua).

III. SERMOIAK

Gure lanaren hirugarren parte honetan Jose Felix Amundarain apaizak idatzitako sermoi mordoaren (oraindik argitaratu gabeko eskuizkribuen) azalpena eta azterketa egingo dugu.

Parte hau bost ataletan banatu dugu:

1. Ingurune literarioa
2. Sermoiak
3. Hizkuntz azterketa: ortografia, lexikoa, esamoldeak, morfologia (deklina-bidea eta aditza) eta joskera
4. Amundarainen bi lanen arteko erkaketa
5. Sermoi hautatuak

1. INGURUNE LITERARIOA

Lehenik, XVIII-XIX mendeetako euskal literaturaren ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, labur-labur, Amundarainen lana ingurune egokian kokatu ahal izateko lagungarri gisa:

a) XIX. mendearen erdi aldera arteko gure literatura elizgizonena (fraide eta apaizena) eta eliz gaiei buruzkoa da (doktrinak, sermoiak, otoitz-liburuak..., orijinalak zein itzulpenak). Tarteka, salbuespentxo urri batzuk: gramatikak, hiztegiak, apologi lanak; baina hauek gehienak erdaraz burutuak¹.

b) Iparraldean XVI. mendean jaio eta XVII.ean loratu zen gure literatura. Hegoaldean XVIII. mendean hasi zen pizten, Amerikarekiko merkataritzako harremanak indar bete-betean aurkitzen ziren sasoiari, hain zuzen. Aberrastasun giro honek kulturaren gorakada eta, neurri batean, euskaltasunari buruzko kezka eta ardura sorrarazi zituen.

c) Manuel Larramendi, jesuita andoaindarra eta honen hurbileneko jarraitzaileak (Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos...) izan ziren Hego Euskal Herriko (batez ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko) literaturaren sortzaile, bultzatzaile, eragile nagusiak².

¹ “Gauza jakina da erlijio liburuak, elizgizonen eginek, osatzen dutela orainsu arte behintzat, euskal literaturaren zatirik handiena ... jakina da erlijio liburuak ditugula batez ere ugari. Eta horrek bere arrazoia badu. Liburuak gehienbat behar edo premiaren bati erantzuteko agertzen dira eta irakurleak izango ez duen libururik ez du inork ere egin nahi izaten. Hemen zerbaiten beharra baldin bazegoen, horrena zegoen” (Mitxelena 1988, EIG IV: 64-65 orr.).

Egia gordin honetaz konturatzeko Mitxelena, Villasante, Sarasola, Torrealdaireren ... Literaturaren Historia orokorreari begiratu baino ez dago. Adibidez: Sarasola 1976: 36-37 orr.: “...desde el XVI hasta el término del XIX nos hallamos con una literatura que no cuenta con apenas otra cosa que una colección de libros devotos, es decir una literatura religiosa práctica que no se interesa más que por unos objetivos muy limitados y que, salvo excepciones, no presta atención al problema lingüístico. El resultado de tal estado de cosas es la escasa herencia...”.

² Lehenago ere aipatu dugu, baina azken urteotan Larramendiren langintza erraldoiari buruzko lan ederrak argitaratu dira: Sarasola 1986 (203-216 orr.); Lakarra 1985 (11-50 orr.): “Larramendiren obraren garrantzia goregi jartzeko arrisku gutxi dugu, mende t’erdi batez bera izan baitzen euskal literaturaren eta euskal lexikografiaren bultzagile eta ardatz. Honenbestez, bere ezagutza sakonagoa ezinbestekoa da sail horiek argitzen saiatzen diren filologo eta hizkuntz historialarientzat...” (46. or.); Lakarra 1992 (Altzibar, Xabierren *Larramendi eta literatur-gipuzkera* artikulua, (325-360 orr.)).

d) Zarauzko komentuko frantziskotarrek ere lan ederra egin zuten beren sermoi eta idazlanekin.

e) Jesuiten eta gainerako ordena erlijiosoen kontrako erasoek, deserriratzek... (garaiko idazlerik hoberenak erbestera aldegin beharrean gertatu baitziren) kalte handia egin zioten jadanik indartzen hasia zen Hegoaldeko literaturari.

f) Ordena erlijiosoen ostean, herrietako apaizek hartu zuten kulturaren zuzia. Juan Bautista Agirre, Asteasuko erretorea, Gipuzkoako Artzapez Barrutiko diputatu nagusia, sermoilari eta idazle miretsia, Mendiburu, Mogel, Añibarrarekin ... harreman sakonak izan zituen gizona Gipuzkoako Eliz Batzar edo Kongregazioan biltzen ziren apaizen maisu, erdigune, eragile bortitz bilakatu zen. Honela azaldu ziren: Goierrin, Gerriko, Amundarain, Lardizabal; Beterrin, Agirre bera, Iturriaga; Urolaldean, Otaegi..., guztiak ere Kongregazioko diputatu eta Agirrerekin harremanak izan zituztenak. Elkarri lagunduz, ekonomi, politika, zentsura-oztopoak eta euskararen kontrako eraso nardagarriak pairatuz, lan ederrak burutu zituzten eta, kostata baina, zerbait argitaratzea erdietsi ere bai³.

g) Ilustrazio laikoak ere egin zuen bere lantxoak euskararen alorrean. Honela, nolabait, euskal literatura ez-erlijiosoaren hastapenak suma daitezke XVIII. mendearen bigarren partean. Baina, Elizaren eta *Herriaren Adiskideen* elkar ez aditzeak, ideia-diferentzien aldetik sorturiko gatazkek, bakoitzak bere bideari itsu antzean eusteak mesede baino kalte handiagoa egin bidezion gure literatura koxkorrari.

h) XIX. mendearen hasieran apal-apal, erdi aldetik aurrera ausartago, literatura laikoa (elizgizon ez direnek egina eta Elizaren ohiko gaiez kanpoko) erne eta loratzen da: Bizenta Mogel azkoitiarra, lehen euskal emakume idazlea: "Ipui Onac" (1804); Juan Ignazio Iztueta zaldibiarra: "Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira" (1824) eta "Gipuzkoako Probintziaren Kondaira" (1847).

i) Egoera politikoak, Borboitarren Madrilgo gobernu, absolutista zein liberal, urterik urte are zentralistagoak euskarari (eta ez literatura kontuan bakarrik, eskolan, etab.etan ere bai) ezarritako zentsura zorrotzaren erruz, libu-

³ Aranburu 1995: "Juan Bautistaren lehen obra, 1803an, GANak argitaratzean, apaizen artean aitzindari bilakatu zen. Euskal idazle, sermoilari, garaiko eliz oratoria onena egiten zutenen lagunmin izan zen: Mendiburu, Mogel, Añibarrarekin harremanak izan zituen. GANko korriedoetan Juan Bautista Agirre diputatu nagusi zen garaian biltzen zirenak euskal lanak idazten hasi ziren: Mutiloko Gerriko eta Amundarain, Hernaniko Iturriaga, Beizamako Otaegi. Gertakizun horien guztien erdian Asteasuko Agirre zebilen; beraz, era askotara eragin zien XIX. mendeko apaizei beren sermoiak euskaraz lantzen hasteko." (167-168 orr.).

Ikus, halaber, 1995-11-08ko aldizkariok: *Euskaldunon Egunkaria*: "...Bere liburuak argitaratzeaz gain, Juan Bautista Agirrek eragile gisa indar handia izan zuen..., Iruñeko gotzaitegiaren menpeko korriedoetako bilkuretan Gerriko, Amundarain, Lardizabal, Iturriaga eta abarrekin biltzen baitzen..." (31. or., 3. zutabea, 11-22 lerr.); *Egin*, 46. or.; *El Diario Vasco*, 64. or.

ruak argitaratu ahal izateko egundoko eragozpenak zeuden. Asko eta asko obra idatzi eta handik urte mordoskara baino ez ziren argitaratu. Egia esan, gure agintariek ere (Batzar Nagusiek, Diputazioek) ez zuten ezer askorik egin gure hizkuntzaren alde; kontra aritu ez zirenean!

Segidan Amundarainen garaiko zenbait idazle gipuzkoar (zertxobait lehenagokoak eta geroxeagokoak ere barne) aipatuko ditugu labur-labur, gure mutiloarraren sermoiak egokixeago kokatu ahal izateko lagungarri gisa edo:

- Manuel Larramendi jesuita andoaindarra (1690-1766). “De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España...” (1728) eta “Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria” (1739) apologi lanak; “El Imposible Vencido...” gramatika (1729); “Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín” hiztegi famatua (1745); “Corografía o descripción general de Guipúzcoa” (1756 aldera; 1882an argitaratua), eta abar luzea. Euskaraz ezer gutxi.

- Agustín Kardaberaz jesuita hernaniarra (1703-1770). Asteteren Doktrinaren itzulpena (1760); “Eusqueraren Berri Onac...” (1761); “Aita San Ignacioren Egercicioen gañean” (1761), eta abar luzea. Larramendiren jarraitzailea.

- Juan Antonio Ubillos, Amasako frantziskotarra (1707-1789). “Cristau doctriñ berri-ecarlea...” (1785); Filosofiaz latinez ... Larramendiren jarraitzailea.

- Sebastian Mendiburu, Oiartzungo jesuita, *Euskal Cicero* deitua (1708-1782). Jesusen Bihotzaren debozioaz (1747); “Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai” (1759-1760); sermoilari handia eta debozio-liburu ugari. Larramendiren jarraitzailea.

- Frantzisko Xabier Maria Munibe Idiakenez azkoitiarra, Peñafloidako Kondea (1723-1785); *Herriaren Adiskideak* taldeko *Azkoitiko Zalduntxo*a. “Gabon-sariak” (1762) eta “El borracho burlado...” (1764) antzerkiak.

- Jose Ignazio Gerriko, Amundarainen garaiko Mutiloko benefiziatua (1740-1824). “Cristau Doctrina Guztiaren Esplicacioaren Sayaquera...” (1805an idatzia, baina 1858an argitaratua).

- Juan Bautista Agirre, Asteasuko erretorea eta Amundarainen garaian Gipuzkoako Artzapez Barrutiko diputatu nagusia (1742-1823). “Eracusaldic” sermoiak (1850ean argitaratuak); Doktrina, etab. etab. Gure klasikorik handienetakoa.

- Felipe Agustín Otaegi, Beizamako erretorea (1767-1840). Sermoiak, doktrinak...⁴.

- Juan Ignazio Iztueta zaldibiarra (1767-1845). “Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira” (1824); “Gipuzkoako Probintziaren Kondaira” (1847).

⁴ Duela bi urte argitaratu dira Otaegiren lan-zati batzuk: Otaegi, Beatriz, 1993, “Felipe Agustín Otaegui Beizamako Erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)”, Beizama-Donostia.

- Jose Krutz Etxeberria, Oiartzungo frantziskotarra (1773-1853). Zarauzko komentuko sermoilari eta doktrina eta hainbat debozio-libururen egilea.

- Agustin Pascual Iturriaga, Hernaniko apaiza (1778-1851). Irakaskuntzaren berrikuntzaz biziki kezkatua: eskola-liburu ugari; Alegiak ... Liberalizat salatua eta zigortua 1823 osteko errepresioaldian.

- Bizenta Mogel azkoitiarra (1782-1845), euskal literatura zaharreko emakume bakarra. Juan Antonioren iloba. "Ipui Onac" (1804).

- Jose Frantzisko Aizkibel azkoitiarra (1798-1865). Larramendirenean oinarritutako Hiztegia.

- Frantzisko Ignazio Lardizabal, Zaldibiako benefiziaria (1806-1855). "Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira" (1855); "Gramática Bascongada" (1856).

- Gregorio Arrue, maisu hernaniarra (1811-1890). Doktrina; itzulpen ugari ...

Gipuzkoarrak, Amundarainen hurbileneoak aipatu ostean, gainerako Herrialde eta euskalkietako idazle eta literatur lan batzuk ere jaso behar ditugu:

Araban:

- Juan Bautista Gamiz jesuita (1696-1773). Poesia.

- Jose Paulo Ulibarri, Abandoko perratzailea (1775-1847). Euskaltzale eta Larramendizale sutsua. Gutunak.

Nafarroa Beherean:

- Amikutze aldeko Lopez apaiza. Itzulpena, 1782an.

- Isturitzeko Salvat Monho apaiza (1749-1821). Poesia erlijiosoa lapurteraz.

Bizkaian:

- Pedro Ignazio Barrutia aramaiarra, Arrasateko eskribaua (1682-1759). "Gabonetako Ikuskizuna" antzerkia, 1897an argitaratua.

- Lekeitioko Agustin Basterretxea jesuita (1700-1761). Poesia erlijiosoa.

- Laukarizko Bartolome Olaetxea. Doktrina, 1775ean.

- Juan Antonio Mogel, Markinako abade eibartarra (1745-1804). Bizkaiera literarioaren sortzaileetakoa. "Peru Abarca" (1802 aldera; 1881ean argitaratua); Doktrina, debozio, apologi liburu ugari...

- Areatzako Pedro Antonio Añibarro, Zarauzko komentuko frantziskotar misiolaria (1748-1830). Bizkaiera literarioaren sortzaileetakoa. "Escu liburua" (1802); "Lora-sorta espiritual..." itzulpena (1803); "Guero Guero" bizkaieraz... Larramendiren eragina.

- Durangoko Pedro Jose Patrizio Astarloa frantziskotarra (1751-1821). "Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac" sermoiak (1816-1818).

- Durangoko Paulo Pedro Astarloa abadea, aurrekoaren anaia (1752-1806). “Apología de la Lengua Bascongada” (1803) eta antzeko apologi lan ugari, denak erdaraz.

- Markinako Frai Bartolome de Santa Teresa karmeldarra (1768-1836). “Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba” (1816); “Ica-siquizunac” sermoiak (1816-1819)...

- Bilboko Juan Mateo Zabala, Zarauzko komentuko frantziskotarra (1777-1840). “El Verbo Regular Bascongado” (1848); “Noticia de las obras bascongadas” (1856); “Fábulas en dialecto vizcaino” alegiak...

- Juan Jose Mogel, Markinako abade debarra (1781-1849), Juan Antonioren iloba eta Bizentaren anaia. “Baserritar nequezaleentzaco escolia” (1816); zenbait debozio-liburu...

- Jose Antonio Uriarte, Arrigorriagako frantziskotarra (1812-1869). Debozio-liburuak, baina, batez ere, L.L. Bonaparteren kolaboratzaile gisa, Doktrina eta Idazteunaren itzultzaile.

- Eusebio Maria Azkue lekeitiarra (1813-1873). Poesia.

Lapurdin:

- Joannes Etxeberri, Sarako medikua (1668-1749). “Gomendiozko Carta” (1718); “Escuararen Hatsapenac” apologia eta gramatika (1716 aldera)...

- Joannes Haraneder, Donibane-Lohizuneko apaiza (1669an jaioa). Itzulpen ugari.

- Martin Harriet, Larresoroko notarioa. Gramatika (1741).

- Alexander Mihura, Donibane-Lohizuneko apaiza (1725ean jaioa). Itzulpenak.

- Bernard Larregi, Uztaritzeko erretorea. “Testamen Çaharreco eta Berrico Historia” (1775-1777); itzulpenak, poesia...

- Andres Baratzart, Larresoroko apaiza (1738-1826). *Meditazione ttipiak* (1784).

- Jean Robin, Donibane-Lohizuneko apaiza (1738-1821). Itzulpenak.

- Martin Duhalde, Uztaritzeko apaiza (1753-1804). “Meditacioneac gai premiatsuen gainean” (*Meditazione handiak*) (1809)...

- Hazparneko Martin Larralde ‘Bordaxuri’ (1782-1821). Poesia.

- Martin Hiribarren, Askaingo erretorea (1810-1866). Poesia, atsotitzak, historia, gramatika, hiztegia...

- Jean Pierre Duvoisin, Ainhoako kapitaina (1810-1891). Bonaparteren aginduz, Idazteun osoaren itzulpena; beste zenbait itzulpen...

- Leonce Goietxe, Urruñako apaiza. “Fableac edo aleguiac” (1852).
- Maurice Harriet, Haltsuko apaiza (1814-1904). Hiztegia.

Nafarroan:

- Joakin Lizarraga, jesuita eta Elkanoko erretorea (1748-1835). Iruñea aldeko euskara ederrean, egun galduxean, doktrina, sermoiak, debozio-liburuak, Idazteunaren itzulpenak..., guztiak egilea hil eta gerora argitaratuak (zenbait, azken urteotan).
- J. Etxamendi ‘Bordel’ (1792-1879). Poesia.
- Bruno Etxenike (1820-1893). Idazteunaren itzulpenak.

Zuberoan:

- Martin Maister, Ligiko erretorea. “Jesu-Kristen Imitacionia” itzulpena (1757).
- M. Etxegoien, Mauleko erretorea. “Uscara Libria” debozio-liburua (1804).
- Beñat Mardo, Barkoxeko bertsolaria (1815 aldera).
- Pierre Topet ‘Etxahun’, Barkoxeko poeta erromantikoa (1786-1862).
- Jean B. Artxu, eskola-ikuskatzailea (1811-1881). Alegiak, gramatika, Idazteunaren itzulpena...
- Emanuel Intxauspe apaiza (1815-1902). Itzulpenak, debozio-liburuak...
- Agustin Xaho, Atharratzekoa (1810-1858). Lehen gerrate karlistako kronikak, gramatika eta historia lanak...

Jatorriz euskaldunak ez izan arren, ezin utzi aipatu gabe:

- Wilhelm Humboldt aleman euskaltzalea. XVIII-XIX mende-mugan hainbat bidaia egin zituen Euskal Herrira; hemengo idazleekin harreman estuak izan zituen; gure Herriaren jatorriaz, historiari, hizkuntzaz lan trinkoa burutu zuen (1821 aldera).
- Antoine D’Abbadie, erdi euskaldun, erdi irlandarra (1810-1897). 1853an Urruñan hasi ziren Lore-Jokoen sortzailea. Xahoren lankide, gramatika baten egile, 1836an.
- Luis Luziano Bonaparte (1813-1891). Euskararen eta honen euskalkien ikerketan lan erraldoia egin zuen, hemengo kolaboratzaile inguraturik⁵.

⁵ XVIII-XIX mendeetako idazle eta lanen bilketatxo hau egiteko, Villasante 1979 eta Torrealdai 1977 obretan oinarritu gara. Ikus, halaber, Lakarra 1992; Altzibar, Xabierren *Larramendi eta literatur-gipuzkera* kapitulua: 326-331 orr. Halaber, Aranburu, eta beste batzuk 1995: 48-53 orr.

Ingurune literario honetan: eliz liburuak (sermoiak, doktrinak, debozio-liburuak...), apologiak eta euskarari buruzko lehen ikerketak, Hegoaldeko (gipuzkerazko eta bizkaierazko) literaturaren indartzea ... jaio eta bizi izan zen, eta bere lan biak: Jaquin-bide Iritarautia eta sermoiak, giro honetan burutu zituen, bada, Jose Felix Amundarain, Mutiloko bikarioak, bere bizitzako azken urteetan.

2. SERMOIAK

Antonio Arrue euskaltzainak Gerrikori buruzko artikulu batean hauxe dio: “Gerriko k izan zituan jarraitzalle batzuek. Bat, ... Mutiloa n bertan Erretore izandutako Jose Felix Amundarain. Oraindikan Mutiloa ko Erretore-etxean gordetzen da milla da zortzireun da ogei ta laugarren urtean Amundarain onek argitaratzeko asmoz gertu zuan sermoi-xorta polit bat.”⁶

Arruek Plazagoenen kokatzen zizkigun sermoi haiek Jerardo Elortza jaunak, Bergarako UNEDeko irakasleak, aurkitu zituen Lazkaoko Beneditarren monasterioko liburutegi zokoan, bi liburukitan poliki koadernaturik.

Bigarren liburukiaren sarreran Amundarainen beraren aurkezpena eta lanegitasmoaren aurkibidea edo banaketa azaltzen dira:

“Eusquerazco Igande-sermoyen 2. Liburua./ Urteco Igandetaraco Eusquerazco Sermoyac: Sermolari Jaquinsuetatic zatica autu, eta ifiniac./ Sermoi Sarrerac Castellotec Francesetican Erdèrara itzulitaco Christan-Urteco Igandètatican; eta Sermoyac Barcia, Claus, Señeri, Maxillion, Isla, Eguileta, eta Calinogandic artuac, edo auqueratuac./ Langai labur au Eusqueldun Apeicen mesedean eguiñ du D. Josè Feliz de Amundarain, Mutiloaco Erri noblearen Vicario Jaunac, bere Vicaritzaco ogueta amairugarren urtean; icusiric, neque dala Apez sartu verriac Sermoi Eusquerazcoac nai becela, eta sarri ifintea./ Bi liburutan cabitcen dirade Igande Sermoi guciac; leendabicoan Abendutic Jesu-Christo Cerura igo zaneco urrengo Iganderaño. Eta bigarrènean Pazcoa Mayatzecotic acabararaño./ 2. Liburua/ Milla, zorcireun, ogueta laugarren urtean./ .../ Bigarren Liburuaren Sermoi-Gayen aurqui-videa...”. Eta jarraian, 25 igandetako sermoyen gaia.

Lehen liburukian bost sermoi soilik biltzen dira: lau Ostiral Santukoak eta bat Meza Santuari buruzkoa. Bigarrenean, aldiz, aipatu sarreran esaten den bezala, Pazkoatik Abendurainoko 25 igandetakoak: 43 sermoi. Guztira, beraz, 48 sermoi dira bi liburukiotan jasotzen direnak. Sermoiok bakarrik idatzi ote zituen Mutilo-

⁶ Arrue 1956: 42. or.

ko bikarioak? Bigarren liburukiak osorik dagoela ematen du, baina lehenean, hots, Abendutik Pazkoa bitarteko igandeetako sermoiak jaso beharko lituzkeenean, bost baino ez dira azaltzen. Beste guztiak hor nonbait galdu egin ote dira?

Helburua: Sermoiak idatziz jartzearen eta, ondorioz, argitararaztearen helburua Amundarainek berak argitzen digu: Apaiz hasi berriei, sermoiak euskaraz egiterakoan topa ditzaketen arazoak gainditzeko, laguntza eskaintzea, alegia.

Iturburuak: Sermoiok moldatzeko erabili duen materialaren berri ere ematen digu: Garai hartan ohiko ziren erdal sermoi-liburu klasikoak.

Data: Amundarainek berak 1824an idatziak direla badio ere, denak urte horretakoak ote dira? Izan ere, 10 igande edo jaiegunetarako sermoi bana azaltzen dira aipatu liburuki biotan; 16 igandetarako bina eta bi igandetarako hiruna, hau da, zenbait igandetarako sermoi bat baino gehiago. Are gehiago, hainbat sermoi berdin-berdinak dira, batak bestearen kopia (zertxobait aldatua) dela dirudielarik (ikus parte honen 5. ataleko sermoi hautatuak). Urte berekoak ote dira sermoi guztiak? Gure ustez, ez. Sermoi-sorta bat 1824koa izango da, baina beste batzuk, lehenagokoak (1823koak?) edo geroagokoak (1825ekoak). Amundarainek denak gordeko zituen, eta aurkitu zituenak denak bere horretan koadernatuko zituen, urteka sailkatu gabe⁷.

Egitura, estiloa: Buruan, igandea, latinez: “*Doma. 9a. post Pentec.*” eta igande horretako Ebanjelioko ahapaldi bat, latinez eta euskal itzulpena: “*Videns Civitatem flebit super illam. Luc. 19. Iria icusiaz bestegabe negar eguin zuan JesuChristoc.*”. Sermoiak bi parte dituzte: Lehenik, gaiaren aurkezpen luzea egiten du, zeri buruz arituko den azalduz, eta otoitz labur batekin (‘*Ave Maria*’, ‘*Nere JesuChristo Jauna*’) amaituz: “...*Esca dizogun Ama graciazcoari, esanaz: Ave Maria*”. Segidan, sarrerako laburpeneko ideiak luze-zabal jorratzen ditu. Ebanjelioko ahapaldiak etengabeak dira (latinez eta euskaraz). Halaber, Eliz Guraso zaharrenak (hauek ere latinez eta euskaraz). Harridura eta dei erretorikoz josia dago sermoia: “*¡Ha!*”, “*¡O! Zorigaiztoco Ciudadea!*”, “*¡O! Esquerric batere ez dezun Jerusalem!*”, “*¡O! Hispania, Hispania!*”, “*¡Arretá, nere Christauac!*” (ikus ‘*Arretá*’, azentu eta guzti), “*¡Adi nazazu Christaua!*”. (Parte honen 4. atalean luzeago ihardungo dugu sermoi-tako estilo erretoriko honetaz). Eta amaitzeko, oraintsu arte ere hain ohikoak ziren esaldi-motak: “...*eta gueroztican merci izan dezagun secula gucian zu alavatceco, zuzaz gozatceco dicha: Amen, Amen.*”, “...*beraren honrran, beraren alavanzan empeñatcen ditugula gueron almen guciac; Graciarequiñ batera Ceruco ondasunac gueroztic irabazteco: Amen, Amen.*”.

⁷ Badira, gainera, beste nabarduratxo batzuk ere, gure ustez, sermoi guztiok urte berekoak ez direla azaltzen bide digutenak: Sermoi batzuetako tintaren kolorea beltza da; horien parkeo bestee-na, aldiz, marroixka. Bokal arteko ‘-i-’, sermoi gehienetan ‘-j-’ idazten du, ‘*Jaquin-bide Iritarauti-a*’n bezalaxe: ‘*odejac*’, ‘*arrazoja*’, ‘*ojen*’, ‘*emanzajozute*’... Gutxi batzuetan, ordea, ‘-y-’ erabiltzen du: ‘*ezteyac*’, ‘*etziizayola*’... Azken sermoiok ez ote hurrengo urtekoak, hots, 1825ekoak?

3. HIZKUNTZ AZTERKETA

3.1. Sarrera

Amundarainen sermoien hizkuntza aldetiko ezaugarriei, aski labur bada ere, heltzen ausartuko gara:

Eskuizkribuetako ortografiari buruzko ohar batzuk egingo ditugu.

Sermoietakoa lexiko edo hiztegiaren ere, lehenago 'Jaquin-bide Iritarautia'koarekin ihardun dugun bezala, iruzkin batzuk egingo ditugu. Eta lexiko horren hustuketa moduko bat ere eskainiko dugu.

Morfologiaren (deklinabidearen eta aditzaren) azterketa xumea ere egingo dugu.

Halaber, sintaxi edo joskerarena.

Sermoietan zehar barreiatu aurkitzen den hainbat eta hainbat esamolde, esaera, espresio politen bildumatxoa ere eskaini nahi genuke.

Lexikoan ez bezala, ortografia, morfologia eta sintaxi alorretan Amundarainen lan bien artean alderik ez dagoenez, 'Jaquin-bide Iritarautia'ko adibide batzuk ere jaso ditugu, sermoietakoekin batera, segidako ataletan.

3.2. Ortografia

Amundarainen eskuizkribuetako grafia, 'Jaquin-bide Iritarautia'koa zein sermoietakoa, egungo gurearen aldean desberdina da, jakina; eta nahikoa irregularra ere bai: hitzen lotura-modu aski nahasia, hitz bera bi eta hiru eratarata idatzia, etab.; sermoitik sermoira, baita sermoi berean ere, anitz aldaera aurkitzen ditugu. Dena den, batasunik, erabatekotasunik ez hau oso normala dela iruditzen zaigu; izan ere, artean arau finko eta bateratzailerik ez baitzen⁸, eta euskaraz zerbait idazteari ekiten zionaren erreferentzia bakarra, erdal testuak alde batera lagata, aurrez irakurritako euskal idazle apurrena baino ez baitzen.

⁸ Larramendiren kontseiluei jarraituz, Kardaberazek bere "Eusqueraren berri onac..." liburuan, 4. atalean, ondo eskribitzeko erregela batzuk, ortografi gomendio batzuk, eskaintzen dizkie euskaraz idatzi nahi dutenei.

Aldaerak, diferentziak, *duda-mudak* gorabehera, jaso ditzagun Amundarainen idazki argitaratugabeotako ezaugarri batzuk bederen:

– Maiuskulak: Gehiegizko erabilera: Elizako lexikokoak: *Eliza, Meza, Apaiz, Zeru...* ez ezik, asko eta asko inolako irizpiderik gabe: *Etsai, Guizon, Erbeste, Ciudade, nere Enzuleac, Soldadu...*

– Ortografi zeinuak edo puntuazio-ikurrak: Galdera eta harridura-zeinuak, gazteleraz bezala, perpausa irekitzeko eta ixteko, hots, esaldiaren aurretik eta ostean: *¡O Ama Dolorosa!...*; *¿Cer eguiñalguenzaque...?* ...Bestalde, koma, puntu eta koma, puntu eta bi puntuen (zeinu hau beste zentzu batean erabiltzen bide zuten lehen) gehiegizko erabilerak eta kokapen bitxi samarrak (adibidez: ‘*eta*’ emendiozkoaren eta ‘*edo*’ hautakariaren aurretik beti koma ezartzen du: *lotsa, eta afrenta andia; ezcutatu, eta illuncenda...*; *erabat, edo guztiz...*) irakurketa dextente zailtzen du; gaurko grafiara ohitutakooi testu zaharron irakurketa, egia esan, nekoso antzekoa egiten zaigu.

– Azentua: Irizpide zehatzegirik gabe: hitz bera batzuetan markatu egiten du eta beste batzuetan, aldiz, ez. Batzuetan, argi ikusten da bokal luzea adierazteko dela: *pobrézcat, chárra, guizáldi, aldérri, lénagoco, igandétaraco/igandétatican* ... Beste batzuetan, berriz, mintzatuan bezala markatu nahian edo: *dá, ezta, béra, arretá, oró, osoró, arguiró...*; *licenciá, bigarrénean...*

– *c/qu*: Herskari belare gorrak gazteleraz bezala adierazten ditu: *caso, Jaungoico, cuja, batec, Credo...* Halere: *JesuChristo/Christau/Christian...* (garaiko idazle askok bezala); *que, quirquir...*

– *c/z*: Frikariak gazteleraz bezala: *zaimaquilla, zori hordu, zucén, naiz, azgarri...*; *certaraco, cituan...*

– *tc/tz* txistukariak: ‘*e*’ eta ‘*i*’ren aurretik, gehienetan, *tc* erabiltzen du; baina, tarteka, *tz* ere bai: *estimacén, eta maitatzen...* (Egia esan, irizpide zehatzik gabe).

– *tc/tz, ts, c/z, s* txistukariak ederki bereizten ditu: *itz, zorrotz, gaitziritziac, etzitzajola, lotsatzeco, lotsagarri, eracutsi, etsai, utsequite, dacutsula...* Halere: *aguitz/aguiz...* Edota, *ts* eta *tx* arteko nahasketatxoak: *ichaso, irichi...*

Dena den, *l, n, r* kontsonanteen ostean, inoiz ez du *tc/tz, ts* erabiltzen, baizik eta *c/z, s*: *anz, polsa, persona, janci, arcen, pensacén, conciencia, autorceco, ilcen, illzan, arzai, gurutzilzatu ... Norentzat* deklinabidearen kasu-atzizkia ere berdin: *andienzat...* Orobat, *-tsu* atzizkia ere: *indarsu...*

Kontsonante-multzo gogor antzeko batzuk ere bai: *itzcunza, itzatzute...*

– *ch*: Afrikatu sabaikaria gazteleraz bezala: *echea, chit, prochu...* Gogor antzeko hau ere bai: *itchi...*

– *x/ss*: *pissu, pissa-ol, isseca, issillic, issequita, issuri...* Baita: *misseria, misericordia, Santissima...* (euskal soinua gordez). Baina: *examiñatu, exemplo/egemplo...*

– f/p: Nahasketaxoren bat edo beste: *pantasi/fantasia, ifini/ipini... Prancia ... infernu...*

– g/gu/gü/j: Herskari belare ozenak eta frikariak gazteleraz bezala: *gente, egemplo/exemplo...; eguargui, guirguillu...; ezagüera, igüi, baina uguy...; jai, jolas, juicio...*

– j/y: Bokal arteko i, ‘Jaquin-bide Iritarautia’ n eta sermoi gehienetan: j; baina, beste batzuetan: y: *jajo, emanzajozute, eztejetara, ojec, etzitzajola, najaz, patrojac...; oyec...*

– h: Maileguez aparte, euskarazko batzuk ere bai, baina irizpide zehatzegirik gabe: *hordu, heriotza, hume, harreba, ahortu...*

Bustidurak:

– ll: *milla, salla, sillua, ill, illda, dollor, illoba, aditzaille...*

– ñ: *baña, diña, gañera, aleguiñ, beciñ, Aiñgueru, aiñda, oraiñdaño, eguiñlezaque, aguiñcen, deseguiñdu, eguiñgabe, oraiñ, muñ... Norekin kasu-atzizkia: aleguiñaquiñ, guciaquiñ, eternoarequiñ...*

– tt: *itto* (Ez dugu besterik aurkitu).

– mb, mp: Sudurkariet dagokienez, p/b herskariet aurrean m, gazteleraz bezala: *aimbeste, barrempeac... Baina: conveni, leenvicico, convidatu...*

– r: Maileguen hasieran: *religio, rotulo... Baina, askotan, aurretik e- erans ten die: religioso/erligioso, Erredentore, errecibitu, erredimitu, erregariatu, erreserbatu, errespuesta, erreverencia...*

Kontsonante ostean rr bikoitza ere bai: *honrradu...*

Edota: *Cesari* (*Cesarri* nahiz *Cesar-i* beharko zukeen).

– v: Maileguez gain, euskarazko anitz, baina irizpide zehatzik gabe: *viotz, verri, vici, leenvicico, vide, videzco, verriqueta...*

Konposizioa eta hitz-loturak: Lotura-mota ezberdinak erabiltzen ditu, baina irizpide zehatzik gabe:

– Aparte: *guiza aldi, zori hordu, galde era, ill verri, sartu verri, lan bide, Iritar Carta, jai egun, igande sermoi...*

– Juntuan: *aitzaquigabe, berequigobaguetasun, gurutzaburu/gurutzburu, eguargui, beardempora, jaiotberri, andinai, Elizbatzarre, aurberri, galdeera, guizaaldi, guizaarte, pasaarte, gentearte, besaarte, zaimaquilla, guizamodu, seniparte, viotzvera, vicilecu, vicimodu, gordairuzai, ichaslanbide, JesuChristo, jaioterri, gurasorde...*

– Marratxoz: *Erri-Batzarre, Uri-Batzarre, Christan-urte, sermoi-gai, Eliz-Batzarre/ -arza/ -funcio/ -Guraso/ -ondasun/ -patroi/ -nagusi, elur-luma, ille-lana, ille-mota, ichas-bazter, ichas-ecaitz, jajot-iturri, elor-aranza, Jesu-Christo,*

ego-aice, jaquin-bide, aurqui-vide, Eusquel-Provinciac, gurutz-ilzatu, legue-arauzle, Erritar-Carta, iritar-talde, legue-emalle, legue-azpiratu, pissa-ol, norbera... ez-aurrizkia: ez-autu, ez-ichequitasun... Dvandvak: ar-emeac, gor-mutu ... (alboratze soilez, hots, komaz ere bai); errepikatuak edo oihartzunak: doi-doi/dui-dui, ozta-ozta... Hainbat sinonimo-pare: adimentu-ezagüera...

– Zenbakiak: Hogeitik gorakoak bi zatitan: *oguetá batgarren igandean, oguetá amairu urte, irurogueta amabi...* (lehen parteari *-ta* erantsita).

3.3. Lexikoa

Amundarainen eskuizkribuetako lexikoa oso aberatsa da, ugaria eta bariatua. Gipuzkerako lexiko zabalaren eta Goierri alde honetako zenbait hitz peto-petoren tartean (*alluma, cuya, apota, peatza, trillu, oi* (ohe), *muñ eguiñ, itzonci...*), beste euskalkietakoak ere usu darabiltza: Bizkai aldekoak (*bear* (lan), *dempora, ostein, erabagueco, autortu, guichi, iracorri, bider, itandu...*) nahiz Ekialdeko euskalkietakoak (*aguitz, portitz, orobat, erallatu, perill, manu, oficiale, eri...*).

Beste euskalkietako hitzak (eta deklinabide eta aditz-formak) erabiltzeari dagokionez, gure idazle zaharrok *irekiak* ziren oso; ederki asko baliatzen ziren beren lanetan idazle zaharragoen nahiz garaikideen liburuetan irakurritakoez. Mitxele-nak honela azaltzen digu idazle klasikoen *zabaltasuna*, batez ere lexiko alorrekoa: “Egia da gure euskal idazleek ezagutzen zituztela aski bestetangoak (beste euskalkietako autoreak) ... hangoak eta hemengoak ezagutu ... eta hango eta hemengo-en esaerak eta hitzak jaso...”. Gure idazle zaharrak ez ziren beren euskalkitxora mugatzen. Honek zera frogatzen digu: “1) Giputz horiek, aldi joanetako beste edozein euskaldunen arabera, ez zirela *inperialistak* izan; 2) landuagoetatik ikas-teko ez zutela kupidarik; eta 3) errazago zitzaiera gipuzkoarrei ... Lapurdi aldera makurtzea bizkaitarrei baino”. Baina beste hau ere gehitzen du: “Halaz guztiz ere, bakoitza bere aldetik dabil eta horrexek egin du kalte izugarria, batez ere bazterre-ko eskualdeetan, esate baterako Nafarroa garaian”⁹.

Xabier Altzibarrek ere luze-zabal jorratzen digu auzi hau: “...literatur-gipuzkerak idazleen tokian tokiko hizkerak gaintitzen ditu...”. Honetan berebiziko eragina izan zuen Larramendiren lanak: “...Berori sortu aurretik Goierriko testu franko dugu, baina Larramendiz gero, gipuzkerak gramatika bat duelarik eta Gipuzkoa osorako liburuak ateratzerakoan, nahiz eta idazle batzuek Goierri aldekoak izan ... Beterriranzko joera nagusituz doa, eta honetan lapurtar literaturaren ezagumenduak baduke zerikusirik. Berrikoa joan zen ospea hartuz. Larramendi baino aurretik ba ote zuen?...”¹⁰.

Kontua da, Larramendi eta honen jarraitzaileen (Kardaberaz, Mendiburu, Ubillosen) eraginari esker, gipuzkoar idazle asko alboko euskalkietako hitzak

⁹ Mitxelena 1988 EIG IV: 64. or. eta 1988 EIG VIII: 165. or.

¹⁰ Lakarra, eta beste batzuk 1992: 332-335 orr.

ezagutzen, jasotzen eta beren lanetan erabiltzen hasi zirela, ordurarteko *txokoke-riak* gaindituz eta lexiko komun bat sortuz eta hedatuz.

Maileguak barra-barra, lasai-lasai erabiltzen ditu Amundarain apaizak, inolako konplexurik gabe, garaiotako beste apaiz idazleek bezalaxe. Gaurko ikuspegi *garbizaletik* askok eta askok alfer-alferrikakoak ere badirudite (*Sacerdote, Señora Maria, trabaju, amatu*¹¹; *arro, superbo; vivac, zorionac* (askotan, maileguaren ondoan, ‘*eta*’ nahiz ‘*edo*’ juntagailuaz edota alborakuntza soilez, hitz *euskaldunxeargoa* ezartzen duelarik...).

Hain lexiko (eta joskera) *mordoiloa* erabiltzeagatik, *garbitasunaren* ikuspuntutik *nabarmenegiak* bide diren erdal hitz eta joskerak erabiltzeagatik, ahaztuak, baztertuak, mesprezatuak izan dira askotan gure klasikoak. Baina, duda barik, gure idazle zaharrok euskara bere osotasun, oparotasun, jatortasun fresko-freskoan gorde diguten *kutxa preziatuak* ditugu eta, alde horretatik, gure benetako *hizkuntz maisu*¹².

Gure klasikoekiko *mesprezioa* salatuz, honela mintzo zaigu Mitxelena: “1936 baino lehen, dena genekiela uste genuen, gero eta hobeto genbiltzala; zaharrek... ez zuten sekula atarramentu onik atera ... Oker geunden, noski. Zaharrek, zaharretan onenek, guk baino hobeki idazten zuten euskaraz, lehen eta oinarrizko hizkuntza zutelako guk ez bezalako moduan; hitz egin, noski, guk baino ederkiago egiten zuen edozein nekazarik, edozein bertsolarik, euskaraz funtsaren funtsean ederkiago zekielako ... Axaleko irizpideak eta neurgailu traketsak generabiltzan. Lehenik eta azkenik, garbitasuna. Gu ... ez ginen mordoilokerian murgiltzen ... Garbitasuna ... modu hagitz ezberdinez neur daiteke. Gainetik eta gaingiroki neur-tzen genuen guk, esaldien axalean ager zitezkeen erdaratiko hitz eta esaeren, azken hauek txit bigarren mailako zirelarik, arabera. Gure ustez, ordea, egiazko garbitasuna eta ez alegiazkoa sakonago zegoen..., jatortasunaren osinean ezkutatua. Hitzei dagokienez, beraz, garbia da jatorra dena, euskaldunek (literatur mailaz ari ginen batipat) erabili dutena nondik ere nahikoa den. Lehen oinarri hau, erabiltzeak bihurtzen duela hitza euskal hitz eta ez etorkiak...”¹³.

Gure idazle zaharroi, bada, gaurkoen aldean erdal hitz ugari badarabilte ere, *euskal anima* handiagoa, euskal sen jatorragoa, freskoagoa darie beren lanetan. Gu baino *euskaldunago* dira, lehenik eta behin, Villasantek eta Mitxelenak diotena errepikatuz, haien oinarrizko, jatorrizko hizkuntza euskara baino ez zelako, haien *burua* euskaldun peto-pettoa zelako¹⁴.

¹¹ Sarasola 1984, I, (Mitxelena, Koldoren *Aurkezpena*, 14. or.): *amatu* hitza sartzearen eta erabiltzearen arrazoia ederki asko azaltzen digu Mitxelenak: Testu erlijiosoetan hitz maileguck duten *maila berezia*, horien pareko hitz arrunt edota berrien aldean duten finkotasun eta zehaztasun-maila, *indarra*, da, izan ere, apaiz idazleok egiten duten maileguen aldeko hautaketaren arrazoia.

¹² Villasante 1979: 263. zk. Auzi honi buruzko Txillardegiren iritzia ere jasotzen du.

¹³ Sarasola 1984: 18. or.

¹⁴ Aranburu, eta beste batzuk 1995: 100, 106 orr.: Jose Ignazio Gerrickoren “Cristau Doctrina...”ren lexiko-azterketa egiterakoan, gauza berberak esaten dira. Ikus, bereziki, 106. or.ko 3. parrafo eta 13. oin-oharra: Sermoietan horrenbeste erdarakada erabiltzearen arrazoiak aipatzen dira: Eskuarteko iturriak erdaraz izatea eta, maiz, hauen itzulpen-moldaketan ihardun behar izatea. Erdal hi-

Mailegu *mordoilo* piloa azaltzen da Amundarainen eskuizkribuetan, egia da. Baina baita, nola ez, hitz polit, eder, bikain asko eta asko ere: zahar-zaharrak, gaur egun galduxeak, ahaztuxeak ditugunak nahiz oster berreskuratuak ... (*egoscari* (egosteko lekalea), *erasan* (esanarazi), *egotci*, *verariaz*, *ardit*, *erauci*, *veguico niniac*, *esquerga*, *alaide/alaitu* (adore/adoretu), *aztura*, *burusi*...).

Bestalde, sermoietan ere sartzen ditu Amundarainek Larramendiren Hiztegi-ko hitz *berri* batzuk. ‘Jaquin-bide Iritarautia’ko lexikoaz ihardun dugunean, II. parteko 4. kapituluan, azaldu dugu jesuita andoaindarraren eragina. Sermoietako hitz *berriok* (*aurquizquirra*, *asmagui*, *aratoitz*, *Eliz-Batzarre*, *ocentari*, *Apostuluarren Neurquidac*, *albista*, *abegor eguiñ*, *itzaurre* (profezia), *ipenza*, *ispetu*, *iri/irilegue*...) Amundarainek, ‘Jaquin-bide Iritarautia’ lan juridiko tekniko itzultzerakoan ez ezik, sermoietarako ere eskuartean erabili eta gustura aprobetxatu zuela Larramendiren Hiztegi berria adierazten digute. Esan, halaber, hitz *berriok* beren pareko sinonimo ezagunagoarekin lotzen dituela ‘edo’ nahiz ‘eta’ juntagailuez edota alboratze hutsezko juntadura bidez. Honetaz ere aritu gara goraxeago aipatu atalean.

Hona segidan, lagin gisa, Amundarainen sermoietako lexiko aberatsaren hustuketa:

aaide, aide, haide
 aasaba
 abacatu (= beheratu?)
 abar: eta abar
 abegor (= abegi); avegor eguiñ
 abere
 aviatu, habiatu
 abonatu (= aintzat hartu)
 acats
 aci (= enbrioi; handitu)
 acierto
 acordatu
 adierazo, adieraci, aditcen/aditcera eman
 adiñ, adiña (erkaketako hitza)
 aditu (= entzun)
 adoratu
 afrenta
 agorra (= iraila)
 aguertu (= azaldu; esan)
 aguirri (= dokumentu)
 aguitz

tzak finkatuagoak egotean, euskal hitz *arrunten*, herri hizkerako *xumeen* aldean, indar berezia dute, *kultoagoak* dira, *teknikoagoak*, euskal hitz ohikoek ez bide duten *zehaztasuna* dute erdal maileguek. Eta *tradizioa*: herri xchea Elizako kontuetan eta (sermoiak, doktrinak...) *ohituago* dago maileguetara, *belarria eginagoa* du, eta *berrikeriak* ulergaitzago, asimilagaitzago zaizkio.

aguztu (= abuztu; uzta)
 aice: ego-aice
 aide: *aide gorrian juan*
 ayenatu (= uxatu)
 aimbeste
 aiñ
 Aiñgueru: Aiñgueru Guardaco
 aitatu (= aipatu)
 aitzahui; aitzahui artu
 aitzen (= azken): aste aitzenean
 alaegua (= alegia)
 alaide (= adore): *Aiñgueru baten alaidea*
 alaitu, animatu (= adoretu)
 alavatu
 alvista, verri
 alcandora
 alcar; alcartu
 alcate
 alchatu
 aldamen (= aldamenean)
 aldapa
 aldera
 alde; alde eman, alderandu
 alde/aldí aurrez (= aldez aurretik)
 aldez edo moldez
 aldiz, bidar, bider
 ale
 aleguiñ: aleguiñac
 alfer lana/(gauza) alferra izan
 algara
 alimentu
 alivio
 alluma (= aiuma)
 almoada
 aloguer, jornal, sari
 altu
 amarren: amarrenac
 amatu, maitatu; amodio, amorio
 ambait (= hainbat)
 amorratu
 amparu; amparatu
 amu
 anca
 anciña: anciñaco
 andí, aundi; andinai; andizcatu; andizu (= handitsu?)
 anima
 animal: *animali sayac*

ansia
 anz
 aortu, ahortu (= agortu)
 apartatu
 apelo (= apelazio)
 apenas
 Apostulu
 ápota: *urlia, sandia, berendia, ápota*
 ar (= har); arjotu
 ar: ar-emeac
 arabaqui; arabaquitu
 aranza: elor-aranza
 aratoitz, erabagui, erabaqui
 arautu
 arbatu (= bildu, elkartu)
 arbola
 arcacuso
 arcaitz
 archibo
 arcu
 arcuma, arcume
 ardit
 ardura; arduratu
 are (nekazaritzako lanabes)
 area (= hondar)
 arere (= are ere, are gehiago)
 argal
 argui: arguitaco olio
 aric eta
 ariñ; ariñdu
 armatu
 arravia
 arrasatu
 arraza, ocasio
 arrazoi
 arreta
 arri; arritu (= harrizko bihurtu)
 arrimatu
 arro, superbo; arrotu
 artaratu
 artazuritce
 arte: artean: bere artean esan/eguiñ ...
 artez arte: *guertutic eta artez arte*
 artu; artueman: artuemanac
 arzai
 as (= hats); astu (= zikindu)
 asco

ase, bete
aserre; aserratu
asmagui, profecia; asmatu
asmo; asmo artu
asnasa, arnasa
astegun: *astegun buruzurian*
asti
astindu
atrebitu
atseguin artu/(ukan)
atz; atzaparrac
atze; atzera aurrerac
atzera (= berriro): atzeracoan
auvegui, aurpegui; aurpegui eman
auco: *Infernuaren aucoan* (= ahako?, ahoko?, ahuku?)
auquera: auqueraco; auqueratu
aurquizquia, rotulo; aurquitu
aurtera; aurreratu
aus (= hauts)
ausencia
auserdi
autan artu (= ahotan hartu)
autore, eguille
autortu (= aitortu)
autu (= hautatu)
auzo: auzoac (= auzokoak)
azal
azote; azotatu
aztalzar (= zikin: *orpozikin?*)
aztura, oitura, usadio, uso-costumbre; usatu (= ohi izan)

bacar: bacar bacarric
baculu
baju
bala casco
baldin
valimentu, balio, valore; valiatu
balur: balurric; balurtu, barautu; balurra ausi
banatu: otsa banatu (= zabaldu)
bandera
baña (erkaketako *baino*)
baño (= baizik)
baratza
barbero (= sendagile)
barcacio escatu
barrempena (= barneko pena)
barru

barruntatu (= sumatu)
 vaso, onci
 bastante (= nahikoa): *ezta bastante*
 bat eguiñ, unitu
 batera, bestera, batetic bestera ...
 bautismo; bateatu
 batzarre: Eliz-batzarre, Concilio
 bé (= behe); beeratu
 bear, trabaju, lan
 bear (izan); (gauza/gai/gradu/legue ...) bearra (izan)
 bear: bearrac: persona bearrac (= behartsuak)
 beardempora
 beata
 beazun, veazun
 becela
 becin (= bezain)
 vegui: veguico niniac; beguiratu; veguitan artu; veguiracun (= begirada)
 belaunicatu
 velo
 belz
 venganza
 venturaz (= agian)
 verariaz
 veraz
 berdiñ; berdiñdu (= parekatu, konparatu)
 bere; bereganatu; niganatu ...
 berezqui, manu (= ezaugarri)
 berniz: *berniz zulo*
 bero
 verri: ill verria; berritu, verritu, berriztu
 verrijario, itzonci
 bertatic bertara...
 beste
 bete
 vezpera
 bialdu, biraldu
 biaramon
 vici: vicilecu/vicimodu; vicitza
 vide: video: videcoac
 bide (izan) (= bidezko izan)
 videz: *egoqui ta videz*
 bienaventuradu
 bigar (= bihar)
 biguñ; viguñdu
 bildur (izan), bildurac artu
 villau, dollor
 viotz

virau, blasfemia; virautu
Virgiña
viricac
virtute
bitarteco (izan)
vitoria
bitu (= bildu)
biurtu (= itzuli)
vivac, zorionac
borratu
borrero
bota: lotsac bota
botica, boticaco
brindatu
bular, pechu
burla
buru: buruac eman, burura etorri; *afrenta buru* (= handiena)
burua erauci, burutic jauci (= erotu)
burusi
busti
buztiñ

cabitu
cabu
calcerdi (= galtzerdi)
caliza
calte
campo
cantu; cantatu
carcassa
cargatu
cargu eguiñ (= konturatu; kargu hartu)
carta
caso (= kasu): casora etorri
castatu (= gastatu)
castigu; castigatu
casto
catea
cativo; catigatu
causatu
ceatu
cegatibait (= zerbaitegatik)/certambait (= zerbaitetan)
celai
celebratu
censura
centurion
ceremonia

cerraldo
cerren (= zeren)
certaraco edo artaraco
ceru
chaleco
chamarrote
chancha: chanchaco gauza
chaola
char
chede (= xede)
chimista, oñazcarra
chimuch (= atximur)
chiqui, menos
chisme
chistu: *arzaia*ren *chistu gozoa*
chit
choratu, zoratu, burua erauci, burutic jauci
chori malo
Christau: Christan artean/leguera...
cicelu edo aulqui
cierto
cilicio
cillar
cimentu; cimentatu
cimur
ciñatu (= Aitaren egin)
ciquiñ; ciquiñdu
cirquin: *cirquinzuric cirquinzulo*
cital
ciudade, iri
claro
cobru eman
coche (= gurdi dotore)
coitadu: guizon coitadu
cola (= kola)
colera
coloca: *buru colocac*
colpe
columa (= zutabe)
combidadu (izenondoa); convidatu (aditza)
compondu
comun: gente comun
comunio; comulgatu
concebitu
conciencia
concorreco (= kaskarreko)
confesore; confesionario

conformatu
conforme: graduaz/jardueraz conforme (= -ren arabera)
conseju
conservatu
consideratu
consuelo
contentu
contiño (= etengabe)
contra; contrara (= *por el contrario*)
contu! (= kontuz!); contuzco
contu eguiñ; contu eman; contuan jausi, conturatu
contura: *nere contura...*
conveni
conventu
convertitu
copoi
coroa; coroatu
correa: *Carmengo correa*
cortes
costu: costura: *odolaren costura (= kontura)*
creitu (= izen on)
criatura
cristal
cucha, onci
cuchillo
cuidado, cuidado: cuidadoz (= kontuz); cuidado artu
culpante
cumplitu
cupide, erruqui; cupitu, erruquitu
cuya (= seaska)

damu: damu (ukan)
danza: plaza danzac
deabru, demonio
deadar
decencia
demandan juan (= auzitara joan)
dempora
derecho
desaire
descansu
descustu
deseguiñdu
deseo; deseatu
desgracia
devoto
dicha

dicipulu
diferente
diligencia
diña (= gai; duin); adiña (= gaitasun)
diratu (= tiratu)
disposicio
disteatu, distiatu
divino
doai
doi-doi, dui dui
dolore: dolorezco; dolorosa
doncella
dotriña: *dotriña*
drago (= trago)
duda; dudatu

ebaqui
ecarri
ece
ecerez
echecoandra
ecusi (= ikusi)
edolaric (= behintzat, gutxienez)
egari
egemplo, exemplo
egercito
egoscari (= egosteko lekale)
egotci
eguargui (= egun-argi)
egua
eguiñac, eguiteac, eguitecoac (= egintzak)
egun
eguzqui
Eliz-arzai/funcio/Guraso/ondasun/patroi ...
eliz-nagusi (= katedral?)
elur-luma (= elur-maluta)
emacuma, emacume; emacumatu
embarazo (= oztopo)
embor
embustero
eme
emenda; emendatu (= zuzendu)
empachu
empeñatu
empleatu
engañatu
entenga

entregatu
 envidi, envidia
 era: eraz; eratu: *eratcen bada*
 erabat (= batera; guztiz)
 eracutsi
 eragotci
 erallatu, eriotza eguiñ; eriotza
 eran (= edan)
 eranci
 eraquidatu, conformatu
 erasan (= esanarazi)
 eraso
 erauci: *burua eraucia* (= zoro; tonto)
 erazo (= arazi)
 erbeste; erbesteratu
 erdi; erdiratu, erdibi eguiñ
 ereiñ
 eremu
 eri, elbarri; eritu, elbarritu
 erle
 erori
 erratu (= galdu)
 errai: errayac
 erraz
 erreca
 errecibitu
 erredimitu
 erregariatu
 erregu; erregutu
 errejuan (= *arraioan* = *arraioka* = maldizioka)
 errepasatu
 erreserbatu
 errespeto
 errespuesta
 erreverencia
 erreynu
 errosario
 erruz (= ugari)
 esaera: (-ren) esaeraz (= -ren arabera)
 esamesa: esa-mesac
 escallera
 escandalo; escandalizatu
 escarnio
 esclavo
 escribitu
 escuetaratu
 escui (= eskuin)

escuzatar (= trapu zahar, zikin)
esnai; esnaatu
espacioz (= astiro)
España
espera (ukan)
esponja
esqueiñi
esquer on/gaizto
esquerga (= oso handi)
estadu
estaldu (ez *estali*)
estimatu
estomago
estu; estutu
eten
eterno
etiqueta
etorri
etsai
etsi
examiña; examiñatu
ezagun (izan) (= bereizi)
ezarri (= idatzi); legueac ezarri
ezcutatu
ezpalda: ezpaldac, sorbalda
ezpata
ezpere (= ezperen)
ezteyac
ezur

falso
farre: farre algarac
fedemana (= sinetsi)
fiel
fiñ (= helburu)
firmatu
fiscal
flaco
forma
fortuna
frutu; fruta
funcio (= elizkizun)
(gehienak hitz maileguak)

gabetanic (= gabe)
gaci
gai

gaitz: gaitz (izan); gaitziritci; gaitz tratu; gaitz tratatu
gaizto; gaizqui
gala: *gala soñeco*
galai
galburu
galoi
ganadu
ganchitu (= gantzutu)
gar
garaitu, goitu, gañez eguiñ
garratz
gau: *gaba*
gauza: *gaucea*
gazte
gaztelu
gente (ez *jende*); gentalla
gentilla
giraboll: *giraboll otsa (= zurrunbilo?)*
gloria
goargui, inspiracio
goata: *gorputceco goata*
gobierno; gobernatu
gogo: gogoz, gogotic; gogora ecarri, gogoratu
gogor
goi
gor: gor-aice; gor-mutu; gortu
gori
gorri (= latz)
gose
gozo; gozatu
gracia; graciac eman: *milla esquer gracia zuri*
gradu
guardian egon
guci (= guzti)
gueitu
guela
guerra, guerrata; guerrari equin
guerrico: *guerrico gorri*
guertu; guerturatu
guichi, guchi
guidatu
guirguillu (preso-zepoak)
guisa: guisacoa: *animali guisa*
guiza: guizamodu; guizacuma
gurutce; gurutcilzatu
gurutzaburu, gurutzburu (= gurutze buruko errotulu)

harreba
heredero
herege
historia
honesto
honrra; honrradu (izenon doa); honrratu (aditza)
hordu: hordumuga
hostia
hume
humill; humillatu
(Gehienak, denak ez, hitz maileguak)

ya (= ia)
ya que (= *-nez gero*)
ibilli
icara; icaratu
icentatu (= aipatu)
icerdi
ichachi: *erlearen ichachia*
ichaso
ichusi
ichu; ichutu
icutu
idolo
iduqui
ifini, ipini
igar (= ihar)
igaro
iguerri
iguesi; iguesari eman
igüi, uguy
ill: illotcic; ilceco zorian
illargui
ille-mota (= adats); ille-lana (= artile)
illeta: illetaco funcio
illeti
illoi (= hil-ohe)
illundu
imagiña
imitatu
incensu
inciri
infernu
injuria
instante: instante batean
instrumentu
inz

iñocente; iñocencia
ipenza, contuguite
ipui
irabio: irabioac (= nahaspila)
iracequi
iracorri (= irakurri)
iragarri (= azaldu)
iraun
ireco (= kideko)
iri; Irileguea (= lege zibil)
iritzi (= eraitsi)
iritzi: iritzi andico (= handi usteko)
irmo; irmotu
irten: irten du
irudin (= irudi)
iscamilla
ispetu, erreservatu
ispillu; ispillatu
ispiritu
issequi (= eskegi)
issil
itandu (= galdetu)
itchi
itto
iturri
itzaurre, profecia
ivay
izar
izcunza eguiñ (= hitz egin)
(-ren) izcunzaz (= -ren arabera)
izotz
izurri

jachi
jai egun
jayo
jan
janci
jaquiñ: jaquindeseo; jaquiñaren gañean/jaquiñean egon
jardun
jarequin
jario
jarri; jarlecu
jaso
jatorri: jatorrico pecatu
jauci: burutic jauci
jausi: contuan jausi

jo
jolas
josi
juan (= joan)
juicio: juicioco egun; juzgatu; justicia; justu (= zuzen)

labe
labur: persona labur (= pekatari)
laceri (= zorigaitz)
laco (= bezalako)
lagun urcoa
lamentu
lana (= artile)
landatu
langara: onezaz langara (= kanpora, at)
lantu
lanza; lanzada
laño
larga (= laga, utzi)
larri: persona larri (= heldu)
larri; larritasun
larru, narru: larrugorrian, narrugorrian; narrugorritu
lassaitu
laster
lastima
latz
lazo
laztan; laztandu
lece
lecu eman
leenvici, leendavici
legor; legorte
legue izan (= estimazio handiko)
legueco: abere legueco; leguera: sator leguera
leyal
leyaz
lepocoa (= eskapulario)
ler eguiñ
letradu
libratu
licencia
ligito (= zilegi)
lina: lina apaince
liquits; liquistu
liztatu (= alistatu)
liztor
lloba (= biloba)

locatza
logratu
loi; loitu
lora
losencha
lotsa: lotsac bota; lotsatu; lotsaguiiri (= lotsarazi?)
lozorro; locabica
luce
luma
lur: lurzotal; lur icara; lur jo
luzatu

machino: Errietaco machinoac; machinada
macurtu
madaricatu
magal
mai
maisú
maitatu
malgo, malco: negar malco
mami
manso
mantal
manteliña
mantendu
mantu
maratilla
marcatu
martiri
masalleco
mazmorra
medicu
(nor; -la) mediante, medio
medioz: parabolen medioz
menaz: *menaz eta viotcez*
menderatu, memperatu (= burua makurtu), oñazpiratu
mendi
mereci (ukan)
mesprecio; mespreciatu, mezpreciatu, menospreciatu
meza erdicoa
milla; milloi
mincatza (= mikatz)
mingaña
ministro (= elizgizon)
minzatu
mira (izan), mira iritci, miratu, misterio eguiñ
misseria

misericordia
moco
moda
modu, mudu: mudura/molde/mota: guizamodu, gente modu, mesede mota...
moguitu, muguitu, mobitu
morroy
morrollo (atea ixtekoa)
motivo
mudatu
muga (= mugagarri); mugatu (= erakarri)
mugaz (= garaiz)
mundu
muñ eguiñ
muralla
murguildu
mutu: gor-mutu; mututu

naastu
nai
naturaleza
Nazareno
negar; negarari eman
nescacha
nescame
neurri (= neurtu)
noble
nola ere bait
nombratu

oartu (= konturatu)
obeatu
obediente
obispo
obra
ocullu (= ikuilu)
odei
odol; odoldu
ofensa
oficiale
oi (= ohe); oatu (= oheratu)
oyal
oyu
ol (= ohol)
olio adar, oliva adar
ondar: ondarrean (= hondoan); ondartu (= hondoratu)
ondoren: ondorengo
oñ

oñaza (= oinaze)
oñazcar, chimist
oostu, ostu
opatu
orañaldian (= orain)
oracio; oracio eguiñ: oracioguitea
ordañetan
(-ren) ordean (= -ren ordez)
ormatu (= izoztu)
orobat
osasun
ostatu; ostatu eman
ostean (= ondoren; gainera)
ostrillaque
ots
otz; otcicara
ozta-ozta

pachada
paciencia
padecitu
pagu (= ordain); pagatu
palagatu (= baretu)
pantasi, fantasia: pantasiz
pañulo
paper
paque; paquetu
par (= pare, pareko)
parage
paraisu
parte (= partaide); parte artu
partida (= talde)
partitu (= banatu)
pasio
pasu
patriarca
patsa: icerdi patsa
patu
pauso
peatza: *peatza punta*
pecatu
pena; penatu, sufritu
pendejo: persona pendejo
penitencia
perill; peligratu
perlesia
permititu

perrechicu
perseguitu
picaro
picha (= bits)
pichilota (= tximeleta)
picochean (= kokoriko)
pintura
pipa: pipea
pisca: *aus pisca bat*
pissa-ol (= balantzaren platera)
pisti
pisu
piztu
plaga
plazo
pobre
(-ren) poderioz
polsa
ponderatu
por cierto: *ez por cierto* (= *ez alajaina!*)
por si acaso (= agian, beharbada)
portale
porte (= itxura)
portitza
portu (mendikoa)
posible (izan)
postizo: ille postizo
poz
Prancia
preciso: precisocoa
predicatu
premi, premia: legue premia; premi orduan
premio
prenda
presentatu
prestu
primiciac
principe
prisio; prisionero
prochu, probechu
profeta
propositu
providencia
publicano
publicatu
pulpito
punta

puntuco (= segituan)

puñal

puzoni

que

quege, queja; quejatu, (-ren) contra quege eman

quemen

queñu

querella

quirquir

quiscaldu

religio

rotulo

(Hitz maileguei, gehienetan, aurretik *e-* eransten die)

sacerdote

sacramentu; sacramentatu

sacrificio; sacrificatu

sagradu

sall (= sail; saio, lan)

salvatu

samiñ, sumiñ

Santicurutza

saqueatu

sari

sartu

sasqui

sator

say: *animali sayac*

sayeta

sayets

secula: seculaco

sedeo (= zeta)

sedena

seguru

seme eguiñ, ume eguiñ (= erditu)

senide; seniparte

sentencia

sentitu, senti (ukan)

señale; señalatu

sepultura; sepultatu

sermoi

seta

siervo; servitu (= balio ukan)

siglo

sillu; sellatu

siquiera (= behintzat, gutxienez)
sitiatu
soasca (= aska)
sobervia
sobra (= sobre); sopra ere (*ondo asko eta ez por lo visto*)
socorru; socorritu
soldadesca (= soldadu-talde)
soldata, jornal
sombrellu
soñ, soñ, soñeco
soñu
soro
sortu
sosegu: sosegu egon
sostendu (*ez sostenitu*)
su
suabe
subdiacono
suerte; suerteac eman
sugar
sugetatu
supito: supitoco (= bat batean)
suspenso (= zur eta lur)
suspirio
sustrai (= jatorri)

talentu
talo
tantai
templo
tentatu
testigo
tiña (ontzi)
tirano
titulu
tonto
tormentu
trabaju
tragedia
trance
tratu; tratatu
trebe
tribunale
tributu
tricu
trillu (= txikizio): trillu eguiñ
triunfo; triunfatu

trompeta
tronu
tropa
trucatu (= aldatu)

ugandi, diluvio
ur: urtando; urtu
unitu
urduri; urduritu
urlia, sandia eta berendia
urratu
urre
urri
usai
usatortola
usura
uts

zaanzu
zabaldu
zabar; zabartu
zaimaquilla: arzai zaimaquilla
zalca
zaldan, zaldar: soñeco zaldan (= zatar zahar, zikin)
zanco
zañ: zañac eten
zapata
zar; zaartu
zauri; zauri verritu; zauritu
zelo
zori: zori hordu; ilceco zorian; zorion; zorigaitz, zorigaizto
zoro
zorrotz
zulo
zur: zur eta lur
zuzen

Amundarainen sermoietako hitz eratorrien eta atzizki-sistema aski oparoaren aipamena ere egin beharra dago. Hona, bada, lagin gisako bat:

-ada: *machinada, lanzada...*

-al: Izenondo maileguak: *mortal, espiritual, principal, sacramental...*

-alde/-aldi: *escualde/escualdi* (eskubide, ahalmen, aginte), *pozaldi, guizaldi/guiza aldi* (mende, beti), *eguraldi...*

-ari/-lari: *zapatari, dendari, arranzari* (arrantzale), *necazari, aguintari, ser-*

vitzari, mandatari (abisu emaile), *pecatari, danzari, contemplariac, icuscari* (ikuskitun, ejemplo), *egoscari* (egosteko barazki), *mirari* (miragarri), *hostalari, sermolari, bearlari* (langile)...

-arte: *aldarte* (aldi, egoera), *lagunarte, perillarte, gizaarte, pasarte/pasaarte* (gertaera), *gentarte/gentaartean, besaarte: besaartean* (besoetan)...

-bera: *viotzvera/viotzbera*...

-berri: *jaiotberri, ill verri*...

-bide: *irabacivide, artuvide, lanvide* (lan), *eracusvide, buruvide, icusvide* (begirada), *icasvide*...

-ble: Izenondo maileguak: *misserable, noble*...

-dade: Izen maileguak: *ciudade, vanidade, Christandade, Trinidad, honestidade, magestade, libertade, maldade, piedade, caridade, soledade*... (Ia inoiz ez -tate). Gehienak maileguak izanik, euskal oinarri bat edo beste ere bai: *vorondate, Apostuluarren Neurtateac*...

-de: *jaquiunde* (jakinduria)...

-dore: Izen maileguak: *Criadore, emperadore, Salvadore, Erredentore*...

-duria: *jaquinduri*... (-a itsatsirik gabe).

-(r)en: *amarrenac*...

-era: *egoera* (egoteko era), *eranzuera* (erantzuna), *guertaera, galdeera, jarduera, ezagüera, asiera, aciera* (heziketa), *sarrera, prestaera, juera* (joera), *irteera, esaera* (esana), *escaera, jayotera* (jatorria), *janciera* (janzkera)...

-eria: *naasteri, laceri, embusteri, erromeri*... (-a itsatsirik gabe).

-eta/-keta: *illeta, lapurreta, izqueta, verriqueta, jostaquetan* (jolasean), *quiri-quetan* (haur-jolasa)...

-gabe: *paregabe, atsecabe, cupidagabe, naigabe, esquergabe, lotsagabe, ondargabe* (hondogabe), *burugabe, eragabe: eragabecoac, fingabeco, cabugabe: cabugabeco, ichuragabe, arduragabe, culpababeco*... (behin edo behin -bague ere bai. Bizkaieraz ez ezik, Goierri ere erabilia).

-gai: *langai* (egintza), *beargaiac* (lanak)...

-garri: *izugarri, arrigarri, icaragarri*... (askotan *handi, bikain* adierazteko), *zoragarri, lotsagarri, negargarri, maitagarri, penagarri, galgarri, apañgarri, edergarri* (apaingarri, apaindurak), *veneragarri, parregarri, pasagarri, aazgarri, azgarri* (hazten duena), *estimagarri, miragarri, afrentagarri, honrragarri/deshonrragarri, locarri* (soka)...

-gile: *eriotzaguille* (hiltzaile), *mesedeguille, languille*...

-gin: *languiñ* (langile)...

-ka: Moduzko aditzondoak: *arrastaca, bulzaca, tiraca eta pulzaca, lasterca, corrica eta presaca, itoca eta presaca, cincilica, gaizqui esaca, chistuca, oyuca, burlaca, arrica, colpeca, locabica, atajoca* (ate joka), *inguruca* (zeharka), *ezcuta-*

ca (ezkutuka), *guedica* (geldi-geldi, poliki-poliki), *tropicoca* (piloan, multzoan), *isseca*, *banaca*, *milloica*... Eta bitxi, polit hau: *por vidadeca* (*por vida de...*, *mekauenka* edo esango bagenu bezala, beraz, *maldizioka*).

-kada: *ozcada*, *osticadac*...

-keria: *gaiztaqueri*, *zabarqueri*, *eraqueri*, *dollorqueri*, *liquisqueri*, *asqueri* (hats-keria), *ordiqueri*, *zoraqueri/choraqueri*, *charqueri*, *lotsagabequeri*, *eztiquerri*, *zurqueri*, *laburqueri* ... *prestuqueri* (prestutasun; zentzu onean, alegia) ... (-a itsatsirik gabe).

-ki/-kiro: Balio beretsuko moduzko aditzondoak: *escuarqui*, *berezqui*, *egoqui* ... *escuarquiro*, *zurquiro*, *dollorquiro*, *laburquiro* ... (ikus -ro atzizkia). *Abituqui* (habitu jantzia)...

-kide: *adisquide*...

-kizun: *emanquizun*, *icusquizun* (zerikusi, eragin), *sufriquizun*, *pagaquizunac*, *atsedenquizun*, *ateraquizun*, *gordequizun*, *etorquizun*, *eguiñquizun*...

-kor: *auscor*, *ichascor*, *sentikor*...

-kuntza: *izcunza* (hizkera)...

-le: *enzule*, *eguille*, *emalle*, *escuemalle* (laguntzaile)...

-men/-pen/-ben: *ichumen* (itsukeria, itsutasun), *luzamen* (luzamendu), *autor-men* (aitormen), *almen* (ahalmen), *irudipen*, *atzerapen*, *aurrerapen*, *iraupen*, *bai-ben* (baimen), *sallmen*...

-mentu: *sentimentu*, *mercimentu*, *adimentu* (ezaguera), *escarmentu*, *mogumentu*, *pensamentu*, *alimentu*, *cumplimentuac*, *Sacramentu* ... (inoiz ez -mendu).

-oro: Denbora-aditzondoak: *jaioro*, *orduoro*, *instanteoro*, *egunoro*...

-oso: Gehienak izenondo maileguak izanik, euskal oinarridun batzuk ere bai: *necoso*, *cuticioso*, *suertoso* (zorte handikoa), *amoroso* (maitagarri), *envidioso*, *glorioso*, *piadoso*, *vicioso*, *lujurioso*, *religioso*...

-pe: *barrumpeco*, *picupean*, *lurpean/lurpera*, *banderapean*, *querizpean*, *mantupean*...

-ro: Modu-aditzondoak: *arguiro*, *osoro*, *gozoro*, *cearo*, *viciro*, *cinzoro*, *eraro*: *eraroago* (era egokian), *verriro*...

-ta/-te: Balio beretsuko izen-atzizkiak: *aguinta* (aginte, agindu), *guerrata* (gerra, gerrate), *alvista* (albiste), *gogata* (apeta) ... *izate*, *esqueiñte* (eskaintza), *contuguite*, *utseguite*, *legorte*, *bustite*, *gosete*, *siniste* (sinesmen, uste), *virtute*...

-talde: *gentetalde*, *artalde*...

-ar/ -tar: Batzuetan, hitzoina herri-izena delarik; beste batzuetan, aldiz, herri-tarren izena: *mundutar*, *erbestear*, *Israeltar*, *Jerusalentar*, *Españatar*, *Erromatar*, *Galatar*, *Tesalonicatar*, *Aquinotar*, *Arriotar*, *Hebreotar*, *Judutar*, *Asiritotar*, *Syriotar*, *Casitar*, *Egiptoar/Egiptar*, *Areopagitar* ... *Apostuluar* ... (inoiz ez -dar).

-tasun: Askotan -keria atzizkiaren baliokide: *gucialtasun*, *atseguintasun*, *ley-altasun*, *adisquidetasun*, *fiñtasun*, *irmotasun*, *diñatasun* (duintasun), *zorionecota-*

sun (zorion), *aidetasun*, *semetasun*, *berotasun*, *biguñtasun*, *nortasun*, *azcartasun*, *Jaungoicotasun*, *guizatasun* (giza izaera), *damutasun* (damu), *osasun*, *ondasun*, *ontasun* (biak ondo bereziz), *estutasun*, *bildurtasun* (beñdur), *humiltasun*, *larritasun*, *laguntasun* (laguntza), *arguitasun*, *edertasun*, *anditasun*, *naguitasun* (nagikeria), *pisutasun* (pisu), *argaltasun*, *gortasun*, *arrotasun/sobervia*, *arrotasuna eta vanidadea* (harrokeria), *ichutasun/ichustasun* (itsukeria), *esquergabetasun*, *ecerztasun*, *videgabetasun* (bidegabekeria), *iltasun*, *zabartasun* (zabarkeria), *gogortasun* (gogorkeria), *igüitasun* (igui), *laburtasun*...

-tegi: *nagusitegui* (jauregi), *jauregui*, *sutegui*...

-ti: *guezurti*, *egazti*...

-tila: *leyatilla*...

-(t)su: *amodiotsu/amoriotsu*, *osasunsu*, *irudipensu*, *engañutsu*, *errutsu* (errudun), *indarsu*, *jaquiñsu*, *misteriotsu*, *valiotsu*, *verrichu*, *aundizu* (handitsu, handizki)...

-tun/-dun: *iztun*, *zalcadun*...

-tura: *oitura*, *aztura*, *juntura*, *egitura* (egintza), *criatura*, *deitura* (dei), *calentura* (nekeak, sufrimenduak)...

-txo: Atzizki txikigarria: *sasquicho*, *añguericho*, *devotacho*, *nescachacho*, *damacho*, *achochõ*, *alabacho*, *mutilcho*, *aurcho*, *liburucho*, *limosnacho*, *chacurcho*, *elcho*... Baita superlatibo zentzuan ere, Goierri alde honetan hain ohiko den legez: *ascocho* (gehiegi), *sarricho* (sarriegi), *issilchoric* (isil-isilik)...

-tza/-za: *soldadutza* (soldaduzka), *ezconza*, *mandataritzac* (abisuak), *deseñiña*, *servitza* (zerbitzu), *pobreza*, *nobleza* (azkenok maileguak, jakina)...

-tzaile: *salvatzalle*, *aditzalle/aditzaille*, *libertatzalle*, *convidatzalle*, *pagatzalle*, *amparatzalle*, *adoratzalle*, *palagatzalle* (aplakatzaille), *jarraitzalle*, *gracia partitzalle*...

-tzaka: *gabe*; aditz-izenari eransten zaion *-ke* atzizkiaren pare-parekoa: *obeatu eta enterratutzaca*, *sepulturaric emanzaca eta obeatu gabe*, *estalzaca*, *asperzaca*, *luzatzaca*, *urratzaca*, *issilzaca*, *acordatzaca*, *galdutzaca*, *valiatutzaca*, *utzitzaca*, *veguiratzaca/veguiraturtzaca*, *amatzaca*, *pagatzaca*, *escatzaca*, *sentitzaca*, *oartutzaca*, *iragarritzaca*, *ayenaturtzaca*, *mercitzaca*, *palmetizaca* (?)... Baita izen arruntei erantsirik ere: *Ministrotzaca* (apaizik gabe), *sermoitzaca* (sermoirik egin (beharrik) gabe)...¹⁵.

-tzar: *embusterotzarrac*...

-zai: *arzai*...

-zale: *honrrazale*...

¹⁵ Lardizabal 1995: 5.3.5.6. puntua.

Oraindik ere, Urolaldean ez ezik, Goierriin ere entzuten dira, *-tzeka/-tzaka* amaierazko aditzondoak.

-zio: Gehienak izen maileguak izanik, euskal oinarriaren batzuk ere bai: *barcacio, amorracio, madaricacio, maldicio, oracio, obligacio, procesio, mesprecio/desprecio, traicio, satisfacio, persecucio, contricio, atricio, absolucio, inspiracio, estimacio, atencio, adoracio, bendicio, condicio, devocio, tentacio, Errendencio, Inquisicio, superticio, contribucio, servicio, Recopilacio, condenacio, disposicio...*

-zko: *zaldizco, videzco* (bidez bide dabilena), *ichurazco...* (izenlagun-atzizki honetaz ikus geroxeago).

ez-/ez: Aurrizki nahiz atzizki bezala: *ezjaquiñ, prestuez...*

des-: Aurrizkia: *deseguiñza/deseguiñdu, desamparu/ desamparatu, desdicha/desdichadu, desgracia, deshonesto/ deshonestidade, deshonrra/deshonrratu* ... (gehienak hitz maileguak).

in-: Aurrizkia: *infiel, injusticia...* (hitz maileguak denak).

Bestalde, askotan, hitz eratorrien ordeaz, *-ko, -zko* atzizki gramatikalez (deklabinabide-atzizkiez) moldatutako izenlagunez baliatzen da: *paque zorioneco* (zori-ontsu) *eta iraupenecoa* (iraunkorra), *pozezco, guztizcoa* (erabatekoa), *contuzcoa, auqueracoa, lastimazcoa, graciazco, dolorezco, piedadezco, zorigaitzeco, jatorrico pecatua...*

Izenlagun edo izenondok inolako atzizkirik gabe ere sarri-sarri erabiltzen ditu: (gauza) *alferra izan* (alferrikakoa), *alfer lan* (alferrikakoa), (gauza) *bearra izan* (beharrezkoa), *bide izan* (bidezkoa), *vioztz arritua* (harrizkoa)... (ikus Deklinabideari buruzko atalean)¹⁶.

‘Edo’ juntagailu hautakaria erabiliz moldatutako sinonimo-bikoteak ugariak baino ugariagoak dira Amundarainen sermoietan. *Jaquin-bide Iritarautiako* lexicogintza aztertzean azaldu ditugu hitz-kateok ezartzearen arrazoiak. Han aipatutako *helburu didaktiko eta pedagogikoei* beste hau gehitu behar diegu: Amundarainek sinonimo-pilaketa (izen, izenondo, aditz, aditzondo, sintagma nahiz perpauspilaketa) bidez egiten duena erretorika (*erretorika*) da, hots, jaulkitzen diren hitzak eta ideiak azpimarratzea, indartzea; garaiko sermoietan (eta egungoetan ere bai) hain ohiko eta estimatua den teknika, hain zuzen ere:

*Absolucioa edo Sacerdotearen bendicioa/bendicio edo absolucio; almen edo indar; aloguera edo saria; aratoitzac edo erabaquiac; asmaguiac edo profeci-
ciac; barrunta edo ezagun izan; vaso edo onci; berezquia edo manua (ezaugarria); campotic edo azaletic; Concilio edo Eliz-batzarre; conformatu edo eraquidatu; contuguite edo ipenza; cucha edo oncia; decencia edo modestia; dempora edo ocase; diluvio edo ugandi; disposicio edo estadu/disposicio edo vorondate;*

¹⁶ Atzizkien aberastasunean eta hedapen literarioan Larramendik eta honen jarraitzaileek izan zuten eraginaz ‘Jaquin-bide Iritarautia’ko lexikoa aztertzerakoan ihardun dugu.

Hitz eratorrien ataltxo hau moldatzeko Villasanteren liburuaz baliatu gara: Villasante 1981: 49-50, 57-143 orr., besteak beste.

dotriña edo icasvidea; egemplo edo icuscari; erallatu edo ill; erreservatu edo ispetu; erruquia edo misericordia/piedade edo erruquia; exemplo edo parabola/parabola edo ipui; ezpaldac edo sorbalda; fiñ edo asmo/asmo edo proposito; fiñ principal edo leendavicicoa; gauza chiqui edo menosic; inspiracio edo goargui; Iria edo Ciudadea; ofrenda edo esqueiñte; pechuco colpeac edo bularra joteac; pena edo castigu; rotulo edo titulu/rotulo edo aurquizquira; señalatua edo apartatua; señaleric edo anzic; siglo edo guizaaldi; sillua edo marca; tontoa edo burua eraucia; tronu edo jarlecu; uso-costumbrea edo aztura; ezpata, cuchillo edo puñal zorrotz...

Ikusten denez, batzuetan *erdal* eta *euskal* hitz jatorra, ohikoa (edota Larra-mendiren Hiztegi edo Eskolako *asmaberria* -hau ere, ustez, txit jatorra-) lotzen ditu, hitz berria (lehenago ere esan bezala) entzule xumeak ulertu ahal izateko zailegia iruditzen zaiolako edo. Baina ez beti: askotan bi *erdal* hitz jartzen ditu segidan; hurrengoan, aldiz, bi *euskal* hitz...

Era berean erabiltzen du 'eta' emendiozko juntagailua ere:

acordatza eta sentitza; alaitu eta animatu; alchatu eta arrotu; argalac eta pendejoac; arguiro eta dudatza; ase eta bete; auscorra eta ecereza; valore eta merecimentu; vanidade eta aicez burua beteric; barrutican eta viotzetac; chimistac eta oñazcarrac; derecho eta artuvideac; dicha eta zorion; erretcen eta quiscalcen; gaiztoa eta bajua; gañeztuac eta garaituac; gauza arritcecoa eta eragabea; gracia eta mesede; gucialtasunaren muga eta neurria (goren maila); honrra eta creitua; humillatu eta menderatu/humillatu eta memperatu/memperatu eta ondartu; humiltasun eta modestia; injusticia eta videgabetasuna; izqueta eta verriqueta; laceri eta cuidadotan; ocasio eta arraza; piedade eta erruqui/erruquiz eta cupidez; premia eta estutasun; quejatu eta aserratu; quemen eta valore; sepulturaric emanzaca eta obeatugabe; sosegu eta palmetizaca; sumiñ eta dolore; suspenso eta gueldi; unitu eta bat eguiñ; zorionac eta vivac...

Eta beste batzuetan, oso dotore gainera, hitzak, alboratze hutsezko juntaduraz, koma soilez (marratxo ere bai) edota alborakuntza eta juntagailuak konbinatuz ezartzen ditu elkarren segidan, Axular eta maisu handien gisara; testua bizi-tuz, bizkortuz, arinduz:

desaire-afrentac/tormentu, neque, icerdi eta afrentac/mesprecio, burla, desaire; liquicha, ciquiña/astu, ciquiñdu eta liquistu; lotsatu, menderatu, beeratu; jaso, alchatu, andizcatu; arrotasuna, sobervia eta bere alde estimacioa, andinaya; viotz noblea, andia eta honrradua eta prestua, eta segidan, kontrajarriz: viotz urri, chiqui eta pendejo; tonto, ez-jaquiñ; poz-contentuz/pez-contentuac; pobre-miseriz; doai, talentu, jaquiunde; soñeco zar, zaldan jarioa; uso-costumbrea; lugartoquia; arrabiaz, gorrotoz; gracia esquer; damu, dolore/damutasun, dolore; creitua, estimacioa; precisocoa, premiazcoa/premiazcoa, prochuzcoa; iguya, gorrotoa; irudipeneoac, azalecoac; superbó, arró/arro superbo; gustora, gozoro;

aiñ issill, aiñ baju; barrua, viotza; coitadu, simple; cimentu irmo, segurua; esti-matu, maitatu; lanic, eguitecoric; choratu, burutic jauçi; era, modua; arreta, cui-dadoa; portu-mendiac (mendiko portuak, ez itsasertzeakoak)...

Dvandva polit askoren mordoskatxoa ere jaso dugu gure Amundarainen sermoietatik:

Ceru-lurrac; eguzqui-illarguiac; eguzqui-izarrac; mendi-celayac; iturri-errecac; urre-cillarrac/urre-galoi ta cillarrac; otz-beroac; busti-legorrac; gose-egarriac; Ama Semeac; andi-chiqui; zar-gazte; guizon-emacumeac; ar-emeac; Pasio, Eriotzac; juan etorriac; atzera aurrerac; batera bestera ibilli; batera bes-tera beguira; batetic bestera; orrutz onutz ibilli; orrutz eta onutz; guichi asco bat (gutxi gorabeherako bat); janci eranci; goyen béan ...

Edota: jan ta eran; ase ta bete; iji ta aja; ecea eta igarra; ezur ta mami; diranac eta ez diranac...; oyuz algaraz...; luce edo labor...

Eta nahikoa luzatu bide dugun atal hau amaitzeko, *generoa* delako kategoria gramatikalari buruz hitz pare bat baino ez: Amundarainek zenbait hitz (izen eta izenondo), oso gutxi, femeninoan erabiltzen ditu, baina gazteleraren arauak zorrotz jarraitu beharrik gabe:

- *santu/santa: santu eta santen...* (gizonezkoa eta emakumezkoa bereizteko).
- *Señora, Matrona, Esposa, Doncella, Esclava, Dolorosa, Piadosa, Santissima...* (Ama Birjinari zuzenduak), *beata...*, *Ama Eliza Santa, Eliza Ama Santa, Eliza Santa, Ama Santa, anima santa, Escritura Santa, Hostia Santa, Trinidad Santissima, Divina Magestade...*
- Baina, segidako hitzok gazteleraz femeninoak baldin badira ere, ez Amundaraintzat (ezta guretzat ere): *Historia Sagradu, Hostia puru, Inquisicio Santu, Meza Santu...*

Bistan da jaso ditugun hitz guztiok maileguak direla eta gehienak, gaur egun ere, herri-hizkeran bederen, horrelaxe erabiltzen ditugula, hots, femeninoan.

3.4. Esamoldeak

Zenbait erdarakadaren tartean, badu Amundarainek makina bat esamolde, esaera, espresio polit eta jator, izenlagun, izenondo, aditzondo, sintagma eta per-paus kontrajarrien baliabideak aprobetxatuz moldatua. Honelakoak jasotzeko egokiena sermoiak oso-osorik irakurtzea litzateke, testuinguruan kokaturik hobeto dastatzen baita esaera jatorraren indarra eta *grazia*. Gure lanaren bukaeran sermoi oso batzuk eskaintzen ditugu, goierritar ezezagun honen estiloaz eta hizkuntz aberastasunaz hobeto jabetu ahal izateko. Bitartean, eta aurrerapen modura, hona hemen espresio txukun mordoskatxoa:

azaleco humiltasun; modaco virtuteac; seculaco sosegu; goeneco gradua; diferenteco oracioguitea; dolorezco penac; odolezco negar errecac; zorigaiztoco pecatua; paque zorioneco eta iraupenecoa; etsai igüicoa; viotzeco iltasun; Eoloco lece zuloetan; buruco ego-aicea; Jaun Sacramentuco; ilceco zorian; gurutze pisua; guirguillu pisuac eta catea gogorrac; viotz arritua (harrizkoa); izotz ormatua; gorroto amorratua; sari estimatua; egun auquera (aukerakoa); guerra ase- rrean; Marichu videtacoac (txoriburuak); iritci andicoa (handi ustekoa); nesca- cha chit iritcia eta itzonci; bere moduco guizon prestua; portean ondo ezaguna; Christau erraz nayac; gaizqui acia; galai prestu; guizon prestuez; pecatari go- gortua; ganadu belza (bekataria, alegia); lurreco ar citall; buruvide charra; do- llorqueri arrigarri; irudipen utsa; lotsa osasunsua; seta gaizto; obligacio estua; negar samiñac; sentencia samiña; cupide-negarrac; Paraisu gloriaz garaituan; Arzaiaren chistu gozoa; sugar vici; sentimentu vicia; tormentu vici vician; egu- raldi gorri; calte gorrian; labe gori; punta zorrotz; puñal zorrotz; zauri verritu; anca ariñac; aurpegui cimur; Aguztu ona/charra (uzta); Errosario ale andi; dicha parric ez duana; criatura jaioc (inork, edozein ama-semek); larrugorri vici vi- cian; aide gorrian (txistu bizian); laster asco; laster eta ariñ asco; zuzen asco; azotetz ezur da mami ebagui zuten; bacar bacarric; humill humill; issil issilcho- ric; ia bertatic bertara; iñora becin ondo eta obeto; arrirican argañean; guztira eta pozaldi andiarequin; ego-aicez beteric; sobra eta gueyegui; asco, nai adiña eta gueyegui; bacar bacar bat; milloica bidar gracia; milla gracia esquer dizut; vicitzaren vicitza; santu gucien santua; pecatari gucien peataria; izar adiña oñazcar bialdu etzituan mundura; erruquiren jayoari; anima erruquiren; on eta adiñ on; tricü larrua baña latzagoa dan mingaña; supito illic erorteco; supito bertan illic guelditzeco; zur ta lur eguiñda; erdi jancian; egarriac amorratu; envi- diaz josiric; trabajuz oatua (oheratua=eزندua); laceriz garaitua; odolaren costu- ra; odeyetan gora (harro-harro); pichilota becela burutic oñera apainduta; poza- ren pozac egon; poz, contentuz iturri bi eguiñic; negar gogotic eguiñ; negarrez ur- tu; negarrez ondartu; negarrez ichaso bat eguiñic; veguiac iturri bi eguiñic; pe- naz beteric; penaz erdi illa; lotsaren pasioz; erruz eta zorrotz; eguiac eta menaz; chit menaz eta pozic; arretaz eta menaz; eguiac, menaz ta viotce; egoqui eta le- guez eta videz; leguez eta videz; gogoz eta viotce; formazago eta erazago; hon- rrazale leguera; guiza prestu leguera; jolas leguera; senide leguera; tantai legue- ra; animali leguera; aurchoen guisa; animali guisa; ezconza aitzaquian; guezur ta abar adisquide aitzaquian; Jesusi eman cioten lagun aitzaquí abar Cirineo; Soledade modura ibilli (apaltasun faltsua kritikatu); zana zan becela; emen orduco an da, an orduco Prancian; quirquirrac becela issilzaca; trillu eguiñ por vidadeca (maldizioka); erreyuan (arraioka); iritci gaiztoan egon (oker egon); lur- pean sartu; urtara juan; Alcatetara verriro demandan juan (auzitara); certaraco edo artaraco; premi orduan; hordua eta hordumuga; misseriac eta misseriaren ondorengoac; Mundua mundu danetic; munduac aditu ez becelaco mesedea; mundua eta munduco izanac; doi doya, ez gueyago eta ez guichiago; mingañez humill, eta viotce; arró, superbo; quea, sua, garra eta picha dariola; izcunza

modu oyec; Aiñgueru baten alaidea; aus pisca bat; auzoac escandalizatu; zañac eten; trompeta soñua; pobre tropa; graciaren bear izan; Jaungoicoaren beguico niniac; alcandorarañoco guciac quendu; miratzeco gauza izan; ondo penatzeco jayoac guerade zu eta ni! (Jesusek gurutzetik bere Amari)...

Eta amaitzeko, lau esaera edo atsotitz: *pissa-ol bat ecin alcha diteque, bestea jaisten ezpada; berenzat letradu, besteenzat fiscal gogor; nun da nere gogoa, an da nere zancoa; nora eguzqui, ara burusi...*

3.5. Deklinabidea (Morfologia, etab.)

3.5.1. Oinarri morfologikoa gipuzkera da, Beterriranzko joera handiarekin. Besterik beste, partitibo, ablatibo eta motibatiboaren kasu-atzizkiei *-an* eransten die etengabe: *salvaciorean, Gurutceitan, cergatican...* Baita: *baicican*, etab. Goirrierako *-tio* (*etxetio...*), ordea, ez da inoiz azaltzen.

3.5.2. Loturak: Hitz-erroaren eta deklinabide-atzizkiaren lotura egiteko ez darabil apostroforik, ez marratxorik; ezta izen nagusien kasuan ere. Ia beti juntuan idazten ditu. Dena den, behin edo behin, *-gatic* motibatiboa hitz-oinetik aparte ere azaltzen da, batez ere pluralean.

Hitz-erroaren bukaera *-e* denean eta kasu-atzizkia ere *e-* letraz hasten denean, biak bat egiten ditu: *ceure humén aciera, mesedén alde, urteco igandétaraco, gure Aldaretan*. Dena den, adibideotan ikusten den legez, *-e* hori azentuatu egiten du ia beti, luzea dela adierazteko edo. Baina beste batzuetan *-ee-* biak gordezten ditu: *gazteen, naigabeen artean...*

Hitz-erroak *-a* itsatsia duenean, absolutu mugatu singularra egiteko, behin edo behin, *-e-* tartekatzen du, Goierrin hain ohikoa den eran: *pipea, dotriñea, sedea...*

Ergatibo, datibo eta soziatibo mugatu pluralen atzizkien lotura *-a-*, eta ez *-e-*: *juduak* (juduek) *eguiñ cituten dollorqueric ... /gorputz illai/ cere buruari, cere almen edo indarra ... /mutilchoaquiñ/ seme-alabaquiñ ...* Amundarainen izkribuetan ez da bere inguruko hainbat idazlerenetan (Gerriko, Lardizabal, F.A. Otategi...) agertzen den *-a+e=-ae-* (*apainduraetatic, gauzaen, Pazcoaetan...*) bezalako loturarik azaltzen; lotura-modu hau *-a-* (*alabaquiñ*) edota *-e-* (*alaben*) egiten du ia beti. Salbuespenen bat edo beste: *gauzaetatic*.

3.5.3. Partitiboa: Oso dotore; izenak, partizipioak, aditz-izenak, erlatiboak... ederki baino ederkiago deklinatzen ditu: *larrugorrituric egon bearrac, empachuz beteric, atsecabez garaituric, entengaz josiric, veguiac beragan josiric, etsiric becela, choraturic eta burutic jauciric, izanic, azquenic, gauzaric asco, pozic asco-requin* (oso pozik), *capillauric chiquiena, alferric, urtantoric, neurriric, quemenic eta valoreric etzuala, oracioaren señaletic edo anzic, parric* (parekorik), *zaiñ*

*eten bagueric, egon gabetic, arnasaric, guizonaren ichuratic, o arzairic con-
tuzcoena!, negargarriagoric, premiatic estuenetan, aldareric bearrenetan/ con-
fesatzeco eratic, moduric, edo astiric ezpadago ... Beterri edo erdialdeko aldaera
ere etengabe: icusirican, arrirican argañean, eguiñican, jaquiñican, jancirican,
calterican, loricane eguiten uzten ez dizuna, girabol otsican (hotsik) ... Beste alda-
eratxo hau ere bai, behin edo behin: zuti (zutik), calteri (kalterik).*

Izen bera errepikatuz, partitiboaren itxura izanik ere, honelako ablatiboak: ...
*darabilteela echeric eche palacioric palacio..., ...danzaric danza, tabernaric ta-
berna, cirquinzuric cirquinzulo...* (EGLU I 1985: 413. or.).

3.5.4. Ablatiboa: Hiru aldaera: *viotcetic, ez mingañez bacarric/ asi zanetic/ milla-
tatic batec, bertatic, gogotic, gurutzearen oñetatic, lurretic gora/ viotcetican ala-
egia, ez azaletic/ baldin campotic, edo azaletic diruditen becelacoac balirade ba-
rrutican, eta viotzetic/ escu batetican, gurutzetican, orretatican, Francesetican,
iñundican, ilzanetican, arbola onetatican cincilica, bertatican, oraiñdican, ugan-
ditican, burutican oñetara, lurretican, templotican, fruetetican ... Eta honelako
bat edo beste ere bai: *Nolatan inguratcen da familietara churiti eta gorriti egune-
roco* (ardo txuritik eta gorritik, alegia) ... (Horrelaxe egiten du, besteak beste, Frai
Bartolome de Santa Teresa bizkaitarrak ere: *bateti, besteti, guztietati...*).*

3.5.5. -z: *arrotasunaz beteric, izanzazu piedadea ni peccatariaz/ farraz, eta alga-
raz/ negarrez, valiatzeaz zabartu, bere graziaz baliatu, leguez obligatu bearra/ le-
guez, ta bidez/ eguiatz, indarrez, guztiz, gorde erazoaz, vorondatez, arguiz beteric,
empachuz beteric, bere veguiz icusi, ilcez josiric, contentuz, suspirioz/ cere nayez,
cere zabarqueriz/ arretaz eta menaz, ezagutuaz gañera/ goicoaz beera, bécoaz go-
ra/ peccatu eguiñaz, esanaz, alde aurrez (alde aurretik), laño belcez, larrugorrita-
sunaz, atsecabez garaituric/ aranza gogor, zorrotzez coroatua/ bere atzaz, esquer
gaiztoz, amodioz, itanduaz, bere escuz ichi cion, legueaz aazturic, ceon contuaz
ostean, tintaz busti, cuidadoz, azotez ebaquia, cupidez, damutasun naturalezaz
gañecoa, nizaz missericordia, onez ostean, norzaz, iñolaz ere, orrez gañera, gu-
zaz, nolatan edo cer moduz, izatez eta bere jayot-iturrian...*

Normalean, ondo bereizten ditu mugatu singularra eta mugagabea: *legueaz
aazturic* (mugatu singularra) eta *leguez obligatu bearra* (mugagabea). Baina ba-
tzuetan ez da bereizketa hori hain garbi ikusten: *arguiz beteric, empachuz beteric*
(mugagabeak), baina *arrotasunaz beteric* (mugatu singularra).

Berdintsu gertatzen da mugagabearen eta mugatu pluralaren arteko bereizke-
ta egiterakoan ere: *nere veguiz, bere veguiz icusi, bere escuz ichi cion* (pluralean
egokiago, beharbada).

Modua adierazteko, -z-ren ordeaz, sozietibo-atzizkia ere sarri erabiltzen du;
ohitura errota, sobrare: *ansia andiaquiñ, tormentu izugarriaquiñ eta ugariaquiñ,
fede viciarequiñ, icusiarequiñ bacarric/ leguez, ta bidez eta arrazoi andiarequiñ/
vorondatetsuarequiñ, atseguñarequiñ* (atseginez)...

3.5.6. Genitiboa + Instrumentala, modua adierazteko formula arrunta: *pecatuaren videz, confesioaren videz gracia logratceco, sentimentuaren poderioz, penaren indarrez, motivo oyen medioz, eriotzaren medioz, leguearen aguintaz, lotsaren pasioz...*

3.5.7. Genitiboak: Ezin txukunago bereizten ditu mugatu singularra, plurala eta mugagabea:

Neurquidaren edo Constitucio berriaren, pecatuaren soñeco zar, guizatasunaren gañera, erritarren, gazteen, escola-maisuen, ondequidarren, naigabeen artean, peccatarien Ama, veguien aurrean, gucion parregarri, ceon animen prochuan, aitzaquiren bat...

Eta goren maila adierazteko esapide ederrok: *vicitzaren vicitza, santu gucien santua, peccatari gucien peccataria, pozaren pozac...* (EGLU I 1985: 418-419 orr.).

escuico seme, Calvarioco mendian, Ceruco ateac, concienciaco quezcaric, juicioco eguna, Jerusalengo Temploa, pechuco colpeac, viotceco damua, diferenteco oracioguitea, zuen veguietaco negarric...

buruzco jarlecuan (goi-mailako jarlekuan), elor-aranzco coroa honrradua, aranzazco coroac, odolezco negar, amodiozco sugar, eguiazco adisquidetasunaren, dolozco samiñac, dolozco sumiñ, dolozco Semea, graciazco frutu gozo, deshonrrazco eriotza lotsagarria, suzco ezpataquiñ (ezpatekin; pluralean, alegia)...

Izenlaguna izenaren atzetik ezartzea guztiz normala da gure klasikoen artean; baita gaur egun ere: *Goitico Conseju Justiciacoaren, obra mirarizco, guizon pres-tu eta virtutezcoen, onci auscor lurrezcoa, damu eguiazcoa, damutasun eguiazcoa, criatura arrazoizcoa, propositu iraupenecoa, seme eguiazcoa, Christau bear becelacoa, egun dolozco aiec, Ama dolozco/ JesuChristo, Jaungoico eta Guizon eguiazcoa/ graciazco Ceruco galá (zeruko graziazko gala), nere Aita viotcecoa, Arbola zorioneco, penitencia eguiazcoa, guertaera dolozcoaren sustrayac, soldadu zaldizco batec, Pazcoa Mayatzecoa, sermoi eusquerazcoac, damutasun naturalezaz gañecoa/ eguiazco Contricioa, sentimentu vicia, au da, humiltasun eguiazcoa ... Sarritan, -ko, -zko atzizkiez moldatutako izenlagunen orde, izen laguntzailea (izenondo gisa) izen nagusiaren ondoan, aurrean nahiz atzean, soil-soilik ezartzen du: *damutasuna hain da gauza bearra (beharrezkoa)/ humiltasuna, salvatceco virtute bearra (beharrezkoa)/ gauza alferra da (alferrikako gauza), alfer lan (alferrikako lan), bide izan (bidezkoa), viotz arritua (harrizkoa), arrazoiz izan (arrazoizko izan)...**

3.5.8. Norabide zuzenezko adlatiboa: *Ceruetaronz, orreganonz, arutz, orrutz onutz ibilteco/ alferric ibillico da orrutz, ta onutz ...* Beti -ro/-ru-; inoiz ez -ra-.

3.5.9. Adlatibo bukatuzkoa: Lekua ez ezik, denbora adierazteko ere, askotan, -raino deklinabide-atzizkia erabiltzen du, arte postposizioaren orde: *eguiteraño, caburaño, bere ecereztasuneraño beeratuarequiñ, Aita Santu izateraño...*, bere ve-

guiz icusteraño (ikus arte), *Cerura igo zaneco urrengo iganderaño* (igandera arte), *Pazcoa Mayatzeotic acaberaraño* (bukaera arte), *Au izan zan JesuChristoren beargaya jayotcetic Gurutce Santuan ill zañeraño...* (EGLU I 1985: 395-400 orr.)¹⁷.

-raino + -ko: *mugarañoco ...; bere Dicipuluetarañocoac, Barbaroetarañoco guciac ...*, Edota: *Espiritu Santuaren doai miragarriac alerañocoac dirade, ecin gueyagorañocoac, ...* Lekua/denbora baino areago konparazio edo goren mailako esapideak dirateke¹⁸.

3.5.10. Prolatiboa: Egun, tamalez, hizkuntza mintzatuan bederen hain urri eta trakets erabiltzen den deklinabide-kasu hau Amundarainek maiz eta dotore asko erabiltzen du *xedea* nahiz *ustea* adierazteko eta atzizki berezi honi dagozkion oinarrizko aditez baliatuz: *lapurzat tratatcen naute/, argatican ceramazquian onzat tormentu, pena, ..., lotsa icaragarriac/ gucion Amatzat utzi zaitu Gurutzetican cere Seme maiteac, Querubiñac almoadatatzat dauzcaten oñ sagraduac, guciac erabat iduqui zuten Jaungoicotzat, moldetzat servitu, bere semetzat autu, onzat eman, gueyagotzat iduquitcea eta estimatcea, servi dezala bere Echecho janaritzat, iñorc Christautzat etzinduzcatela iduquico...* (EGLU I 1985: 446-451 orr.).

3.5.11. Zeri buruz/Zertaz adierazteko -ren *gañean* forma erabiltzen du: *Constitucioaren gañean, Dierrri Españolañaren gañean, JesuChristoren Eriotzaren gañean, Salvacioaren gañean/ lagun gaiztoen gañean, liburu debeatuen, eta pintura deshonestoen gañean/ alic leenena pagatcearen gañean...*

3.5.12. Bizidunen deklinabidea: *nogan, beragan, beregan, Gurutce Santuagan, aberatsagan, nigan, criatura bategan, Profeta santuagan dacusgu..., Aita Eternoagana aguercea, gorputz illagana, zugana beguira..., nigandic, zugandican, beragandic, Jaunagandic, neregandican, Calinogandican, gueregandican...* Bizidunen kasu-markak inoiz ez edutezko genitiboari erantsita, ezta pluralean ere (Ikus hurrengo puntuan).

Bestalde, bizidun/bizigabe kontzeptuen arteko muga ez da hain zehatza: *ez dezala nai izan Jaungoicoac ni bestegan gozatzea, Gurutze Santuagan baicic/ vorondateagan dago humiltasunaren virtutea, eta adimentuagan dago condicioa/ zure amodio andiagandic espero det..., Dierritarretan, ez ezazue ifini ceon speranza munduco guizonen semeetan, fantasia besteric ceotan (zuengan) icusten ez-tan moduan...* (EGLU I 1985: 70. orr.)¹⁹.

3.5.13. Motibatiboa: Kasu-marka, izenari itsatsia nahiz aparte, inoiz ez edutezko genitiboari erantsita, ez singularrean, ez pluralean, baizik eta absolutiboari; oso

¹⁷ Villasante 1983: 56-58 orr. eta 1979: 112-113 orr.

¹⁸ Lardizabal 1995: LXXII. or. eta 110. or.ko 23. oin-oharra. Guri ere, egia esan, bitxi samarrak, baina txit politikak iruditu zaizkigu.

¹⁹ Otaegi 1993: 126-127 orr.

joera normala idazle zaharren artean: *cergatican, paqueac eguiteagatic, deseguin-dutceagatic, eracusteagatican, jarraitceagatic, eguiteagatican, atseguñ ciquiñ bategatic, goitutceagatic, zabaltceagatic, bereganatceagatic, ichustasunagatic, bere buruagatic, argatic ...* Sarritan: *-gaitik: ondequidarrac gaitic, eguiñ al guci-acgaitic, lanvideac gaitican, emacumeacgaitic, gaiztaqueric gaitican, ez dezu-nagaitic, emateagaitic, amparatceagaitic, Jaungoicoagaitic, bere buruagaiti-can...* Eta bitxi hau: *cegatibait* (zerbaitegatik: *Cegatibait etziraden aspertu ayen gogata nazcagarriac*) (EGLU I 1985: 434. or. eta EGL 1993: 486. or.).

3.5.14. Norenganako: *JesuChristoganaco esquergaiztoa, guganaco amodio paregabeac...*

3.5.15. Norekiko: *Aita Eternoarequico zuc mereci izan dituzun gracia ugariac, zurequico adisquidetasunac, bere burua bestequico eguitea...* Eta: *beretaraco amodio* (berekiko/berenganako). Batzuetan, atzizki hau 'nire ustez' edo adierazteko erabiltzen du: *nerequico ez dezute ucatuco egui au, nerequico esan dezaquegu, nerequico berbera guertatu citzayon...*

Azken birdeklinabide-atzizkiok oso gogoko ditu Amundarainek; eta atzizki bioz eratutako izenlagunak zentzu beretsuan erabili ohi ditu.

3.5.16. Plural hurbila: Maiz erabiltzen du eta oso jator, gainera: *gucioc/gucion/gucioi/gucion parregarri/gucion veguiac beragan josiric, gueroc/gueron/guerroz/gueron arrotasuna/gueron pecatuen zorra/gueron buruai guerra portitza publicatu diztegu/gueron buruac/gueron lagun urcoa/gueron ecereztasuna, gueron misseriac eta misseriaren ondorengoac, ceoc/ceon/ceon viotzetan/ceon fedea/ceon esperanza/ceon buruac/ceonzat, eta ondorengozat...* (Ikus 3.5.21.).

3.5.17. Elkarkariak: Bi forma: *...alcar estimatceco, alcarri on eguiteco, alcar estimatu bear degu, alcargana arbatcen dirade, alcar maite izan guenzala, estimazute alcar, amazute alcar..., bata besteaganaco amodioarequiñ, batac bestea estimatcen zuan, eciñ icusi zuten batac bestea, batac besteari on eguiñaz...* (EGLU I 1985: 107-112 orr.).

3.5.18. Leku-aditzondoak: *onutz/orrutz/arutz/* Eta *orra non jarten dan/ onaco publicano au/ araco christau erraz nayac...*

3.5.19. Erakusleak: *au/ onec/ onen/ onez ostein/ era onetan/ onembesterequin/ onetatican..., oyec/ oyen/ orreta* (horretara)..., *ure* (hura)/ *ala/ argatic/ argatican/ ayen aurean/ ayequin...*

Izena + Erakuslea + guztia(k): *errespeto oyec guciac, pena oyec guciac...* (Gaur egun tamalez, nahikoa ordena traketsean erabiltzen da: *pena guzti horiek*); (Ikus, Euskaltzaindiaren Arauak I, 4, 15. or; 1994-10-28ko gomendioa).

3.5.20. Pertsona izenordainak: *ni/ nere/ nizaz/ nigandican, zure, zuen...*

3.5.21. Indartuak eta bihurkariak: *cere sorbalda gañean/cere buruari/cere almen edo indarra/ceretzat/cere edergarri guztia/ceure/cerorrec/cerorren..., ceoc/ceon/ceon fedea/ceon esperanza/ceon buruac/ceon viotzetan/ceonzat, eta ondorengoentzat..., gueroc/gueron/gueron arrotasuna/gueron buruai guerra portitza publicatu diztegu/gueron pecatuen zorra/ gueron buruac/ gueron lagun urcoa/ gueron ecereztasuna, gueron misseria eta misseriaren ondorengoac/ guerequin/ gueregandican... Maiz, bada, plural hurbilaren ezaugarria gehiturik (EGLU I 1985: 86-87 orr.). Eta 'neurc' (Ez dugu besterik aurkitu. Idazle gehiagok ere bai: Gerrikok, Otaegik... Iparraldean ere berdintsu: Etxeparek, Axularrek...).*

3.5.22. Erakusle indartuak, berrindartuak eta bihurkariak: *au berau / gloria au berau..., berorri / berorrec / berorren / berori / berorregan..., bera / berez / beregandic / bere atzaz / beretaraco / berac / beren sortcetic/ pecatuac nor berac autorteco/ guztiz damu zuten beren setarequiñ eciñ irtena/ veguiac beragan josiric/ pensatcea bera asco lizaque/ Luteroc beregan amorraturic/ Maria bere Seme maitearequin sartu zan/ Jaungoicoaren magestadeac berac esanic ceucan/ berenzat/ berbera/ beneric ezta beregan barrunta/ beragandic etorri zaizcun mesede ugariac/ berei (haiei) adituta/ cer uste zuala deritzazute zuala bere buruagaitican/ berac bere aoz autorcen zuan/ norc berac berequin eraman bear dirala/ Beregan zanez Santu gucien santua zalaric, cirudian pecatari gucien peccataria/ guraso ascoc beren humén ausencia/ seme batec bere aitari baño/ esclavo batec bere jabea-ri baño/ beragandic iguesi/ beragan artu/ ez dezala nai izan Jaungoicoac ni bestegan gozatzea, Gurutce santuagan baicic..., igo zazute Arbola suertoso orreta, beraren frutu gozoa arcera/ nor-beraren juicioa/ edolaric nai nuque Jesusen amodiozco sugarrac gucion viotcetan betico sorceco, aditcea beraren penac, beraren oñazac, beraren tormentu icaragarriac/ pecatuaren beraren ichustasuna/ pensa dezagula ceñ ofenditu degun, beraren ontasuna, beraren amodioa, beraren mesedeac/ il zan pecatuaren videz beraren iguesi guevilcenoc beraganatceagatic, il zan gure eriotza bere eriotzarequin goitutceagatic/ eguiaz dagoquio mesede paregabe oni beraren pasio, eta eriotzaren misterio andi au celebratcea/ JesuChristoren beraren/ gogoan iduqui dezagun beti christauac beraren (Jesusen) ontasuna, beraren erruquia, beraren escualdea/ Au da Jaungoicoac suerte ona emateco vide zucena; bere graciac... betetceco obra estimagarria; beraren honrran, beraren alavanzan empeñatcen ditugula gueron almen guciac/ Salvadoreac berac deitcen digu beraren (Mariaren) escuico semeac/ piztu bedi gure viotcetan beraren (Jesukristoren) amodioa... erac/ erai/ eren/ erac lotsatu/ deabrua erequin izango dute/ Ceruco aiñgueruac erac izan dirade/ ifintan du eretan (sakrifizioetan) bere confianza/ esaten zuten eren artean... (Pluralean bakarririk, jakina), Ceruan aurquitcen dan era artan bertan/ egun artan bertan/ alda-arte artan bertan... (Lekua ez ezik, denbora eta modua adierazteko ere bai).*

Badirudi askotan *bere/beraren...* edutezko genitiboen (eta horien gain eratu-tako kasuen) arteko bereizketa egiten duela: *Maria bere* (Mariaren) *seme maitea-*

*requin sartu zan... , baina Salvadoreac berac deitzen digu beraren (Mariaren) es-
cuico semeac... (Auzi honetaz ikus EGLU I 1985: 147-157 orr.).*

3.5.23. Izenordain zehaztugabeak: *cerbait/certambait* (zerbaitetan: *eta onetan
asmatu zuten, eren arteco batzarrea juntatzeco, ondoren erabaguitceco, cer buru-
bide artu al ceiquean, certambait uts eraguiteco*) / *cegatibait* (zerbaitegatik)...;
norbait...; *iñor/ iñora/ iñola ere/ iñun/ iñundican...*; *edoceñec/ edoceñenzat...*;
nogan/ nun/ nolatan/ ceña/ ceñari...

3.5.24. Asko: Sarritan izenaren aurretik; aski normala idazle zaharren artean (Mo-
gel...) eta Iparraldean: *oraiño egunetan asco lecutan dan pobreenac dirudi Erre-
guiña, Icusico balituzte asco Christau Eliza Maometanoac...*, *ez du ezagun asco
Christauc, edo Elizan dagoan, edo dagoan abere artean...*²⁰.

3.5.25. ‘Bi’ zenbatzailea: Izenaren atzetik: *eriotzaguille biac, itz bitan, abere bi-
ren erdian, lapur biren erdian, nagusi biri gusto eguitea...*²¹.

3.5.26. ‘Bat’ zenbatzailearen gehiezigizko(?) erabilera, -a mugatzailearen ordez:
Izen zenbakaitzei ere ‘bat’ zenbatzailea eransteko joera handia du Amundarainek.
Dena den, izen kontaezinok, ia beti, adjetiboren batez lagunduak agertzen dira:
*pena andi batera, penitencia eguiazco batequiñ, errespeto andi bat illai, pozaldi
bat izan dezazun...* (EGLU I 1985: 173-183 orr. eta EGL 1993: 91-92 orr.)²².

3.5.27. Singularra/Mugagabea: Egun, nahikoa oker, mugagabean egiten ditugun
hainbat sintagma Amundarainek singularrean eratzten ditu, ederki asko, gainera:
*urte ascoan, suerte on/ ogueta amar urte onetan guerra artean vici guerade, be-
rroquei urtean, egunen batean, aimbeste urtean...* Halere: *batbatetan*.

3.6. Aditza (Morfologia, etab.)

Aditzari dagokionez ere, idazle zahar gehientsuenak bezalaxe, bikaina dugu
Mutiloko bikarioa; oparoa, aberatsa eta, zenbait nahasketa eta aldaera gorabehe-
ra, nahikoa txukuna.

Aditz-formak gipuzkerakoak dira, jakina, Goierriko aldaera eta ñabardurekin²³.

²⁰ EGL 1993: 105. or. Villasante 1983: 19. or. eta Goenaga 1980: 82. or.

²¹ EGL 1993: 94. or.: Erabilera hau gaur bizkaierazkoa bakarrik bada ere, antzina euskararen
eremu osoan aurkitzen zen. Gerriko, Iztueta eta Lardizabal goierritarrek ere, normalean, izenaren
atzetik ezartzen dute *bi* zenbatzailea. Gaur egun ere oso normalak dira: *hitz bitan, esku biez...* Eta
egun biz bat...

²² Goenaga 1980: 85-87 orr.

²³ Txit interesantea litzateke, goierrierako aditz-sistema sakonago ezagutu ahal izateko, he-
mengo idazle klasikoen: Gerrikoren, Amundarainen, Iztueta, Lardizabalen, K. Otaegiren... idaz-
lanetako adizkiak aztertu eta erkatzea.

Aditz nagusia eta laguntzailea lotuta, hitz batean, idazten ditu. Halaber, laguntzailea eta beronen inguruko, aurreko zein atzeko, zenbait elementu ere (*al, omen, ote, ere...*): *icusicodezue, albanuere...* Berdin, aditz-esapideak: *beardan...* Berdin, aditz nagusia eta *erazo: icusierazocodiot...* Horrela, egia esan, irakurketa nekoso antzekoa gertatzen da.

Dena den, lotura horiek oso txukun egiten ditu, arau fonetikoak errespetatuz: *etzerate, etzan, etzituala, etzeritzan, etzuala, etzerade, etzaitetz, etzitzazun, etzala...* *ezpaliz, ezpadago ... eztagoana, eztaquit, eztaucagu, eztala ... igozazute, jaquizute...* Hala ere, tarteka: *etzala, ezda...*

Batzuetan, oso gutxitan, aditz-izena edo partizipio burutugabea burutu edo pasibotik sortzen du, mendebaldeko euskalkietako joerari jarraituz, alegia, eta ez infinitibo edo oinetik: *neurritcen, etorritcea, bucatutcea...*

Baditu zenbait aditz-izen bizkaieran egiten dituenak: *ifinten, iracurten, irte-teco, erorteco, issurteco, etortera, jartea, ecarten, igarteco...* Hots, 'n/r'ren atzetik, '-tzen' en ordez, *-ten*. Forma hau Segura-Zegama aldean ere entzun ohi da oraindik.

'Izan' aditzaren partizipioa sarri *-du* erantsita egiten du: 'izandu'. Ez dugu 'egondu' eta horrelakorik aurkitu.

Orainaldiko adizkiaren eta atzizki gramatikaren arteko lotura *-a* bidez egiten du; halaber, iraganaldiko marka: *-an*; mendebaldeko euskalkietan egin ohi den legez: *dan, zan, zuan, duan, dagoan, cirudian, dalario, zalarario, naizalaco, daquian, cegoala...*

Nor sailean, Gu/Zu/Haiek subjektuei dagozkien adizkiei sarritan *-de* eransten die: *guera/guerade, cera/cerade, dira/dirade, guiñaden, ciraden*.

Nori Zuei/Haiei: *-te* eransteko joera: *zatzute* (zaizkizue), *cizten* (zitzaien), *dizutet* (dizuet), *cizten* (zizkien)...

Nor Zuek: *-te* gabe: *zaituedan* (zaituztedan)...

Nork Zuek: Orainaldian *-te* erantsita: *dezute, diozute...* Iraganaldian, aldiz, *-te* gabe: *cenduen* (zenuten)...

Nork Haiek orainaldian nahiz iraganaldian: *-te* gabe: *dizue* (dizute), *zuen* (zuten)... Edota: *naue/nabe...*

-zki- pluralgilea: Batzuetan, erabat janda: *diguzu* (dizkiguzu)... Beste batzuetan, *-z-* soila: *cizten* (zizkieten)... Nori ezaugarria pluralgilearen aurretik: *zaiozca* (zaizkio)... Dextenteko nahaste-borrastea sumatu dugu *-te* eta *-zki-* pluralgilearen alor honetan.

Halaber, beste zenbait aldaeratxo ere: *cenduan* (zenuen)..., *dirala* (didala)..., *zacun* (zaigun)... Segituan ikusiko ditugu ñabardura eta aldaera guztiok, atalez atal.

Jarraian, Amundarainen eskuizkribuetako (sermoietako eta 'Jaquin-bide Iri-tarautia'ko) adizkien hustuketa egin eta multzoka azalduko ditugu; horretarako, Euskaltzaindiaren sailkapena jarraituko dugularik²⁴.

²⁴ Batez ere, Euskaltzaindiaren EGLU II (1987).

3.6.1. Indikatiboa, Nor saila

naiz	naizan
da	dá, bada, ezta/eztá/éztza, baita, ezpada
guera, guerade	ezpaguerade
cera, cerade	etzerade
cerate	etzerate, ezpacerate
dira, dirade	ezpadirade
ninzan	baninzela
zan	baitzan, etzala/eztzala
guiñaden	
ciñan	
ciñaten	
ciran, ciraden	etziran

-a- lotura: *naizalaric*. Halaber, iraganaldiko marka -an: *ninzan...*

Loturak fonetika arauak errespetatuz: *ezta, ezpada, baita, etzerade...*

Gu/Zu/Haiek subjektuen adizkien bi aldaera, guztiz nahasian: *guera/guerade, cera/cerade, dira/dirade...*

3.6.2. Indikatiboa, Nor-Nori saila

zat	zatadana
zayo, zaio, zaco	etzayo, ezpazaco
zacu, zaicu	
zatzu (= zaizu)	
zaizca	etzaizca
zaizcu	
zatzute (= zaizkizue)	
zaizte (= zaizkie)	
citzyon, cizyon	etzitzayola
zitzacun	
citzezun, citzatzun	etzitzazun
cizten (= zitzaien)	
citzaizcan, citzaizcan, citzaiozcan	
citzaizcun	
citzaizten, citzeten	

Nori seinalearen aurreko -i- jateko joera: *zat, zacu...*

zaco, zacu ... formak oso erabiliak Goierri aldean, oraindik ere.

Zuei, eta Haiei saileko adizkietan ere -te eranstejoera: *zatzute, citzeten ...*

-zki- pluralgilearen zenbait aldaera eta murrizketa: *zaizca ..., zaizte ...: Etorri zaizcun mesede ugariac / Legue zaarreco sacerdoteai pagatcen citzeten (zitzaizkien) amarrenac...*

3.6.3. Indikatiboa, Nor-Nork saila

det	eztet/ezdet, aldedan; duten (= dudan)
zaitut	
zaituet, zaituztet	
ditut, diztet	
du, do	dó, ezduala/eztu, ezpadu
gaitu	gaituela/gaituala
zaitu	zaituala
zaituzte	
ditu	
degu	ezpadegu
ditugu	
nazu	
dezu	ezpadezu
gaituzu	
dituzu	
nazute	
dezue, dezute	
dituzte	
naute, naue, nabe	naben, nauen
dute	ezpadute
zaituzte	
dituzte	
nituan	
zuan, zuen	etzuan/etzuen
guinducen, guñducen (= gintuen)	
cinducen	
cinduzten (= zintuzten)	
cituan, cituen	etzituan
guenduan	
guinducen (= genituen)	
ninduzun	
cenduan	etzenduan
ninduzuten	
cenduten	etzendutén
cinduzten (= zenituzten)	
zuten, zuen	etzuten/etzuen
cinduzten (= zintuzten)	
cituzten, cituten, cizten	etzituzten

-te: Nor Zuek sailean, kentzeko joera: *zaituedan*... Nork Zuek sailean, aldiz, eranstekoa: *dezute, ninduzuten*... Nork Haiek sailean, berriz, bizkaieraz ez ezik, Gipuzkoako alde ezberdinetan ere usu entzun ohi den eran: *nabe* (naute); edota hain Goierrikoa den: *naue*...

Du eta goierrierako *Do*, biak nahasian; baina bigarrena bakanxeago.

Iraganaldiko marka: -an: *nituan* ...

Ukan laguntzailearen erroa jateko joera: *nazu, nazute...* Hau ere oso ohikoa Goierri alde honetan.

-nd-: *genduan* (genuen), *guinducen* (gintuen/genituen)...

3.6.4. *Indikatiboa, Nor-Nori-Nork saila*

diot	
dizut	
dizuet, dizutet	
dit	eztit; dirala (= didala)
dio	dion/dioanez/ezpadio
digu	
dizu	
dizue	
dizte (= die)	
diogu	
dizugu	
didazu	
diozu	
diguzu	
didazute	
diozue, diozute	
dirate (= didate)	
diote	
dizute, dizue	
diozcat	
dizquizut, dizquezut, dizut	
diztet (= dizkiet)	
diozca, dizquio	
dizquigu	
dizquizu	
dizquizue, dizue	
diozcate (= dizkie)	
dizugu (= dizkizugu)	
diztegu (= dizkiegu)	
diozcazu, diozcatzu	
diguzu (= dizkiguzu)	
diztezue (= dizkiezue)	
diozcate (= dizkiote)	
dizute (= dizkizute)	
dizte (= dizkiete)	
nizun	
nizuten (= nizuen)	
cion	etzion
cigun	
cizun	
cizten (= zien)	

cioten	etzioten
cizuten	
ciozcan, citzaizcan, cion	etziozcan
cizquigun	
cizun (= zizkizun)	
cizten (= zizkien)	
ciozcaten, cioten (= zizkioten)	
cizten (= zizkieten)	

-te: Nori Zuei eta Haiei sailean, eranstejo joera: *dizutet* (dizuet), *nizuten* (nizuen), *dizte* (die), *cizten* (zizkien)... Era berean, orainaldiko Nork Zuek sailean: *diozute* (diozue)... Nork Haiek sailean, aldiz, kentzeko joera: *dizue* (dizute)...

-zki- pluralgileari dagokionez, jateko joera: *dizut* (dizkizut); edota -z- soilez egitekoa: *diztet* (dizkiet)...: “*Urteac aaztu erazo dizute* (dizkizute) *cerorren deseo viciac*”, “*Zabalduco dizut* (dizkizut) *ceruco ateac*”, “*Eguingo cioten* (zizkioten) *charqueriac*”, “*Diñatasun guciac eman cizun* (zizkizun)”, “*Ceruco Aiñgueruac erac izan dirade zure penac arindu dizuenac* (dizkizutenak)”, “*Gurutceac necatu cion* (zizkion) *bere sorbaldac*”...

Nor Niri seinalea adizkiaren erdian jartzean: *dirate* (didate)...²⁵.

3.6.5. Alegiazko Baldintza

baninz, baninza	
baliz, balizaque	ezpaliz/ezpalitz
baciña	
baciñate	
balira, balirade, baliraque	ezpalira/ezpalirade
balitzaizca	
balu	ezpalu
bacinduz (= bazintu)	ezpacinduz
balitu	
baguendu	
bacendu	
bacinduz (= bazenitu)	
balute	
balituzte	
balio	
balizu	
baciñio	
baliote	ezpaliote
baliote, baliozcate	ezpaliote

²⁵ Lardizabal 1995: LXIII-LXIV orr., 5.3.1.13. puntua.

balizte (= baliete)
balizte (= balizkiete)

Batzuetan, Baldintza + *ke*: *balizaque, baliraque*. Egun ere oso erabilia.

Hark Zu *eta* Zuk Haiek berdin: *bacinduz* (bazintu/bazenitu).

-*zki*- pluralgilearen ordezt, -*z*- soila: *balizte* (baliete/balizkiete). Edota markarik gabe: *baliote* (baliote/balizkiote).

Aditz-izenaren ohiturazko denbora-aspektua (-*t(z)en*) maiz erabiltzen du: *eguiten bacendu, pensatcen balu, icusten balu becela, esaten balizte becela*. Egun forma galduxa.

3.6.6. + *ke* alegiazkoak eta iraganak

lizaque, litzaque liraque	lizaquean
nuque nituzque luque	nuquean
cinduzcate (= zintuzkete) lituzque cenduque cenducate lucate lituzcate	etzinduzcatela
niquezu lioque liozca liocate (= liokete) liocate (= lizkiokete)	

Nor sailean, + *ke* eta ez + *teke*: *lizaque, liraque*.

+ *ke* Nori ezaugarriaren aurretik: *niquezu*.

Pluralgilerik gabe: *liocate* (liokete/lizkiokete).

3.6.7. + *ke* aspektugabeak

naiteque diteque ditezque liteque, leique, lezaque litezque, litzaque citequean, ceiquean citezquean	naitequeala
--	-------------

deiqueo
leiqueo
ceiqueon, cequiqueon

dezaquet
dezaque
gaitzaque
ditzaque
dezaquegu
dezaquezu, daiquezu
ditzaquezu, ditzaquetzu
dezaquezue, dezaquezute
daizquetzute (= ditzakezue)
dezaquete
deizcate (= ditzakete)
nezaque
lezaque
litzaque
genzaque
lezaquete
litzaquete
cezaquean
cezaqueten

deiqueot
deiqueo, dizoque
daiqueogu, dizoquegu
leiqueo, lequiqueo, lizoque
ceizqueon

Ezan eta Egin aditz laguntzaileak, nahikoa nahasian: leiqueo, lizoque...

Nor eta Nor-Nork saileko adizkien arteko nahasketa: *lezaque* (liteke/leza-ke)...

Era berean, Nor-Nori eta Nor-Nori-Nork adizkien artean ere: *deiqueo* (dakioke/diezaioke)...

Ezezko esaldietan *Ez nahiz Ezin: Ez izan nitequeala arrosa/ Eciñ izan diteque...*

Baiezkoetan, batzuetan, *Ahal* ere gehitzen du: *Nolatan, Jauna, veguiratu al deiqueot?, vici al liteque, vici al citezquean, vici al leiquena, eguiñ al guenzaque, eguiñ al daiqueogula...*

3.6.8. - ke aspektugabeak

nadiñ
dedin, dediñ, dedilla
gaitecen, gaitean, gaiteala

zaiteala
zaitezten, zaiteztean
cediñ, cedilla
citecen, citecela

etzediñ, etzedilla
etzitecen, etzitecela

daquion, daquiola
cequion, cequiola

dezadan
dezan, dezala
gaitzan, gaitzala
zaitzan
ditzan
dezagun, dezagula
ditzagun, dizagun, dizacun, ditzacula, ditzagula
dezazun, dezazula
dezazuen, dezazuela, dezazutela
dezaaten, dezaatela
ditcen, ditzaten, ditzatela
cezan, cezala
guinzan
citzala, citcela
guenzan, guenzala
cezaten, cezatela
citiceten, citzaten, citzatela

etzaitzan

etzezan, etzetzala

deguion
deigun, deigula
deizula
deguien
dizogun
dizotela
dizaguten
ceguion, ceguiola
ceguiotela

-n/-la bukaerak: Biak erabiltzen ditu: Helburuzko perpausetan, *-n*; desira, agindua, etab. azaltzeko, *-la*. Agintea adierazteko ere erabiltzen ditu subjuntiboko adizkiak, jakina. Batzuetan, aditz nagusiaren partizipioaren ordez (mendebaldeko euskalkietako ohitura den bezala), aditzoina edo infinitiboa ere erabiltzen du; batez ere, partizipioaren bukaera *-tu* denean.

Ahalerako adizkietan bezalaxe, subjuntiboan ere *Ezan* eta *Egin* aditz laguntzaile biak erabiltzen ditu, nahikoa nahasian, gainera. Goierrri aldean oso normala da erroan *Egin* duten adizkiak entzutea; batez ere, Nor-Nori-Nork sailekoak.

Subjuntiboko adibide batzuk: *sartu nadiñ, egon dedilla, erruquitu dediñ, guerta dedilla, etorri dedilla, guertatu ez dediñ, bildu dedilla, ala guerta dediñ,*

valiatu gaitecen, esnatu gaitean, oartu gaitecen, valiatu gaitean, anima gaitean, alaitu zaitetzen, conturatu zaitetzen, conturatu zaitetztean, izan ditecela bat, izan ez ditecen, ez ditecela libratu, aaztu etzediñ, etzedilla penatu, conserbatu cediñ, egon cedilla, ... aurrez ill cedilla deadar eguiten zutenac ..., alderandu etzitecen, etzitecela juan, Sn. Pabloc dio: Paga daquiola (dakiola eta ez diezaiola) jornala bearlariari, ezagutu dezan, servi dezala, esca dezagun, estima dezagula, pensa dezagula, ez dezazula pensatu, ama dezazutela, equersi dezaten, iñorc igaro ez ditzan, servitu ez ditzagun, alchatú ditzacula, aldatu ditzacun, artu ditzacun, eguiñ ditzagula, pagatu ditzatela, ar cezan, pensa cezan, liquistu etzezan, eguiñcela (egin zezala), etzetzala cuidaduric artu, izan guenzan, icasi cezaten, paga cezate-la, iduqui citcela, paga citzatela, ampara guinzan, aguer cequiola (ziezaiola), aguer daquiola (diezaiola)... Sermoi-estiloak horrela agintzen duenez, subjuntiboko adizkietan txit oparoa dugu Amundarain.

Ezezkako perpausetan aditzaren ordena: Helburuzkoetan, *aditz nagusia + ez + laguntzailea: alderandu etzitecen, izan ez ditecen.* Gainontzekoetan, ordea, *ez + laguntzailea + nagusia: etzitecela juan, ez ditecela libratu...*

3.6.9. Alegiazko baldintza aspektugabea

Icusi al baledi, berotu al baledi, pena baledi, penatu al baledi..., berritu al baguenza...

Egun aski galdua dugun adizkera hau ere sarri, eta jator asko, agertzen da Amundarainen idazkietan. Ia beti *ahal* tartekaturik.

3.6.10. Aginte adizkiak

bedi, bez
zaite, zaitetz etzaitetz
zaitetzte
bitez, vitez

bequit
bequio
bequie
zaquitzo
zaquizquigu

naza
beza
zaitza
bitza
nazazu
ezazu
gaitzazu
itzazu

ezazue, ezazute
itzazue, itzazute

vizo (= biezaio)
bizte (= biezaie)
zayozu, zaquitzu
zadazute
zayozue, zaiozue, zayozute

Askotan aditz nagusia eta laguntzailea loturik. Adizki forma murriztuak eta semitrinkoak ugari. Gutxi batzuetan, partizipioaren ordean, aditzoia: *icusbedi*, *piztu bedi*, *lotsa bedi*, *ez bedi áztu*, *izan bez*, *oartu bedi*, *sepulta bedi*, *adisquidetu zaitetz*, *Viurtu zaitetz*, *etzaitetz fidatu*, *conturatu zaitetzte*, *unitu eta bat eguin bitez*, *galde bequio*, *lagun zaquizquigu*, *pensa beza*, *atera beza contu*, *veguitra beza*, *adi nazazu*, *igaro zatzu*, *consideraezazue*, *adi ezazute*, *pensa ezazute*, *consideraitzue*, *consideraitzatzue*, *pensa bitza*, *sufrizazu*, *izanzazu*, *esazu*, *icuszazu*, *eguitzu contu*, *adizu*, *ecatzu*, *irtenzazute*, *triumfazazute*, *jolas eguitzute*, *esazute*, *pensazute*, *adizazute*, *icasizazute*, *jaquinzute*, *jaquizute*, *estimazazute*, *imitazazute*, *amazazute*, *amatuzazute*, *icuszazute*, *adituzazute*, *alchatuzazute*, *adorazazute*, *igozazute*, *veguitra zayozu*, *quen zayozu*, *atera zayozu*, *ascayozu*, *veguitra zaquitzu*, *indazu*, *barcazadazu*, *esandazu*, *esanzayozu*, *eguitozu*, *eman zaiozue*, *veguitrazaiozue*, *esanzayozute*, *veguitra zayozute*, *esanzadazute*, *eracutsizadazute*... Aldaera ugari, bada, eta, loturak egitean, irizpide zehatzegirik ez du agertzen (EGLU II: 362. or.). Sermoi-estiloak horrela agintzen duenez, aginte-adizkiak ugari baino ugariagoak dira Amundarainen eskuizkribuotan.

3.6.11. Jokaera trinkoa

Adizki trinkoen erabileran bikaina dugu mutiloarra, gure idazle zahar guztiak bezalaxe. Gaur egun galduxeak edota zeharo ahaztuak ditugun formak barra-barra darabiltza, mota guztietako atzizki gramatikalak erantsiz; bere garaian bizi-bizirik zirauten seinale garbia; Etxaidek argi dioten bezala, hitz berriak asma badaitezke ere, ez baitago aditz-flexioen sistema osoak ezerezetik *ateratzerik*²⁶.

Hona segidan lagintxo bat:

Egon, Nor saila: nago. dago. dagoan/dagoen, eztago, ezpadago. gaude. zaude. zaudete. daude. cegoan, cegoala/cegoela, etzegoan. ceunden. ceuden. balego, ezpalegoere. baceunde. baceundete. baleude. legoque, ezlegoque. bego (*jaquiñean bego*). zaudete (*zaudete seguru*, *zaudete sosegu*)...

Egon, Nor-Nori saila: dagoquit. dagoca, dagoquio, eztagoquio. dagozca. dagoquigu. dagoquizu. dagoquizute. dagoquie, dagoquite, dagocate. dagozcate. cegoquion, cegocan, etzegocan. cegoquizon, etzegoquizon. cegoquiten. legoquio. legoquite...

²⁶ Etxaide 1990: 220. or.

Etorri, Nor saila: dator. gatoz. zatozte. datoz. cetorren, etzetorrela. datorrela (etor be-di). datozela (etor bitez). vetor (*vetor berriz*). atoz. zatozte, atozte (*Atozte, Atozte!*). betoz...

Etorri, Nor-Nori saila: datorquit. datorquio. datorquigu. datorquizu. datorquizute. datorquite. cetorquion. cetorquizun. cetorquiten, etzetorquiten. letorquio. letorquizu...

Etzan: ceutzan...

Ibili: nabill. gabilza, gabilcela. zabilza. zabilzate. dabilza, dabilzala/dabilcela. cebillen. guevilcen. cebilcen. zabilzate (ibil zaitetze)...

Joan, Nor saila: dijoa. goaz. dijoaz. cijoan. cijoacen...

Joan, Nor-Nori saila: dijoquigu (*dijoquigunagatic*)...

Erion: dariola. dariozcala. darizutela. dariela. ceriola. ceriozcala, cerizcala (*soineco guztiac cerizcala lotsaturic*)...

Jarraitu: darraicana...

Eduki: daucat, dauquet, dauquedala. zauzquedala (zauzkadala). dauca, eztauca. dauca. daucagu, eztaucagu. dauzczazu. dauzczazute. daucate. dauzcate, ceucan, etzeucan. ceuzcan. cenducan (zeneukan), cenduqueala. cenduzcan. ceucaten, etzeucaten. ceuzcaten, etzeuzcaten. bacenduzcat, bacenduzquet (*Leen nere besoetan ceunden jhai! orain bacenduzquet* (edukiko bazintut)). balucate. leucaquean/leuquequean...

Egin, Subjuntiboa: deguien. ceguiala...

Ekarri: dacar. dacarce (dakartza). dacargu. dacarte. dacazquite. ecatzu (ekar ezazu)...

Eman, Subjuntiboa: demogun, demagun...

Eman, Agintea: indazu: *Jauna indazu (emadazu) ala guerta dediñ cere gracia indarsua*²⁷.

Erabili: darabiltela...

Eraman, Nor-Nork saila: daramazquian. daramagun. daramatela. ceramazquian. ceramela, ceramaten...

Eraman, Nor-Nori-Nork saila: daramazquizun...

Esan: diot. dio, dioan, dioanez. diogu. diote. cioan...

Ihardun: ciarduala, ciarduanean...

Ikusi: dacust, dacustanez. dacus. dacusgu. dacutsugu. dacutzu. dacutsu (*Cembait bider cere beguien aurrean dacutsun* (ikusten dituzun) *zure Seme maitearen Pasioco seinale arguiac*). dacuste. dacutsute. cecusan, cecusela, etzecusenac. cecusten...

Iraun: dirau, dirauen. diraute, badiraute...

²⁷ *Eman* aditz trinkoaren erro zaharraz, ikus EGLU II: 224. or.: "IN (EMAN): ...idazu/indazu... Guk (Euskaltzaindiak) -n- gabeak hobesten ditugu, erregularatasuna dela eta". Horrelaxe zen 'Aita Gurea' zaharreko eskaera ere: *egun iguzu* (emaguzu) *gure eguneroco oguia*. Autore zahar askoren idatzietan azaltzen dira horrelako formak; adibidez, Gerrikoren "Cristau Doctrina"n.

Irudi: dirudi. dirudite. cirudien, cirudian...

Jakin: daquit, eztaquit. daqui, daquian/daquin, eztaqui. daquigu. daquizu. daquizue, daquizute. daquite. cequian, etzequian. cequiten, etzequitela. cequitzan, cequitzen...

Iritzi: deritzat, deritzot, baderitzat. deritza. deritzazu, baderitzozu. deritzazute. deritzate, derizte. neritzan (*Cerbait baninzala neritzan nere artean*). ceritzan, etzeritzan. cerizten...

3.6.12. *Arazi*

Txit bikain eta aberats darabiltza aditz erazleak. Normalean *erazo* erabiltzen du; *eragin* oso gutxitan: *áztuerazotcen/áztuerazoco, eguiñerazo, gorde erazoaz, iraunerazo, adierazo, ezagüerazoco, alchatuerazo, itanduerazo, pagatuerazotze-co, sufrituerazocion, lur joerazocodizte, Goseac ceon hume maiteac jan erazoco dizue...*, *edocein persecucio edo tentacioc jausi eraguiten diola...*

Ia beti aditz nagusiari eta laguntzaileari erantsita. Aditz nagusia, beti, partizipio-eran.

-*ra*- artizkiaz osatutako aditzetan ere, jakina, oso oparoa dugu gure Amundarain. Hona polit bat: *erasan* (esanarazi).

3.6.13. *Ezekako perpausetan aditzaren ordena zaharra*

Ezekako esaldietan ere, askotan, adizki laguntzailea nagusiaren atzetik ezartzeko joera azaltzen du, hau da, baiezkakoetan egin ohi dugun bezalaxe. Aditzaren ordena hau oso normala omen zen duela gutxi arte, batez ere idazle gipuzkoar eta bizkaitarren artean. Gaur egun ere horrelaxe egiten ditugu erlatiboetakoak, zenbait harridurazko, etab.²⁸ Subjuntiboko adizkien azpiatalean aipatu dugu kontu hau. Hona beste adibide batzuk: *nai ez dezu/ ez izan nitequeala arroa/ joango ez liza-quel ¿Cergaitican sayatu bear ez det nic erac becela gurutcea artu, eta Jesu-Christori jarraitceco?/ bañan iñolaere ecin eraman det afrenta/ eciñ berez alchaltu liteque lurretican...*

²⁸ Altube 1929: “...En épocas anteriores es posible ... que esta fórmula (ezezkako perpausetan aditz laguntzailea nagusiaren aurretik jartzekoa, hots, gaur egungo eran egitekoea) fuera extraña a la lengua ... Aun las no subordinadas las construyen algunos escritores gipuzkoanos, con relativa frecuencia, colocando el terminativo auxiliar negativo en forma regular, al final de la flexión: “Ikusi bear ez-ditugu” ... Aun en los escritores bizkainos pueden hallarse composiciones de este tipo...”. Eta adibide mordoskatxoa eskaintzen digu, Kapanaga, Larramendi, Añibarro, Otxolua, etab.enak (66. zk.).

Halaber, Euskaltzaindiaren Gramatikan ere: “Hain aspaldiko ez diren idazle batzuk, hegoaldekoak batez ere, nagusiaren ondotik ematen dute laguntzailea ezezkoetan ere ... ordena hori bera gordetzen da, egungo egunean ere, harridura tankerako moldea duten zenbait ezezko erretorikotan... “hilda gelditu ez da ba!” ...” (EGLU II: 493. or.).

3.6.14. Erregistro bereziak

Amundarainen sermoiak erregistro neutroan daude idatziak. Ez da *hikako*, ez *berorikako* tratamendurik azaltzen.

‘Jaquin-bide Iritarautia’ko sarrerako eskaintzan, berorika zuzentzen zaio Miguel Zumalakarregi politikoko handiari: “¿Nori besteri berorri baicic...”.

3.7. Joskera

3.7.1. Emendiozkoak

- eta/ta/da: *erre ta quiscaldu/ ill da vici gucioc/ ezur da mami ebaqui...*
- ezeze: *mundu gucia ezece, Ceruac erac icaratuaz/ cembait Españatar, Jerusalem tar ezece, egon dirade.../ beatzaz eracutsi ezece, nai dizutet cerbait itz eguiñ...*

- orobat/berebat: *nai badezu Jaungoicoa zuzaz erruqitu dediñ, zu orobat erruqitu bear cerade Lagun urcoaquiñ/ amatuco dezu cere Jabe Jaungoicoa viotcez, animatic, eta al gucian, eta orobat cere lagun urcoa cere burua becelal JesuChristo gure Jaunac piztu zuan Lazaro bere adisquidea, cerren escatu cioten beraren harrebac, eta JesuChristoren devotac. Baña orobat piztu zuan Naingo alargunaren semea batere ama, semeen ezagüera gabe, eta mesedez escatu gabe. Magdalena errecibitu zuan biguntasun eta amodio andiarequiñ, cerren zan bere erritarra, eta damuturic bere vicimodu charraz, eracusi cion JesuChristori amodio guztizcoa. Eta orobat Samaritana errecibitu zuan biguntasunarequiñ, etsaya zalaric, eta nescacha chit iritzia, eta itzonci. Ichuari eman cion vista, cerren escatu cion, deituaz ots andiaquiñ David Erreguearen Semea. Bañan orobat, eta escatzaca sendatu zuan perlesiac arturic aurquitcen zan guizon tristea. Juan zan Zaqueo aberatsaren echera, eta mesedez bete zuan Jesus maitagarriac; bañan berebat sarcen da chit gustora arranzari pobre batzuen chaoletan, eta eguiten dizte mesede andiac eta ugariac... (Aurkaritzako ‘baina’ juntagailua eta emendiozko ‘orobat/berebat’ lokailuak elkartuz, kontraste txit ederrak sortzen ditu). Bestalde, emendiozko perpausok badute modu edo konparazio-zentzurik. (EGLU III 1990: 57-64 orr.).*

- ere: Lokailu honen aldaera eta kokapen ezberdinak erabiltzen ditu: *arrazoi da bada gueroc ere bata bestea estimatceal ... bada orobat zuc ere eguiñ bear dezu/ erbestecoac ere, erricoac becela estimatu bear ciradela/, zurquiro ibillico da bera ere gurequiñ/ guizacumeac ere emacumatu dirala/ verriro espera ditzacun ere, premiazcoac gueran becela.../ Pilatos erruqui zan; baita ere emaztea/ guerran gucia, eta baita ere degunal ... baita ere Elizaren amparatzalle/ guciac daquite jaquinsuen artean, eta baita ere gañeracoac berei adituta/ ... baita ere guciz penitenteac.../ eta azaz gañera zor ez duten gauzaetatic ere bai vorondatez .../ ¡Cuidado gazteac, baita zarrac ere!.../ ...ezta aurquituco ere secula.../ ...ezta ere iraun erazo... (EGLU III 1990: 50-51 orr.).*

- *azaz gañera* (haietaz gainera) ... Eta sarri erabiltzen dituen forma bitxi hauek ere bai: *onezaz langara* (honetaz landa); *balurraz ostean* (barauaz gainera/bestalde)... (EGLU IV 1994: 110-111 orr.).

Eta juntagailua sinonimo-kateak egiteko erabiltzeaz ihardun dugu lehenago. Azter dezagun orain, hitzok lotzerakoan, nola erabiltzen dituen deklinabideko kasu-atzizkiak eta aditzarekiko komunztadura:

Deklinabide-atzizkiak: Hitz bakoitza markatua: *humiltasunaren eta arrotasunaren pintura*... Edota atzizkia azken hitzari bakarrik erantsiz: *gorputz eta animaren locarri*... Bestalde, alboratze hutsa nahiz alborakuntza eta juntagailuak konbinatzea oso maite du gure klasiko honek ere: *eriai, elbarrituai, gor, mutuai, trabajuz oatuai, guciai eguiñ cizten mesede sendatuaz/ morroya, nescamea, zapatari, dendaria pagatzaca* (Ikus zein dotore tartekatzen duen katearen erdian *zapatari* hitza inolako kasu-markarik gabe, bere aurreko bi hitzetatik *apartatuz*, eta ondorengoari *itsatsia*. Aurreko esaldiko *gor* hitza ere atzizki gabe agertzen da, baina kasu horretan, seguru asko, *gor-mutuak* da hitza, hitz konposatua, alegia).

Aditzaren komunztadura: Hitzak singularrean deklinaturik agertzen badira, aditza ere, normalean, singularrean: *Adierazo cion etzala aidetasuna, adisquidetasuna, eta erritarra izatea lagun urcoa eguiten zuana* (Pluralean: *adierazi zion ez zirela ahaidetasuna, adiskidetasuna eta herritarra izatea lagun hurkoa egiten zutenak*)/ *bera dá gure pecatuen missericordia, eta barcacioa iristen duanal alde gucitic, burutic oñera arrotasuna, eta pantasia dagoal/ ezagutu dezan bere laburqueria, eta esquergaiztoal amaseigarren, eta amazapigarren siglo, edo guizaldiac edoceñi egui au eracutsico dio (diote)/ eztá orduco gaitza bacarric gogortasun, eta ichumen au...* (EGLU IV 1994: 33-38 orr.).

Edo juntagailu hautakariarekin ere berdintsu jokutzen du.

3.7.2. Hautakariak

- edo: *aurquituco dezute descansua, edo sosegual* ... *Cesar edo Emperadorearen sillua da; veraz* ... *pagazayozute Cesar edo Emperadoreari berari dagocanal/ ez dó ezagun asco Christauac, edo Elizan dagoan, edo dagoan abere artean...*

- ezpere: ... *esanzadazute ezpere ¿cerc convertitu zuan lapur ona...?/ Esana dago. Veguira ezpere ondo Evangelio Santuari...*

- eze bestela: *Meza Santua dalarío palagatcen da Jaungoicoaren aserrea, ece bestela mundu gucia onezquero milla aldiz deseguinduco zan...* (eze bestela lotura bikoitz horrek hautakaria baino areago kausazkoa + baldintzazkoa dirudi: ... *zeren, horrela ez balitz,*... (EGLU III 1990: 84. or.)²⁹.

²⁹ Villasante 1979: 144. or. eta 154. or. eta bertako (1) oin-oharra.

3.7.3. *Banakariak (Emendiozkoak zein Hautakariak)*

- ala ...nola...: *Beti ordena horretan: Jesus maitagarriac, ala gurutcetic, nola gurutcetic campora.../ ala viotzez, nola aoz/ ala Fariseoenzat, nola Herodianoenzat...*

- naiz... naiz...: *...naiz haide, naiz parte, edo adisquide ez izan.../ uste izan zuten, naiz alde batera, naiz bestera, lazoan arrapatceal/ etorri dedilla bat, naiz jatorriz, naiz fortunaz Aundizu izatera, Erregue, edo Aita Santu izaterañol/ ...naiz lotsaguiari, naiz belarrietatic tira, naiz conorreco bat eman, naiz edoecin gauza esan: picaro bat dala, chárra dala, mutico gaizqui acia dala...*

- ...-la ...-la ...: *Disposicio, edo vorondatearen prestaera au bear bearreco da dala Contricioan, dala atricioan, Confesioaren videz gracia logratceco bendicio ondoren ... dala Contricioa, dala atricioa; bada ala bata nola bestea, dirade gai Confesio on bateraco...*

3.7.4. *Aurkaritzakoak*

- baña/bañan: *...baña contrara guertatu citzayon Fariseoaril/ ...bañan arritcen naiz nolatan guerturatu ceraten...*

- baicic/baicican: *Beti esaldiaren erdian: au ezta nerea, baicic da nere Aita Eternoarena.../ ez bein bacarric, baicican milla bider gurucilzatu eta ilgo zuala ... Esaldiaren amaieran beste zentzu bat hartzen du: ni ez naiz gauza, escuzatarra becela bazterturic egoteco baicic (baino/bestetarako)/ eciñ eman dezaqueala asqueria eta liquisqueri nazcagarria baicican... (EGLU IV 1994: 216-219 orr.).*

- Hala ere...: *Forma ezberdinak: Jaungoicoa izanic aiñ ona ... alaere ofenditu degu.../ ...alaz guciarren ere beti pagatu diotela esquer gaiztoz ... Eta 'baina+hala ere': Bañan alaera ecin etsi zuan/ baiña etzerate aurquitcen guichiago alaere obligaturic.../ Bañan alaz guciarren ere, guciac utzi zuten gurucetic ciñcilica...*

- ...contrara guchi ezagungo dó Christauac Christaua dana ... Gaztelerazko 'por el contrario' ren itzulpena den honek ere badu aurkaritzako zentzua: *ordea, aitzitik...*

- ...baña nola nai dala, *Christauac aleguiñ egin bear du Contricioa logratceco moduac arcecol eta aleguiñ guciac eguiteco asmo osoac artu cituzten, nola nai zala, Jesus maitagarria galceco...* Dena den, perpausok, batez ere bigarrena, aurkaritzakoak baino areago moduzkoak bide dira: *nola edo hala.*

3.7.5. *Kontzesiboak*

- partizipioa+arren: *pecataria izanarren, Christauac confianza iduqui bear dul mundu gucia sacrificatuarren ez lucate valimenturic batere izango...*

- partizipioa+agatik: *sarri atea joagatican...*

- *ba- ...ere: Orra zure Seme maitearenzat gogorra bazan ere, mundutarren-
zat biguña eta gozoa dan entenga lodia/ arcaitzac baña gogorragoac izan balira
ere.../ legueac aguincen ezpaduerel auts biurtu ciraden, aundizuac baciraden
ere...*

- *...-na ...-la: baña cerana cerala etzerade beti izango/ uste du guciac, dana
dala, beragan escualdea daucala...*

- *...ere: Emperadorearen erreguz ere, etzituala nai paque afrentagarriac
edolaric eguiñ/ nere odolaren costura ere jarraituco dizut... Emendiozkoen for-
marekin, badute zentzu kontzesiboa ere.*

3.7.6. Helburuzkoak

Forma ugari: aditz subjuntiboaz, aditz-izenaz: -tera, -teko, -teagatik ...: *ill zan
gure eriotza bere eriotzarequiñ goituceagatic .../ Juan zan bere pena guciac adi-
tcera ematera .../ ¿Cergaitican sayatu bear ez det nic erac becela gurutcea artu,
eta JesuChristori jarraitceco?...*

3.7.7. Kausazkoak

- *-lako: gordecten zutelacol beste guizonen guisacoa ez naizalacol iraungo
etzualaco viciric... Egun formarik ohikoenetakoa den hau Amundarainek oso ba-
kan erabiltzen du.*

- *zergatik: Galdera-perpausetan ez ezik: Dago, cergatic menaz pensatcen ez
dituan mesedeac/ Da cergatic ondo pensatcen ez dituzten Espiritu Santuac bere
arguiarequiñ claro eracusten dizten eguiac... Forma hau ere, klasiko askok ez be-
zala (Gerrikok...), oso urri.*

- *cerren: Gehien erabiltzen duen lokailua: ...cerren ez naizan Publicano au
becelacoal ...cerren pecatu eguiñaz galdu degun Cerua, merci degun infernua
.../ ...cerren chit larri nagol ...cerren gai onetan seguru jocatcea da onena...
Kausazko adizkia batzuetan gorri erabiltzen du, hots, inolako atzizkirik gabe, eta
beste batzuetan -n eransten dio (EGLU III 1990: 177-182 orr.). Gauza bera zerga-
tik lokailuarekin ere³⁰.*

- *bada: Egun, gehienbat, ondoriozko lokailu gisa erabiltzen duguna Amun-
darainek, klasiko guztiek bezala, kausazko perpausak eratzeko ere etengabe era-
biltzen du: Icasizazute humillac izaten nigandic, bada naiz viotcez mansoal berac
bere aoz autorcenzuan etzuala merci Apostolu izatea; bada perseguituzuala Eli-
za Santal Bere amodio andiagandic espero det gracia, edo mesede au; bada da-
quit guciz naico escaera dala au, cerren nai ez dezun pecatarien eriotza, baicic
gucioc salvatceal ez ezazute ifini batez ere ceon esperanza munduco Principe, eta*

³⁰ Besteak beste, Xabier Altzibarren iruzkina: Lakarra 1992: 359. or. (Autore klasikoen adibi-
de-multzoa).

guizonen semeetan; *cerren alferric necatcea da; bada ez dezute aurquituco deseo dezuten gauzaric...* Honelako kausazko perpaus-kateak, batez ere ‘bada’ eta ‘cerren’ iladan jartziz, ugari baino ugariagoak dira Amundarainen sermoietan.

- ...-nez gero: *Empeñaturic aurquitcen naizan ezquero.../ diruac Emperadore edo Cesaren sillua ceraman ezqueroz.../ beragan zanez santu gucien santua/ gauza gucien Jabe danez...* Hiru aldaera, bada: adizkia+n+ez/ezkero/ezkeroz.

- -lario: Maiz erabiltzen du Amundarainek menderagailu bitxi hau, aditzatzizki moduan. *-la eta, -la kausa* eta horrelakoen parekoa bide da. Erabiltzen ote du beste inork? *¿Cembait persona honrradu plazaren erdian ill dituzte guezur bat dalario?! Meza Santua dalario palagatcen da Jaungoicoaren aserreal Mezaco sacrificio santua dá aiñ Jaungoicoaren gogocoa ece, sacrificio au dalario zabalcen ditu missericordiazco ateac/ bigarren humiltasuna dalario oñazpiratcen ditugu.../ ...eta dollorqueria zalario icusi zuten aiñ eguraldi gorria/ oitura charrac eta escandaloac diralario.../ motivo justu au zalario, batez ere, oyetara guidatcen zuan bere sermoya Jesus maitagarriac...*

- -lazcora: Kausazko menderagailu hau ere sarri erabiltzen du, aurrekoaren zentzu beretsuan, hots, *-la eta bezala* edo: *Contricioa da damutasun bat datorquiguna Jaungoicoa ofenditu degulazcora/ Baldin David Erregue Santuac bere semea guerran ill zalazcora negarrez bere burua ondartu bazuan.../ ...damu izatea batec pecatu eguiña, cerren galdu duan creitua, estimacioa, osasuna; libertadearen calteac arbatu diolazcora...*³¹.

- Motibatiboak: *...argatic Sn. Pablo Apostoluac dio.../ cegatibait etziraden aspertu ayen gogata nazcagarriac/ cegatibait esaten zuan, nere Christauac, Sn. Joan Chrisostomoc... (cegatibait = zerbaitegatik; Amundarainen aldaera bitxia).*

- ...mediante postposizioa: Bi era: *zuec ceratela mediantel / ...ciradela mediantel zabartasuna mediantel griña gaiztoac mediante...*

- -n bezela: *Beragandic etorrizazcun mesede ugariac verriro espera ditzacun ere, premiazcoac gueran becela.* Moduzko perpausen forma, baina kausa zentzua du: *... premiazkoak garenez gero.*

3.7.8. Ondoriozkoak

- Beraz: *...veraz ... Meza santua entzutea dá .../ ... veraz, ez dirade cabituco lodiac/ ¿Noren aurpeguia da silluan? ... Cesar, edo Emperadorearen sillua da; Veraz ... pagazayozute Cesar, edo Emperadoreari berari dagocana...*

- Bada: *Erara datorquit bada, nere aditzalleac, gaur zuei eracustea .../ Da bada Mezaco sacrificio santua .../ Publicanoa bada, dio JesuChristo gure Jaunac biurtu zala .../ arrazoi izango da bada nere iritcian gucion veguiac .../ Contuz adizazute bada .../ conturatu bitez bada engaña ez ditecen nola nai .../ ¿Oyec etzira-*

³¹ Forma galduxa badirudi ere, oraindik entzun ohi da, batez ere adineko pertsonen artean.

den ni becela guizonac, ni becela araguiuscoac, eta senticorrac? Bada ¿cergaitican sayatu bear ez det nic erac becela?...

• ...hain/halako ... eze/ezen: *Mezaco sacrificio santua dá aiñ Jaungoicoaren gogocoa ece, ... zabalcen ditu missericordiazco ateacl ... Sacerdotearen errespetoa alaco moduz ece, badirudi ...! Abrahan Patriarcac legue zar demporan ceucan aiñ atseguñ guzticua obra missericordiac eguiten ciarduenean, ece bere pozaldi gucia zan ...! Jaungoicoac amatcen gaitu alaco eran, eta aiñ guztin, ece bere Seme bacar maitea eman cigun! Alaco eran nai du Jaungoicoac lagun urcoa amateca ece, eciñ liteque amatu Jaungoicoa bera amatzagal bañan senti det neregan larritasun eta estutasun aiñ guztizcoa, ece nere ezurretaco icarac ez det uste anasaric arcen ere utzico diralal aimbeste veguiratcen cion JesuChristoc bere creitu, eta estimacioari, ece ecerquere etzuan penatcen gueyago ...! alaco trance estuan icusi zan Siroc Cosrroaren semea, ece naitaez jarri zan bera paque lotsagarriac eguitera! itz eguiten diotela aiñ issil, aiñ baju, ece ... ez diote aditucol alaco iscamilla ateratcen zuten, ece etzan ezagun ...! damutasuna aiñ da gauza bearra, ece ... ezta ...! alaco misserian, alaco trance estuan icusi zan, ece jarri zan ..., ...; bañan senti det neregan larritasun, eta estutasun aiñ guztizcoa, ecen deritzat nere ezurretaco icarac ez dirala utzico arnasaric arcen ... (eze(n) loturaren osteko adizkiak ez darama -n menderagailurik).*

• *Doai miragarriac alerañocoac dirade, argatic Sn. Pabloc dio ... Kausal zentzua: hain handiak direnez,...*

• ...non eta...: *Ez daucazu aiñ santu andia izateco obligacioric, nun da deseatu bearra dezun humillatceal ... aiñ Christau cinzoa eta ona izateco, nun da humillatcen zaituzten. (nun da = non eta. Baina ez dira salbuespenezko baldintzak³². Konparaziozkoak edo dirudite: gaztelerazko ... tan ... que .../ ... tan ... como para ... -ren itzulpen edo).*

3.7.9. Baldintzazkoak

Forma ugari: alegiazkoak, ez-alegiazkoak, etab....:

• *baldin asco ezpada! baldin gorde badezu ... Baldin indargarria maiz erabil-tzen du.*

• *salvatuco bada! ecer izango bada genta artean! jarri zan bera paque lotsagarriac eguitera, Christauaquiñ burutuco bazuan! Jaungoicoac bere Seme bacar maitea eman cigun salvatuco baguiñan, Deabruaren mendetic libratuco baguiña-den... Baldintzadun helburuzko perpausak: '-teko/-tekotan' en paretzukoak.*

• -z gero: *eta eguiatz veguiratu ezquero ispillu arguian becela JesuChristo gurtilzatuari! ondo pensatcen jarri ezqueroz, gauza arritcecoa eta eragabea da...*

³² Salbuespenezko baldintzak, ezik/ezean-ekin eratzen direnak, normalean, ezezko perpausak dira: *ez dute baiere lanik egiten, non/non eta/nola eta ez den beren onerako = beren onerako ez bada = beren onerako izan ezean/ezik.*

- ...*eta zuan dirua quencea asco ecic, eraso ciotela goyen béan colpecal erbestearrac asco ecic, gueroc gueron buruai guerra portitza publicatu diztegu ...* ‘ezik’ en erabilera txit bitxia: zentzu ironikoan, hots, esaten denaren kontrakoa esan nahirik: ...*nahikoa ez, eta...* Emendiozko zentzua ere badute: *erbestearrek ez ezik, geuk ere...*

3.7.10. Denborazkoak

Forma ugari:

- -z gero: *eguiñ ezquero damutu diradenac/ etzegoan arrazquero apelorica/ ill ezquero ere etzan aspertu Judu madaricatuén arrabial/ Adanen pecatua ezquero guelditu zala abere bat becelal/ bada bateatu ezqueroco pecatuac barcatcen dirade Confesioarequiñ...*

- *Cerura igozaneco urrengo iganderaño...*

- *jadanik: ya ucatcen da bazterretan infernua, purgatorioa, Cerua, animaren betico vicia; ya animala leguera dala uste dute ascoc. ya hori gaztelerazko hitza bide da, eta ez euskarazko ia/kasik.*

- *orduko: emen orduco an da, an orduco Prancian.*

- *Alican leenena jarri* (Moduzkoa ere bai).

- *Mundua mundu danetic. Betidanik adierazteko esapide arrunta bezain polita.*

3.7.11. Erlatiboak

- Erlatibozko esaldia bere erreferentziako izenaren aurretik: *esquerric ez dezun Jerusalem .../ ilzan pecatuaren vitez beraren iguesi guevilcenoc beraganatceagatic .../ guizon ayetatic Fariseoa izan zan barcacioric irichi eztzuanal eciñ iño-laere sinistuleiqueana dal ceñ guichi sinisten dezuten ceon aurrean guertatcen danic/ salvatuco danac humilla izan bear duala; naita naiezco virtutea dala humiltasuna; humilla eztanic ezta salvatuco/ munduan ezta aurquituco ni baña guizon ezerezagoric, almen guichiago duanic...* Izenordain erlatiboaren osteko izena agerian nahiz ezabatua egon daiteke, kasu honetan adizkiaren -n menderagailua deklinatu egiten delarik.

- Erlatibozko perpaus txertatua, postposizio gisa, izenburuaren atzean: *sufrituzazu arcacusoén ozcada chiquia, loricán eguiten uzten ez dizuna/ Contricioa da damutasun bat datorquiguna Jaungoicoa ofenditu degulazcoral au da humiltasun eguiazcoa eta beragabe salvatceric eztagoanal izanic zan becelaco Profeta guciai erabat garaitu ciztenal ¿Cerc convertitu zuan lapur ona, gurutctic cincilica Jesus Nazarenoaren aldamenean cegoanal ... Eliz Ministroac, Christau fiel gucién salvacioraco ifiniac daudenac...* Erlatibozko perpausak eratzeko modu txit arrunta, gure klasikoan artean, eta egun ere; gogoratu, bestela, *Aita Gurea, zeruetan zaudena.*

- *zein izenordain galdetzailera, lotura gisa, tartekatuz: Simeon ... ceñari Jaungoicoaren magestadeac esanic ceucan/ egun ura, ceñetan .../ Jesus, ceñac .../ Santu andi ura, ceñari .../ adimentuagan dago condicioa, ceñagabe .../ ceon fedea ir-motu zuan Jesusi, ceñac sufritu cituan atseguñarequiñ .../ verritcen da Sacramen-tu Santu aldarecoan, ceñetan Sacerdotearen itzaquiñ batera jarten dan hostian eta calizan/ fede santuaren gaztelu eta muralla andia, ceña dan Inquisicio San-tual/ Samaritanoa, ceñac eguiñ ciozcan .../ ipui egoqui batequiñ, ceñetan verariaz sartu zuan Samaritanoa/ JesuChristo, ceña cierto daquian izan zala guztionzat .../ aztu bedi onezquero Noeren Cucha, ceñetan libratu ciraden persona banaca bat-zuec/ Juduric gueyenac eta Fariseoac, ceñaquin itz eguiten zuan parabolac ... Er-latiboko adizkiari -n menderagailua eransten dio beti. Izenordaina deklinatua. Sal-buespenen bat edo beste: ...Jaunagandic, ceñ izanic...*

3.7.12. Zehar-galderak

- *cer izan zan, cer dan, eta cer izango dan. Pensa beza cer zan, eta icusico du naita ez buztiñ pisca batequiñ eguiña dala/ orduan icusico dezute nola alcha-tcen dan, nola amorratcen dan eciñ gueyagorañol itancen du ya por si acaso ba-rrunta ditequean (ya = ea indargarria)/ orra certaraño ichutcen duten... (Harri-dura-zentzua).*

3.7.13. Konpletiboak

- Baiezkoak: Gehienetan, -la menderagailuaz: *onzat ematen du, ezagüera osoarequiñ, ala nai duala Jaungoicoac, ala convenizayola, eta ala dagoquiola/ adierazteco gauza bearra dala humiltasuna dio humilla alchatua izango dala... Batzuetan, ordea, -na: badaqui mundura aguertu guciac ill bear dutenal contra-ra guchi ezagungo dó Christauac Christaua dana, eta Meza Santua ondo enzun nai duala, baldin bere modura... (Aditz beraren -ezagun izan- objektu zuzenak, batean ‘-na’ menderagailuaz, eta bestean ‘-la’z)/ Christauac guichi asco bat al-chatcea asco duana bere burua zoratceco erraz ezagun dal/ Guraso ascoc beren humén ausencia eta eriotzaren medioz sentimendu andiac izan dituztena eguia da...*

- Ezezkoak: Gehienetan, -la menderagailuarekin: *Ez dezazula pensatu erru-qui izanarequiñ bacarric cumplitcen dezula mandamentu santual/ Ez det uste, nere enzuleac, aguindu beciñ erraz nere itza cumplituco deralal nere ezurretaco ica-rac ez det uste arnasaric arcen ere utcico dirala ... Galdera erretoriko hauek ere, egun, beharbada, -nik menderagailuaz egingo genituzkeenak, Amundarainek -la erantsita eratzen ditu: ¿Norc esango du gueró oyec Meza Santua ondo enzuten du-tela?! ¿Norc esango du oyec Christau ancic dutela?... Behin edo behin -nik men-deragailua ere erabiltzen du: ...baña ez du esaten negar eguiñ zuanic...³³.*

³³ Goenaga 1980: 273-276 orr. eta Otaegi 1993: 180-181 orr., besteak beste.

- ze/ezen: Erdal kutsuko(?) lotura edo mendeko perpausaren sarrera hauek ere, gure klasiko gehienek bezala, usu darabiltza Amundarainek; bestalde, egun ere etengabe erabiltzen direnak, zenbait garbizaleren oso gustuko ez izan arren: *obeto beren asmoaquiñ irteteco, abegor andia eta guztizco errespetoa ecarri cio-ten itanceco demporan, ala ce etcetocela engañuz eta burlaz itancera, baicican jaquiñ deseoa* (aditzaren elipsia: *ala ce = esanez...*)/ *eguiñ cigun gucioi encargu estua alcar amatceco, ecen, berac maite izan guinducen eran, ala alcar maite izan guenzala...* Forma gogor antzekoak bide dira egungoon belarrietarako³⁴.

3.7.14. -lako/-lakoan

- *alferric ibillico da iñor batetic bestera, orrutz ta onutz Jerusalem ederra bilatuco dualaco; bada ez du aurquituco izandaco arrastoric ere (bilatuko duela-ko ustean edo duelakoan; ez baita, inondik ere, kausazkoa)/ bacar, bacarric, nere Christauac, ciralazco verria eta fama guelditu zan/ pecatuac barcatcen diralaco uste osoan...*

3.7.15. -la/-larik

- Moduzko, denborazko, kausazko ... perpausak eratzeko, aditz laguntzaileari -la/-larik erantsiz (hizkuntza erromanikoetako gerundioen parekoa): *zuti cego-ala/ deabruac lagun dituztela/ quemenic eta valoreric etzuala/ pecatu eguiña gu- ciz damu zuala/ amalau urte zala/ urre galoi eta cillarra ceriola/ ... eta conveni zalaric orobat ezarcea eriotzaren guertaeracl eta aiñ aztura charretacoa zalaric, alaz guciarren ere, laster ta supito becela, etorri zan ezagüerara/ laburra zalaric berál icusten dalaric bada gure Aldarétan/ Santu gucien Santu zalaric (goren gra- dua: santurik santuena adierazteko esapide polita)...*

3.7.16. Aditz-izena

- Perpaus eta esapide-mota ezberdinak eratzeko: *igarotcen icusil eriotza eguiten ibillil/ damu izatea Jaungoicoa ofenditua/ humiltasuna ... errecibitcea gus- tora/ valiatceaz zabartul/ juañ zan bere pena guciac aditcera ematera...*

3.7.17. Partizipioa

- Perpaus eta esapide-mota ezberdinak eratzeko: *eriotza eguiten ibillia zan Dimas/ pecatu eguiña guciz damu zuala/ humilla alchaturia izango dala/ buziñ pis- ca batequiñ eguiña dala/ damu izatea Jaungoicoa ofenditua/ zatica autu eta ifini- ac ... Jaungoicoaren magestadeac berac esanic ceucan/ arrotasunaz beteric/ arrotasunaz naasturic/ ilcez josiric/ veguiac beragan josiric/ izanic zan becelaco*

³⁴ Villasante 1979: 51-52 orr. eta Otaegi 1993: 180. or.

Profeta! Jaungoicoa izanic aĩn onal ichiric dauzcagun Ceruco atead zabaldu, eta zabalduric dauzcagun Infernucio atead ichil gurutcilzaturic sufritu erazo cion/ icusiric neque dalal/ etsiric becal/ choraturic eta burutic jauciric/ ... jaquiñaren gañean/ humillatuaren ordean .../ bere burua abonatuaz, andizcatuaz/ pecatu eguinaz galdu degu Cerual/ beste gucien gaiñ andizcatuaz/ ezagutuaz gañera/ humiltasuna amatuaz gañera, errecibitcea gustora .../ JesuChristo icusiarequiñ/ igarotcen icusiarequiñ/ bere echean iduquiarequiñ/ juañ zan eun milla guizon igaroraquiñ (...baino gehiagorekin)...

3.7.18. Konparaziozkoak eta graduatzaileak

- *Ganaduen adar aurrean errespeto gueyagorequiñ icusten dirade Jaungoicoaren aurrean bañol/ ecerc ere ez du gueyago humillatu bear arrotasunac bañol/ ascoz gueyago predicatu zuala JesuChristo gure Erredentore maiteac instante batean Gurutcetican iru urteren buruan munduari predicatcen ibilli zan demporan bañol/ mercatu batean formazago, erarago alcargana arbatcen dirade, Jaungoicoagana arbatcen diran bañol/ ¿Cer gauza justuagoric Religio Santuari eta justiciari dagoquionic, sostentcea bañol Eliz Ministroac?/ Mundu gucian, nere Christauac, ezta aurquitcen batenzat gloria eta pozaldi andiagoric, triste dagoan bat consolatcea bañol, larru gorrian dagoena jaztea bañol, persona bearra estalcea bañol .../ tricu larrua bañol latzagoa dan mingaña, Temploan sartu zanean bañol pecatu gueyagorequiñ .../ Jaungoicoac amatu guiñducen gueroac amatu guenzaquean bañol ascoz aurretiago ... (batzuetan bañol, beste batzuetan bañol). espaciozago prestatu, menazago damutu, eta hobeto confesatu bearco degul ... bañol etzerate aurquitcen guchiago obligatuac... Bitxi antzeko hau ere bai: nic bañol ascorequiñ obeto eranzungo cioten mesedeen alde (askoz hobeto).*

- *zuc beciñ ondo iñorc eztaqui certarañol iristen dan nere lotsal/ edoceiñ peccatari andiena beciñ bildur zant/ jaquizute ez diradela caridandezco obra guciac diruditen beciñ onac ascotan/ ... aguindu beciñ erraz/ beazuna beciñ garratza...*

- *cerren ez naizan beste urlia becalacoal/ merce becalaco castigua... Gogor antzeko hau ere bai: eztaucagu motivo arguiagoric eta andiagoric humillatceco, gueron arrotasuna becalacoric.*

- *beste guizonen guisacoa .../ beste moduzco guizon prestua...*

- *Gurutcearen Arbola suertoso ura da nai adiña..., ...*

- *berac laco obra andiac eguiñ cituzten guizonac/ gai onetaraco ez dacuts vide egoquiagoric Maria Santissimaren pena, doloreac azalcea lacoric/ Escritura Santac dacarren anima santarena lacoric...*

- *pecatua gai dan becala, ala orobat zerbitcen dio .../ Jaungoicoaren aldetic paciencia eta sufrimentu andia dan becala, Christauari dagocanez .../ Gurutcea adoratcea léndavico obligacioa dan becala, ala norc berac Gurutcea eramatea da bigarren obligacioal/ esan dezaquegu ichasoan gacia eta garratza ez dan urtantoric aurquitcen ez dan becala, ala Mariaren viotcean gaurco misterioan aur-*

quitu etzala .../ esan dezaquegu ichasoco urac ustu eta ahortuco dituan neurri-ric ez dagoan becela, ala Mariaren sentimentu ..., ...

- cembait punta, ambait odol iturri ceriozcala/ cembait eta andiagoc eta ugariagoc diraden mesedeac, ambait eta andiagoc eta estuagoc izango dala Jui-cioco egunean cargual/ cembait pecatari jarri citzaioczan aurretic barcacio es-que, ambaiti barcatu ciozcan pecatu guciacl emango diztet ambait gracia eta la-guntasun, cembait bear duten...

- aiñ zabarqueri andia...

- Goren graduak adierazteko forma eder ugari: ¡O arzairic contuzcoena!/ alic leenena guerturatu bear zayol albait leenena gusto eguitecol Profeta Santu au izan zala gucien artean jaquinsuena, arguituena, eta iztunic ederrena; beraren asmeguiac edo profeciad diradela nobleenac, arguienac, eta beraren zela irmoe-na eta iracequienua; aurreco eta ondorengo Profeta guciac baña servicio gueyago eguiñ ciozcan bere erriari; gueyago sufritu zuan bere erriaren amodioz .../ Bera da eciñ conta ala mirarizco mesede bere demporan mundutarrai eguiñ diztenal eciñ conta ala diradel JesuChristoc ecinda obeto erabaqui ciola galdeeral/ guizo-naren esquergabetasuna ecinda gueyagocoa dal nola amorratcen dan eciñ gueya-goraño .../ nai adiña, sobre, eta gueyegui...

3.7.19. Moduzkoak

- quirquirrac becela issilzaca/ juan zan usatortola becela Gurutcearen Arbo-la gañeral/ ichasoac urac beregan arcen dituan becela, era artan bertan ..., ...

- eta nola ere bait al dedan moduan asiera eman naidiot nere sallari...

- Jaungoicoric ezipaliz becela...

- daquizuten becela/ icusten dan becela/ uso costumbrea dan becela .../ Jaungoicoac ematen dituan eran/ Ceruan dagoan eran...

- Sn. Anselmoc dioanez/ Trentoco Concilio Sagraduac adierazten duanez/ Sto. Tomas Aquinotarraren esaeraz .../ Christauari dagocanez .../ dacustanez...

- parabolaren medioz/ ugandiaren medioz galdu zuan mundua...

3.7.20. Harridurazko esapideak

Forma eder ugari:

- ¡O Españatar erruquirenac! ¡jerruquiren jayoac! ¡anima erruquiren! .../ ¡Au mundua! ¡Au mundua jarri da! .../ ¡O arzairic contuzcoena! ... misseriac eta misseriaren ondorengoac/ mundua eta munduco izanac .../ ¡Ondo penatceco ja-yoac guerade zu eta ni! (Jesusek gurutzetik bere Amari) ... Ondorengo hau ere, galde-ikurren artean eman arren, harridurazkoa bide da: pensazazute orain; ¿ceiñ poz andia izango zan Christauena bere paragean icustean Gurutce Santua, cer humiltasunarequiñ adoratuco zuten; cer devocioarequiñ alavanzac Jaungoicoari cantatuco cioten?...

3.7.21. Hainbat esapide eta perpaus

- Mailegu indargarriak: *arbolatic issequita zacust, ez por cierto cere ille motatic, baicican iru entenga gogorrez josiricl ... ez por cierto erruquiz (ez alafede) .../ sobra daquizu (ondo asko) .../ iñorc ere gurutcetic jachi nai gabe, si quiera sepultura honrradu bat emateco (besterik ez bazen ere)...*

- -ren ordean: *humillatuaren ordean (umiliatu ordez/beharrean)/ ba alaz guciarren ere quejatuaren ordean pozaren pozac ozta egoten dirade zuti...*

- esate baterako: *...edo beste motivoren bategatic, nola dan pecatuaren beraren ichustasunagatic...*

- hots: *legue gucia, au da, Mandamentu Santu guciac...*

- -z ostean: *ugandiaren medioz galdu zuan mundu gucia, zorci personaz ostean* (ikus 3.7.1.: -z ostean = ez ezik. Baina kasu honetan ez da emendiozkoa, salbuespenezkoa baizik: *izan ezik*).

- Forma arraro samarrak: *Letradua, icusteun JesuChristoc ecinda obeto erabacqui ciola galdeera, bildurrac artu zuan, ceñ iguerri ceguion bere malicia eta asmo dollorrac (ceñ horrek erlatibo lotura ez, baizik eta kausazko zeren dirudi). Are forma gogorragoa, konplexuagoa: bildur naiz ceñ Jesus maitagarriac cargu estuac eguiten diozcan demporan Christauari bere gaiztaqueriaz ezece, baicican cerren esquergaiztoz pagatu diozcan mesede eguiñac (ceñ konpletiboaren lotura egiteko da³⁵; baina gaiztaqueriaz ezece, baicican cerren... lokailu eta juntagailu multzo horrek txit bortxatua dirudi).*

- Eta amaitzeko, pare bat esaldi. Bertan perpaus-mota ezberdinak (erlatiboak, konparaziokoak, kausalak, ondoriozkoak, helburuzkoak...) ikus ditzakegu katean:

guri cigun amodioaren indarrac gurutczaturic sufritu erazo cion eriotza lotsagarria, bada il zan Aita Eternoarequiñ gure arteco paqueac eguiteagatic, il zan gure pecatuen guirguillu pisuac eta catea gogorrac ascatu eta deseguindutceagatic, il zan pecatuaren videz beraren iguesi guevilcenoc beraganatceagatic, il zan gure eriotza bere eriotzarequiñ goitutceagatic, il zan azquenic guretzat zabaliceuden Infernuco atead itchi, eta itchiric ceuden Ceruco atead guri zabalceagatic; eguiac dagoquio badá mesede paregabe oni beraren pasio eta eriotzaren misterio andi au celebratcea, gure pecatu eta utseguiteac cirala medio guertaera negargarri au izan zanezqueroz.

¿Nori gustorago veguiratuco dio seme batec bere aitari baño? bada daqui berac eman ciola izatea; ¿ceñi veguira jarri diteque obeto esclavo bat bere jabe-ari baño? daquian ezquero berac libratu duala prisiotic; ¿nori veguira dizoque poz gueyagorequiñ gaisso batec sendatuco duan medicuari baño? berriztutcea suerteac emango balio ere; ¿Nogan bere veguiac ifinico ditu pobre batec aberatsagan baicic?; ¿Nori veguiratu dizoque obeto JesuChristori baño, ceña cierto daquian izan zala guztionzat.

³⁵ Otaegi 1993: 180. or. eta Villasante 1979: 51-53 orr.

3.7.22. Ordena

Alde honetatik aski kritikatuak izan dira gure klasikoak; *mordoilo* samarrak omen, *erdal joskeraren* morroi, alegia. Puntutxo bat baino ez dugu aipatuko: Esaldia aditzarekin hasteko joera handia du Amundarainek: *Da, cerren cierto daquidan, nic adiña mesede artu balute Jaungoicoaren escutican ascoc eta ascoc .../ Da Nazarenoa, Ceruco lora eder, gozoa .../ Eta da eguiaz Erregue gucien Erreguel ¿Nori gustorago veguiratuco dio seme batec bere aitari baño? bada daqui berac eman ciola izateal ¿Jauna, da posible ni ez humillatcea ...?/ ¿Ote dagoan Españian ...?/ Da bada Mezaco sacrificio santua S. Pabloren esaeraz .../ Dio Sn. Agustinec, Meza Santua dalario .../ Meza Santuaren fin principal edo leendavicoa da Jaungoicoa honrratcea/ ez du mezaric enzuten, eta eguiten du pecatu mortal...*³⁶.

³⁶ Dena den, Sebero Altubek eta ezarrirako (eta harrezkero *legetzat* hartutako) euskal joskera *jatorraren* eskema: Subjektua (Predikatua)-Galdegaia (Objektua, Atributua, Aditzondoa...)-Aditza, ez da gure literaturan inoiz ere, ez antzinako autoreen artean, ezta geroagokoen artean ere, hain *lege* izan. Ikus, besteak beste: EGL 1993: 22-31 orr.; Villasante 1980: 23-25 orr.; Goenaga 1980: 199-209 orr. Eta Michelena 1987: 377-382 orr.: Literatur tradizioko perpauseko hitzen ordena “se aparta de las reglas de Altube”; ordena hau “es bastante libre en vasco, al tiempo que queda sujeto a muy severas restricciones”; ordena-askatasun honek “no rompe los límites, bien acotados aunque amplios, impuestos por la gramática”; tradizioak eskaintzen digun malgutasun hau “acaso no resulte grata para los partidarios estrictos de un dogma metodológico”. Altuberen S.O.V. (Subjektua-Objektua-Aditza) eskemaren aurrez aurre adibideak jarritz: “no sorprende hallar, con verbo intransitivo ... el orden V.S., con el verbo ... en cabeza de la frase ... Eso mismo vale para construcciones transitivas ... Tampoco es raro el orden (S.)V.O., cuando V. es transitivo...”. Beraz, “En resumen, ... debemos tratar de infirmar para mostrar su falta de base (Altuberen teoriarena), que en la gran tradición guipuzcoana ... la que va más o menos de 1750 a 1850, ... se manifiestan al menos dos tipos de narración, una, acaso más próxima a modelos populares (Agirre), y otra más libresca, más gramatical (Lardizabal)”.

4. ERKAKETA

Ikusi dugun bezala, Amundarainek bi lan-mota utzi zizkigun: 1820an (65 urterekin, alajaina!), testu politiko baten itzulpena egin zuen, eta lau urte geroago, 69 urterekin, sermoi- multzoa prestatu zuen.

Bi lanok arras ezberdinak dira, elkarren artean ez dute inolako erlaziorik, zerikusirik: 'Jaquin-bide Iritarautia' erdarazko testu baten itzulpena da; sarrerako *Eskaintza* salbu, ez dago, bada, bertan sormen-lan handirik.

Gaia ezohikoa dugu: Konstituzioaren azalpena, gai juridiko-politikoa, beraz. Ordurarte euskal literaturan inork inoiz jorratu gabea.

Lan hau burutzeko ezin, bada, jo aurreko iturrietara, bere aurreko tradizio idatzira, ezer ez baitzegoen: Amundarainek lan hau garatzeko ez du oinarri literarioirik; aitzindari dugu alor honetan.

Lanaren helburua ez da erlijiosoa, politikoa baizik, eskolan ume euskaldunei Espainiako gobernu berriaren Konstituzioa irakastekoa, alegia.

Tradizio falta honengatik, lexikoa arazo larri gertatu bide zitzaion: Lexiko juridiko-politikoa erabiltzeko Larramendiren Hiztegi berria lagungarri bikain sueratu zitzaion. Honela, 'Jaquin-bide Iritarautia' Larramendiren Hiztegiko lexikoaz baliaturik burutua dago.

Formari dagokionez, garaiko Kristau Dotrinak bezala moldatua dago: *Galdera/Erantzun* teknika txit pedagogikoaren bidez, hain zuzen ere.

Estiloari begira, berriz, perpausak laburrak eta zehatzak dira: izenondo eta aditzondo gutxi, menpeko perpaus gutxi, harridurazko perpausik ez, deikaririk ere ez; ez autoritate eta autore zaharren aipamenik, ez latinaren (garaiko hizkuntza *kultoaren*) erabilerarik... hitz batean, erretorika eta oratoriarik gabeko testua dugu Konstituzioari buruzko Doktrina Politiko hau.

Sermoietan, aldiz, sormen-lan handiagoa nabari da; erdarazko sermoi-liburuak eskuartean erabilirik ere, agerian dago Amundarainen krezio-lan orijinala, baliabide literarioen erabilera aberatsa.

Gaia erlijiosoa, Elizakoa da; euskal literatura zaharrean asko landua, tradizio handikoa. Aurreko lanean ez bezala, oraingo honetan badu oinarri eta iturri literarioirik aski, non zer begiraturik, nondik zer jasorik.

Helburua: Apaizen ohiko lanbidekoa: Kristau-erlijioaren egiak euskaldun eliztar xumeei azaltzekoa.

Lexikoari dagokionez ere, tradizio aberatsa du lagun; honelako sermoi eta eliz gaiei buruzko liburu ugari baitzegoen jadanik idatzia eta argitaratua, eta Amundarainek bere garaikoen eta lehenagokoen lanak, garrantzitsuenak bederen, ezagutzen zituen seguruenik.

Forma: Jende multzo handiaren aurrean egiteko hitzaldiena. Sermoion egituraz lehenago ere aritu gara.

Eta estiloaren aldetik, erretoriko puztu antzekoa dugu Amundarain, garaiko apaiz eta fraide sermoilari guztiak bezalatsu: Izenondo eta aditzondoetan oparoa; esaldi luzeak, menpeko perpaus- kateak etengabe, harridurazkoak eta deikariak barra-barra; Ebanjelio eta Eliz Gurasoen aipamenak latinez, (alboan euskarazko itzulpena ezartzen duelarik)...; oratoria dotorekoa dugu Mutiloko bikario zaharra.

Bateko eta besteko adibidetxo bana baino ez:

‘Jaquin-bide Iritarautia’ko perpaus eta joskera-mota:

“P. ¿Cer da Neurquida, edo Constitucioa?

R. Da Erreinu baten legue ondequidarren batune zucena.

P. ¿Cer gobiernu da Españacoa?

R. Bacarondar moderatua, primuarra, edo jatorrizcoa. (Art. 14)”.

Eta sermoi *politiko* batekoa:

“ ...!Hispania, Hispania! ... ¡O! España, España... ¿Cer dacusgú castigua, azotea, naigabea besteric aspaldico urteetan? Ogueta amar urte onetan gueldizaca guerra, eta izurri artean vici guerade Españian ... Ez diote barcatu senideac senideari; aideac aideari; adisquideac adisquideari; Gurasoac semeari, eta semeac gurasoari. ¿Cembait lotsagarrizco eriotza guertatu dirade; Cembait Sacerdote; cembait Religioso; cembait persona honrradu plazaren erdian il dituzte guezur bat dalario? ¿cembait Eche saqueatu dituzte; cembait familia ondatu dituzte bazterretan?; Cembait Eliza lapurtu dituzte; cembait sacrilegio. mesprecio deshonrragarri guertatu da España ederrean, fedearen Jaureguian?...”.

5. SERMOI HAUTATUAK

Eta gure ikerlanari amaiera egokia emateko, Jose Felix Amundarainek, XIX. mendearen hasierako Mutiloko bikarioak idatzirik laga zizkigun sermoi batzuk hautatu, transkribatu eta eskaintzen ausartu gara. Sermoiok, lehenago esan bezala, Lazkaoko Beneditarren monasterioko liburutegian gordetzen dira, bi liburukitan txukun-txukun koadernatuak.

Amundarainen eskuizkribuetako ortografia eta puntuazio-zeinuen sistema errespetatu egin dugu, gaur egungo irakurleari hainbat enbarazo sortuko diola jakinik ere: ‘tc/tz’, ‘b/v’, ‘y/j’... bikoteen erabilera eta, batez ere, maiuskulen eta puntuazio-ikurrena, egungo ikuspegitik, bitxi samarrak, irizpide zehatzegirik ga-beak iruditzen zaizkigu.

Dena den, sermoion transkribaketan aldaketa bat egin dugu: Amundarainek aditz nagusia eta laguntzailea, nahiz aditzaren inguruko zenbait elementu (al, ote...) loturik idazten dizkigu: *ezbalego, juanciraden...* Guk banandu egin ditugu, irakurketa errazteko asmoz.

Bestalde, 5.2. eta 5.3. sermoiak jaiegun bererako moldatuak dira; biak berdinderdinak; bata bestearen kopia dirudi. Baina urte berean (1824an) moldatuak ote dira biak? Gure ustez, ez. Lehenago ere esan bezala, bateko eta besteko tintaren kolorea ezberdina da eta, gainera, batean, bokal arteko ‘-i-’ ‘-y-’ letraz adierazten du eta bestean, ‘-j-’ letraz.

5.9. eta 5.10. sermoiak ere igande berekoak dira; bien muina edo mamia ere berbera da (*apaltasuna*), baina ez dute elkarren artean antz handiegirik.

5.1. *Consumatum est. Joan. 18*

Maria SS. Ceruco Erreguiña, Pecatarien Ama piadosa, leguearen aguintaz bere Seme Jesus maitearequin Jerusalengo Templo sagraduan sartu zan aldaarte artan bertan bere Aita Eternoari esqueinte paregabe ura eguitera mundu guciaren probechuan; aurquitu zan Simeon Sacerdote Santu aundi ura ceñari Jaungoicoaren magestadeac berac esanic ceucan, etzala juango bere Guraso, eta aurrecoac icustera bere veguiz Mesias aiñ deseatua icusteraño. Beteric bada plazo au egun artan, artu zuan Simeon Secerdoteac bere besaartean Aur jaiotberri, gozo, zoragarri ura; alchatu cituan veguiac Ceruetaronz eta poz, contentuz iturri bi eguinic

deadar eguin zuan esanaz: *Nunc dimittis servum tuum, Domine, secundum verbum tuum in pace, quia viderunt oculi mei salutare tuum. Jauna, eten ditzaquetzu bertatic nere gorputz, eta animaren locarri auscorrac; cerren icusi det nere veguiz, eta arguiro gure aurrecoac suspirioz deseaten zuten arguia, beren esperanza baccarra, eta Israel gucico gloria; ya aimesterequin nere viotzari bete zaizca deseo guciac, eta arrazquero ecin besteric deseo det, nere veguiac ez berriz zabalceco itchitcea baicic zure Jaungoicotasuna bear becela ezagutceagatic. ¿Cer da au onela, Simeon Santua, ozta ozta icusi dezu veguien aurrean aimeste urtean munduan suspirioz, eta negarrez ansia andiaquin deseo izan dan icuscaria; ozta estutu, eta maitatu dezu cere besaartean Ceru-Lurraren jabe dan Aur eder ori, eta eriotzari aiñ gogotic deitzen diozu? ¿Cer dan onela, nere Simeon ona, vicitzaren vicitza cerequin daucazu, eta ala ere bertatic il nai dezu? Eguiatz nerequico esan dezaquegu choraturic, eta burutic jauciric zaudela; edo urteac aaztu erazo dizuela Mesias etorteco cerorren deseo viciac? Ceruco Queruvin, eta Aingueruac envidiaz josiric zure besaartera veguira daude, eta zuc dicha parric ez duan orri eriotzaren medioz ain laster nai diozu utzi? Alare eta diodan becela dirudi misteriozco guertaera onec: baña iñorc becin ondo eta obeto cequian Simeonec cer escatzen zuan aldarte artan. Espiritu Santuaren arguiz beteric ceucan Simeonec bere adimentua, eta ezagutcen zituan alde aurrez, ta gogoratcen citzaizcan Judu madericatuen viotz amorratuac dempora berean Jesus maitearen Gurutcean eguingo cituzten atsecabe gogor izugarriac. Ia bertatic bertara ispilu batean becela cecusen Jaungoicoaren Seme bacar arc sufriquizun izango cituan tormentu, neque, icerdi, eta afrenta guciac; bada egun dolorezco aiec beretzat ez icusteagatic; pena, sentimentuen poderioz lotsa aundi baten erdian ez ilceagatic, eracutsi ciozcan Simeon Santuac Aita Eternoari bertatic ilceco aiñ ansia gutziticoac.*

*Ezta bada gaitz, n. E. devot., zuec egemplo onequin conturatcea, zor diozuen edo ez sentimentu andiac iragartea Jaungoicoaren magestadeari berari gaurco egunean, ceñetan eracutsi, eta gogoratcen dizquizuen ceon Ama Eliza santaren medioz, Simeon beldur zan egun dolorezco aiec erac; Jesusen penac; desaire, afrentac; Pasio, Eriotzac. Odolezco negar errecaquin adierazo cituzten beren sentimentuac Eguillearen pasioco demporan Eguzqui-Illarguiac: negarra ceriola Lurrac beregandic bota cituan Portu, mendiac, Jaungoico Guizonaren Eriotzaz lotsaturic: Paraisua eta bertaco Aingueruac negarrez urtu ciran aazturic beren dicha eta zorion guciezaz Jesus amorosoa ilceco zorian icustean. Azquenic, eta itz batean S. Leonequin batera esan nai dizuet: *Pendente in Patibulo Creatore; universa creatura congemuit. Munduco criatura guztiac penaz beteric aurquitcen dirade beren Eguillearen Pasio-Eriotza demporan; ecin siñistu dezaquet bada, baccarric sosegu, eta palmetizaca egon ditequeala Guizon-Emacumearen viotza Pasio, eta Eriotza au berbera gogora ecartean. Iñolaz ere ez dirudi ondo, eta ecin izan ditequean gauza da, guri baccarric dijoquigun dolorezco misterio aundi onetan barruco penaric ez iragartea.**

Guri zigun amodioaren indarrac gurutzilzaturic sufritu erazo cion eriotza lotsagarria; bada il zan Aita Eternoarequin gure arteco paqueac, eta adisquideta-

sunac eguiteagatic; il zan gure pecatuen guirguillu pisuac, eta catea gogorrac ascatu, eta deseguindutceagatic: il zan pecatuaren videz beraren iguesi guevilcenoc beraganatceagatic: il zan gure eriotza bere eriotzarequin goitutceagatic: il zan azquenic gureztat zabalic ceuden Infernuco ateac itchi, eta itchiric ceuden Ceruco ateac guri zabalceagatic: eguiaz dagoquio bada mesede paregabe oni beraren pasio, eta eriotzaren misterio andi au viotzeco amodio, erruqui, eta devocio andi batequin celebratcea; dagoquio eguiaz gure pecatu, eta utseguiteac cirala medio guertaera negargarri au izan zan ezqueroz, oien damutasun eguiazcoa viotceco negar ugariaquin gucioc bertatic eracustea. ¡Ha! berritu al baguenza guc oraiñ, David Erregueac dempora batean, icustean munduco atsecabeac, iragarri zuan damu, eta sentimentu andia; Eliasec Isrraelgo escandaloen contra eracutsi zuan zeloa; eta Jeremiasen cupide, negarrac Jerusalengo zorigaitzac ezagutcean.

Amodiozco sugar vici oiec iracequi nai nituzque, n.E., gaurco arratsaldean zuen viotcetan; gai onetaraco ez dacuts vide egoquiagoric Maria Santisimaren pena, doloreac azalcea lacoric ... Ave Maria.

Consumatum est. Joan. 18.

Batac besteari dion amodioaren señale egoquia da, bere suerte onetan poz contentu andiarequin zorionac, eta vivac publicatcea; eta contrara zorigaitz, eta atsecabe demporetan penatu, eta bere sentimentuetan laguncea; bañan alaere Sn. Agustin Elizaco Doctore andiaren izcunzaz, bietatic eguiazco adisquidetasunaren señaleric seguruen da, norc berac besteren zorigaitcetan parte artcea: Nihil sic probat Amicum, quam Amici oneris partitio. Beragatic deritzat iñolaere ecin obeto adierazoco diogula gucion Ama Maria Santisimari leguez, ta videz zor diogun amodioa, gaurco misterio arrigarriac bere viotz biguñean sortu ciozcan pena, sentimentu, atsecabe gogorretan parte artuaz baño. Orrez gañera Jesus bere seme maite gurutzilzatuac berac beregaiñ arturic dauzca Ama dolozco oni erruquiz eta cupidez veguiratcen dioten gucien zorrac, Aita Eternoarequin berequico paqueac eguiñez Ceruco ondasun ugarien jabe eguiteco: Raquelec dolozco samiaquin seme eguin, eta vicitza galdu zuen demporan; bere errayetaco frutuari deitu cion Benoni; ceñac esan nai duan Dolozco semea; eta Jacob bere Aitac trucatu cion icen au, eta ipini cion Benjamin, ceñac esan nai duan escuico semea. Izanic bada Escritura santuco pasarte, eta guertaera guciac chit misteriotsuac; esan dedan onetan Jacob Patriarcac aldeurrez dirudi Jesus gure salvatzallea; eta Raquelec gure Ama Maria Santisima. Ala dio Sn. Ipolitoc, eta onequin batera nic ere bai oraiñ, zuen viotzac gaurco misterioan erruquir mugitu, eta zuen esperanzac gueitu, eta alaiceco. Maria Santisimac bada dolozco sumiñ gogorraquin Calvarioco mendian sortu, eta eguin guinducen gucioc: Egreiente anima prae dolore eta guztion icenean seniparte onen posesioa artu zuan Dicipulu maiteac Mulier ecce filius tuus. JesuChristoc bere pasioan gueiena penatu zuan tormentuetatic bat izan zan munduco pecatu guciac bere gaiñ artu eta Aita Eternoagana agercea. Il zan Gurutce pisuac larrigui necatu cion bere sorbaldac, eta lotsaturic cecusen alde gucietara bere burua. Beregan zanez santu gucien santua zalaric, cirudian pecatari gucien peccataria, eta edolaric Pecatua berbera. Pensa

baicic ez dago oraiñ, izanic Maria Santisima bere semearen aiñ anz andicoa, cer sumiñ, eta dolore izugarriac izango ciran Ama onenac Calvarioco mendi artan aibeste pecatari bere semetzat artutcean. Egrediente anima prae dolore. Cerren medioz Salvadoreac berac deitzen digu beraren Escuico Semeac. Baña onetara-co alaco Amaren Semeai dagoquien becela eranzun bear degu gogoz, eta viotzez: artu bear degu parte bere Calvarioco sumiñ, eta dolore andietan, berac maite izango bagaitu. David Erregueac eriotzaco zorian aurquitcean Salomon bere se-meari esan cion: Berclairen semeai mesede andiac eguin ecece berequin batera bere maian iduqui citcela; cerren bere premia, eta estutasun andietan lagundu ci-oten. Calvarioco gure Ama onac Davidec baña ascoz biguñago do bere viotza; eta menazago escatuco dio bere Seme Gurutzilzatuari lagundu deigula munduco premietan bere graciaquin, eta sartu gaitzala berequin batera Ceruan, baldin Calvarioco estutasunetan bere lagun baguera. ¡O cer dicha zuena, eta nerea as-mo santu oiec gucion viotcetan betico marcatuco balira!

Ezta erraz, n. Aditzalle devotoac, ezagutcea, jaquitea, eta aditcen ematea cembateraño irichi ciran Maria Santisimaren sumiñ garratzac, bere Seme Jesus maiteari Judu madaricatuac Pasio, eta Eriotzan sufritu erazo cioten pena, neque, naigabe eta mesprecio andien medioz. Ceruco Aingueru, Querubin, eta Serafin guciac baña obeto cequitcen, eta ezagutcen cituan Maria Santisimac bere Seme Jesusen diñatasun, eta mercedentuac, eta ala Ceruco, eta lurreco criatura guciai baña obeto cegoquion ezagutcea Juduen injusticia, eta videgabetasun andia.

Neurri onezaz arautu bear ditu bada gure adimentuac Mariaren dolore, lace-ri guciac erabat aldarte onetan. Chit menaz, eta arrazquero pocic ecertan etzecu-senac becela suspirio, eta negarrez ichaso bat eguinic ceuzcan bere veguiac: pe-naz erdi illa bere viotza, eta ecertaraco diña etzuan bere gogoa. Nai adiña, eta gueiegui pena izango zan orduan Mariarenzat, San Dionisio Areopagitic becela urrutitic Ceru-lurraren irabioac beren Eguillea padecitcen cegoala ezagutcea ¿Cer izango zan bada aiñ guertutic eta artez arte icustea? Aiñ guztizco pena an-diac igaro cituan bere viotz maitagarrian Ama piadosac aldarte artan; ece erraz esan dezaquet zauri ariñagoaquin il dirala Martiri guztiac Tiranoen atzaparretan. Munduco, eta infernuco gucien adimentuac cirudian empeñatu zirala tor-mentu mota gogorrenac asmatcen Jesusen gorputz viguña illerazotceco. Descus-tuac bere ondasunetan; atsecabeac bere honrra, eta creituan; tormentu icaraga-riac bere vicitzan. Ceru-lurraren jabe bacar zanari alcandorarañoco guciac quendu cioten; Larrugorri vici vician utzi zuten lotsaturic Ceruac Eguzqui Izar ederrez, mendi celayac lorez, animaliac ille-lana zuriz, egaztiac lumaz, eta azque-nic Guizona bere soñecoz jazten duana. Ecin pensa lezaque cer icusquizunac izan cituan bere creituan: lau egunez aurretic Jerusalengo Ciudadean triunfo, eta abe-gor andico sarrera eguin bazuan ere, gueroztic etzan aundi chiquiric, zar gazte-ric injuria, eta atsecabe lotsagarriaquin, lurreco ar citall bat becela mezpreciatu etzuanic. Bere jaquiunde, mirari, escualde, eta vicimodua zala medio, Cerutic ja-chitaco Guizona becela adoratua izan zan leenago; baña guero guciac beguitan artu, eta igüi, gorroto amorratua alde gucietara eracusten cioten: bere Dicipulu-

etarañoocoac batzuac saldu, besteac ucatu, eta guciac beragandic iguesi cebilcen; bacar bacarric bere Ama maitea zuan begui onez, penaz bazan ere, veguiratu, eta laguncen cionic; eta ¿Cer deshorrta gueiago izan cezaquean, Barrabas Guizon villau, eriotzaguillearen lecuan lapur biren erdian gurutzilatua izatea baño? Eta eriotza lotsagarria au asmatu, eta erabaqui zanetic, bere vicitzan cer pena, neque, naigabeac sufritu cituan, negarrez urtu ciran Aiñgueruen mingañac erac, asco ez dira contateco.

Alde bat utzi nai ditut beregan izan cituan bildurtasunac, otzicarac; eta ilceco zoriac; issillic utci nai ditut abegor, losencha guezurrezcoac; bulzaca, osticadac; ez ditut aitatu nai tribunale batetic besteraco atcera aurrerac; eta oietatic batean soldadu dollor batec eman cion masallaco icaragarria. Cerbait esan nezaque Pedroc ucatu zuanean, eta Pedroc becela munduco gueienac aurrera ucatuco zuela ezagutu, eta pensatcean artu zuten viotceco iltasunaren gañean; baña pena oec guciac autan arcecoac ezipalira becela ez ditzacun verritu; asi nai det Jesusen gorputz sagraduari Borrero gogorrac cupidegabe eraso cioten azotetic. Izanic azoteac Pecatariai eman oi citceten castigua, Jesus inocentearen gañean elur luma becin ugari erori ciran: Borrero batzuec aspertu, eta besteac berriro eraso cioten: Sta. Getrudisec dioanez bost milla, eta berrogeuitarano eman cioten, alaco moduz ece ta etzuen zauritcen, baicic areac lurzotalac atera oi dituan becela, aragui zatiac ateratcen ciozcaten. Noizbait aspertu ciranean Berdugoac lan onetan, equin cioten beste bati: Irurogueta amabi punta zorrotz ceuzcan aranzaco coroarequin colpeca zulatu cioten bere buru guztia, eta azquenec, logratu zuan Etsaiac Jesus Gurutzilatceco sententia samiña. Besteric deseo etzutenac becela laster asco cargatu cioten Gurutze pissua bere sorbalda gañean, eta aviatu ciran Calvarioco mendirutz.

San Juan Evangelista Jesusen Dicipulu maiteac icusi zuanean Procesio negargarri ura, juan cizayon lasterca dolorezco Ama Mariari alvista triste ura ematera ¡O Ama Dolorosa! Ez dirudi asco oraingo alvista orrec, ogeta amairu urtez leenago Aiñgeru S. Gabrieleac eman cizunarequin: Baldin Job santuac bere soñeco guztiac sentimentuaren poderioz urratu bacituan semeen eriotzaren alvista aditu zuanean ¿Baldin David Erregue santuac bere Semea Guerran il zalazcora, negarrez bere burua ondartu bazuan ¿Baldin Jacob Patriarcac poz, contentu guztiaz etsi bazuan bere seme Joseren desgraciarequin batera ¿Certaraño penatuco ote zan Maria Santissimaren viotz verà amodiotsua, bere semea Gurutzilatcera ceramela aditcean? ¿Cer naigabeac, eta ilceco zoriac sentituco etzitian Ama piadosa onec? Bañan ala ere eciñ etsi zuan bere veguiz icusi gabe; ecin utzi zion, bitartean lagundu cion ezquero, orduan ere lagundu gabetanic, eta Davidec baña viotz indarsuagoarequin bidera irten cion Señora dolorosa onec. Juan zan usator-tola becela Gurutcearen arbola gañera cantu tristeaquin bere pena guciac aditcen ematera: Juan zan beazun gabeco uso mansoa becela Calvarioco Iturri gaci artan azqueneco dragoa arcera: emen icusi zuan bere veguiz Seme lastana escuac zulaturic, oñac urraturic, zañac etenic, eta guztia zauri bat eguinic azquen arnasa botatcen Consumatum est.

Zurequin naiz oraiñ, Ama dolorosa, baña eztaquit zure pena, neque, naigabe doloretan zeñequin berdinuoco zaitudan ¿Cui comparabo te? Guraso ascoc beren humen ausencia, eta Eriotzaren medioz sentimentu andiac izan dituztena eguia dà: lastimazco itzaquin aditcera eman cituan oiec Tobiassec bere semearen ausenci laburrean: Agar Abranen Esclabac erruquiz etzuan viotzic izan Ismael bere semea ilcen icusteco: Salomonen Tribunalean naigo dó beste batec bere semea ucatu erdiratcen ecustea baño: Abran bere Emaztea alvistarequin batera ilotcic guelditu ez dediñ, onen issillic dijoa Hisac bere semea sacrificatcera. Moises urtara botazuan Amac sasquicho batean bere veguien aurrean odolduric ilcèn ez ecusteatagatic: alaere oyec ala diralaric bere oñean guelditcen da. Isayas Profeta santuaren galdeera: Cui comparabo te? Mariaren pena, neque, naigabe, doloreac, bere seme Jesusen Pasio, eta eriotzan diradela paregabeac: Gure adimentu laburri cerbait adierazotceco bacarric esan dezaquegu Ichasoaren eracoac izan cirala alde gucietara Ama dolorosa onen doloreac: Est velut mare contritio tua. Bada Ichasoac Munduco Iturri, Erreca guztietaco urac bitu, eta beregan arcen dituan becela, era artan bertan beste munduco Guraso guztien penac, eta doloreac bitu, eta Mariaren viotzac beregan artu cituala esan dezaquegu; Ichasoan gacia, eta garratza ez dan urtantoric aurquitcen ez dan becela, àla Mariaren viotcean gaurco misterioan aurquitu etzala mincatza, eta chit garratza etzan gauzaric: Esan dezaquegu: Ichasoco urac ustü, eta aortuco dituan neurric ez dagoan becela, alà Mariaren sentimentu, doloreac neurtu litzaqueanic aurquitcen ez dala.

¡O Ama piadosa, Dolorosa, eta Martiri gucien Erreguina! barca zadazu, baña galdetu nai dizut ¿nun dira Aita Eternoarequico zuc mereci izan dituzun doai, mesede, eta gracia ugariac? Invenisti gratiam apud Deum. Zugana veguira ispillatcen zan Aita Eternoa. Pecatuaren loi ciquiñac icutugabetanic sortu cinducen berac: Bere Seme maite orren Ama izateco diñatasun guciac eman cizun: Invenisti gratiam: Doncella izanic, Doncella guelditcen ciñala sumiñ dolore gabe zугандic jaio zan seme maite ori berori: Invenisti gratiam Aldarte ascotan beste trabaju, eta neque gucietan Ceruco Aingueruac erac izan dirade zure servitzariac, eta penac arindu dizuenac ¿Nun da bada oraiñ Aita Eternoa zuri beguiratu, eta zугan ez ispillatceco? ¿nun dira oraiñ Ceruco Aingueruac zure penac cerbait ez arinceco? Graciazco Ama dolorosa, galdu ote dituzun irabacivide oiec guciac utseguiteren batequin? ¿Aserratu ote dezun Aita Eternoa pecaturen batequin? Esquergabea izan ote ceran berarequin gauzaren batean? Bada ez dirudi beneric gaurco misterioan zure penac, zure laceri, lastima andiac pensatcean: Leenago zугan ispillatcen zan Aita Eternoac Ama Semeoi aubeguia itzuli dizue. Ut quid dereliquisti me. ¿Cer da au onela Ama Dolorezcoa? ¡Hai! Isayas Profeta santuac eranzuten dit chit egoqui zure partez. Iste est fructus, ut auferatur peccatum. Ez dira ez zureac pecatuac, ez dira zureac utseguiteac, eta esquergabetasunac, baicic gureac. Pecatarien Ama eguin cera; pecatarien zor aundiac semearequin batera ceregaiñ artu dituzu; eta penaz, eta dolorez ichaso bat eguinic guztizco zor aundi au pagatu nai dezu: Ut auferatur peccatum, peccata desequindu, eta Ceruco atead zabaldu nai diguzu ¡O cer mesedea ¡O cer dicha eta consueloa guretzat. ¿Cer

eguin al genzaque bada guc mesede onen alde, Ama Piadosa? Laburrac dirade gure adiñac, utsac dirade gure escualdeac; baña alaere eracutsi nai dizugu gure vorondate ona, iragarri nai dizugu gure deseoa, eta vicienac izango dirade gucion viotceco, eta eguiazco pecatuen damutasuna, eta sentimentu andia zure pena, sentimentuaquin bat eguitea; zure honran eta zure semearen alabanza beraren illetaco funcio sagradua celebratcea; dempora batean José, eta Nicodemus guizon prestuac zure semearen gorputz santuarequin eguin zuten langai piedadezcoa, beraren Imagiñarequin verritcea, verritceco gugan beraren Pasio, eriotza, eta illeta santuaren frutu ugariac.

Ea bada Aldareco Ministroac...

Orra nun dezuen, n.E., Jesusen gorputz santuaren Imagiña; Veguira zaiozue ondo, eta ezagutuco dezue eguiaz pecatuaren frutu madaricatu: usteco dezue oraiñ venturaz beraren izenean pecatuac merceci duan madaricacioa zuen gaiñean bota nai dedala; baña ez, n.E., ez; baicic poz contentu ugariaquin bete nai ditut orainaldian zuen gucion viotzac. Ia ez dizuet esan nai, zuen pecatuen obra dala ori; bada aazturic, eta deseguinduric aurquitcen dirade guci guciac zuec nai badezue; ondatu dirade alerañocoac odol erreca orietan, Profeta santuaren izcunzaz: Ia ez dizuet nai esan, dala zuec eguin bear dezuen penitenciaren moldea, eta Jaungoicoari satisfacio osoa emateco Gurutce batean il bear dezuela berac becela; Baña esan nai dizuet S. Agustin Elizaco Doctore andiarequin batera, dalà zuen amodioaren jabe bacarra; Eta icusiac icusi, adituac aditu, eta jaquiñac jaquin ¿Zorco ote diozuen osoro amodio au? Guc merceci guinducen tormentuaquin pagatu dituan ezquero gure zor guztiac ¿merceco ez ote duan aimbeste gugandic? Ea bera da gucion Confianza bacarra: Considera ezazue buru ori macurturic zuetaronz, Ceruco ondasunac zuei esqueinteco: *Hodie mecum eris in Paradiso: Consideraitzue escu emalle oriec ascaturic, eta prestaturic zuec mesedez betetceco: considera itzazue beso oriec luzaturic zuec laztandu, eta maitatceco: Considera ezazue viotz vera ori zabalduric zuec erdi erdian gordetceco: azquenic oin bedincatu oriec considera itzatzue, Ardi erratua becela bere iguesi bazabilzate ere dabilcela gueratu gabe zuen billa.*

Eman zaiozue, Ministro debotoac, sepultura honradua Gorputz sagradu orri; eta sepulta bedi infernuaren ondarrean Pecatua, piztu bedi gure viotcetan beraren amodioa, eta gracia; unitu, eta bat eguin bitez gure sentimentuac Maria Santissimaren sentimentuaquin, guero unitu gaitean gucioc berarequin batera Ceruco sosegüetan. Ala guerta dedilla Amen, amen.

5.2. Crucifixerunt eum. Joan. 19. Gurutzilzatu zuten

¿Veraz, nere Christauac, ill da JesuChristo gurutzilzaturic? ¿Veraz irten da Pecataria bere seta gaiztoarequiñ? ¿Nori bururà etorri cequiqueon gaiztaqueri penagarri, negargarriagoric? Lotsaturic Eguzquia bere arguitasun ederrac ezcutatu, eta illuncen da. Ceruac guztizco empachuz beteric, laño belcez estalcen dirade. Lurrac adierazten do bere pena andia lur icaraquiñ, eta ots icaragarria-

quiñ. Arcaitzac desenguiñdu, eta ceatcen dirade bata bestearen contra, atsecabez garaituric. Templo santuco velo aurratu, ta zabalcen da batera bestera, sentimentuaren poderioz. Eta azquenic Criatura guztiac erabat viotzeco larria artu, eta bildurrac arcen ditu alde gucietara, icustean Gurutz-iltzaturic JesuChristo, Jaungoico, eta Guizon eguiazcoa, Aita Eternoaren Seme bacar maitea, Maria Santissimaren errai garvietan Espiritu Santuaren graciaz, eta virtutez concebitutaco vicitzaren vicitza, eta gucion Erredentore maitea. Poz-aldi andiarequiñ dacuts, arbatu ceratela, nere Christauac, Templo Sagradu onetara, verritzera ceon viotcetan laceri triste negargarri au; bañan arritzen naiz, nolatan guerturatu ceraten Imagiña gurutz-iltzatu orren aurreco aldera; Cerren Sn. Bernardo andia, gogoratcean bacarric JesuChristoren eriotza mota, ezur gucietaco icara sorcen citzajon, eta jarten zan ilceco zorian. Deficio; penè morior.

ICUSTEA ILCEN JESUS MAITAGARRIA BESTE EDOCEIÑ ERIOTZA MOTAREQUIÑ, BETI, ETA EDOCEÑENZAT IZANGO ZAN NEREQUICO, ICUSCARI TRISTE, PENAGARRI, NEGARRIA; PENSZA ZAZUTE BADA, ¿CER IZANGO ZAN AZOTEZ EZUR, TA MAMI EBAQUIA, ARANZA GOGOR, ZORROTZEZ COROATUA, JANCI ERANCIETAN AIÑ ZAURI VERRITUA, ETA AZQUENIC ENTENGAZ JOSIRIC GURUTZE BATI ILCEN ICUSTEA AIÑ LOSTA, ETA AFRENTA ANDIAN LAPUR BIREN ERDIAN? CONTIÑOCO JEREMIAS PROFETA SANTUAREN NEGARRAC, LANTU, ETA SUSPIRIO PENAGARRIAC BEAR NITUZQUE NIC ALDARTE ONETAN, BESTE SERMOI GABE ZUEN VIOTZAC SENTIMENTU GUZTIZCO BATERA MUGUITCECO. EDOLARIC NAI NUQUE NERE Deseoz AIÑGERU BATEN ALAIDEA, JESU-SEN AMODIOZCO SUGARRAC GUCION VIOTZETAN BETICO SORCECO, ADITCEAN BERAREN PENAC, BERAREN OÑAZAC, BERAREN TORMENTU ICARAGARRIAC, ETA ERIOTZA LOSTAGARRIA PECATARIEN CUPIDEZ, ETA ERUQUIZ. CEGATIBAIT ESATEN ZUAN, NERE CHRISTAUAC, SN. JOAN CHRISOSTOMOC: GAUR BECELACO EGUNEAN ETZEGOALA SERMOI BEARRIC; EGUIÑ CEZALA SERMOLARIAC CHIT MENAZ SUSPIRIO, LANTU, ETA NEGAR SAMIÑA; ERACUTSI CEZALA BERE ATZAZ JESUCHRISTO GURUTZILZATUAREN IMAGIÑA SAGRADUA, ITZIC BATERE EGUIÑ GABE, MUTUTURIC BALEGO BECELA; BADA BESTE GABE, NAITA EZ MUGUITUCO CIRADELA PECATARI- RIC GOGORRENAC SENTIMENTU, ETA PENA TRISTE ANDI BATERA, BACARRIC PENSATCEAN, BERE- TARACO AMODIO, CUPIDE, ETA ERUQUI ECIÑTA GUEJAGOAC ARTARA ZUALA CERU, LURRAREN JABEA, AITA ETERNOAREN SEMEA, ETA GUCION ERREDENTORE MAITEA.

GURUTZEAREN ARBOLA SUERTOSO URA DA NAI ADIÑA, SOBRA, ETA GUEJEGUI ERACUSTE- CO, ETA ONDO ADIERAZTECO PECATARIARI BERE UTSEGUITE LARRI, UGARI, ETA ICHUSIAC. LIG- NUM ILLUD EST CATHEDRA MAGISTRI DOCENTIS. BERBERA DA ASCO, GOGORATCECO MUNDU- TARRAI MILLOICA BIDER JESUS MAITAGARRIAC EGUIÑ DIOZCATEN MeseDE PAREGABEAC BE- REN SORCETIC; ETA ALAZ GUCIARREN ERE BETI PAGATU DIOTELA ESQUER GAIZTOZ. GURUTZE SANTUTIC BERAC ITZ EGUIÑGO DIZTE BIGUÑ, TA AMODIOZ, ITAUNDUAZ ¿QUID FECI TIBI, AUT IN QUO CONTRISTAVI TE? ¿CER GAITZ EGUIÑ DIZUT, PECATARIA, ERA ONETAN GAITZTRATU, PE- NATU, TORMENTUZ JOSI, ETA AIÑ AFRENTA ANDIAN GURUTZILZATZECO? ESANGO DIO VIOTZ VI- OTZERA: ¿QUID FECI TIBI? LARRUGORRIAN AGUERTU CIÑAN, PECATARIA, MUNDURA; JANCI ZAITUT. PECATUAREN SOÑECO ZAR, ZALDAN JARIOA CENDUCAN CERE EDERGARRI GUZTIA; ETA BAPTISMO SANTUAREN VIDEZ JANCI NIZUN GRACIAZCO CERUCO GALA SOÑECO: STOLAM PRI- MAM INDUIT EUM. SECULACO GALDURIC ZENDUZCAN CERUCO DERECHO, ETA ARTUVIDE GU- CIAC, JATORRICO PECATUA ZALARIO, ETA NIC BORRATU, ETA CHIT DESEGUINDU DIZUT PECATU

ichascor galgarri ura, eta zabaldu dizut Ceruco ateac, irabaci dizut atzera Ceruco artuvideac seculaco. ¿Quid feci tibi? Cargu estuac artuco dizquizu, Pecataria, Gurutze artatican Jesus Nazarenoac, esanaz: Cere esquergaiztoz milla, ta milla aldiz aserratu dezula bere Aita Eternoa pecatu mortal, izugarriquiñ, eta ugariaquiñ, eta beste aimbeste alditan verriro Cerua, eta Ceruco ondasunac galdu dituzula cere najez, cere zabarqueriz, cere gogata madaricatuai jarraitzeagaitic; eta berac, zure erruquiz, zure amodioz Aita Eternoarequiñ zure arteco paqueac, ta adisquidetasunac eguiñ dituala Gurutze santuaren medioz; betico infernura, betico sugar artera, betico Demonioen erdira bota etzaitzan. ¿Quid feci tibi? Veguira zadazu arretaz, nolatan, cer egoera tristean aurquitzen naizan, Pecataria, Gurutze Santu onetan; juntura osoric, zaiñ eten gaberiz ez dedala gorputz gucian; irurogueta amabi odol iturri buruan ditudala aranzazco coroac iriquiric, eta ondoren iru entenga gogorrez arbola onetatican cincilica; zuc graciazco frutu gozo, ederra ar dezazun, Paraisuco beste arbola galgarrico fruta gaiztoaren ordañetan.

Bai, Pecataria, veguira zajoazu asperzaca Gurutze santuari; eta benetan orrembesterequiñ viguñduco zatzu cere viotz arritua, izotz ormatua; eta moguituco cerade naita ez damu, eta sentimentu andia, eta eguiazcoa cere viotzean artcera, pensatuaz, zure pecatu ichusi, mortal, ugariac era artan ifini erazo dutela. Egiaz dio Sn. Agustin Eliz jaquinsuac: Gurutcearen arbola suertoso ori dala Pulpito auqueracoa; cerren bertatican deadar eguiten dizuten Azoteac, zauriac; iseca, mesprecioac; aranzazco coroac, eta entenga gogorrac. Clamant clavi; Clamant Vulnera; Clamant Sputa, et verbera. Itz batean esan dezaquet Sn. Lorenzo Justinianorequiñ: ascoz guejago predicatu zuala JesuChristo gure Erredentore maiteac instante batean Gurutcetican, iru urteren buruan munduari predicatcen ibilli zan demporan baño. Esan zadazute ezpere, ¿Cerc convertitu zuan Lapurona, gurutzetic cincilica Jesus Nazarenoaren aldamenen cegoana? ¡O! Latro, quis te docuit adorare contemptum, et simul Crucifixum! Gucion partez, nere Christauac, Tertuliano jaquinsuac eranzungo digu: JesuChristo gurutz ilzaturic icusteac, arguiro, dana zan becela, eta eguiaz sinisteco arguia sortu ciola bere viotzean; eta beste gabe, icasi zuala bertatic. Guizona baña oraiñdican guejago zala, aimbeste pena, aimbeste afrenta, aimbeste tormentu, eta laceri triste sufriccen zuan guizona. Naturalezaz gañeco indarrac naita ez aurquitcen ciradela beragan, aiñ humiltasun, eta paciencia andian sufricceco aiñ pena larriac; eta naita ez ceucala ezcutaturic beregan guizatasunaren gaiñera Jaungoicotasuna. JesuChristoc eracutsi ciola, bere lagun lapurrari cargu eguiten arretaz, eta menaz ¿Neque tu times Deum? ¿Cer da ori orrela? ¿Ez daucazu zuc ere Jaungoico orren bildurric? Aiñ gogorturic daucazu viotza, aiñ ichuturic adimentua, nola iduqui duten egoera negargarri orretan ifini duten Soldadu, Borreroac. Zuc, eta nic mereci becela-co castigua sufriccen degu; bañan ori iñocente aurquitcen da, culparic batere ez dauca. Nos digna factis patimur; at iste injuste; ¿Quid enim mali fecit?

Ezagüera oso onequiñ, fede viciarequiñ, esperanza guttiz irmoarequiñ escatucion ondoren JesuChristori bere utseguite gucien barcacioa: Domine, memento mei dum veneris in Regnum tuum. Jauna oartu zaite niaz; erruquitu zaite, eta

miser cordia niaz. Luzatzaca, nere Christauac, eranzun cion JesuChristoc amodioz, eta gozorò: Gaur nerequiñ batera sartuco zaitut Ceruan. Hodie mecum eris in Paradiso. ¡O! Dimas, suerte, eta patu onecoa! Bañan ¡O! JesuChristo gurutzilzatuaren virtute, doai, eta escualde miragarria! Ogueta amar urte, eta guejago gaiztaquerian, dollorquerietan, lapurretan, eta eriotza eguiten ibillia zan Dimas, Sn. Anselmoc dioanez: il zuan azquenic bere Anaja, blasfemiaz bete zuan JesuChristo bera, Sn. Ambrosio, eta Sn. Buenaventuraren iritzian; eta aiñ aztura charretacoa zalaric; alaz guciarren ere, laster, ta supito becela etorri zan ezagüerara, iragarri zuan bere damu, eta sentimentu andi, eguiazcoa, JesuChristo gurutzilzatuari veguiratuaz beste gabe, eta irichi zuan gucien barcacioa, eta sartu zan seculaco Paraisu gloriáz garaituan. ¿Certaraco alferric necatuco naiz? Alcha itzatzute ceon veguiac, viotzaquiñ batera Gurutze santu artara, eta nai gucia irichico dezute ceon animen prochuan. Laster asco jausico cerate contuan, ceon gaiztaqueric, ceon zoraqueric, ceon liquisqueric, danza desonestoac, ordiqueric, jan, ta edan guejeguiac, erabagueco jocua, tratuac, eta usura madaricatuac ifini dutela JesuChristo gurutcearen arbolan; eta ondoren damu, eta sentimentu eguiazcoa iragarriaz, artuco dezute asmo irmoa, eta segurua verriro ceon deseoz ez gurutzilzatceco Jesus Nazarenoa, orañdaño becela gaiztaqueri, dollorqueri, eta aimbeste pecatu motarequiñ.

Vegui ra zajozute, diot berriz, ta berriz gurutce santuari; bada beste gabe convertitu zan Centurion Gentilla, JesuChristori ill ezquero lanza zorrotza sajetetic igaro ciona. Vere filius Dei erat iste. Beguiratuaz beste gabe, convertitu zan Sn. Lucas Evangelistac dioan gentetalde gucia, aditcen emanaz beren sentimentua pechuco, edo bularreco colpeaquiñ. Percutientes pectora sua revertebantur. Azquenic esango dizutet, Sn. Gregoriorequiñ batera: Millaca convertitu ciradela, icusiarequiñ bacarric, eta beste sermoi gabe, JesuChristoren laceri triste, negargarria. Multa statim de Judeis milia crediderunt. Autor dezagun bada gucioc erabat, nere Enzuleac, arretaz, menaz, eta eguiaz veguiratu ezquero ispillu arguian becela JesuChristo gurutzilzatuari, alferra dala belarrietara deadarca egotea; cerren batez ere ez det uste, ceratela aiñ viotz gogorrecoac, nola aiatu ditudan gente moduac; ajec icusiarequiñ Jesus gurutzilzaturic, conbertitu baciraden sermoi gabe; deritzat orobat moguituco diradela pecatari mota guciac penitencia eguiazcoa eguitera, ¡O! vos omnes, qui transitis per viam, atendite, et videte, si est dolor sicut dolor meus! ¡O! videzcoac, contuz icus zazute, ote dan nere pena baña andiagoric! esaten dizute JesuChristo gure Erredentore maiteac; bada contuz veguiratcea asco dezute, cargu eguiteco, ceon culpac diralarío ni onetara niazala zuen amodioz, eta dagoquizutela, ezaguturic egui au, nigana viurcea, nerequiñ adisquidetasunac eguitea, betico pecatuari, eta pecatuco videari utzita.

Empeñaturic aurquitcen naizan ezquero sermojaz, beatzaz eracutsi ezece, nai dizutet cerbait itz eguiñ JesuChristoren Eriotzaren gañean. Esca dezagun gracia esanaz: Ave Maria.

Crucifixerunt eum. Joan. Cap. 19

Ez det uste, nere Enzuleac, aguindu beciñ erraz, nere itza cumplituco deda-la... Eman det itza cerbait cearo aditcen ematea JesuChristoren eriotza lotsagarria, afrentagarria, eta alde gucietara negargarria, zuen viotzac moguitzeco sentimentu andi batera, gucioc zor diogun amodioarequiñ, penitencia eguiatzcoarequiñ, mesede oni al degun moduan eranzuteco; bañan senti det neregan larritasun, eta estutasun aiñ guztizcoa, ecen, deritzat nere ezurretaco icarac ez dirala utzico asnasaric arcen. Ez dezute onetan cer misterioric eguiñ; bada nerequico berbera guertatu citzajon Sn. Joan Evangelista, JesuChristoren Apostulu maiteari. Deritzat, cegoquiola, escribitzean Jesus Nazarenoaren eriotza, cearo ezarcea igaro ciraden pasaarte, edo guertaera guciac; bañan dacusgu, itz birequiñ issildu zala: Crucifixerunt eum. Gurutzilzatu dute. JesuChristoren vicitza santuaren lanvideac, eta mirariac ezarcen luzatu zuan Evangelista maiteac, eta conveni zalaric orobat ezarcea eriotzaren guertaerac, Christauen viotzetan beraganaco amodiozco sugarrac iracequitzeo, itz bitan gucia cabitcen du: Crucifixerunt eum. Gurutzilzatu zuten. ¿Cerc eragotzico ote cion Evangelistari luzamena cearo ezarceco Jesusen eriotzaco guertaera lotsagarriac? ¿Ez ote cequitzan guciac erabat, edo aaztu ote citzaizcan? Ez, nere Christauac, bere veguiz icusirican guciac cequitzen, guciac ceuzcan ondo gogoan; bañan oartuaz beste gabe, dio Sn. Simon Casitarrac, ilceco zorian jarten zala Evangelista maitea; mututuric guelditzen zala bere miñgaña, eta veguietaco negarraquiñ papera busti bai, bañan tintaz eciñ busti zuan, sentimentu, eta penaren indarrez.

*¿Nolatan bada nere laburtasuna bildurtu, eta icaratuco ezta, pensatcean barric, cerbait cearo aguertu bear ditudala Jesusen eriotzaren guertaera icaragarriac? Aguindu cion Jaungoicoac Noeri eguiñ cezala onci andi bat, eta arbatu citzala mundu gucico animal, egazti, eta pisti gucien artetic ar, emeac; eta sar citzala onci artan bere familiarequiñ batera; cerren gañeraco criatura vici guciac diluvioan, edo ugandian itto bear zutela. Eguin zuan esan becela Noec; eta sartu beciñ laster uganditican libre bear zutenac, bere escuz ichi cion Jaungoicoac oncico lejatilla, icusi etzezan laceri negargarri ura; cerren icusiaz beste gabe peligratcen zuan Noeren viciac, penaren poderioz. Ala dio Sn. Joan Crisostomoc: *Ut non ex spectaculi tristis aspectu, magis cruciaretur. Bada, nere enzuleac, Patriarca baten viciac peligratcen bazuan, icusiarequiñ bacarric gentea ugandian ondatu, eta ittotcen ¿nolatan nere argaltasunac iraun dezaque cearo azaldu, eta eracustean Jesus maitagarriaren eriotza mota lotsagarria, eta arrigarria? Onezaz langara, ¿nolatan espera dezaquet, nic esanta ere, zuec iduqui al dezaquezutela viotzic, eta quemenic aditzeo? Siniste onetan, ez det aimbeste deseatcen zuen aditceco arreta, nola damua, eta eguiatzco sentimentua; ez ditut aimbeste icusi nai zuen veguietaco negarrac, lantu, suspirioac, nola barrempena, atsecabea, ezaguturic munduco pecatuac diradela guertaera dolozcoaren sustrajac. Eta nola ere bait al dedan moduan asiera eman nai diot nere sallari.**

Arreta andiarequiñ, eta Guiza prestu leguera veguiratcen cion JesuChristoc bere creitu onari; etzan munduan beretzat deshorrta, eta afrentac adiña penatu,

eta naigabetzen zuan gairic. Bere pasio, tormentu, eta pena gucien artean etzan minzatu batere, bere creituan icutu bitartean. Preso artu zutenean Judasequiñ batera juan ciraden soldadu, borreroac, etzuan eracutsi, edo iragarri beste quejaric, baicican lapur bat izan baliz becela juan ciradela preso arcera: Tamquam ad latronem existis ... Esan nai zuan Jesus maitagarriac: ez det beneric sentitcen baicican arcen nazuten era chárra, eta deshonorragarria; betoz burla, escarnio, eta gañeraco mesprecio guciac; bañan iñolaere ecin eraman det afrenta, eta onetan iragarri diozcat nere sentimentu andiac Aita Eternoari: Quae non rapui tunc exolvebam. Jauna, lapurzat tratatcen naute; bada ala baninza becela pagatcen det, sufritzen det. Bacequitzen bai, eta ondo, cembait estimatcen zuan JesuChristoc creitu ona; argatic asmatu zuten Gurutzilzatzea, guejago, eta guejago penatzeagaitic. Dempora artan Hebreotarren artean gurutzilzatuai cerizten, Jaungoicoac madaricatutacoac ciradela. Maledictus, qui pependit in ligno. Guciac daquizuten gauza da, Calvarioco videan etsi zutenean gente villauac, etzala irichico Jesus Nazarenoa Gurutzilzatceco toquirá, guciá damu zuten beren setarequin eciñ irtena; bada amorraturic aurquitcen ciraden guciac ansiaz gurutzilzatceco, eta eman cioten lagun aitzahui abar Cirineoa, gurutze pissua eraman erazotzeco; ez por cierto erruquiz, bañan bai deshonorrazco eriotza lotsagarria sufritu erazotceco arraviagaitic; bitarteco deshonorraz gañera. Cegatibait etziraden aspertu ajen gogata nazcagarriac, Gurutctic cincilica deshonrra andian JesuChristo icusteraño.

Isajas Profeta santuac, cerbait, eta nolabait adierazteco JesuChristo gurutzilzatuaren deshonrra, esaten du: Vidimus, et non erat ei aspectus. Iкуси genduan; bañan etzegoan icustecoa. Burutican oñetara aurquitcen zan gucia zauri bat eguiñic; gorputz guztia odolduric; Criatura jaioc eciñ pensa cezaquean laceri triste negargarriagoric; A planta pedis usque ad verticem capitis, non est in eo sanitas. Sn. Eutimioc dioanez: bere aldamenetan gurutcetatic cincilica ceuzcan lapur, eriotzaguille biac etzuten icusi beren buruenzat, JesuChristo gure Jaunac icusi zuan adiña lotsa, tormentu, eta afrenta; cerren lapur gaiztoac etzituzten entenga gogorrez josi; bañan bai Jesus Nazareno justu, culpagabeco iñocentea: lapurren gurutzá buruetan etzuten ifini rotulo, edo titulu deshonorragarriric; bañan bai Jesusen gurutzá buruan. INRI. esan nai du: Jesus Nazarenoa Juduen Erregue. Eta gucien gañean Abacuc Profeta icaratu, lotsatu, eta bertan arrituta, zur, ta lur eguiñda guelditu bazan icusiaz beste gabe Jesus maitagarria Belengo Portalean; benetan icaratu, benetan lotsatu, eta arrituco zan, icusi baldin balu Calvarioco mendian, gurutz ilzaturic lapur biren erdian, narrugorrian, odolduric, zaurituric; guizonaren ichuratic etzuala, iñolaere eciñ ezagun zezaquean era penagarrian. ¡O! lotsa negargarria! ¡O! afrenta, deshonrra gucien artean afrenta burua. Leendavicico gucion Guraso Adanec, iñocencia galduric, icusi zanean larrugorrituric bere Emazteac bacarric icusten zuala, corrica, ta presaca lotsaz ezcutatu zan picupe batean, afrenta andi ura eciñ sufrituric; ¿cembateraño lotsatuco ote zan gure Jesus ona, icustean mundu guciaren aurretic larrugorrituric bere gorputza, eta eciñ ezcutaturic bere burua lotsa, eta afrenta gogor artatic? Daviden mandatariac etziraden trebe izandu aguerceco erdi jancian Amanita artera lotsaz; Evange-

lioco seme gaizto gaiztoari Aitagana viurtu zanean, ezagaturic bere gaiztaqueria, eta dollorqueri caltegarria, soñeco zaldanac ceriozcala, lotsaturic Aita era artan icusteaz bere seme galdua, bereala aguindu zuan, bere gala soñecoa janci ceguio-telá lotsagarriari: *Induite stolam primam. Contura zaitezte bada oraiñ, ¿cembaitetz guejago lotsatuco zan Jesus maitagarria larrugorrituric icustean bere gorputza, josiric iru entengarequin, eta coroaturic afrentaz, eta oñazaz aranza coroarequiñ, mundu gucien aurrean, eta guejago zana: bere Ama dolorosa guertuan cecusela?*

¡Ha! nere Enzuleac, miratzeco gauza da, nola Ceruac aserratuta, odei icaragarriz estalduta izar adiña oñazcar bialdu etzituan mundura bazter guztiac sugarrretan quiscaldu, eta deseguiñtzeco! ¡miratzeco gauza da, nola Aingueru guciac erabat jachi etziraden Cerutic suzco ezpataquiñ, Sn. Miguel Aiñguerua aguintari zutela Luciferren contra becela, venganza mundu guciarequiñ arcera! Betsamitac supito bertan illic guelditzeco, asco izan zan testamentuco cuchari, estalzaca vequiratzea; eta arritzeco gauza da, sufritzea Aita Eternoac escarmentu gabe, bere seme maite Jesusequiñ juduac eguin cituten dollorqueriac, mesprecioac, gaiztaqueriac, eta azquenic gurutzeco lotsa, eta afrenta gogorrac. ¡Ha! Pecatariac! Zuec ceratela mediante etzion Aita Eternoac barcatu bere Seme maiteari. Erabaquiric ceucan, Pecatariac Ceruco Erreinuaren jabe eguiteagatican, bere Semeac igaro bear cituala tormentu, pena, eta afrenta lotsagarri gogorrac. Oso cumplitu bear zuan erabaqui onec. Consumatum est. Alferric chit menaz Olivetaco baratzan erregutu cion Seme maiteac Pasioaren asieran, esanaz: Pater, si possibile est transeat à me Calix iste. Nere Aita viotzeco, iñolaere al bada igaro bedi nigandican Caliza samiñ au. Alferric onetan iru bider, ta iru orduan sajatu zan Jesus Nazarenoa. Non pepercit unico filio suo. Etzegoan arrazquero apeloric; bacequian sobraere Jesusec bere Aitaren verri: Sciens Jesus, quia venit hora ejus. Eta cegoquion becela iragarri cion Aita maiteari Seme maiteac, etzuala deseo beneric, baicican bere magestadearen vorondatea eguitea, ez berac nai zuana: Non sicut ego volo, sed sicut tu. Argatican ceramazquian onzat tormentu, pena, eta afrentagarrizco lotsa icaragarriac.

*Legue zaarreco Sacrificioetan aguiñduric ceucan Jaungoicoac Arcumari le-
envici quen cequiola larrua. Onembesterequin adierazo nai zuan aurrez, Jesu-
Christo Arcumeric mansoenari: Ecce Agnus Dei: quenduco ciotela soñecoac Gu-
rutze santuco Sacrificioraco. Ala guertatu zan. Bada bestela, Israelarren soñeco-
ac berroquei urteren buruan urratzaca conservatzen cituan Jaungoicoac: Non
sunt atrita vestimenta. Babiloniaco labe gorico sugarretan erretzaca, eta calteric
batere gabe gorputzac, eta soñac iru Galai prestuai conservatcen cequianari. Sn.
Joan Crisostomoc dioanez: Vestibus ob honestatem ignis pepercit. Eragotzi ceza-
quean, nai izatera, chit erraz Jesus maitagarria narrugorritzea. ¡Arritu bitez Ce-
ruac oraiñ aldian, aditcean honestidadearen beraren jajotera larrugorritu zutela
lotsa, afrenta, eta deshonrra guejagoraco! ¡Obstupescitae Caeli! Berberac sobra
ere adierazo zuan, gañeraco tormentu, pena, eta burla guciac baña ascoz gueja-
go sentitu zuala larrugorrituric egon bearrac gentetalde villau ajen aurrean; eta*

algaraz, chistuca, ojuca ajec icusteac berari lotsa, eta afrenta guejago ematea-gaitic. Laetati sunt adversum me, et convenerunt. Eta chit menaz alchatcen cituan bere viotzeco quejac Aita Eternoagana, esanaz: Tu scis improprium meum. Zuc beciñ ondo iñorc eztaqui, certaraño iristen dan nere lotsa, nere afrenta, eta deshonrra andia; bada dacuts, nere gorputz sagradua larrugorrituric, chori malo bat eguiñic, gucion parregarri.

¡Ha! nere Christauac! ¿onembesterequiñ uste dezute bucatu ciradela Jesus Nazarenoaren lotsa, eta afrentac? Ez, nere Christauac, ez; bada ill ezquero ere etzan aspertu Judu madaricatuén arrabia, eta envidi ichascorra JesuChristo lotsatzeaz, afrentaz betetceaz; cerren asmatu al guciac asmatu cituzten onetaraco. Etzituan ondo bere veguiac ichi Jesus maitagarriac soldadu zaldizco batec lanza zorrotzarequiñ erdiratu cion bere viotza auserdi andiarequiñ. Bacirudian Guizon gogor onec damu zuala JesuChristo guejago penatu gabe, guejago lotsatu, eta deshonoratu gabe il zalaco. Esan cezaquean, bere aleguiñaz conforme, beragan zanez, ez beiñ bacarric, baicican milla bider gurutzilzatu, eta ilgo zuala; milla bider deshonoratuco zuala milla aldetara. Cegatibait cioan Sn. Joan Chrisostomoc: lanzaz, ill ezqueroz alboa igaro cion soldadu lotsagabeac, deshonrra andiagoa eman ciola, Gurutzilzatu zuten borrero villauac baño. Guizàldi gucietan gorde zaizte beti cupide, eta errespeto andi bat gorputz illai. Il zan berez Alejandro, bere Etsairic gogorrenac traicioz erallatu, edo il nai zuten egunetan; eta ojec colera vician, eta amorraturic beraren contra cijoacen bere gorputz illa deshonoratceco asmo osoan, yaque viciric eciñ zuten ezqueroz. Bañan guertu ciraden becela gorputz illagana, erac lotsatu, bildurtu, eta cupitu ciraden; eta etzuten izan viotzic Alejandroren gorputzari bide etzan gauzaric eguiteco. Bacar bacarric cupide au, atzerapen au etzan aurquitu munduan JesuChristoren gorputz sagradu illarenzat.

Arere guejago: Legueac aguiñcen zuan gorputz illai ildaco egun artan bertan sepultura honrradua ematea; bañan legueaz aazturic, edo legueaz caso gabe, deshonrra guejagoraco utzi zuten Juduac JesuChristoren gorputz sagradua gurutzetican cincilica, jachi nai ezta, eta Sepulturaric emanzaca, eta obeatugabe. Non permanebit Cadaber in ligno, sed eadem die sepelietur. ¡Ha! gauza arrigarria! ¿Norc sinistu lezaque arrazoiz jancitaco Criatura bategan aurquitu ditequeala onembeste gogortasun, eta aïñ dollorqueri andiric? Argatican dio Sn. Lorenzo Justinianoc: Arcaitz guciac baña gogorrangoac cituztela Juduac beren viotzac; bada bestela, naita ez mugico ciradela erruquirra. Ondo merecirican madaricatu cituan Jacob Patriarcac. Maledictus furor eorum; quia pertinax; et indignatio eorum, quia dura. Eguia da, Patriarca Santuac itz eguiten zuala Simeon, eta Levi-requiñ; baña Sn. Agustinec dio: aurrez adierazten zuala Juduen lanvide dollorra, eta villaua.

Bañan bildur naiz, nere Christauac, maldicio au ceiñ irichi dediñ gaurco mundura vici moduaz, eta aztura gaiztoaz conforme. Bildur naiz ceiñ Jesus maitagarriac cargu estuac eguiten diozcan demporan Christauari bere gaiztaqueriaz ezece, baicican cerren esquergaiztoz pagatu diozcan mesede eguiñac, beragaitican sufritutaco pena, tormentu, afrenta izugarriac, ceiñ lotsaturic, eta seculaco

galdua guelditu ez dediñ Christau tristea. Billatu lezaque aitzaquiren bat Guizonac Adanen pecatua dalario veguiratuaz gure naturalezaren argaltasunari, misseri, eta laceri tristeari; bañan ez, bigarren Adan JesuChristoc ascozaz obetu zuala pensatcen badu bere eriotza lotsagarriarequin, eta eracusbideaquin. Eguiñ bequio cargu Christauari, cergatic dan aiñ argala, eta ichumen andicoa, beiñ baccarric ez bere gogoa, veguiac, eta pensamentua alchatceco ceruetaronz. Eranzun dezaque: cerren dan aus pisca bat, Job Santuac dioan becela: Pulvis sum. Eta autsa eciñ berez alchatu liteque lurretican. Galde bequio zergatic dan aiñ zabarra, eta erraza, non da edoceiñ persecucio, edo tentacioc jausi eraguiten diola pecatuan. Eranzun dezaque Job santuarequin berarequiñ, eta Sn. Pablo Apostuluarequiñ: cerren dan vaso, edo onci auscor lurrezcoa, eta eztala mira icutu batequiñ milla zati eguitea. Ex terrae materia fragilia vasa..., in vasis fictilibus. Itandu bequio deshonesto liquisquerian beti dabilen bati, cergatic naasturic, eta locatzatan becela loiturican vici dan asquerietan. Eranzun dezaque Job santuarequiñ orobat: Lugartoqueian jajoa, eta acia danac, eciñ eman dezaqueala asqueria, eta liquisqueri nazcagarria baicican. Cargu eguiñ bequio edoceñi, cer modutan, edo nolatan dan aiñ burugabea, eta ezagüera guichicoa, legueaz aaztu, eta bere gogaten erara vicitceco; esan dezaque David Erreguearequin: Adanen pecatua ezquero guelditu zala Abere bat, edo zaldi bat eguiñican batere arrazoi gabe: Factus sum sicut Equus, et mulus, quibus non est intellectus. Eta azquenic cargu eguitean bere gaiztaqueri ugariezaz; eranzun dezaque: eztala misterio milloica gaiztaqueria eguitea, gaiztaquerian sortu, gaiztaquerian jajo, eta gaiztaquerian oituac. Ecce enim in iniquitatibus conceptus sum, eta in peccatis concepit me mater mea.

Bañan nere Christauac, veguira bizte bacoizac, edo norc berac JesuChristo gure Jaunaren laguntasunai, eracusbideai, eta ematen diozcan gracia ugariai, Jaungoicoaren legue santua honratzeco, eta gordetzeco; veguira bequie ondo, eta arretaz Jesus maitearen mesede paregabeai, eta icusico du, nola egunen batean aitzaquiric eciñ iñolaere asmatuco duan. Eguiaz itaunduco dio gaurco egunean Eliza Santac gogoratzen dizquigun galdeerac: Popule meus, quid feci tibi; aut in quo contristavi te? Responde mihi. Nic libratu zaitut Egiptoarren mendetican; eta zuc josi nazu gurutze onetan. Nic guidatu zaitut Eremuan; eta sostendu zaitut berrogei urtean mana gozoarequin; eta zuc issequi nazu Arbola onetatican. Nic zu amparatceagaitic castigatu, azotatu, eta il nituan millaca Egiptoar zure Etsai gogorrac; eta zuc azotatu, aranzaz coroatu, veazun samiña esqueñi, eta il nazu gurutze onetan era afrentagarrian. Leguez, ta bidez esango digu gucioi erabat, Evangelio Santuan Sn. Joanen aoz dioana: Multa bona opera ostendi vobis ex Patre meo ¿propter quod eorum opus me lapidatis? ¡Ha! Cembait obra on eguiñ dizut, Christaua; ¿cergatic bada arrica eman didazu, preso artu nazu, burutican oñera zauritu, eta Gurutzilzatu nazu? Gucioc miratcen guerade santuen vicitzetan iracurten degunean beren salvacioaren gañean ceucaten bildurtasun guztizcoa. Sn. Pablo Apostuluac etzeucan beregan concienciaco quezcaric, eta alaere etzeritzan aurquitcen zala chit seguru: Nihil mihi conscius sum, sed non in hoc ipso justificatus sum. Sn. Geronimo andia juicioco eguna gogoratcen citzajon ba-

coitcean, bildurrez icara jarten zan, eta ceritzan contiño bere belárrietan zuala trompeta soñua. Sn. Hilarionec irurogueta amar urteren buruan penitencia icara-garriac eguinan; edoceiñ pecatari andiena beciñ bildur zan, Jaungoicoari eman bear cion contu estuaz. Baña gucien gañean, miratceco gauza da santu guciac be-ti cioten pecatari andiac ciradela, etzeuzcaten ecertan beren eguiñac, beren arre-ta, eta aleguiñac. Itandu cioten beiñ batean gure Sn. Ignacio andiari, ¿nolatan eguiac esan cezaqueten pecatariac ciradela, berac laco obra andiac eguin cituz-ten Guizonac? Eranzun zuan galdeerara: Da, cerren cierto daquidan, nic adiña mesede artu balute Jaungoicoaren escutican ascoc, eta ascoc, nic baña ascore-quiñ obeto eranzungo cioten mesedeen alde; pensamentu onec sarritan erasaten cion, viotza Cerura alchatuta: A judiciis tuis timui. Zure juicio altu, eta ezcuta-tuen bildur naiz; cerren egunoro mesedez betetzen nazu. Badaquit aleguiñ egui-ten dedala, zu ez aserratceco; bañan gauza guichi da au, zure mesedeac pagatce-co. Era onetan Santuac bildurrac icara bici oi ciraden, mesedeen alde, bear bece-la pagatcen etzutelaco Jaungoicoaren ontasuna, eta beraren escu emallea. Sn. Gregorio andiac argaitican dio: cembait eta andiagoac, eta ugariagoac diraden mesedeac; ambait eta andiagooa, eta estuagooa izango dala juicioo egunean car-gua. Quo magis augentur dona, rationes etiam crescunt donorum.

Santuac onela bildurrac; eta cer icara, eta estutasuna iduqui bearco ez du Pecatariac. Elduco da hordua, eta hordumuga, Christauac, mesede artuac infer-nu guejagoraco serbituco dutena. Contu, Gurasoac, irichi ez dediñ zuetaraño Jac-ob Patriarcaren esan degun madaricacioa; bada ceon contuaz ostein, emanqui-zun izango dezute ceon humeen aciera, oiturac, eta ceon faltaz, eta zabartasuna mediante eguiñ dituzten gaiztaquerien gañean. Contu, Ezconduac, cer moduz cumplitu dezuten ceon estaduco leguearequiñ; bata besteaganaco amodioare-quiñ, eta echeco burubideaquiñ. Contu, gazteac, ceon jolasaquiñ, gurasoen erres-petoarequiñ, eta itz batean Jaungoicoaren legue santuarequiñ; gazteac ceratela-co aazturic daucazuten Jaungoicoaren bildurtasunarequiñ. Contu, oraingo mun-duarequiñ, bada dacusgu alde gucietara lasaituric, zabarturic Jaungoicoric ez-paliz becela, ya ucatcen da bazterretan infernua, Purgatorioa, cerua, animaren betico vicia; ya animali leguera dala uste dute ascoc criatura arrazoizcoa, ez glo-ria, eta ez pena; ill ezquero eztala aurquitcen beste munduric. Au da nere Chris-tauac, infernuac gure España ederrean ereiñ duan zalca madaricatua; au da he-rege zaarren dotriña verritua; au da azquenic, verriro JesuChristo gurutz ilzatu nai izatea; eta afrenta guejàgoraco Gurutzetican cincilica obeatu, edo enterratu-tzaca utzitzea, Judu leguera.

¡Ea! bada nere Christaua, erruquitu, eta cupitu zaitex Jose, eta Nicodemus guizon prestuen erara; oartu zaitex zure dehez dagoala Ama dolorosa ori gurutce-aren oñetatic, eta esaten dizula chit menaz: ¡O! vos omnes, que transitis per viam, atendite, et videte, si est dolor sicut dolor meus! Icusi ote dan, dio, munduan Ama-ric, aiñ guziz penaturic! ¡O! nere Seme maitea, esango cion aldarte penagarri ar-tan, ondo penatceco jajoac guerade zu, eta ni; bat dirudi zure jajotzac, eta erio-tzac: bacarric ninzan zu jajotcean, eta oraiñdic bacarrago aurquitcen naiz zure

eriotzan: Belenen ez nuan ostaturic zu eguiteco; Calvarioco mendi onetan ez det sepulturaric zu obeatceco, edo enterratceco; ocollu batean jajo ciñan eta gurutze batean il cera; soasca triste bat izan zan zure jajotzaco cuja, eta embor pissu bat da il ceraden oja: mundura aguertu ciñanean Animali bi cinduzen lagun, eta il ceranean lapur eriotzaguille bi dituzu aldamenetan: Triste aurquitcen ninzan Belenen, icustean bâtez ere etzegoquizun egoera, tristeago aurquitzen naiz oraiñ vequiratcen zuri gurutzilzaturic, eta alde gucietara deshonrraturic: orduan edolaric nere besoetan aurquitcen ciñan; ¡hai! oraiñ bacenduzcat! ¡Cer pozaldia izango lizaquean neretzat! ¡O! nere Absalon maitea! arbolatic issequita zacust, ez porcierto cere ille motatic, baicican iru entenga gogorrez josiric. ¡O! nere Seme viotzecoa ¡norc leucaquean guizon prestu bat, edo beste zu Gurutce santu orretatican jaisteco! ¡O! nola orduan nere besartean zauzquedala, nere penac cerbait ariñduco liraquean!

¡O! Ama gucien artean Ama piadosa cerana! gucion Amatzat utzi zaitu gurutzetican cere Seme maiteac; Mulier ecce filius tuus. Seme onac, eta esquer onecoac gueraden becela, prestaturic aurquitcen guerade, zuri deseo dezun pozaldia emateco; zure Semearen Imagiña sagradua gurutctic irichi, eta zure magalean ifinteco. Badatoz, badatoz Jose, eta Nicodemusen erara zure Semearen ministro prestuac prestaera guciaquiñ gorputz sagradua ascatu, eta zuri aurreco aldera ecarteco.

Atozte, atozte zori hordu onean, Jaungoicoaren ministro maiteac; adora zazute belaunacaturic Jesus Nazarenoaren Imagiña sagradua; veguira zajozute ondoren Ama dolorosari; esan zajozute devocioz: Salve Regina. Jaungoicoac salva gaitzala gucioc, ceruco Erreguiña; laguncen dizugu cere pena andietan, eta gatoz zure Seme maitearen illeta honrradua celebratcera, artaraco escatzen dizugu licencia, Sacerdote leguera, Sacerdote gucien Sacerdote buruaren Imagiña Gurutctic iristeco, pozaldi bat izan dezazun cere pena gucien artean. Ceruac pagatuco dizutela dio Ama dolorosac mesede ori; eta ifini itzatzute Escallerac gurutzearen contra, eta igo zazute Arbola suertoso orretara, beraren frutu gozoa gozoró arcera. Ascendam in Palmam, et apprehendam fructus ejus.

Equiñ zaquitzo, Jose lanari; quen zajozu Gurutce santuari INRI. ori; burlaz eta mesprecioz ifini erazo zuan Pilatosec; bañan eguia, eta zana zan eran ezarri zuan letra orietan: Jesus Nazarenoa Juduen Erregue, diote letra oriec. Eguiazco Jesus; cerren dan gucion Salvatzallea, eta bere eriotzarequiñ vicia seculaco erosi diguna: Ipse enim salvum faciet Populum suum à peccatis eorum. Da Nazarenoa, ceruco lora eder, gozoa, gucion salvacioaren usai gozoa munduco bazter guztietara banatu duana. Ego flor Campi. Eta da eguiaz Erregue gucien Erregue, eta Jaun gucien Jauna, Ceru, lurraren Jabea: Rex Regum, et Dominus Dominantium. Eman zajozu Evangelista sagraduari, aurea ifiñi deguion Ama dolorosari. ¡O! Ama piadosa icus zazu arguiro ceri dagocala gurutzilzatu duten zure Seme maitea. Emisit spiritum, Il da bada Salvadorea dalaco; Juduen Erregue señalatua izatez, eta leguez dalaco: Redemptionem missit Populo suo. Izan zazu Ama dolorosa orretan pozaldi andia, eta cere gustocoa. Eman zajozu Aiñguerucho bati gorde dezan erreberenciarequiñ.

Zuc, Nicodemus, quen zajozu burutic aranzazco Coroa, eta alcha zazu, icusi dezaten: Videte Regem Salomonem in Diademate quo coronavit eum. ¡Ea! Pecataria, ara nun dezun zure pecatuen aranza gogor, zorrotzaquiñ eguindaco Coroa. Veguira zaquitzo, dagoquion, edo ez Ceruco, eta lurreco Erregue danari; zure Salvatzalleari; Dicipulu maiteac Ama piadosari eracusten dion bitartean pecatarien sari estimatu ori. ¡Orra Ama dolorosa! nun dezun zure Seme viotzecoaren buruan irurogueta amabi odol iturri iriqui cituan elor-aranzco coroa honrradua: orra Calvarioco mendian sortutaco Aguztu gozoa! Zure Semeac berac coroatzen ditu urre, cillarrezco coroaquiñ munduco Erregue guciac, eta Pecatari esquer gaiztocoac coroatu zuten, erac eguindaco Coroa deshonrragarriarequiñ. Quen zajozu aurretican Ama dolorosari dolorezco Coroa, eta eman zajozu Aiñgueru bati, gorde dezan seguru, juicioco egunean lotsatzeco Pecataria berac eguiñ dualaco Jesus deshonrratzeco.

Atera zajozu, Ministro devotoa, Escuico entenga gorra libratu dediñ escuico beso emalle ori. Bera da misericordia, eta gracia guciac partitcen dituan beso estimagarria David Erregue santuac autortu duan becela: *Salvum me fac dextera tua. Bere escu orretan dauzca ceruco, eta lurreco ondasun guciac, guci guciac partitzeco vorondate onarequin bere servitziarien artean: Et in manu ejus sunt omnes fines terrae. Mundu gucia testigo da, eta arguiro icusi ditu eguiñ dituan mirariac, eta mesedeac; eta David Erregue santuac menaz, ta atzeguiñ andiarequin dio: Misericordias Domini in aeternum cantabo: Eztala aspertuco beraren mesede andi, paregabeac publicatzen. Eguiaz dagoquizu, Pecataria, publicatcea; cerren sortu cinducen bere Eliza santaren Errajetan; cerren Bautismo santuan jancizun Ceruco gala soñecoa; cerren utzi cizun Sacramentu santuac pecatuen diluvio, edo uganditican libratceco; cerren azquenic epeac ematen dizquizun convertitzeco, eta pecatuen zor andia mundu onetan pagatceco, besteco zai egon gabetan. Eman zajozu Evangelista santuari eracutsi deguion Ama dolorosari. Veguira zajozu, Ama piadosa, gure pecatu lojac, gucion viotzeco suteguiian eguindaco entenga gogorrari, zure Seme viotzecoaren escu emallea josteco; verriro mesedeac eguiñ ez ditzan, catigaturic iduqui do pecatariac; ¡O! miseria! ¡O! choraqueria! ¡O! ichumen andia! ¡Cer izango lizaque guzaz, eta mundu guciac, ascaturican escu emallea, verriro luzatuco ezpalu mesedeac eguiteco! Izan zaitetz, Ama dolorosa, gure bitarteco, aaztu daquion gucion esquergabetasuna; guelditzaca bana ditzan gure viotzetara bere gracia; arguitu deigun adimentu-ezagüerara etorri, eta vicitza verri bat legue santu erara eguiñ dezagun, vicitza zaarrari alde bat utzita. Esperanza onetan vici nai degu, Ama piadosa, eta zure Seme maitearen gracion, eta adisquidetasunean ill nai degu, bere vorondate santua dan demporan, bitartean amatuaz, servituaz gueron aleguiñaquiñ. Eman zajozu Aiñgueruari gorde dezan erreverenciarequin muñ eguiñaz.*

Ascatu zajozu Ministro prestua Ezquerreco besoa; ori da Justiciaric zucene-na eguiten duan escua; bera da escualde guciaren besoa: *Et Regnum in manu ejus, et potestas, et imperium. Bera da mundu guztia Deabruaren mendetic libratceco, gurutcean luzatu zan besoa: eta ori bera izango da, egunen batean, mugaz*

sarcen ezpada Christaua, Infernuco sugarretara botaco duan besoa. Eman zajo-
zu Dicipulu maiteari, eracutsi deguion Ama dolorez inguratuari, justiciaren besoa
gurutcearen arbolari josita iduqui duana. ¡O! cer penac, eta naigabe pissuac da-
ramazquizun, Ama piadosa, bat banaca dolorezco instrumentuac cere veguiz da-
cutsula! ¡O! Pasio negargarria! ¡O! eriotza lotsagarria! ¡O! afrenta samiñac!
Eguiaz dirudite Ichaso ondargabea zure pena larriac! Magna velut mare contri-
tio tua. Quen zajozu aurretico entenga lodi ori, guejago penatu gabetanico Ama pia-
dosa orren viotz biguña; eta eman zajozu Aingueruari gorde dezan, Pecatarien
fiscal gogorra izan dediñ egunen batean, pecatuan gogorturico vici bada, peniten-
cia eguiñzaca,

Asca zajozu oraiñ oñac josirico dauzcan entenga lodia: Ez dituzu gure Jesus
ona, oqueta amairu urteren buruan alferrico pecatarien ondoren pausoac eman:
orra cer esquerrarequiñ pagatu dizuten. ¡O! Arzai gucienco artean onena! Contuz-
coa becela ibilli cerade munduan Ardi erratuen billa, cere sorbaldan amodioz ar-
tu, eta cere chaola segurura eramateco! Otz, beroai; busti legorrai, eta aldapa ne-
cosoai barcatu gabe, contiño zure alegiñac empeñatu dituzu, cere Ardienco prochu-
an: Ego sum Pastor bonus: eta azquenic eman dezu cere vicia, Ardiaco saluatea-
gatic. Majorenc caritatem nemo habet, ut animam suam ponat quis pro amicis suis.
Eracutsi bequio bada Ama dolorosari, Querubiñac almoadatza dauzcaten oñ sa-
graduac josirico iduqui dituan Entenga gogorra; Qui sedes super Querubin. Orra
non dezun, Señora, dempora batean graciaz betea becela, oraiñ penaz zaudena
zure Semearen Pasio santuco azquen señailea; orra zure Seme maitearenzat gogo-
rra bazan ere, mundutarrenzat biguña, eta gozoa dan entenga lodia. Dulce lig-
num, dulces clavos. Eraman zajozu Evangelista sagradua entenga ori Aiñgeruari
gorde dezan; eta alic leenena guerturatu bear zajo Ama piadosari bere Seme vio-
tzeoaren gorputz illa, icusi dezan guertutican.

¡O! Señora, Jerusalemgo Gloria, Israelgo poza, eta mundu gucico bide eta
dicha cerana! aldarte triste onetan eguiaz esan dezaquegu cerala Martirico gucienco
martiria: Regina Martirum: bada aurquitcen cerade alde gucietara penaturico; eta
alaz guciarren ere oraiñ bat batetan verrituco dirade pena guciaco, icustean zure
Seme viotzeoaren gorputz illa. Orra nun dezun! beste eratan iduqui cenduan Be-
lengo Portale pobrean: an adoratcen zuten cantu ederraquiñ Ceruco Aiñgeru,
Querubiñ, Serafiñ bienaventuraduac; emen ezta aditcen afrenta, gaizqui esaca,
eta viraua beneric. An Arzajac pozaldiarequin etorri citzaizcan mendietatic abe-
gor andiuquiñ belauicatu, eta alavatzera; eta gañera menderatu citzaizcan Erre-
gueac; guciaco erabat iduqui zuten Jaungoicotzat; eta emen gaitztratatu dute Gui-
zonac Abere bat izan baliz baña gaizquiago: Non est ei aspectus, neque decor. Be-
lengo portalean zan Jesus, zure poz, contentu, eta consuelo bacarra; eta da emen
zure viotz maitagarria batetic bestera igarotzen duan ezpata zorrotza ¡O! Zori-
gaiztoco Calvarioco mendia! Eta obeto esateco ¡O! zorigaiztoco Pecatua! Maria
cerade leguez, ta videz; baña Pecatariaco dolorezco Ama izatera ecarri zaituzte.

Quen zajozute guejago penatu gabetanico gorputz sagradua aurretico; eta al-
chazute gora, penatu baledi Pecatariaco icusiaz beste gabe. ¡Ha! cer motivo justua,

eta dempora egoquia, Christauac, sentimentu eguiazcoa norc berac bere artean iragarteco Jaun Divinoari! Esan zajozute viotceco negarraquin ¿Jauna, ni naizala medio alchatua da odei aserre au; ni naizala medio Ama Semeac igaro dituzte pena, eta deshonrra arrigarriac; ni naizala medio Jaungoico Guizonac sufritu do eriotza lotsagarria Gurutz ilzaturic? eguiaz bada mereci det, dolorezco ichasoan ondatcea. Si propter me exorta est tempestas ista, projicite me in mare. ¡Ea! Nere aditzalle devotoac, Gorputz sagradua illojan ifinten duten bitartean illeta honrradua celebratzeco, esan dezagun damu andiarequin: Nere Jesu Christo Jauna.

5.3. Crucifixerunt eum ... Joanes Cap. 19.

*Ez det uste, nere enzuleac, aguindu beciñ erraz nire itza cumplituco dedala: Eman det itza adierazteco JesuChristoren Eriotza lotsagarria, deshonrragarria, eta afrentagarria zuen viotzac muguitceco sentimentu, eta pena andi batera, gucioc zor diogun amodioarequin, penitencia eguiazco batequiñ, mesede paregabe oni eranzuteco; bañan senti det neregan larritasun, eta estutasun aiñ guztizcoa, ece nere ezurretaco icarac, ez det uste, asnasaric arcen ere utzico dirala. Cerbait baninzala neritzan nere artean, pulpito onetara igotcean; eta ez tet senti indarric nigan, esana cumplitceco. Ez dezazuela misterioric eguiñ: bada S. Jn. Evangelista sagradu bati berbera guertatu citzayon. Baderitzat cegoquiola JesuChristoren Dicipulu maite oni, escribituric utcitcean bere Maisuaren Eriotza, cearo ezarri bear cituala igaro ciran passarte, edo guertaera guciac; eta dacusgu itz bi bacarrac ezarri cituala: Crucifixerunt eum. Gurutzilzatu dute. Chit asco conveni zan mundutarrai adierazteco Jesusen fingabeco amodioa, cerbait luzatcea, arrigarritzco orduco guertaerac azalcen, JesuChristoren vicitza santuaren eguiteco, lanvide, eta mirariac contatcen luzatu zuan becela. ¿Cerc eragotci ote cion Evangelista Sagradu, maiteari cearo escribitcea? aiñ motz guelditcea Eriotzaren gañean itz eguitean gauza arrigarria da. ¿Ez ote ceucan cer esanic, edo aaztu ote citzazcan aiñ laster? Ez, nere Christauac, chit ondo cequitcen gauza guciac; berac bere veguiz icusi cituan; baña oartuaz beste gabe, dio S. Simon Casitarrac, ilceco zorrian jarten zala, juaten citzaizcala indarrac; eta mututuric becela guelditcen zala bere mingaña, itzic esateco quemen gabe, sentimentuaren poderioz: negarrez urturic bere veguiac malcoz bustitcen zuan papera, baña ecin zuan iñolazere tintaz busti. Aguindu cionean Jaungoicoac Noeri munduco Criatura gucietatit Ar Emeac, eta zorci persona gordetceco Cucha, edo Oncia eguiñ cezala, sartu ciran becin laster uraunditit libratu bear zuenac, Jaungoicoac berac itsi cion campotic Onciari leyatilla, icusi etzezan munduco desdicha, laceri, eta lamentu gogorra; cerren icusiaz beste gabe urtan itotcen cirala gañeraco munduco Criatura vici guciac, peligratcen zuan Noeren viciac, sentimentuaren indarrez S. Joan Crisostomoren iritcian: *Ut non ex spectaculi tristis aspectu magis cruciaretur.* ¿Cer da bada mira iritci neurc nigan aiñ confianza guichi iduquitcea sermoyaren gaya azalzeco aguindu becela, Evangelista sagradu bategan aurquitcen ezipazan contateco cearo bere Maisuaren Eriotza; Patriarca baten viciac peligratcen bazuan*

Gentea urtan itotcen icusiaz beste gabe ¿nola da posible nic cearo eracustea Tragedia izugarri, eta negargarri au? Arere gueyago: ¿nolatan espera dezaquet, nic esateco becela, zuec aditceco viotcic izan al dezaquezuela? Beragatic, nere Enzuleac, eztet aimbeste deseaten zuen atencio, edo arreta, nola Contricioa; ez ditut aimbeste nai icusi zuen veguietaco negarrac, eta suspirioac, nola barrempeco eguiazco lantu, eta sentimentuac. Eta ala, nolaerebait asiera eman nai diot nere sallari.

Aimbeste veguiratcen cion JesuChristoc bere creitu, eta estimacioari, ece ecerquere etzuan penatcen gueyago, nola deshonrrac. Bere Pasio, tormentu, eta atsecabe gucietan etzan minzatu batere, creituan icutu bitartean. Preso arceco demporan etzuan beste quejaric eracutsi, baicic lapur bati becela jua cirala amorraturic aren contra. Tamquam ad latronem existis... Esan nai zuan: eztet sentiitcen Preso arcea, baicic arceco modua; betoz burlac, eta mesprecioac, gueitu bitez tormentuac, eta penac Eriotzaraño, baña eciñ sufritu det deshonrraric, eta iragarrico diot nere sentimentuac gai onetan Aita Eternoari: Quae non rapui tunc exolvebam: Adizu, esango diot, Lapurzat tratatcen naute, bada lapurra banniz becela pagatcen det, padecitcen det. Ondo cequiten Juduac, cembait estimatcen zuan JesuChristoc bere honrra, eta creitu ona; argatic asmatu zuten Gurutzilzatcea, gueyago eta gueyago penatceagatic: Dempora artan Hebreotarren artean Gurutzilzatuac cerizten Jaungoicoagandic Madaricatuac: eta ez bacarric lapurrac, eriotzaguilleac, eta Errietaco Machinoac, baicic Chacurrac, eta beste Animalia sayac. Maledictus, qui pependit in ligno. Gucioc daquizuen gauza da. Calvarioc videan Gurutcearen carga pisuac lurrera zuanean JesuChristo, Juduac eman cioela gurutceari eusteco Simon Cirineo ceritzan Guizon bat. Edoceñec usteco do icusvide batez JesuChristori Carga pisua arinceagatic, eta mesede eguiteagatic lagundu zuela Juduac; baña zan videan iraungo etzualaco viciric, eta iraun cezan desonrra andian Eriotza lotsagarria Gurutcean sufrierazotceco.

Onelacoa izan zan Juduen gorroto, eta igüi amorratua JesuChristoren contra; etziran aspertu Gurutcean deshonrraric andiana Jaungoico Guizonari eman artean ayen asmo nazcagarriac. Ysayas Profeta Santuac adierazteco cerbait, eta nolabait JesuChristoren Gurutceco deshonrra esaten digu: Vidimus, et non erat ei aspectus. Iкуси guenduan, baña etcegoan icusteco. Criatura jayoc ecin pensa cezaquean laceri negargarriagoric. S. Eutimio dioanez bere aldamenean cincilica ceuzcan lapurrac baño ere deshonrratuagoa izan zan JesuChristo; cerren Lapurrac etzituen ilcez josi, baña bai JesuChristo: Lapurren gurutzburuetan etzuen ipini titulu edo rotuloric, baña bai JesuChristoren Gurutcean: eta Abacuq Profeta icaratu, eta arritu bazan espirituan icusiaz beste gabe Jesus amoriotsua Abere biren erdian Belengo Portalean; ¿cer esango zuan, eta eguingo zuan icusi balu Gurutzilzaturic lapur biren erdian? Azaz gañera; ¿Cer eratan? Ha! eziñ aurqui diteque izcunzaric deshonrra au andizcatceco: ezti mingañac laguncen esateco: baña ¿Cer eratan? Larrugorrian, nere enzuleac; ¡Ceruac izarrez; mendiac loraz, arbolac ostoz; eta fruta gozoz; animaliac lanaz, eta ille ederrez; egaztiac lumaz jazten dituan Jaungoico Guizona narrugorrian! ¡O cer pena; O cer lotsa andia;

*O cer afrenta ecinda gueyagocoa! Adan leendavicico gucion Gurasoa inocencia-
co soñ eder zuria galcean, oartu zan bere larrugorritasunaz, eta bere Esposa
Evac bestec icusten etzualaric, alaere lotsaturic berè artean aiñ afrenta andiaz,
iguesari eman cion bereala, eta picupe batean ezcutatu zan; Daviden mandatari-
ac erdi erancian Amanita artean lotsaturic beren buruac aguercera trebe ezpaci-
ran; Evangelioco Seme gaiztoaren Gurasoac bere Seniparte guztia ondatu, eta
aguertu citzayonean larrugorrian soñeco aztalzar guciac cerizcala lotsaturic,
presaca janci erazo zuan: Induite stolam primam. ¿Cembaitez gueyago: Lotsatu-
co ote zan JesuChristo gure Jauna cecusanean mundu guciaren aurrean larrugo-
rrituric bere gorputza?*

*Arritcecoa da nola Ceruac oñaztar icaragarriac bota etcituan bazter guciac
deseguindu, eta sugarretan quiscalceco; arritcecoa da, nola Aiñgueruac sufritu
ecinic auserdi deshonorragarriaren contra beren susco ezpataquin benganza artu
etzuen; asco izan zan supito illac guelditceco Betsamitac Testamentuco cuchari
estalzaca veguiratuaz beste gabe, eta izutu liteque bat aldarte onetan Aita Eter-
noaren justici bildurgarria suspenso, eta gueldi egotearequin. Baña Jaungoicoa-
ren providencia mirarizcoa da gucia; eta osorò cumplitu bear zuan beraren ara-
toitzac, edo erabaquiác. Esanic ceucan bada Jaungoicoac Legue zarreco sacrifi-
ciotan Arcumari leenvicic larrua quenceco; eta aimbisterequin aditcen ematen
zuan aldeaurrez JesuChristo eguiazco Arcume mansoa larrugorrituco zuela Gu-
rutzilzatu baña leenago. Bestela Ysraeltarren soñecoac berrogei urte osoan
urratzaca conservatcen cituanac; non sunt atrita Vestimenta: Babiloniaco labeco
sugarretan erretzaca, quiscalzaca iru Galai gazteren gorputzac, eta soiñac con-
servatcen cequianac S. Joan Crisostomoren iritcian: vestibus ob honestatem ignis
pepercit: eragotci cezaquean chit erraz, eta nayaz beste gabe soñecoa JesuChris-
toren gorputz sagraduari quencea. Icaratu vitez Ceruac: obstapercite Caeli, icus-
tean Honestidadea bera lotsaturic, afrentaz beteric, eta deshonoraturic. Jesu-
Christoc berac adierazten do beste bere Pasioco Tormentu guciac baña ascoz
gueyago penatu zuala Gurutctic cincilica larrugorrituric egon bearra gentetalde
villau ayen aurrean; oec burlaca, chistuca eta algaraz icusi bearrac afrenta, lo-
tsa, eta deshonrra gueyago emateagatic berari: Laetati sunt adversum me, et con-
venerunt: eta chit menaz quejatcen citzayon sentimentuaren poderioz bere Aita
Eternoari, esanaz: Tu scis inproperium meum. Zuc bacarric, Jauna, cere cabuga-
beco Jaquiundearequin neurri daiquezu certaraño iristen diran nere penac larru-
gorrituric icustean nere gorputza, eta chori malo bat eguinic gucion parregarri.*

*Eta asco ecic onela deshonorratcea, JesuChristo Lapurra becela lapur biren
erdian Gurutzilatcea larrugorrian; oraindic gueyagora zan Juduen arrabia, eta
puzoni gogorra bera deshonorratceco. Azqueneco asnasa eman ezquero Soldadu
gogor batec bere nayaz gañera beste escualderic batere gabe lanza zorrotzare-
quin erdibi eguin cion bere viotza; bacidurian colera vician sartuta Guizon onec
damu zuala JesuChristo gueyago penatu gabe, afrenta gueyago igaro gabe aiñ
laster ilcea: esan cezaquean bere eguituraz conforme beregan zanez ez beñ baca-
rric, baicic milla bider ilgo zuala; milla bider deshonorratuco zuala, argatic arra-*

zoi andiarequin dio S. Joan Crisostomoc, injuria, eta deshorrta andiagoa eguinciola soldadu lotsagabe onec lanzada emanarequin gorputz sagraduan ill ezquero Gurutzilzatu zuen beste juduac baño. Guizaaldi gucietan, eta lecu guztietan iduqui zaizte erruqui, eta errespeto andi bat gorputz illai; Etsairic andienac izanarren. Il zan berez Alejandro bere etsayac traicioz erallatu, edo il nai zuen egunetan; eta oec amorraturic aren contra, viciric cegoala deshonrratcea logratu etzuen ezquero nai izan zuen beren deseoa, ill ezquero cumplitu aren gorputz illarequin; juan ciran beren asmo dollorrac cumpliter, eta guerturatu ciranean icusiaz beste gabe illa cegoala, atceratu ciran, cupiturican, eta itzaliceran ayen colera vicien sugarrac. Bacarric cupide au, erruqui au, atcerapen au etzan aurquitu JesuChristoren gorputz illarenzat.

Azquenic onezaz langara icusi dediñ arguiro Juduac JesuChristoren contra ceucaten guztizco uguya, eta gorrotoa deshorrta guciac erabat beregaiñ egozteco, utci zuen cegoan becela gurutctic cincilica mezpreciaturic, desamparaturic iñore ere gurutctic jachi nai gabe, siquiera sepultura honrradu bat emateco legueac aguincen zuan becela. Non permanebit Cadaver in ligno, sed eadem die sepelietur. Eguiaz dio S. Lorenzo Justinianoc arcaitzac baña gogorrigoac izan balira ere ayen viotzac mugitu bear zuen arrazquero erruquir: ¡O Juduen gogortasuna; O gaiztaqueri ecinda gueyagocoa! Cegatibait mereci izan zuen Jacob Patriarcac bota cizten madaricacioa. Maledictus furor eorum, quia pertinax; et indignacio eorum, quia dura. Madarica dezala Jaungoicoac Juduen gogortasuna; madarica dezala beren gorrotoa. Bada orduan Simeon, eta Levirequin itzeguiten bazuan ere Patriarca Santuac aldeaurrez itzeguiten zuan Juduaquin S. Agustinen iritzi osoan.

Arere gueyago: bildur naiz, nere enzuleac, ceiñ itz eguinc ezan gaurco munduarequin Patriarca Santuac; Veguira Gurasoac ceure humen aciera charrari; veguira eren oiturari, eta aztura gaiztoai; veguira Ezconduac nola cobru ematen diztezuen ceon obligacio estu, eta andiai; veguira gazteac ceon jolasai; itz batean, veguira alde gucietara Guizaaldi onetaco munduari, eta icusico da gucia lassaituric Jaungoicoric ez baliz becela; gueroco Ceruric, edo Infernuric ezpalego becela; eta Santo Tomasec eracusten duanez, cembait aldiz Criatura batec peccatu eguiten duan, ambait aldiz Gurutzilzatcen do JesuChristo. Quantum in te est, iterum crucificatur Christus. ¿Cembait bider, Christaua, nai izan do JesuChristoc obeatu, edo enterratu zure viotcean, eta utzi dezu cincilica gurutcean Juduac becela? ¿Cembait bider deitu dizu Gurutce artatic bere inspiracio, edo goarguiarequin, eta zuc ezpaldac itzuli diozu?

Nere Christauac, dempora da esnaatceco lozorro orretatic: zabaldu itzatzu vegui oriec icusteco mugaz cere zorigaitza, Pecataria; valia zaitez fede santuaren argui ederraz ezagutceco JesuChristoren mesede hugari, paregabeac, eta cere utseguite gogorrac; Convertere ad Dominum Deum tuum. Itzuli itzatzu vegui oriec Gurutce santura; veguira arretaz, nola dagoan zure Jaungoicoa, zure eguillea gurutzilzaturic; narrugorrian cincilica; pensa ecin ditequean lotsagarriena, deshonrragarriena; eta penagarriena: Erruquitu zaitez veguiratcean JesuChristo cere Erredentore maitearen desamparua.

Baldin asco ezpada zure viotza erruqira mugitceco JesuChristoren egoera tristea; cupitu zaitza edolaric bere Ama piadosa orrec. Zure deyez dago, eta esaten dizu: *¡O vos omnes, qui transitis per viam, attendite, et videte, si est dolor sicut dolor meus! ¡Nor da galdua, eta ni! ¡icusi bada munduan Ama Semic aiñ penaturic, aiñ deshonoraturic? ¡O nere Seme maitea! esaten dio Ama piadosa onec; ondo penatceco sortuac guera; bat dirudi zure jayotzac, eta eriotzac: bacarric nincen zu jayotcean, eta oraindic bacarrago aurquitcen naiz zure eriotzan: an ez nuan ostaturic zu eguiteco, emen ez det sepultura bat zu obeatceco: ocollu batean jayo ciñan, nere Semea, eta gurutce batean il cera: soasca triste bat izan zan zure jayotzaco Cuya, eta Embor pisu bat da il ceran oya: mundura aguertu ciñanean Animali bi cinducen lagun, eta il ceranean Lapur bi dituzu: triste aurquitu nintzan Belenen icustean etcegoquizun egoera charra, tristeago aurquitcen naiz orain veguiratcean zuri Gurutzilzaturic, eta alde gucietara deshonoraturic: orduan edolaric nere besoetan ceunden ¡hai! orain bacenduzquet ¡O nere Absalon! issequita zacust; ez cere buruco illa motatic, baicic iru ilce gogorrez josiric. ¡O nere Seme viotcecoa! norc leuquequean Guizon bat, edo beste, zu Gurutce orretatic iristeco; eta nere besaartean zauzquedala, nere pena cerbait arinceco.*

¡O Ama gucien artean Ama piadosa! eta gucion Ama cerana! Mulier ecce filius tuus. Prestaturic daude, eta badatoz dempora batean Jose, ta Nicodemus becela, Jaungoicoaren Ministro bi, zuri gusto eguitera.

Atozte, atozte ordu onean Jaungoicoaren Ministroac, JesuChristoren Adisquide maiteac belaunicaturic adoratu ezazue humiltasun andiarequin beraren Imagiña veneragarria, eta itzuli itzatzue guero ceon auveguiac dolorezco Ama piadosa orreganonz; esan zayozue erruquiz beteric: Jaungoicoa izan dedilla gucioquin; iragarri zayozue ceon sentimentuac bere Seme maitearen illetan; esca zayozue licenciá Sacerdoteac ceraten becela Sacerdote gucien Sacerdotea Gurutzetic iristeco, eta bere besoetan, pozaldi bat izan dezan bere pena, naigabeen artean, ipinteco. Ceruac paga deguizuela mesede chit aundi ori eranzuten dizue Ama piadosa, erruquigarriac, eta ala presta itzatzue escallera oriec albait leenena gusto eguiteco, eta gueroztic sepultura honrradua emateco. Igo ezazue Arbola zorioneco orretara, arbolaren frutu gozo, egoquia jaistera: Adscendam in Palmam, et apprehendam fructus eius.

Ea zuc Josè equin zaquitzo lanari; quen zayozu Gurutce santuari Rotulo, edo aurquizquia ori. Pilatosec ipinierazo zuan burlaz, escarnioz, eta afrentaz; baña iracorri ezazu, icusi dezu cer ezarriric dagoan letra orietan: Jesus Nazarenus Rex Judeorum. Jesus Nazareno Juduen Erregue. Jesus porcierto; bada cera Salvado-rea, Mundua pecatuaren Catea, guirgillu pissuetatic ascatu, eta salvatu dezuna: Vocabis nomen eius Jesum; ipse enim salvum faciet Populum suum à peccatis eorum. Nazarenoa cera; bada cera Lora ederra, gure salvacioaren usai gozoa mundu gucian zabalcen dezuna: Ego flor Campi. Cera Erregue, eta eguiatz bada cera Erregue gucien Erregue, Rex Regum et Dominus Dominatum.

Jachi zaitetz eta eman zayozu S. Joan Evangelistari presentatu deguion Ama dolorezcoari ¡O Ama piadosa! iracorri, eta icusi ezazu cer motivoac, cer utsegui-

teac eguin cituan zure Seme maiteac Gurutzilatceco. Il da cergatic dan Salvadorea, lora ederra eta Juduen Erregue señalatua: Redemtionem missit Populo suo. Asco da Señora zuc ezagutceco Juez gogorraren maldade andia. Eman zayozu Aiñgerucho bati gorde dezan erreberencia andiarequin Rotulo, edo aurquizquiria justu, eta santu ori.

Ea zuc Nicodemus, quen zayozu Jesusen Imagiña veneragarriari burutic aranzazco Coroa bedeiñcatu ori, eta aguertu ezazu esanaz: Videte Regem Salomonem in Diademate quo Coronavit eum. Ea Pecataria, arà nun dezun zure peca-tuen aranza gogor, ta zorrotzaquin eguindaco Coroa; veguira zayozu ondo, dago- quion edo ez zure Salvadorea, zure Javea, eta zure Erregue danari prenda vali- uitsu ori. Eman zayozu Dicipulu maiteari eracutsi deguion bere Ama dolozcoari peccatarien sari estimatu ori. Orra nun dezun, Ama piadosa, zure Seme maitearen buruan irurogueta amabi zulo iriqui cituan Eloranzazco Coroa honrradua; orra Calvario mendian sortu dan Aguztu gozoa; ¡O dolozco Coroa, aimeste odol iturri iriqui dituzuna, eta ceifñ samiña ceran. Berac Coroatcen ditu munduco Erregue guciac Coroa valiotsuaquin, eta berari janci dio munduac aranza zorrotcezo Coroa deshonorragarria. ¡O esquergabetasun, eta dollórqueri andia! ¡O nola daquizun on eguiña gaitzarequin pagatcen! Quen zayozu aurretic gueyago penatu ez dedin Ama piadosa ori, eta entregatu eguiozu Aiñgerucho bati cuida- doz gorde dezan.

Atera zayozu Josè Escuico ilce gogorra, ascayozu Escuico hesoa; bada bera da misericordia, eta ondasunac zabalceco beso estimagarria, David Erregue San- tuac eracusten duanez: Salvum me fac dextera tua. Ceruac, eta lurrac, Ceruan, eta lurrean aurquitcen diraden ondasun guztia eguin cituana; Et in manu eius sunt omnes fines terrae. Bera da ecin conta ala mirarizco mesede bere demporan mundutarrari eguin diztena; Heriac sendatu, illac piztu, eta gose, egarriac ase di- tuana; guciac erabat esquergabeac izan badira ere. Zu, Christaua, izan zera au- tua, zu señalatua, edo apartatua; zu Elizaren erdian sortua; eta zuri dagoquizu bere misericordiac publicatcea David Erregue santuarequin batera: Misericor- dias Domini in aeternum cantabo. Eman zayozu Dicipulu maiteari presenta de- guion Ama dolozcoari, nic esaten diodan bitartean ¡O Ama piadosa! Veguira zayozu gure peccatu loyac gure viotceco suteguian eguin duan entenga gogorrari zure Seme maitearen besoa josteco: Orra aimeste mesede eguindaco besoa, be- rriz eguin ez ditcen nola josiric egon dan: baña ¿Cer izango dan guzaz, ascatu- ric, berrirò gure mesedean luzatuco ezpalu? Izan zaitetz bitarteco, aaztu daquio- la gure utseguiteac, gure esquergabetasunac; bada cera gucion Ama piadosa. Es- peranza onetan vicico guera, Señora; eta esperanza onetan il nai degu. Entrega zayozu Aiñgeruchoari erreverencia andiarequin gorde dezan.

Zuc Nicodemus, asca zayozu Ezquerreco besoa, ori da justiciaric zucenena eguiten daquian besoa; ori da escualde guciaren besoa: Et Regnum in manu eius, et potestas, et Imperium: ori da Mundu guztia deabruaren mempetic libratceco Gurutcean luzatu zan besoa: Eta ori izango da egunen batean, mugaz Christaua oarzen ezpada, Infernuco Lecean ondatuco duan besoa ¡Eman zayozu Dicipulu

maiteari Ama Dolorez inguratuari eracutsi deguion ;Orra nun dezun, Ama piadosa, Justiciaren besoa cincilica iduqui duan Ilce gogorra ;O cer penac, cer naigabeac daramazquizun Ama gucien artean penatuena! Cembait bider cere veguien aurrean dacutsun zure Seme maitearen Pasioco señalearguiac! ;Norc bear becela adierazoco ditu zure viotz maitagarriac daramazquian larritasunac. Magna est velut mare Contritio tua. Ondargabea da Ichasoa, eta ondargabeac dira zure pena triste gogorrac. Quen zayozu aurretic ilce ori gueyago penatu bagueric, eta eman zayozu Aiñgueruchoari gorde dezan cuidaduz.

Ea Jose piadosoa, Asca zayozu Entenga gogorrarequin josita dauzcan oñac ;O nere Jesus maitagarria! ez dituzu alperric cansatu oiñ sagradu oriec ogueta amairu urtean pecatarien ondoren ;O Arzairic contuzcoena! beti Ardi erratuen billa ibilli cerana, cere sorbalda gañean ipini, eta chaolaratceco: orra nolacoa izan dezun cere aleguiñen pagua: Eracutsi bequio Ama piadosari; icusi dezan Querubiñac almoadatatzat dauzcaten oñac josi dituan Entenga gogor ori: Qui sedes super Cherubim: Orra nun dezun, Señora, dempora batean graciaz betea, eta oraiñ penaz, eta dolorez inguratua, orra nun dezun Zure Semearen pasioco azquen señalear: orra zure semearenzat gogorra bazen ere, mundutarrenzat chit gozoa, eta suabea dan Ilcea; Dulce lignum dulces clàvos, eta aimesterequin larga zayozu Dicipulu maiteari eman deguion Aingueruari gordetceco; eta aliq leenna cere Seme viotcecoaren Gorputz sagradua cere besàrtean icusi dezazun.

Guizon piadosoac, arrima zayozue Gorputzill ori Ama dolorezcoari, eta esan zayozue ona nun dacargun Señora Jerusalengo Gloria, Israelgo poza, eta Mundu guztico honrra, ta dicha cerana, Tu Gloria Jerusalen, tu laetitia Israel, tu honorificentia Populi nostri. Ona nun dezun zure Semearen Gorputzilla: Beste moduz iduqui zenduan Belengo Portalean, an adoratcen zuen Arzayac, eta memperatu citzaizcan Erregueac: an iduqui zuen Jaungoicotzat, eta emen oraiñ tratatu due abere bat baña gaizquiago: non est ei aspectus, neque decor: an Añgueruac alabatcen zuen cantu ederraquin, emen virautcen due gaizqui esaca Guizonac: an inguratcen zuen alde gucietatic Ceruco bienaventuraduac, emen ez dacust Soldadu, Borrero gogorrac beneric: an zan Jesus zure poz contentu bacarra, eta emen da zure viotzaren martirio samiña, eta garratza. ;O zorigaiztoco Calbarioco Mendia! edo obeto esan dezadan ;O zorigaiztoco Pecatua! ;O nola leguez, ta videdez esan dezaquezun, Ama dolorezcoa! ez deitceco zuri emendic aurrera Maria, baicic beazuna beciñ garratza.

Quen zayozue aurretic aimeste penatcen duan Gorputz ori, eta alcha ezazue gora Pecataria icusita pena baledi: Ha cer motivo justua, eta dempora egoquia, Christauac, norc berac bere penac, eta bear becelaco sentimentu eguiatzcoac iragarteco! Esan zayozue chit menaz, eta viotzeco negarraquin Jonas batec becela: Si propter me exorta est Tempestas ista projicite me in mare: nigatic alchatu bada odei aserre au; ni naicela medio Ama Semeac aimeste penatu badira; bota naza, eta ondartu naza Ichaso odolezco orretan. Jaungoicoaren Ministroac Cerraldoan ipinten duen bitartean esan dezagun gucioc viotcetic: Nere Jesu Christo Jauna.

5.4. Lo dispuso el Dor. Dn. Jose Feliz de Amundarain. Como por las funciones largas de Iglesia, Pasion, y cumplimiento de Pascua, no se predica Domingo de Ramos en las Parroquias; por eso me ha parecido llenar el hueco con este del descendimiento, de donde se podra tomar para dia Viernes Sto. por la tarde donde se celebre el Descendimiento De la Sta. Cruz.

Et ego, si exaltatus fuero à terra, omnia traham ad me ipsum. Joann. 12.

Jesu Christo gure Jaunac, daquizuten becela, nere Enzuleac, Gurutze santuan ilcez josiric erridimitu guinducen guztioe Deabruaren mendetic; arrazoi izango da bada nere iritzian, gucion veguiac beragan josiric egotea. *Aspicientes in Auctorem, fidei, et consummatorem Jesum, qui prosito sibi gaudio sustinuit crucem. Ala dio Escritura Santac: Veguira zajozute arretaz fedearen autoreari, eta ceon fedea irmotu zuan Jesusi; ceñac atseguñarequin sufritu cituan Gurutzearen oñaza, eta afrenta andiac. ¿Nori gustorago veguiratuco dio Seme batec, bere Aitari baño? bada daqui berac eman ciola izatea. ¿Ceñi veguirà jarri diteque obeto Esclavo bat, bere jabeari baño? daquian ezquero berac libratu duala pri-siotic. ¿Nori veguira dizoque poz guejagorequin gaisso batec, sendatu duan Medicuari baño; berriztutcea suerteac emango balio ere, sendatu dezan? ¿Nogan bere veguiac, bere viotza, eta esperanzac ifinico ditu pobre, miseriz inguratu batec, Aberatsagan baizic; baldin badaqui onec, edo arc janci eta estali duala bere premi ordu gucietan? Itz batean esateco: ¿Nori veguiratu dizoque obeto, atseguñaz, eta esperanza oso, eguiuzcoarequin Christauac, JesuChristori baño; ceña cierto daquian izan zala guztionzat, eta guztiona erabat, eta alde gucietara? Bera izan zan, eta da veguiac itsuenzat; oñac elbarrituenzat; baculua argalenzat; poza, ta contentu guztizcoa triste, penatuenzat; libertatzallea preso, Cativoenzat; archibo aberatsa pobreenzat, eta vide zuzena gucion salvacioraco. Motivo justu ojen medioz gaur Eliza Ama Santac celebratcen digu Gurutze santuaren jaja; aaztutzaca beti gogoan iduqui ditzacun, beragandic etorri zaizcun mesede ugariac; verrirò espera ditzacun ere, premiazcoac gueran becela.*

Apenas izan da dempora, eta aldarte negargarriagoric Christan artean Cosrroar Persiaco Erregue Tirano gogorrac Africa, eta Egipto erri guztia goituric, arrotasun andiarequin Jerusalengo Ciudadea menderatu, gentetalde andia il, eta galdu zuana baño. Ya etsi zuten Christauac Christandadeaz; batez ere icustean, Tirano gogor onec, Heraclio Emperadorearen erreguz ere, etzituala nai paque afrentagarriac edolaric eguiñ, calte arrigarriai fiñ emateco. Baña Gure Jaungoico onari esquer milla; cerren eracusten daquian bere gucialtasuna premiaric estuenetan, aldarteric bearrenetan; gogoan iduqui dezan beti Christauac, eta mundu guciac beraren ontasuna, beraren erruquia, beraren escualdea.

Supito, beiñgoan, batbatetan aldatu ciraden goicoaz beera, eta bécoaz gora gauzac: ez nola, eta ez ala Christau banaca batzuec ajenatu zuten contraco soldadesca gucia; sacabanatu ciraden batera bestera; eta alaco miserian, alaco trance estuan icusi zan Siroc, Cosrroaren Semea, eze naitaez jarri zan bera paque lotsagarriac eguitera, Christauaquin burutuco bazuan. Ifini cioten leendavicico condicioa: Amalau urte zala, ostu, eta berequiñ eraman zuala Gurutze santua, eta

aide gorrian viurtu cezala, paqueac eguita nai bazuan. Esan becela jarri zan artara, eta bertan mirari andi batequiñ señalatu zuan Jaungoicoac egun suertoso ura. Bacetorren Heraclio Emperadorea bere gurutce santuarequin urre galoi, eta cillarra ceriola, obe bearrez, Calvarioco mendian Gurutce santua entregatcera; eta orra non, ez atzera, eta ez aurrera pausoric eman zuala jarten dan sarreran bere gurutce santuarequin; etzan moguitu Emperadorea eguiñ al guciacgaitic, ariqueta Urre-cillarrezco soñecoac eranci, eta soñ pobre batzuaquin estali, cilicioz cargatu, eta Jesu Christoren beraren humiltasuna, eta pobreza eracutsi bitartean.

Guertaera onec gogora ecarri dit Sn. Agustinen esana: Jaungoicoac onzat ematen dituala, edo permititcen dituala aldarte, eta guertaera charrac; bere ontasunari, eta gucialtasunari distiatu eraguiteco prochuzco gauza onakin; argatic nai izan zuan Christauac sufritea negargarrizco pena icaragarriac bitartean; gueroztic pozaldi andiarequin Gurutce santuaren gloriac, eta alavanzac canta citzaten. Cegatibait esaten digu gaurco Evangelio santuac: Ego si exaltatus fuero à terra, omnia traham ad me ipsum. Nic, lurretic alchatcean, niganaco ditut gauza guciac. Alchatceac esan nai du, Jesusen eriotza gurutz ilzaturic; eta beraganatceac esan nai du, gucioc salvatcea nai duala.

Pensa zazute oraiñ; ¿ceiñ poz andia izango zan Christauena, bere paragean icustean Gurutce santua; cer humiltasunarequin adoratuco zuten; cer devocioarequin alavanzac Jaungoicoari cantatuco cioten? Baderitzat, Jerusalengo Ciudad de galdu, desegundua berritcean, Juduac iduqui zuten poza, Christauac orduan iduquico zutela. Ciudad de ederra bere edertasunean icusi zuten zárrac, penaz negarrez urtutcen ciran; besteac pozaldiz farre, eta algara eguiten zuten, icustean leenagoco legue zárrac cumplitcen cijoacela, Jaungoicoari honrra emanaz; gucion artean alaco iscamilla ateratcen zuten, ece, etzan ezagun ez farrea, eta ez negarra. Nec poterat quisquam agnoscere vocem clamoris laetantium, et vocem fletus Populi. Alde batera, justuac ciraden negarrac, jaquitean infiel artean Gurutce santuari eguingo cioten charqueriac, eta mesprecio andiac; beste aldera justuac ciraden farre algarac, icustean pocic ascocorequin, bere lecuan Gurutce santua.

Eliza Santac pozaldi onetarà convidatcen gaitu Gurutce santuaren egun onetan, devocioz, eta atencioz pensatuaz beraren misterio andiac. Aspicientes in Auctorem fidei... Ondo, ta bear becela eguiteco, diote Eliz-Guraso Santuac, Adoratu bear dala Gurutze Santua; eta norc berac berequin eraman bear duala. Bear dala adoratu; cerren bere besaartean il zan JesuChristo; bear duala eraman norc berac, cerren daramagun erara, berarequin unituric, logratuco ditugula Gurutce santuaren frutu onac, gueron salvacioraco. Gurutce Santua eramatea, eta adortcea, da Christauaren suerte onaren señaile ciertoa; bata bestearequin da prochuzcoa; contrara adortcea bacarric, eramatea bacarric, gauza alferra da; cumplimentuz, edo obeto esateco guezurrez JesuChristorequin cumplitcea dá.

Gentillac, burla eguingo lucate, icusiaz beste gabe, Christauac Gurutze Santua adoratcen duten modua. Gentillac beren Idolo falsoai iru adoracio mota ematen dizte: leenbici erreverencia, ta humiltasun andiarequin adoratcen dituzte; Eren sacrificioac esqueinten dizte ondoren; eta azquenic ifinten dute eretan beren

confianza osoa; bada iru modu ojequin nai du Jaungoicoac Gurutce Santua Christauac adoratcea. Ala da, nere Christauac; Gurutce santua adoratcea, bear becela, eztago nola nai muñ eguitean; baicic humiltasunarequin, erreberenciarequin, eta Gurutce santuaren misterioac pensatuaz; gurutze santuaren virtutez JesuChristo gure Jaunac eguin cizquigun mesedeac gogoratuaz, esquer onarequin pagatceco: *Aspicientes in auctorem fidei, et Consummatorem Jesum.* Gurutce santuac icaratcen do infernu gucia, eta infernucoen munduco languiñ gaiztoac.

Luteroc, beregan amorraturic, esaten zuan: *Icusiaz beste gabe bere egercico Banderan Gurutce santua, iguesari emango ciola, Demonioa icusten balu becela.* Calvinoc etzion gurutce santuari Luteroc baño legue guejago; bada debecatu zuan gurutcea eramatea pechuan, edo lepotic béra usatcen zan eran; eta escandalizaturic aguinta onequin, norbaitec cargu eguiten bacion utseguite icaragarri azaz; esaten zuan: bada igüi badezute, alde eguiñ; veguiac atera, edo urcātu zaitezte. Orra certaraño ichutcen duten Guizona bere pasioac; orra certaraño dacarten bere aztura, eta griña gaiztoac; leenvicitic menderatcen ezpaditu gurutce santuarequiñ laztanduta, bear becela adoratuta; beraren misterio santuac ondo consideratuta. Sn. Pablo Apostuluac cequitcen ondo Gurutce santuaren virtute andiac; argatic cioan: *Ez dezala nai izan Jaungoicoac, ni bestegan gozatcea, Gurutce santuagan baicic.* Absit mihi gloriari, nisi in Christo Jesu. Sn. Agustinec esaten digu: *Igo gaiteala Gurutcearen gañera, Zaqueo picugañera becela, JesuChristo gure Jauna ondo icusteco; eta eraman dezagula beti guerequiñ gueron consolagarri, amparagarri; eta gueron animen Etsajac ajenatceco.* Devocioz adoratu beza Christauac Gurutce santua; pensatuaz, dalà, lurretic Ceruraño iristen dan Escallera segurua. Sosega gaiteala beragan; au da, egon gaiteala gurutcearequin alcarturic, eta laztanduric; maite degula adierazteco, ondo maite izan zuan gure Jesu maitagarriari. *Scalae incumbere, quid est nisi in Cruce pendére.*

Christauac, Gurutce santua adoratceco, beragan esperanza iduquitceco, eta bera esquer onez pagatceco devocioa, icasi beza bere Aasaba zárretatic; bada erac izandu ciraden maisuric onenac gai santu prochuzco onetan. Ala diote Sn. Geronimo; Sn. Paulino, Sn. Cirilo, eta beste Eliz-Guraso jaquinsuac. Jaungoicoac berac esaten digu: *Ez ezazute ifini batez ere ceon esperanza munduco Principe, eta guizonen semeetan; cerren alferric necatcea da; bada ez dezute aurquituco deseo dezuten gauzaric.* Esan vizó Christauac humiltasunez beteric confianzarequin: ¡O! nere Jaungoicoaren Gurutce santua; zuri avegor eguiten dizut ¡O! nere Jesus Gurutzilzatua, zugar daucat nere esperanza gucia; cerren nai gucia eguiten daquizun, eta cerren Gurutce santuaren vitez, erredimitu ninduzun, cere amodio paregabea Gurutctic eracutsiaz.

Esan bequio Christauac viotzez, ta chit menaz Gurutce santuaren Arbola sagrauari, vicitzaren arbolari: *Bedeiñcatua, eta honrratua izan zaiteala secula gucian, ta alde gucietara Erredencioco Arbola noblea: áztu bedi onezquero Noeren Cucha, ceñetan libratu ciraden persona banaca batzuec; áztu bedi, Usoac mocoan ecarri zuan Oliva adarra, paquearen señalean; baita ere Jacob Patriarcac Jordango Ivaja igaro zuan baculua; Moisesec iturri ugaria sortu zuan maquilla; eta beste gañeraco*

Gurutcea adierazten zuten figura, edo señaleac; eta bacarric gogoan, eta guerequin iduqui dezagun Gurutce santua bera, pozic ascorequin adoratcen degula devocioz.

*Baña justeco dezute bearbada devocioa, fedea, adoracioa, eta confianza eguiazcoa, iduqui dezaqueala, Christauac, Lezora, Legazpira, eta beste lecueta-
ra promesac eguiñarequiñ; noiz festa dan, noiz gente gejago dan, orduan tropico-
ca juanarequiñ, ceon andereac besoetan dituzutela; ojec, eta zeon buruac eracus-
teagatic; itoca, ta presaca Elizan sartu, muñ eguiñ, eta andican danzara, jatera,
eta edátera joanarequiñ; nun da nere gogoa, an da nere zancoa batera bestera
ibilliarequiñ, pichilotac becela burutic oñera apaiñduta, eta fantasia besteric ceo-
tan icusten eztan moduan? Ezez deritzat, eztala au Gurutce Santuac escatu, eta
mereci duan devocioa, eta adoracioa; onelaco juerac, eta promesac, deritzat, di-
rala aitzaquiac orrutz, onutz ibilteco; ojuz, algaraz, iji, ta aja vidétan jostaquetan
zoraturic, burutic jausiric, ibilteco; Echétan burubide charrac icusteco, Echeac,
eta Echeacoac lur, azqueneraco, jotceco. Christauaren ispiritual santuen ispiritua
izan bear du, promesetara, eta Erromerietara juateco; onelacoac ateraco dituzte
frutu onac, irichico dute nai gucia; baña anca ariñac, Marichu videtacoac, eta
danzariac, gurutcea, eta santuac aitzahui artu eta Deabrua erequin izango dute.
Pensa beza Christauac, Gurutcea adoratcea humiltasunez, devocioz, eta Gurutce-
aren misterio andiac pensatuaz, Christauaren léndavicico obligacioa dan becela;
ala norc berac Gurutcea eramatea dala bigarren obligacioa.*

*JesuChristo gure Jaunac berac esana da: Qui vult venire post me... tollat
crucem suam et sequatur me. Nere ondoren etorri nai duanac, artu beza bere Gu-
rutcea, eta jarrai bequit. Dio: norc berac bere Gurutcea; aditcen emanaz; norc
berac bere estaduco cargac, eta obligacioac jaso bear dituala, bear becela cobru
emanaz: Echecho juan etorriac, trabajuac, naigabeac pacienciaz, sufrimentuz, Je-
susen amodioan eraman bear dirala; lagun Progimoaren esa-mesac, chisme, ta
embusteriac orobat pacienciaz, eta amodioz; ez batzuaquin guertatcen dan eran,
itz'bat esan orduco Quirquirrac becela issilzaca jarri, auzoac escandalizatzerano
demandan, errejuan; diranac, eta ez diranac batac besteari eranzunaz; Alcateta-
ra verriro demandara juan; Erricoac, eta Erbestecoac escandalizatu; eta Guru-
tcea jaso bearrean, Deabrua viotzeratu, infernura bitarte gucian.*

*Jesus maitagarriac ala Gurutctic, nola Gurutctic campora eracutsi cigun
gurutceac, penac, iseca, ta burlac humiltasunaz eramaten, obrac; ez itzez baca-
rric; eta bera imitatceco, beraren eguiturai veguiratu bear diztegu; eta berari es-
catu artaraco graciac, eta laguntasuna, gueron indarretan fiatzaca. Sn. Pedroc
esan cion ustez bere Maisu Jesusi: Jauna, nere odolaren Costura ere jarraituco
dizut; baña laster, eta ariñ asco ucatu zuan. Sto. Thomasec berarequiñ batera il-
cea deseo zualaric, bildurrac artu; eta alde eguin zuan iguesi. Jerusalengo ala-
vac negar gogotic eguiten bazuten ere; laster utzi zuten Jesus bacarric, eta Ber-
dugoen escuetan: Etzan juan bat bacarra Calvarioco mendira. Juan gaitean bada
bertatic gucioc; lagundu gaitean berarequin, laztandu, eta eutsi dizogun irmo
Gurutze santuari; bear becela adonatu, jaso, ta eraman mundu onetan; eta bera-
requin triunfo andian, igo gaitean Ceruco Erreynura Amen.*

5.5. Dom. Penthecost. Pacem meam relinquo vobis. Joan. 14.

Evangelio santuac dio: JesuChristo gure Jaunac bere pasio, eta heriotza sufritu baña lènago, eguin ciztela bere Dicipuluai, eta ojen buruan gucioi Sermo andi bat; eta misterio altu, ezcutatuac aguertu, eta azaldu ezqueroz, esan ciztela: Jaquiñean zaudete, eta jaquiñean bego Christau gucia, ni amatcen nabena amatu, eta gorde bearco duala arretaz nere Legue Santua; eta ordañetan onelacoa estimatuco duala nere Aita Eternoac. Trinidad Santissima Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua izango guerala berarequin graciaz eta Templo sagradu batean becela jarrico guerala bere animan, eta viotcean chit gustora, paquez, eta atseguin andiarequin. ¡O! cer dicha nere Christauac, anima justu batenzat; bada mundu onetan aurquitcen dan bitartean ere, merci du Trinidad Santissima berequin egotea Jaungoicoaren gracia, eta adisquidetasunean conserbatcen bada. Baña jaquin beza peccatariac, dio JesuChristoc: Dicha, eta zorion au ez duala logratuco; cerren Legue Santua ausi ezqueroz, eguiten dan Jaungoicoaren Etsai igüicoa; bada ezta posible Jaungoicoa amateca bere Legue Santua gordetcen ez duanac; ezta ere Jaungoicoac bera amateca, cerren amodioa amodioarequin pagatcen dan.

Orañ eguiten dizuedan sermoi au ezta nerea, esaten cizten JesuChristoc bere Dicipuluai, baicic dá nere Aita Eternoarena; icaraturic zaudete ceon artean nere pasio, eta heriotzarequin, eta argatic ez dezute ondo aditcen cer esan nai dedan; baña laster jachico da zuen gain Espiritu Santua, eta berac arguituco dizute adimentuac, eta orduan etorrico cerate ezagüerara nic esaten dizuedanaz, eta Eliza santa gobernatceco bear dezuten gañeraco guciaz. Haviatceco nago nere Aita Eternoagana, eta uzten dizutet paquea herenzian: Pacem relinquo vobis; eta Paque au ezta iraupen guchico munduco paquea, baicic da animaco paque zorioneco, gozoa, eta iraupeneco, munduco paqueari gañez eguiten diona. Guerturaticen da nere heriotza, eta eguin nai det nere Aita Eternoaren vorondatea, eta gustora il nai det mundua salvatceagatic Gurutcean. Au da Evangelio Santuac daccarrena, eta conturatu bear degu: obligacio andia daucagula conserbatceco gueron artean JesuChristo gure Jaunac utzi cigun paque au, eta fiñ onetara guidatu bear ditugula gueron escaerac, batez ere legue verriaren aciertoraco, gucion prochuan izan dedin ala munduraco, nola guero secula guciaco paquea gozatceco.

Legue zarrean, araco ugandiac, edo diluvioac mundu gucia arrasatu zuan al darte triste negargarri artan, Noe eta bere familiaz ostein: Paquearen señalearciertoa izan zan usoa, bada jarequin cion Noec onctic, ezagutceco ja urac jachiciraden, eta legorrera irten citequean, edo ez. Eta orra non usoa aguertu zan oliao adarra mocoan zuala, aditcen emanaz, paquetu zala Guizona Jaungoicoarequin, jachi cirala urac. Et illa venit ad eum ad vesperam, portans ramum olivae. Baña, nere Christauac, Jesu Christo gure Jaunaren gorputz santutic irten ezquero odolezco diluvio icaragarria, aseguratú citzacun oro, paquea; cerren berbera, Ceruan aurquitcen dan magestade guciarequin, jarri citzacun gueron erdian, betico guerequin izateco, beti gu amparatceco, eta Ceruco Erreynua iristeraño gu guidatceco: Ecce ego vobiscum sum usque ad consumationem Saeculi.

¡Ojec dirade bai, nere Christauac, JesuChristoren amodioaren sugarrac; ojec dirade paque gozoaren señaile gozoac, eta egoquienac! Acab Israelgo Erreguec irten bear zuan guerrara Syriotarren contra, eta irteeran utzi ciozcan Josaphati, bere Erregue soñecoric onenac, eta beste gañeraco janciac, eta berac janci cituan edoceñ moduzco soñ pobreac, eta igo zan Cochera; eldu zan guerra paragera, asi ciraden guciac guerra aserrear; eta Syriotarrac ceramaten asmoa bacar bacarric ill bear zutela Erregue, beste gañeraco guciai barcatuta.

Onetan equin cioten guerrari erruz; jolas leguera soldadu Asiritotar batec bota zuan gora sajeta, eta Jaungoicoac ala nairic, erori zan Acab Erregueren bularrera, eta alaco moduz zauritu zuan ece, odolerreca cijoan coche inguru guciatic; eta icusi zutenean contrarioac alaco guertaera, trompeta soñuz eguin zuten bertatic paquea. Arguiro aditcen ematen du guertaera onec JesuChristo gure Jau-narequin gure artean igaro zana bere pasio, eta heriotzaren medioz; bada JesuChristoren pasioco odolerrecaren videz, eta beraren bularreco lanza zulotic irten zuanarequin paque osoac eguin ciraden Jaungoicoarequin guizonen artean; eta ez bacarric Erreynu, edo Provincia batean, edo bitan, baicic mundu gucian. Aregatic dio David Erregue santuac, Justicia, eta paquea biac laztandu cirala: *Justitia, et pax osculatae sunt.*

Leguez ta videz dio Sn. Agustinec: Eciñ icaratu naiteque pecatuen ugaritasu-nagatic, JesuChristoren heriotza gogoan dauquedala; cerren ilceac, eta lanza gogorrac esaten dirate, nerequico adisquidetasunac eguin dituala gure Jesus amoro-soac, baldin aurrera amatu eta servitcen badet: *Clavi, et lancea clamant mihi, quod reconciliatus sum Christo, si eum amavero. ¡O! nere Ardi maiteac alaitu ezazute ceon fedea, eta esperanza, iracequitceco gueroztic Jesusen amodioan ceon viotzac, icustean beraren misericordia, piedadea, eta fingabeco erruquia! Iru bider gauerdian atea jo zuan persona bearrac iru oguiren esque; familia gucia aurquitu zuala lotan Evangelio santuac dio; bacar bacarric cegoala esnai Nagusia mesede eguiteco, eguin cion becela: Jesus maitagarria ala dago Christau-aren zai, eta esnai escatcen dion guciac jazteco; jo beza noiznai Christauac atea bere animaco, eta gorputceco premietan, eta icusico do nola servituco duan premia aldi gucietan: *Petite, et accipietis; pulsate, et aperietur vobis. Batere bildur gabe, batere quezca gabe fede viciarequin espera dezaque Christauac noiznai bear adiña arguitasun, bear adiña gracia Apostulu santuac gaur becelaco egu-nean esperatu, eta irichi zuten eran Espiritu Santuaren videz: Repleti sunt Spiritu Sancto.**

Christauac fedecac berac ematen dion ezagüerarequin erraz, eta laster iguer-rrico dio ondo pensatcen jarten bada; guereñez, eta naturalezaz ecin eguiñ deza-queguna, graciaz dudatzaca eguingo degula. Ala dio Sn. Bernardoc: *Quod per naturam est impossibile; per gratiam Dei non solum possibile, sed et facile fieri.* Christau espiritu guchicoac, argalac, eta pendejoac sarri egui prochuzco ojec gogoratu, eta animatu bear du, desesperacio batean sartu, eta ichutu, ta gogortu ez dediñ; cerren bestela gure animen Etsai gogorrac eguingo ditu aleguiñac áztuera-zotceco Espiritu Santuaren graciaren indarra, eta gucialtasuna: *Cegatibait David*

Erregue Santuac gogoratcen digu, eta deitzen digu lejaz itz gozo ojequin: Venite, et videte opera Domini, quae posuit prodigia super terram. Peccataria izanarren, Christauac confianza iduqui bear du, valiatuco zaizcala Espiritu Santuaren graciac, eta doajac, norc berac beregan lecu emanaz artara zucen badu vorondatea. Pensa beza nola conveni danean daquian gracia onec Arzaitic Erregue izatera aldatcen; Publicanoac Evangelista eguiten; eta Etsai perseguidoreac Apostulu izatera dacarcen.

Goiceco vederatzietan erori zan inz eder arc, Arranzariac eguin cituan Principe; Culpante aurquitu cituanac eguin cituan Juez, Dicipulu ciranac, Maisu. Sn. Leonec dioan becela: Jaungoicoa maisu danean, laster icasten dala eracusten duana. Apostolu Santuac ezjaquin pobreac ciraden; baña Espiritu Santuac instante batean arguitu cizten beren adimentuac, eta instante batean Maisu eguin ciraden. Nere S. Pedro andia asi zan predicatcen eta leenvicico Sermojan irumillataraino convertitu cituan Jerusalengo Ciudadean bertan: Errecibitu zuten Bautismo santua, eta mezpreaturic mundua, eta munduco gauzac, liztatu ciraden betico Jesu-Christoren banderapean, eta gustora jarraitu cioten bere legue santuari; eta egunoro zavalcen zan munduan Evangelio santua, eta Jesusen izen santuaren honrra, alavanja, ta gloriac. Provinci ascotaco gentea arbatu zan Jerusalemene egun onetan, izcunzamota ascotaco personac aurquitcen ciraden sermojan, baña Sn. Pedro bere izcunza moduan itz eguiten zualaric, guci guciac aditcen cioten, nor beraren izcunzan itz eguiten bazuan becela; eta miraturic alcarri esaten cioten ¿Nolatan guertaera au; nolatan mirari au? Eta zan, nere Christauac, Espiritu Santuaren doajac mediante; bada Jaungoicoarenzat eztago al-ecic; gauza gucietan daqui eracusten bere gucialtasuna; gai gucietan disteatcen du Espiritu Santuaren graciac, eta bendicioac, gucion prochuan dan demporan, eta lecu guztietan.

Christauac badaqui fedead eracutsiric Espiritu Santuaren misterio andi au; baña nequez verotu oi da Christuaren viotza; cerren ondo, eta sarri pensatcen ez duan. Badaqui mundura aguertu guciac il bear dutena, eta heriotzarequin batera munduco gauzai, ondasun, ta atseguintasunai utzi bearco diztela; baña nola bear becela pensatcen ez duan, baicic azaletic, eta ariñ; orra nun Espiritu Santuaren graciac orrelacoen viotcetan indarric ez duan: Esan dezaquegu arrazque-ro Jeremias Profeta Santuarequin: Desolatione desolata est omnis terra; qui nullus est, qui recogitat corde. Ceruco misterioetan ondo pensatu gabez dago galdua mundu gucia. ¿Cergatic uste dezute batat besteari lapurcen diola, eta gaizqui irabaciarequin aberasten dirala? ¿Cergatic uste dezute desonestoa dagoala sosegu bere liquisquerietan, eta ganadu belzaren erara pecatuaren locatzan sarturic, násturic, eta etzinic? Dá cergatic ondo pensatcen ez dituzten Espiritu santuac bere arguiarequin claro eracusten dizten eguiac. Nullus est, qui recogitat corde.

Daqui Christauac, Aita Eternoac biraldu cigula bere Semea gu Etsajaren mendetic libratcera; daqui Ceruac, eta Lurrac chit erraz eguin bacituan ere, ez guinducela ariñ erraz erredimitu; bada costa citzajon bere Seme maitearen pasioa, eta heriotza lotsagarria; badaqui azquenic, amodiozco señaie paregabe ojequin

aspertu etzala Jaun Amodiotsua mesedeguitez, eta biraldu zuala Espiritu Santua mundutarrari beren adimentuac arguitu eta bere doajez betetcera; bada ¿certan dago, jaquiñaren gañean Jaungoicoaren empeñu guztizcoa, eta aleguiñ fingabeac, alaere ez eranzutea mesedeen alde esquer onaz Christauac Jaungoicoaren ontasunari? Dago, cergatic menaz pensatcen ez dituan mesedeac. Nullus recogitat corde.

Bear becela, eguiaz, menaz, eta viotzez pensatuco balitu Christauac Jaungoicoaren mesedeac; eguiaz, menaz, eta viotzez esango lioque Eguilleari Jose Egip-tarrac becela ¿Quomodo ergo posum hoc malum facere, et pecare in Deum meum? ¿Nola da posible, nic nere Jaungoicoa ofenditcea, aserretcea aibeste mesederen ondoren? Pensamentu onec bete ditu Eremuac, eta Conventuac; pensamentu onec indartu ditu martiriac, pensamentu onec goitu erazo dizte virginai persecucioac; eta azquenic pensamentu onec convertitu ditu pecatari gogortuac. Arma gaitean bada, nere Christauac, gucioc erabat pensamentu onequin; eta dudatzaca goituco ditugu mundua, Deabrua, eta aragiaren pasio gogor indarsuac. Balia gaitean Espiritu Santuaren graciaz gueron animac conservatceco Jaungoicoaren gracian; cerren bestela gure anima gaissoa egongo da egarriac, lurra legortean oi dagoan eran: Anima mea sicut terra, sine aqua tibi. Espiritu Santua da gracia gucien iturria, Flabit Spiritus ejus, et fluent aquae. Artu dezagun gueron animetan erregariatu, guidatu, eta gorde gaitean gaitz guztietatic mundu onetan, ondoren logratceco Ceruco Gloria. Amen.

5.6. Sermon del Sacram.to Dom^a 2^a, post Pent. Vos Amici mei estis... Accipite, et manducate, hoc est corpus meum. Mat. Cap. 26

Afari andi batera convidatcera igo naiz gaur Pulpito sagradu onetara, nere aditzalle devotoac, Jesus amodiotsuaren icenean; bada gucioc deritzat ceratela beraren adisquideac, berberac aditcen ematen digunez: Vos Amici mei estis. Ezta edozeiñ moduzcoa janaria; bada da Jesu Christoren beraren gorputz santua, bere izate guciarequin Ceruan aurquitcen dan eran: hoc est Corpus meum. Jesu Christoc berac esanic, daucagu fede au: Aldareco sacramentu santuan dagoala bere magestade guciarequin, gueron aurreco Gurasoetatic datorquigu egui au; eta Evangelista sagraduac Sn. Pablrequin batera eracutsi dute menaz, eta viciro, alaco moduz ece lendabico amaica guiza aldietan etzan batere dudatu misterio al-tu eta ezcutatu au. Envidiaz josiric beretzat etzuan dicha au, Guizonac zualaco, infernu gucia abiatu zan blasfemia ceriola Sacramentu santu onen contra, eciñ izan citequean gauza baliz becela. Baña ichuturic, zoraturic, eta alde gucietara ezjaquiñaz beteric egon bear du misterio santu au ucatuco duanac; bada erraz contu-ratuco da edozeiñ Jaungoico Guizonaren gucialtasunaz, eta guizonari cioan amodio andiaz: Sciens, quia omnia dedit ei Pater in manus... In finem dilexit. Au orrela dalaric, dollorqueri andia, guztizco esquergabetasuna izango lizaque Christauren-tzat, atcerapena, eta naguitasuna izatea, aitzaquiac asmatcea afari onetara etor-cteco Evangelio santuco combidaduen erara: Villam emi; Uxorem duxi. Eta ¿cer

diozute zuec, nere aditzalleac? ¿Cer asmo dezute? Zuen adisquide maitea da convidatzallea; nere sermojan adierazoco dizuedan becela; ¿izango ote dezuten aitzakuiaric afari onetara etorteco? Alamoduzcoric baderitzat aurquitu ditequeala ceon artean; bada esango dezute balurric etorri bear dala afari onetara, eta cer edo cer jan gabecoric zuen artean aurquitcen eztala. Ondo diozute; eta errespuestari dagoquionez, onen gañean dotriña pisca bat azaldu nai dizuet laburquiro.

Iru Comunio mota dirade, edo iru modutan comulgatu liteque; Trentoco Concilio santuaren esaeraz: Comunio sacramentala bacar bacarric; Comunio sacramentala Espiritualarequin batera; eta Comunio Espirituala bacarric. Comunio sacramentala bacarric, eguiten dute pecatu mortalean comulgatcen diranac; cerren bacarric comulgatcen diran aoz, ez espirituarequin, eta prochuz comulgatcen dirade aoz eta espirituz comunio sacramentalarequin, eta Espiritualarequin, Jaungoicoaren gracion comulgatcen diranac; eta ojei biai deitzen zaizte Comunio sacramentalac, cerren bietan errecibitcen dan JesuChristoren gorputz santua; pecatuan errecibitcen duanac bere calte gorrian; Jaungoicoaren gracion errecibitcen duanac beren zori onean, cerren acitcen dizten gracia, eta ematen dizten iraupeneraco indarrac. Irugarren Comunio motari deitcen diogu Espirituala bacarric; cerren eztan errecibitcen Jesu Christoren gorputza dan becela, baicic deseoz eta ansiaz, eta sorcen ditu alaere Christauen animetan bere frutu egoquiac anima sendotceco, eta virtutezco aurrerapenac eguiteco, Suarez Jaquinsu andiaren esaeraz.

Argatic, nere Enzule devotoac, izan bear dezute oitura santua, deseo, eta ansia vici au adierazteco Jaungoicoari Sacerdoteac meza santuan comunio santua errecibitcen duanean; meza erdicoa aditcen dezuten demporan; eta beste edoceiñ comulgatcen icusten dezuten gucian. Chit erraz, eta noiz nai eguin dezaquezuten lan santua da, ceon artean esanaz; O! nere Jaun Sacramentuco nic errecibitu al bazeinzquet; nic emango niquezu atseguñ andiaz ostatua nere viotzaren erdian! O! nere Jesus maitagarria, norc leucaquean, zu nigana etorteco dicha. Hostia purua, Hostia Santa, Hostia garbi garbia!; O! nere bularra garvia, purua, eta santuric dagoala izango baliz zure copoi ederra beti bertan gordetceco! Orra nolatan, eta ceiñ erraz edoceiñ demporatan itz ojequin, edo norc berac al dituanakin comulgatceco espirituaz, animaz, deseoz, eta ansia viciaz frutu ugariac sorceco moduan. Jesu Christoc berac aguertu cion Joana de la Cruz veneragarriari, ece espirituarequin bacarric comulgatcen zan gucian aibat atseguñ arcen zuala, nola eguiaz, eta zana zan becela comulgatcen zanetan. Dollorqueri andia izango lizaque bada Christan artean, aiñ erraz adisquide on bategandic convite au ez estimatcea, aitzakiac asmatcea, eta edoceiñ moduz atzerapenac izatea. Vos Amici mei estis accipite, et Comedite.

Aguitz animatu bear luque Cristauac adituaz beste gabe convidatcen duana, dala Adisquide fiña, eta eguiazcoa. Gucioc daquizute eguiazco adisquideac izan bear duala fiña, irmoa, eta lejala: baña escuarqui guertatcen dirade falsoac, eta argalac, eta engañtsuac. Gaur dan egunean esaera dan becela, adisquideac oi dira, nora Eguzqui, ara burusi; ondo datorquitenean adisquide, gañeracoan bes-

teren alde. Escatu, eta ucatcen bada gaucea, eztago arrazquero adisquidetasunic; larogueta emeretzi mesede eguiñ bequio bati, eungarrena ucatcen bazajo juan dirade ajen arteco adisquidetasunac. Izanic Jesu Christo Gure Aita, gure Jauna, gure Erregue badirudi eztagoquiola gure adisquide nombratcea, cerren berdincen ez gueran; eta amatu, eta estimatuarren, adisquidén izena escuarqui oi dabill berdiñen artean; ala da, baña ala ere Jesu Christo gure Jaunac ez dizte veguiratcen munduco esamesa, eta etiquetai, cerren bera dan eguiazco adisquidea. Evangelio Santuco languñ envidiosoari berac deitcen dio adisquidea: Amice, non facio tibi injuriam: Soñeco zarraquin majan jarri zan convidaduari orobat deitcen dio adisquidea: Amice, quomodo huc intrasti. Judasi berari salduta preso arceco demporan esan cion: Adisquidea, certara zatoz. Amice, ad quid venisti. Convidadu cortes honrraduari esan cion, adisquidea, atoz, aurrerago majan: Amice ascende superius. Discipulu humill, obedienteai orobat esan cizten: zuec nere adisquideac cerate: Vos amici mei estis. Itz batean esan dezadan, gucioi erabat esaten digu: ez digula onezquero siervoac deituco baicic adisquideac. Tam non dicam vos servos, sed Amicos.

Sn. Cirilo Alejandrinoc arrituric izcunza ojec pensatu, eta consideratcean; dio: eciñ izan dezaqueala Guizonac beretzat dicha zorion andiagoric au baño. Jaungoico bat Guizonaren adisquide eguitea Jaungoicotasunari acatsic eguiñ gabe, zala mirari gucien ágarrria. Baña pensa beza Christauac bitartean: gauza au Jesusen amodioac compondu zuala chit eraro, eta egoqui; bada cecusen, etzala posible Guizona Jaungoico eguitea, eta argatic bera eguin zan Guizon, eguin zan siervo: Forman servi accipiens, et habitu inventus, ut homo. Anciñatic cegoen oituric Jaungoicoa eracusten Guizonari cion amodio paregabea; eta Tronu altuan aurquitcen bazan ere, memperatu, eta beratu zan, guizon eguiñ eta tormentu icaragarrien artean eriotza lotsagarria sufriteco guizona salvatceagatic. Propter nos homines, et propter nostram salutem descendit de Coelis... Et crucifixus, mortuus, et sepultus est. Icus zazute beraren adisquidetasun fiña, eta irmoa; beraren amodio neurrigabe lejala. Vos Amici mei estis. Bada berberac escribituric utzi cigun: eciñ citequeala amodio andiagoric, batac besteagatic vicia ematea baño. Historia sagraduac contatcen do adisquidetasun anditzat Jonatas, eta David Erreguearena; eta ponderatu al gucia ponderatceco dio: Jonatas, eta Daviden anima ceudela aiñ unituric, edo alcaturic nola paper bata bestearequin colarequin unitu, eta alcartcen diraden: Anima Jonatae conglutinata est anima David. Cerren batac bestea estimatcen zuan animaraño. Eta adisquidetasun au adierazteco ¿cer uste dezute eguin ciola Jonatasec Davidi? Usteco dezute munduac aditu ez bezalaco mesedea eguin ciola; beragatic vicia ematera jarri zala vorondatez; bada etzion beneric eguiñ, baicic bere soñac, bere armac, eta gala guciac ematea Erreguegana presentatceco. Baña Jesu Christo gure Jaunac guizonagatic eman zuan bere vicia, eta ez nola nai, baicic lotsagarritzco eran. Crucifixus, mortuus, et sepultus. Jesus amodiotsua izan zan eguiaz chit fiña gurequico Guizon eguitean, jajotcean, vicitza gucian, sacramentaturic guelditu zanean gurequin beti izateagatic, eta azquenic heriotzaco aldarte triste, negargarrian.

Baña aĩñ fiña izan zalaric, orobat izan zan lejala; cerren etzuan batere erre-
 serbatu beretzat, guci gucia guretzat guelditu zan: *Accipite, et manducate, hoc est
 corpus meum*. Azaz gaiñera, amparatcen gaitu, gaitz guztietatic libra gaitean, ille
 bacar batean iñoc icutu ez dizagun moduan: *Non tanget eos tormentum malitiae*.
 Cegatibait esan zuan chit egoqui; eta ondo S. Pablo Apostuluac: *Lejala zala Jaun-
 goicoa; cerren deitu cigun bere semearequin adisquide izatera. Fidelis Deus, quia
 vocavit nos in amicitiam filii sui. Lazaro bere adisquide maitearen ill verria eman
 cioten orduan, arritu eta icaratuta bere artean, negar eguin zuan: Lacrimatus est.*
*Pasioco demporan, azotatcean, Gurutzilzatcean, etzuan negar malgo bat issuri,
 eta lejaltasunaren poderioac negar eraguin cion Lazaro adisquidearen ill verriac.*
Ala ce aditcen eman zuan: guejago senti zuala Lazaroren eriotza berea baño.

¿Nolatan bada aĩñ fiña, eta lejala dan adisquidetasuna, ezta izango irmoa,
 eta iraupenecoa? Jesu Christoc berac aitor du: *Ego Deus, et non mutor. Secula
 mudatcen eztan Jauna, eta adisquidea dala. Munduan adisquideen artean esaera
 oi da: Zurea naiz ill artean; zu servitceco occasio izatea besteric deseio ez det;
 aguindu nai gucia. Eta ¿cer guertatcen da? occasio datorren demporan, ezcuta-
 tu, igues, escatutaco gauza ucatu. Ecin diteque amodio, eta adisquidetasun andi-
 agoric Escritura santac dacarren anima santarena lacoric: bere maitea falta
 zuan, zoraturic cebillen bere burua puscatcecoa beraren ondoren, beraren billa,
 inguratu zuen Erria, eta bazter guciac: *Circuibo Civitatem, per vicos, et plateas
 queram; azquenic escuetara zuan, billatu zuan, eta poz contentuz beteric esaten
 zuan, ez diot utzico nere vistatic, eutsico diot: Tenui eum, nec dimittam.* Baña ba-
 goaz iracurtera Escrituraren beste pasage bat; aurquituco degu lotan, aĩñ esnai,
 eta guardian becela cegoan anima. *Ego dormio. ¿Eta noiz? bere maitea atajoca
 cegocan demporan; esan ala guciac gaitic alferra zan, etzan mobitcen, etzizozcan
 atead zabalcen. Aperi mihi, soror mea amica mea... Deitcen cion arrebarren ice-
 naz, adisquidearen icenaz; alaere alferra zan; ¿nora ciraden bada leenagoco le-
 jac, aleguiñac, eta esqueiñteac? Aaztu ciraden, lañoa eguzquiac deseguincen
 duan eran, ala deseguindu ciraden adisquidetasunac ocasiora ezqueroz. Jesu
 Christo bacarric da adisquide irmoa, lejala, iraupenecoa Columa becela. Petra
 autem erat Christus.**

Eta ¿nola, edo cer moduz pagatcen dio Guizonac Jesucristori fiñtasun au,
 irmotasun au, betico adisquidetasun au? Chit gaizqui; gucioc daquigun gauza
 da; dollorqueri andian portatcen da Guizona Jesu Cristorequin; bada nere se-
 mea, deituaz escatcen dio viotza, Proebe mihi cor tuum, fili mihi. Eta oso, ta garbi
 ucatcen dio; lotsa guichirequin espaldac biurcen diozca; atead morrolloz ichitcen
 diozca. ¿Guticiosoa, ecatzu viotz ori? Eranzutun dio ez daucat zuretzat: baicic
 polsa onarentzat, urre, cillarrarentzat. ¿Liquicha, asquerian zabilzana, ecatzu vi-
 otza? Ez dizut emango dio; bada gorderic daucat, nere gusto ciquiñac cumplitce-
 co, guezur, ta abar adisquide aitzaquian iñocente tristeac engañatceco; ojezaz
 burla eguiteco; ezconza aitzaquian matrimonioco licenciac aurrez artu, eta guero
 ucatceco, eta ondoren Deabruari entregatceco, onetaraco bacarric servitcen dit
 viotzac; iñolaere ez dezu cer esperá. ¡O! Jesus amodiotsua! norc aditu litzaque

negar gabe Cristan artean lotsagabequeri ojec! Ez diot arrazquero mira irizten, zure gurutce santuaren pisutasunari: aranzazco coroaren gogortasunari; eta S. Pabloc dioana, zure pasio, eta heriotza Guizonac bere gogoz, beragan danez berriuceari. ¡O esquergaiztoco naturaleza! ¡O ezagüera gabeco guizona!

¡Eta alaz guciarren ere izan dezala Guizonac zure aurrean jurteco auserdia; zuri mesedeac escatceco aurpeguia! Pensatuaz bacarric ill otzic erori bear luque, ez beiñ bacarric, baicic milla aldiz al baliz, zure gracia galdu baña leenago, zure adisquidetasunaz áztu baña leenago; jaquiñaren gañean, galdua dala seculaco, zugandic alderandu ezqueroz, zure adisquidetasuna galdu ezqueroz; cerren zu bacarric ceraden Ceruraco vide zucena: Ego sum via, et veritas. ¡O! Jesus maitagarria, ez utzi arren cere ardiai, cere adisquideai. Badaquigu ardi erratuac becela gabilcela mundu onetan; baño badaquigu daquizula, billatuta chaolara eramaten. Ar gaitzatzu cere gaiñ, guida gaitzatzu Ceruco videan, izan dezagun dicha, eta zoriona betico zu estimatceco, zu honrratceco Ceruco Bienabenturaduaquin batera, bada ceurc diozu guciz menaz, ez dezula pecatariac galcea nai, baicic zugana biurtu ezquero guciac salvatcea. Ala guerta dedilla gucioquin Amen.

5.7. Dom. 6.a Post Pentec.

...Ezta bacarric guertatcen au aundizuaquin; necazari, eta oficiale pobreén artean ere ascotan guertatcen da au berau: pobrea izan arren irudipenez norc berac aberatsa dala aditcen eman nai luque; cembait aldiz icusico dezute necazari pobre baten humea aundizu leguera, servitzaria nagusi, eta Echecoandra mudura, guciac miraturic ¿nor da, ceiñ da urlia, sandia galdetcen dutela? Eta echean talo bat jateco ez; esca zajozu on olacoari limosnacho bat, aurqui eranzungo dizu; neretzat obe nuque, oraindic gaur balurra ausi gabe nago, eta jancian Marques, edo marquesaren seme, edo alava irudingo do burutic oñera. ¿Cembait icusico dituzute nescame, morroia; oficiale, eta languñai beren soldata, jornala zor diztela, iñorc ardit bat eciñ aterazo diztela zorrari cobru emateco, eta alaere erac lanean, edanean, jancian, eta egoeran aundizu leguera, fantasia alde guztitic dariela? Escatcen bazaizte limosna bat, mesede bat eranzuten dute Jaincoac lagun deizula, ez daucat, eciñ det. Eciñgo do berriz ere onelacoac, cerren duana, eta ez duana guichi duan beretzat; cerren bere buruari ez deritzan besteac baña guichiago. Cembait aldiz familia batean, icusten da Aita bat arrastaca, icerdia, eta patsa dariozcala sosegu gabe bearrean zorrai, eta obligacioai cobru emango diztela, nolabait decencian, eta bere moduan aguertuco dualaco bere familia; eta ojen artean asco da nesca alfer fantasia besteric ez duan, edo mutil arro, fantasiz betea, bere buruari dan baño guejago deritzana, eta ojec besteac baña guichiago ez izateagatic, Aitaren icerdia, aitaren nequeac, eta alegiñac ondatcen dituzte mantal gorritan, sobre pañulotan, calcerdi, zapata modacoetan; ille postizoetan; besteac orobat chaleco eder fiñetan, ojal fiñezco chamarrotetan, perrechicuac diruditen sombrulletan, eta guerrico gorrietan: eta bear bada Gurasoac dabilta, ezcondu ciranean eguin cituzten soiñ zartu, arabaquituaquin. Buruvide guejago

eztagoen familian; bigarcoari veguiratu gabe castatcen dan lecuetan ¿nola izango da limosna eguiteco modua, eta era? onelacoac eztu gaitz izango, Jaincoac lagun deizula esatea pobreaki.

Sn. Joan Chrisostomoc dio: eraqueri andia dala cuchac betean, sedenac jecten iduquitcea soñecoac, eta icustea larru gorrian Pobreac. Diozu Christaua, ez-taucazula pasagarri besteric, dui duja urtea engañatceco laiñ. ¿Nolatan topaten dezu astegun buruzurian eceri ez dagocala tabernan jan da edan, jocuan, erabagueco tratuetan egoteco? ¿Nolatan inguratcen da familietara churiti, eta gorriti eguneroco, hordueroco esan ez dezadan ¿Nolatan sarcen da festaric festa; promes aitzazuian orrutz onutz ibilteco guelditzaca? Zeoc daquizute. Eta alaere esango dezute, eciñ persona bearra socorritu dezutela. Ez guejeguiian socorritu ceon gorputza, eta izango dezute Pobreac socorritceco: nere contura, guejago eguiten du nai duanac, al duanac baño. Nerequico ez dezute ucatuco egui au. Nai daneraco arbatcen duanac pobréntzat arbatu lezaqueala dio S. Agustin Jaquinsuac...

5.8. Doma. 9a. Post Pentec. Videns Civitatem flebit super illam. Luc. 19. Iria icusiaz bestegabe negar eguin zuan JesuChristoc.

Negarrez eracusten digu gaurco Evangelio Santuac JesuChristoren magestadea Jerusalengo Iria, edo Ciudadea icustean. Cijoan JesuChristo aldarte artan bere sacrificio santuarequiñ gure erredencioco misterio andia bucatcera; eta icusi zuan eran Jerusalem, erruquiaren pasioz negarrari eman cion; cerren cecusen bertatic Jerusalem tristearen gañean etorrico ciraden naigabe, pena, eta laceri triste negargarriac; bada Jerusalentarren asmo gogorrac seculaco sillua, edo marca egozten cizten munduco gaiztaqueri dollor guciai erabat. ¿Nori burura etorri ceiqueon bada, gaiztaqueri andiagoric, Jaungoicoaren Seme eguiaczoari, mundua salvatcera etorri zanari vicia eriotza lotsagarriarequin Gurutzilzaturic, quencea becelacoric? Videns Civitatem flevit super illam. Jesus maitagarriaren negar samiñac, mundu guztiac bendicioz, eta alavanzaz betetcen zuten demporan, arguirò aditcen ematen dute, aurrez cequiala, demporaz guertatuco zana; eta vorondatez, bacarric bere najaz, sufrituco zuala eriotza Jesus Nazarenoac. Etzuan negar eguiten argaltasunez, baicican ondorengo mundutarren gañ etorrico ciraden luceri negargarriac ciralario. Ezta iracurten negar malco bat bacarra issuriric JesuChristoc bere Pasio, eta eriotzan; Evangelio Santuac esaten du, odolezco, ta urezco icerdia igaro zuala, gogoratcean pasio santuco tormentu, pena, eta afrenta icaragarriac; baño ez du esaten negar eguiñ zuanic. Gure etorquizunac negar eraguiten cioten, amodioaren poderioz. Lazaroren eriotzac, Jerusalem deseguiñceac, eta Juduen galdu bearrac eman cioten ocasio, edo negar eguiteco videada Jesus maitagarriari.

Negar ajequiñ, nere Christauac, esan nai zuan Jesus Nazarenoac: ¡O! Zorigaiztoco Ciudadea! aimbeste gaiztaqueri izugarrien ondoren, ezagutuco bacendu, gaur dala eguna, ordua, eta ordu muga cumplitcen dana Malaquias Profetac

aguertu cizun guertaera laceriz garaitua: *Dicite Filiae Sion, vide Regem tuum, qui venit tibi mansuetus. Esan zajozute Siongo Alabari, icus zazu guziz manso, edo humill datorquizun cere Erregue. ¡O! Esquergaiztoco Ciudaddea, edo Iria! ¿Certaraco ichi diozcatzu aspaldi arguiaren veguiac? ¡ha! edolaric iriquico bacinguz gaur, ceñetan izango lizaquean zuretzat paquea, eta gracia; gaur, cerren Erritarrac ansiaz convidatcen zaituzte cerorren Salvadorea errecibitzera! Eguiaz diot, erraz logratuco cenduqueala barcacioa damu, eta sentimentu menezcoarequiñ penitencia eguiten bacendu! contrara ¡zure erruquirena, gortasun onetan irauten badezu! Dempora guichi barru Jaungoicoac visitatuco zaitu bere aserre gogorrean; eta eztago urruti zure suerte negargarria. Et circundabunt te vallo, et circundabunt te, et coangustabunt te undique.*

¡Ha! Jerusalem erruquiren jajoac, ceñ guichi sinisten dezuten ceon aurrean guertatcen danic! Zuec farraz, eta algaraz ceon Iri ederrean; eta JesuChristo negarrez: zuec acordatzaca, eta zabarturic; eta JesuChristo chit larri, eta cuidadotan: zuec naaturic tratuetan, artuemanetan, jostaquetetan; cerren ez daquizuten ondorengo naigabeen verri: JesuChristo issilzaca negarrez, cerren daquian cierto, eta seguru gueroco laceri triste gogorren verri. Bai, bai; zabilzate zoraturic, burutican jausiric, eta alde gucietara urdurituric cale, eta plaza orietan, laster ez dezute icusico ez caleric, ez plazaric, ez eceren arrastoric. Irten zazute campora, paseora pantasia darizutela, apañduric, trage verriaquiñ, burutican oñera modara jancirican; dempora guichi barru ajenatuco da zuen pantasia, eta ichico zatzute portaleac, campora veguiratceco libertaderic ez dezutela. Triunfatu zazute, jolas eguizute; jan, ta eran, ase, ta bete zabilzate; etorrico da dempora, eta laster, goseac ceon hume maiteac jan erazoco dizutena. ¡Ha! cer icuscari dolorezcoa! ¡ha! cer trance estua!

¡Ea! ardura gabe eguiñ daizquetzute Jauregui berriac; Baserriac, baratza ederrac ceonzat, eta ondorengoenzat; zaudete sosegu, laster lur joco dute, auts virtuco dirade guci guciac erabat; eztà gueldituco arri bat bestearen gañean; aaztuco da zuen pantasia, vanidadea, buruco Ego-aicea. ¡O! Esquerric batere ez dezun Jerusalem, etzaitz fñatu guejegui cere asmo dollorretan, cere Jaureguietan, cere ondasunetan, cere indarretan; bada guertuan da egun ura, ceñetan laceri, eta pena ojec guciac ceretzat icusi bearra dezuna. Alferric ibillico da iñor bate tic bestera; orrutz, ta onutz Jerusalem ederra billatuco dualaco; bada ez du aurquituco izandaco arrastorican ere; iñorc ere ez du emango Jerusalemen verriric, izan ezpaliz baña guejago. Eta au gucia ¿cergaitican? Cerren paqueaz convidatu, eta brindatu naico eran, eta errecibitu etzenduan al cenduan demporan; cerren zoriona eche barruan cenducan demporan ezagutu etzenduan: *Eo, quod non cognovisses tempus visitationis tuae. Galdu cenduan dempora egoquia; Ecce tempus acceptabile; eta igaro zatzu sentitzaca, prochugabe, cere arrotasuna, cere zoraqueria, eta ichutasun andia dalario; alferric zabalduco dituzu veguiac, sator leguera ilceco instantean, edo puntuan; bada espaldac biurtu, edo itzuli diozcatzu Jaungoicoaren gracia estimagarriari, gracia bera zure ondoren ibilli dan demporan: ez aditu eguin diozu, guciz gorturican baceunde becela cere arzai onaren*

chistuari, eta oraiñ, naita ez sufriquizun dezu beraren zaimaquillaren gogortasun icaragarria. *Eo, quod non cognovisses tempus visitationis tuae.*

¡Ha! nere aditzaille devotoac; ezta aurquitcen guertaeraric paperetan, liburuetan, au baña oso, ta beteago cumplitu danic, JesuChristo gure Jauna il zanetican berrogeuei urtez gueroztic. Tito, Vespasiano Emperadorearen Semea, Pazcoaco demporan juan zan eun milla guizon igaroaquiñ Jerusalem inguratcera, Ceruac berac guejago indarcen zuala, Jerusalem jabetzeco ansiac, eta venganzac baño. Ifini zuan Jerusalem chit estadu chàrrean, iñundican ere socorruric, eta laguntasunic eciñ espera cezaqueten eran, etsiric becela, edo menderatu, edo goseac, eta egarriac amorraturic ill bearco zutela. Eta gueroeneco, òla guertatu zan. Azquenic, Agorraren zorcigarrenean sartu ciraden Etsajac, eta luzatzaca esan dezadan ango laceri tristea; bota zuten lurrera Jerusalem ederra, eta Josephoc dioanez il ciraden guerratan milloi bat, eta eun milla persona, eta prisionero artu cituzten larogueta amazapi milla. Eta gañeraco gucian guertatu zan JesuChristoren beraren esana: etzutela utzico arrirican argañean. *Et non relinquent in te lapidem super lapidem. Icus zazute, nere Christauac, Jerusalem tristearen suerte negargarria; cerren etzuten nai ezagutu beren Salvadore Jesus maitagarria. Guertaera icaragarri au izan zala amazapi siglo igaroac dirade, eta gaur da eguna lurpean sepultaturic aurquitcen dana. ¡O! Jerusalem, Jerusalem, cembait baña obe cenduan, demporaz, eta mugaz oartu baciña JesuChristo zala zure amodioz, zure erruquiz visitatcera etorri citzetzula! ¡Ha! iguerri baciño, cetorquizula Guraso on baten erara, dicha zorion gucias zu jabetcera! Etzitzatzun guertatuco ez, sufriquizun izan dezun sallmena, eta arrastacio cruela: Eo, quod non cognoveris tempus visitationis tuae.*

Jerusalem, eta berarequiñ batera Judu Erria izan ciraden Jaungoicoaren vequico niniac, chit estimatuac, aguiz maiteac, eta mesedez alde guzietara gañeztuac, eta garaituac beste Nacio gucien gañ; eta beren esquergaiztoa, eta dollorqueria zalario icusi zuten aiñ eguraldi gorria. ¡Ha! nere Christauac, jaquizute, gure Eliza Ama Santac sarcen gaituala guertaera onezaz gugan beste aimbeste guertatu ez dediñ; bada daquizute Jaungoicoaren justicia berdiña dala, eta dagoquigula ezagutcea, eta amatcea JesuChristo gure Jauna, eta beraren escutic datozquigun mesede ugariac; gordetzea dagoquigula bere fede santua, legue egui azcoa, eta onetaraco valiatu bearra degula bere graciaz, Jerusalemgo suerte charra gugan guertatcea nai ezpadegu: Izenac aldatuaz beste gabe eguiño dizutet nere sermoja: Jerusalem aitatu orde Españiarequiñ itz eguingo det ¡Hispania, hispania! Convertere ad Dominum Deum tuum. ¡O! España, España; viurtu zaitetz Jaungoicoagana, adisquidetu zaitetz, Jerusalemgo laceriric zure gaiñ etortea nai ezpadezu! Arretà, nere Christauac, graciarequiñ batera. Esca dizogun Ama graciazcoari, esanaz: Ave Maria.

Videns Civitatem, flevit amarè. Aldatu ditzacun bada icenac, nere Enzuleac; eta esan zadazute eguiac, eta pasio gabe: ¿Oté dagoan Españian gaur dan eguñean ichumen guichiago, orduan Jerusalemen aurquitzen zan baño? ¿Visita guichiagó eguiten ote dion Españiari Jesus maitagarriac, dempora artan Jerusalemi

baño? ¿Izango ote dan Christauric autortu dezaqueanic, guejago zor ciotela Judutarrac JesuChristori, eta bere gracia estimagarriari Españañatarrac baño? Eta esazute ¿Esquer obeaz eranzuten ote diogun Judutarrac baño Jesus mesedeguillari, eta beraren gracia ugariai Españañatarrac? Orain bada, nere Christauac, ¿erac baña obeagoac ezpauerade, bildur izateco ezta gure gain etortea, beren gain etorri zan laceria, castigu izugarria? Pensa zazute; JesuChristoren negar malcoac etziradela issuri bacarric Jerusalemen gain; baicican zabaldu ciradela, Sn. Joan Chrisostomoc dioan becela, Españañaren, eta mundu guciaren gain. Flevit super illam; et flevit super universam terram. Utseguite andia dála, dio Sn. Ambrosioc, pensatcea JesuChristoren esan samianac, eta gogorrac bacarric zucendu cituala bere amodioac, eta ontasunac Jerusalemen tristearen contra, baicican criatura arrazoizco guciatara. Jerusalemen igaro cituzten miseri, eta laceri guciac igarotzen zaizca JesuChristo, eta bere legue santua mespreciatzen duan anima triste, erruquiren sortuari. Luce, edo labur, contu eguizu Christaua, zure animac sufriquizun izango dituala, beste Españañaco, eta mundu gucicoaquiñ batera, Jerusalemen eran bertan pena, naigabe, eta calte guciac JesuChristo ezagutzen ezpadute; amatcen ezpadute; bere fede santua, eta leguea gordetcen ezpadute; esquer gaiztoarequin beraren mesedeac pagatcen badituzte; eta graciaz valiatzeaz zabarcen badirade. Sitiatuco dituzte anima tristeac alde guztitan Deabruiac, munduac, eta araguiac, animen Etsai gogorrac; Circundabunt eas inimici Daemones: eta larritu, eta estutuco dituzte beren leenagoco, eta bertaco pecatuen catea sendoaquin. Coangustabunt peccata. Eta lur joerazaco dizte seculaco infernuan sepultatuaz. Prosternent in terram omnes grandes, et vanas designationes. Emendican deseguinza, andican alluma icaragarriac; ezcutatuco dirade virtuteac, ezta ezagungo devocioric, eta Christan leguearen arrastoric batere.

¿Certatic uste dezute guertatu dirala arrazquero munduan Iri, Provincia, eta Erreynu osoac galcea? Escritura santaz gañera, beste liburu, eta paper zar ascotan iracurten da, icusi diraden naasteac, izurriac, goseteac, guerra caltegarriac guertatu diradela pecatuac mediante; oitura charrac, eta escandaloac diralarario. JesuChristoren negarrac eguiac zabaldu ciraden bazter guztietara. Bost bider deseguiñdua izan da Erroma ederra; beste zazpi aldiz Londres, fama andicoa; amar bider saqueatua, eta galdua izandu da Paris odol erreca cale guciatatic barren cijoacela; Ogueta bi naaste, eta machinada ezagutu dirade Napolesen. Bada oartu gaitecen contuz cer guertatu dan Españañia noblean, arritu gaitean eche barruco castigu izugarriaquiñ. Sarraceno amorrutuac sartu ciranean Iriac, Erriac, Provinciac guciac ondatu cituzten; eta asco eren arrastoric, zaanzuric guelditza-ca. ¿Cer eguiñ zuan Hiberis andiac; cer famaren famaco Itaciac; cer Numanciatic, Erromatar gucia icara, eta bildurrez, osto arbolan becela zeuzcanac? Bacar, bacarric, nere Christauac, ziralazcoa verria, eta fama guelditu zan. ¿Cergatican Españañiac izandu cituan aimeste calte, laceri, eta arrastacio cruelac Erromatarrac, eta Barbarotarrac ciradela mediante? Jerusalemen eraco gaiztaqueriac gaitican. Etzuten Jaungoicoaren legue santua gordetcen, esquer gaiztoz pagatcen cioten Jesuchristori bere aparteco mesedeac; etzuten arduraric, eta bildurric Jaun-

goicoaren justiciaz; eta gueroeneco pagatu zuten beren laceriaquiñ, desdichaquiñ, eta viciaquiñ. Eta, nere Christauac, ¿ Juan ote zaizcan indarrac ordutican onera Jaungoicoaren escuari? Ez por cierto. Non est abbreviata manus Domini. Eta ¿ sentimentu guichiago ote duan gaur, orduan baña? Ez, nere Christauac. Deus ultionum Dominus. ¿Gracia guichiago eguiten ote digun gaur Españatarrai, orduan baño? Ez. Bada bildur izateco dirade orduco castiguac.

¿Cer dacusgu castigua, azotea, naigabea besteric aspaldico urteetan? Ogueta amar urte onetan gueldizaca guerra, eta izurri artean vici guerade Españian; Erbestearrac asco ecic, gueroc, gueron buruai guerra portitza publicatu diztegu. Esan lezaquean eran bata bestearrequiñ aserratu guerade, laster, eta veguien aurrean daucagula Juicioco egun icaragarria. Surget gens contra gentem; Regnum adversus Regnum. Ez diote barcatu senideac senideari; aideac aideari; adisquideac adisquideari; Gurasoac semeari, eta Semeac gurasoari. ¿Cembait lotsagarritzco eriotza guertatu dirade; cembait sacerdote; cembait Religioso; cembait persona honrradu plazaren erdian il dituzte guezur bat dalarío? ¿Cembait Eche saqueatu dituzte; cembait familia ondatu dituzte bazterretan? ¿Cembait Eliza lapurtu dituzte; cembait sacrilegio, mesprecio deshonrragarri guertatu da España ederrean, fedearen Jaureguian? ¿Eta cer aleguiñac eguiñ dituzte fedea Españiatic alderanceco, Inquisicio santua eragotzi, edo debecatuaz; Aita Santuari errespetoa galduaz; Eliz-Arzajai Erbesta eraguiñaz; eta azqueníc norc esan cezaquean, Españatarrac beren Erregue onegui triste erruquirena, bere familiarequiñ batera, cativo artu, eta gentalla gaiztoac berequiñ eramango zutela; España guztia galceco asmo osoan?

¿Certatican etorri zaizca Españiari gaitz ojec guciac? Eztago cer esanic; eztago cer duda; bada gaitz, eta calte ojen jajotera, iturria, eta sustrai madaricatu da pecatua, da gaiztaqueria, vicioa, oitura charra, arrotasuna, apañgarri guejeguiá, janciera deshonestoa; pecatura trompeta batequiñ becela convidatzen dutenac; itz batean, Jerusalem bigarrena izatera etorria dala medio. ¡Hispania, Hispania convertere ad Dominum Deum tuum. Dempora, hordu, eta instante guciac dirade, nere Christauac egoquiac salvacioraco aleguiñ prochuzcoac eguiteco; bañan ascotan bear bearreco langai apartecoa izan liteque; cerren Jaungoicoac bialcen dituan aparteco graciaç valiatu gaitecen arretaz, naguitasun gabe, eta demporaric galdutzaca; cerren eguitetic, edo ez eguitetic datorquigun gueron zori ona, edo zori gaitza. ¡Suertoso demporaz valiatcen dana! ¡Zori gaiztoaco dempora, eta ordu muga mespreciatcen duana!

Baldiñ Samaritana zabartu baliz; baldiñ arretaric artu ezpalu JesuChristoren esanetara, viotzeco inspiracio santuetara; galdua zan seculaco; bere pecatuetan, bere escandaloetan ilgo zan, eta ondoren infernuraco zan. Zaqueo aspertu baliz JesuChristo igarotcen icusiarequiñ; bere Echean ostatuz iduquiaz bestegabe guelditu baliz sosegu, eta valiatutzaca aldarte azaz convertitzeco, eta nori berea biurzeco; ¿Cer aurreratcen zuan JesuChristo icusiarequiñ, bere Echean iduquiarequiñ? Baldiñ azqueníc Apostulu Santuac, deitu beciñ laster, jarraitu ezpaliote JesuChristo beren maisuari; jardun balute beren sare, eta amuaquiñ arranzan

casoric eguiñ gabe Jesus maitagarriari ¿cer suerte, cer patu, eta cer cabu izango zuten? Esana dago. Veguira ezpere ondo Evangelio Santuari, eta icusico da, Jaungoicoaren Jerusalem maiteari, Judutar estimatuai etorri citzaizten eran lace-riac, trabajuac, deseguinza, eta madaricacio eskuerga bereñ gaiñ; berbera guer-tatuco zaizca trabajuac, eta laceri gogorrac JesuChristoren deiturari, beraren gracia paregabeari arretaric arcen ez dion Christau mota guciari.

Adi nazazu Christaua; Sermoi bat enzutean; liburu on bat iracurtean; supito-co eriotza bat icustean; gosetea, legortea, bustitea, Aguztu charra barrunta badi-tuzu, contu eguiñ bear dezu: escarmentu ojec guciac diradela JesuChristoren man-dataritzac JesuChristoren deiturac; eta estimatzetic, edo mespreciacetic dator-quizzula edo zori ona, edo zori gaitza. Sn. Antonio Abbad andiac Evangelio Santua cantatcen adituaz beste gabe, lecu eman cion bere viotzean inspiracio santuari, Jaungoicoaren deiturari, eta andican Santu eguitera etorri zan. Orobat guertatu citzayon Sn. Francisco Asiscoari. Sn. Joan Gualberto guizon mundutarra zalaric, bat batetan santutu zan, JesuChristo gurutzilzatuaren izenean bere Etsai bati bar-catuaz beste gabe. Sn. Brunoc utzi cituan munduco honrra, dicha, eta diñatasunac, eta juan zan Eremura sartcera, beste lagun jaquinsu baten eriotza icusias beste gabe; ¿Cer suerte izango zuten Santu ojec lecu eman ezpaliote bertatic Jaungoi-coaren inspiracio santuari; valiatu ezpalirade ocasio egoquiaz beren salvaciora-co? Esan zadazute oraiñ, nere Christauac, ¿Sn. Antonioc bacarric adituco ote zuan Evangelio santu ura? Ezez deritzat; eta arrazquero ere beste ascoc adituco zuan, bañan alferric. ¿Sn. Bruno bacarric ote zan jaquinsuaren eriotzan? Ezetz esan lezaque, Paris batean; bañan Sn. Bruno, beste zazpi lagunequiñ escarmen-tuarequiñ escarmentatu ciraden. Ala guertatcen da ascotan, batzuac valiatcen di-rade ocasioaz Jaungoicoaganatzeco, mundua mespreciatzeco, JesuChristori ja-rraitzeco, eta JesuChristoren chistu gozoa aditzeco. Contra beste batzuac ez dute arduraric arcen, ez dute artacotzat aditzen, eta dabilza zoraturic munduan Jaun-goicoaren iguesi, eta ezcutaca becela; muticoac quiriqetan oi dabilzan eran.

Demogun contu, nere Christauac, Jaungoicoaren magestadeac daucala eraba-quiric, zuen arteco baten, edo guejagoren salvacioa condicioaren azpian: baldin urliac, edo sandiac aditcen badute onelaco, edo alaco sermoi, eta jarraitzen ba-diotte inspiracio santuai, emango diztet ambait gracia, eta laguntasun, cembait bear duten eriotza on bat eguiteco, eta salvatceco. Bañan valiatcen ezpadirade orduco inspiracio santuaz, eta convertitcen ezpadirade bertatic, utzico diztet beren casa, eta condenatuco dirade. Contuguite, edo ipenza au ezta Theologia sagraduaren contracoa. Esan zadazu bada oraiñ, ¿Cer daquizu, Jaungoicoac erabaquiric dau-can edo ez; baldiñ gaurco sermojaren vitez ematen dizun gracia, eta inspiracio santuac diralaric convertitzen bacerade, pecatuari uzten badiozu, arrazquero sal-vatuco cerala; baña contrara arduraric arcen ezpadezu, mespreciatcen badezu gra-cia apartecoa, eta inspiracio santuac, condenatuco cerala? Iñorc ez daquian gauza da, eta izan ditequeana. Venturaz ala guertaco da zurequiñ, urliarequiñ, eta sandi-arequiñ; eta perill gogorrean aurquitcen dirade onetan Christauac. Ondorengo charra, nere Christauac, eta contuac ondo ateraquizun duana.

Evangelio santuac azalcen du arguirò ondorengo bildur izateco au: Quia si cognovisses et tu, et quidem in hac die tua. Etzuan edocein moduz negar eguiñ JesuChristoc Jerusalentarren ichutasuna, esquergabetasuna, dollorqueria; etziozcan aguertu eceri etzegocala ondorengo laceri, eta castigu icaragarriac; cerren lecu eman etzioten beraren graciari; baicican onez ostean adierazo cizten, guertatuco cirala, cerren egun artan esquer gaiztoz eranzun cioten. Et quidem in hac die tua. Cegatibait deitu cion JesuChristoc egun ari, Jerusalentarren eguna berea; cerren bere escuan ceucan egunaz valiatcea berea; cerren valiatzetic, edo ez valiatzetic cetorquion zorionecotasuna, edo zorigaitza: Salvacioa, edo condena-cioa. Azquenic zuten Jerusalem beren eguna; cerren batecere beren suerte ona, edo gaitza cincilica becela aurquitzen zan egun artaco lanvidétatican. Bada ez guichiago, eta ez guejago berbera guertatzen da Españatarraquiñ, Christau gu-ciaquiñ. JesuChristoc alde ascotara deitzen digu Eliza santaren eta Ministroen vi-dez. Deitzen digu escarmentuen videz; cerren dacusgun arguiro aspaldico guer-taera triste, negargarriac artará zucencen dituala bere Divina magestadeac; esnátu gaitean lozorrotic; valiatu gaitean bere graciaz, eta mesede paregabe apartecoezaz; bada dala gure eguna, aldarte suertoso, dempora egoqui estua, ceñetan aurquitzen dan cincilica ez, edo bajezcoa; suerte ona, edo zorigaitza.

¡Ha! nere Christaua, cembait Españatar, Jerusalentarrac ezeze, egongo dira-de infernuco sugarretan penatcen seculaco, cerren valiatu etziraden beren dem-poran JesuChristoren deituraz, eta gracia apartecoaz! Infernuco pena guciac ba-ña guejago penatuco ditu, pensatceac bacarric JesuChristoren deiturari eguin cioten mesprecioa. Quia si cognovisses et tu; et quidem in hac die tua. ¡O! cer di-cha izango zan zuena, baldiñ Arzai onaren chistua aditu, eta viurtu bacinata bera-gana humiltasunaz, alde bat utziric ceon gogata charrac, esquergaiztocoac, eta dollorrac! ¡Etzenduten asco uste izan, paque gozoarequiñ convidatzen cinduzte-la! ¡Seculaco aberastuco ciñaten ondasunac esqueinten cizutela! ¡ha! valiatu ba-lirade ondo egun suertosoaz, ceñetan Eliza Santaren aoz, deadar eguiten cizten JesuChristoc: ¿Cur me cedis? Cerren aiñ gaizqui pagatcen didazu nere amodioa, nere gracia, eta mesedeac? ¿Cerren mespreciatcen dituzu nere inspiracio santuac egun egoqui onetan? Et quidem in hac die tua. Nere contura, beste suerteric izan-go cendutela. ¡Ha! oartu baciñate araco, trabajua, calentura, nequea, eta naiga-bea bialdu nizuten egun suertoso artan; niganatzeco Seme galduaren erara! Oraiñ beste moduz, beste eratan icusico cinduzten ceon buruac Aiñgeru, Santu, eta Bienabenturadu gucien artean. Arrazquero aazturic gueldituco ciraden zuen penac, trabaju, eta atsecabe guztiac erabat; eta gozatuco cenduten seculaco pa-quea, seculaco sosegua, seculaco pozaldia. Baña arreta artu gabez, ondo contu-ratu gabez, vici ciñaten gustora ceon gaiztaquerietan, gogatetan, vicio mota gu-cietan; eta dacutsute seculaco penac, eta tormentu icaragarriac; Jaungoicoa beti, eta contiño contra dezutela; beraren aserrea seculaco zeon gaiñ dezutela.

Eta laceri au gucia ¿cergatic da, nere Christauc, nere lagun Españatar mai-teac? Cerren ezagutu etzuten JesuChristoren visita gozoa; cerren gaizqui pagatu cioten mesede ugari, eta andiac; cerren espaldac itzuli cioten devez jarri zan egun

suertoso artan. *Et quidem in hac die tua. ¡O! gure Jesus ona ¡O! gure Nazareno maitagarria! Badacugueron dicha onean, guri diguzun amodio andi, parega-beagaitican jarri ciñala sacramentaturic aldare santu onetan; gurequiñ beti eta contiño izateagatic; guri ortican gracia ugariac partitzeagaitican; gure argaltasuna, Aiñgueruen janari gozoa eguiñican, sendotceco, indartzeco, eta gueron etsai gogorrai aurpegui eman, eta vitoriarequin irteteco. Ez gaude, Jauna, aazturric, bacarric guri diguzun amodio guttizcoagaitican jarri ziñala cincilica ilce gogorrez josiric Gurutze santuan, eta gozoro, ta vorondatez sufritu cenduala eriotza lotsagarria; cere eriotzarequiñ seculaco vicitza gureztat erosteagatic ¿Izango ote dan, Jauna, gureztat egun au zure visita zorionecoaren eguna? ¿Izango ote dan egun au, gure Jesus maitagarria, gueron eguna, ceñetan cincilica dagoan gueron zori ona, edo zorigaiza? Et quidem in hac die tua.*

¡O! Jaun amodiotsua, contiño gure dezez, gure zai, gure erruquiz aurquitcen ceradena! Lagun zaquizgu, aciertoraco cere gracia apartecoquiñ; alferrac izan ez ditecen gure aleguiñ laburrac. Egunen batean pena guejagoraco servitu ez dizagun egun suertoso, eta alde gucietara prochuzco onec. Daquigu ondo, gueren ez daucagula merecimenturic zugánatceco mesedeac escatcera; bañan alaz guciarren ere, lotsac bota nai ditugu bertatican Maria Santissimaren amparuan; cerorrec, Jauna, utzi cenduan gurutze santutic Pecatarien Amatzat: Mulier, ecce filius tuus; filius, ecce Mater tua. Señora piadosa, eta dolorosa onen mantupetic deitzen dizugu Aitaren izen santuarequiñ; eta ez daucagu esperanza galdurric, Seme gaiztoa bere Aitac pócican ascorequiñ bere besàrtean maitatu, laztandu, eta gozatu zuan eran, ala gu ere, zu izanic gucion Aita maitea, artuco gaituzula amodioz, erruquiz, eta gozorò; zure gracian alican leenena jarri, eta valiatu gaitean gueron egun auquera utzi diguzun suertoso onezaz; Zurequiñ betico adisquidetasunac eguiñ, eta gueroztican mereci izan dezagun secula gucian zu alavatceco, zuzaz gozatceco dicha. Amen Amen.

5.9. Dom. 10 post Pent. Percutiebat pectus suum dicens: Deus propitius esto mihi peccatori. Luc. 18.

JesuChristo gure Jaunac, itz eguitean beren buruai besteenari baña guejagerizten persona batzuaquin, ifini cizten aurretic exemplo edo parabola Evangelio santuac dacarren au. Guizon bi juan ciraden Templora, esan cizten JesuChristoc, oracio eguitera: ¡Ha! ceñ ondo esana dagoan; cerren Elizara jua bear dan oracio eguitera, ez izquetara, eta verriquetara, asco juaten diraden becela, bada Jaungoicoaren Echea da oracioraco, ez verriquetaraco. Guizon ojetatic bata zan Publicanoa, guizon gaiztoa, eta bajua; bestea zan Fariseoa, aundizua; jancian, eta portean ondo ezaguna. Fariseo onec zuti oracio eguiten zuan eta gente erdian esanaz: Jaungoicoari milla gracia esquer dizut, cerren ez naizan Publicano au becelacoa, peccatori andia, dollorra, gaiztaqueria baizic eguiten ez daquiana; nic astean bi bider barautcen det, legueac aguincen ezpaduere; nic amarrenac oso oso pagatcen ditut, eta azaz gañera zor ez duten gauzaetatic ere bai vorondatez;

era onetan bere burua abonatuaz oracio eguiten zuan. Baña contrara Publicanoac Temploaren bazterretic, cerren etzeritzan diña bere buruari Aldarara arri-matceco, veguiac lurrera veguira cituala, esaten cion Jaungoicoari: Misericordia, Jauna, bada naiz pecatari andia; eta onetaraco bere damua, eta sentimentu guttizcoa, cerren ofenditu zuan, iragarten cion pechuco colpeaquin. Percutiebatur pectus suum dicens: Deus, propitius esto mihi peccatori. Guizon ojetatic Fariseoa izan zan barcacioric irichi etzuana; cerren berac bere burua abonatu zuan; baña Publicanoari barcatu zitzaizcan bere utseguite guciac, cerren humillaturic Jaunaren aurrean damu, eta sentimentu eguiatzcoa iragarri cion; argatic dio Evangelio santuac: mundu onetan alchatu, eta arrotcen dana, memberatu, eta ondatuco dala infernuraño; eta contrara humillatcen dana, alchatuco dala Ceruco Tronuraño.

Emendic arcen det motivo justua, pecatuen damu, eta sentimentuaren gañean zuei itz eguiteco; da gai bat guciz premiazcoa, prochuzcoa, eta chit bear bearra; bada asco, eta asco daude engañaturic Christan artean, pecatuac nolana confesatu, eta absolucioa, edo Sacerdotearèn bendicioa logratu ezqueroz, barcaturic guelditcen diradela pecatuac, beste lanic, eguitecoric ez balego becela. Adi zazute bada contuz, conturatu zaitzetean, eta ceon aciertoraco.

Iritzi gaiztoan daude araco Cristau erraz najac, eta pensatcen dutenac, nola bait beren conciencia examiñatu eta pecatuac gogora ecarrira beste gabe confesatcera dijoacenac, aimesterequin pecatuac barcatcen diralaco uste osoan. Eguia da Examiña ondo eguitea gauza bearra dala, pecatuac norc berac osoro, eta bear dan eran Confesoreari autorceco; baña ezta asco aleguiñ au, eta onez ostein premi horduan, motivo justua dagoanean eguiñ lezaque Sacramentua diligencia au gabe; baña pecatuen damutasuna, dolorea, eta sentimentu eguiatzcoa, aiñ da gauza bearra, ece bera gabe ezta eguiten sacramenturic, ezta iristen graciatic, ezta barcatcen pecatu mortalic. Bear da damua, eta sentimentua absolucioa, edo bendicioa botatceco, eta valio izateco.

Eciñ pensatu, eta esan lezaque Jesu Christo gure Jaunaren ontasunac eguin zigun mesedea Penitenciaco Sacramentu Santua eguiñarequiñ; bada pecatuac erac diralaric anima tristea ilcen duten ezpata, cuchillo, edo puñal zorrotzac; bear dan disposicioarequin, edo bear dan eran confesatu ezqueroz, pecatuac erac dirade motivo, edo vide erraza virtutezco, eta graciazco obrac eguiteco; ojequin irabazteco verriro erac mediante etorri citzaizcan calte gaizto, ugariac; cerren bera dan graciaren fruetatic bat; baña onetaraco ezta asco confesatcea damuric, doloreric, edo Jaungoicoa ofenditu dualaco sentimenturic ezpadarama confesatceracoan. Eciñ conta ala condenatcen dirade, nere Christauac damuaren faltaz; ala aguertu cion, edo aditcen eman cion Sta. Theresa de Jesusen bere devotacho bati.

Pecatuen damutasunaren izatea dagó, batec bere viotcetic damu izatean pecatu eguiña, igüi, eta gorroto arturic pecatuari, ez berriz eguitecó asmo, edo proposito irmoarequin. Ala dauca erabaguiric Trentoco Concilio, edo batzarre sagraduac. Baña jaquiñean bego Christaua, ez duala iristen graciatic, pecatuen

barcacioric edoceiñ damu, eta nola naico sentimentuac. Argatic dio Sn. Agustinec, ez tala ona edoceiñ Penitencia. Damu izatea batec pecatu eguiña, cerren galdu duan creitua, estimacioa, osasuna; libertadearen calteac arbatu diolazcora; onelaco damuá laburra, otza, eta bajua da Jaungoicoarequiñ adisquidetasunac eguiteco, beraren gracion jarteco; pecatuac barcatceco. Lapurrac, eta heriotzaguilleac damu oi dute pena, edo castigua guerturatcean, lapurretan eguiña, heriotzac eguiña; baña damu au ez dute ascó, eguiñac barcatceco, cerren motivo ojec ez diraden naturalezaz gañeco damua sorcen dutenac, eta pecatuaren gorrotoa, eta verriro ez eguiteco asmoa bear dute izan Jaungoicoaren ofensa diradelaco. Alaco eran, ece damuaren medioz vorondateac egon bear du prestaturic sentimentuz cerren Jaungoicoa ofenditu duan, eta najeon ez ofenditua, dala etorri cequiqueon gaitzagatic, edo onagatic; eta eguiñ bear ditu ez berriro Jaungoicoa ofenditceco aleguiñac edoceiñ costura. Disposicio, edo vorondatearen prestaera au bear bearrecoa da dala Contricioan, dala atricioan, Confesioaren vitez gracia logratceco bendicio ondoren. Mundua mundu danetic, ez tu pecaturic barcatu Jaungoicoac, damutasun gabe. Beti beti, dio Trentoco Concilio sagraduac, izan da precisocoa, premiazcoa, bear bearrecoa damu au, pecatuac barcatceco.

¿Cembaitec usteco do, nere Christauac, aoz, nola nai, eta presaca esanarequin, Nere Jesu Christo Jauna, bera asco duala bear dan damua artu, eta Jaungoicoari adierazteco, aimesterequin confesatcera juateco? ¿Nolatan naico du onelacoac beste gabe, eta verariaz pensatcen jarri gabe damu sortuco dioten motivo justuac, vorondatea, osoro macurceco pecatuaren igüitasunera, eta ez berriz eguiteco asmo irmoac arcera? Miñgañac servitcen du confesatceco; bañan ezta bastante miñgaña damuraco, bear da onez ostean vorondate naturalezaz gaiñetic damutua, cerren amatu bear zuan Jaungoicoa ofenditu duan, viciro aserratceco motivoac eman dizquion. Arritceco gauza dio Sn. Ambrosioc onen gañean: Errazago dala aurquitcea Christan artean inocencia gorde dutenac, edo pecaturic eguiñ ez dutenac, eguiñ ezquero, eguiñac damutu diradenac baño. Pensa ezazute erraz dan edo ez bear dan damua confesatceco iduquetcea. David Erregue Santuac gogoan arcen cituan igarotaco urteac: Cogitavi dies antiquos; baña vorondatea moguitceco damu eguiazcora, gogotan chit menaz arcen zuan Eternidatea, edo betico iraupena: Et annos Eternos in mente habui. Pensatcen zuan bere artean cer lan charra zan betico Cerua galceco perillean jartea; eta betico pena gogorrac iristea bere buruari, gusto ciquiñ bategatic pensatcen zuan ¿Cer izango lizaque nizaz, baldin Jaungoicoac venganza artu nai balu? Cer izan bear du: betico condenacioa. Ojec, eta era onetan beste onelaco pensamentuac moguitcen zuten eguiazco damura, naturalezaz gañecora.

Ezequiasec pensatcen zuan vicitzaren laburtasuna, eta bestera betico laster juan bearra; baceritzan aurquitcen zala Infernuaren aucoan; eta pensamentu ojequin batera gogora ecarten cituan pecatuac, eta alaitu, ta animatcen zan damutasun eguiazcora, negar gogotic eguiñaz. S. Agustinec dio; pensa dezagula onetaraco, ceñ ofenditu degun, beraren ontasuna, beraren amodioa, beraren mesedeac; eta guci gucia batere guc merecitzaca; bautismo santuaren medioz bere Seme, eta

Ceruco heredero eguiñ gaituala; sostencen gaituala, jazten gaituala, eta eman cigula munduco perillartean amparatceco, eta guidatceco Aiñgueru Guardaco bat; eta onelaco Aita ofenditu degula ¡Ha! Dollorqueri arrigarria! ¡ha! guizonaren esquergabetasuna ecinda guejagocoa! Esazu cere artean: najago nuquean supito ill baninz pecatu eguiñ baña leenago; eta najago det ilcea milla bider berriz pecatu eguiñ baño. Modu onetan sajatcen bacerade, Christaua, vorondatea damu eguiazcora macurceco, Jaungoicoac bere piedadez, eta erruquiz lagunduco dizu; eta nere contura logratuco dezula Confesio on batec bear duan damutasun naturalezaz gañecoa, dala Contricioa, dala atricioa; bada ala bata nola bestea, dirade gai, Confesio on bateraco.

Contricioa da damutasun bat datorquiguna Jaungoicoa izanic aiñ ona, aiñ santua, aiñ maitagarria, alaere ofenditu degulazcora, gauza gucien gañean amatu bearrean; alaco moduz, ece Ceruric, eta infernuric ezpalegoere; eta aguertuco balizu Jaungoicoac, ez dizula eman nai ez premioric, eta ez castiguric, amatu nai dezula alaere gauza gucien gañean; eta damu dezula bera ofenditua, bera aserratua, eta aiñ injuria andia eguiña pecatu eguiñarequin. Contricio onen frutua da, eguitea bertatic Jaungoicoarequin adisquidetasunac graciaren medioz, alaco eran, ece, disposicio, edo estadu onetan ilgo baliz bat confesatu baño leenago salvatuco lizaque; baña beti al badu confesatceco deseoarequin, eta obligacioarequin. Ala dauca erabaguiric Trentoco Concilio, edo batzarre sagraduac.

Atricioa da: damu izatea Jaungoicoa ofenditua gueuri dijoquigunagatic; cerren pecatu eguiñaz galdu degun Cerua, mereci degun infernua, edo beste Motivoren bategatic, nola dan pecatuaren beraren ichustasunagatic, fedecac eracusten digun eran. Baña beti damutasun onec unituric iduqui bear du pecatuaren iguja, gorrotoa, eta ez berriz eguiteco propositu iraupenecoa. Atricioaren frutua da prestatcea peccataria Confesioraco, eta bendicioa arceco, eta onequin batera logratcen do gracia, barcacioa, eta paquetcen da Jaungoicoarequin. Bada bateatu ezqueroco pecatuac barcatcen dirade Confesioarequin, eta bendicio, edo absolucioarequin; eta confesatceco eraric, moduric, edo astiric ezipadago cerren supitoco gaitcen batec artu duan Cristaua, orduan Contricioac barcatcen ditu pecatuac, al duanean confesatceco condicioarequin. Baña nola nai dala, Christauac aleguiñ eguin bear du Contricioa logratceco moduac arceco; cerren gai onetan seguru jocatcea da onena, eta ezta guichi izango Contricioraco aleguiñac eguiñ, eta atricioa logratcearequin.

Veraz emendic atera beza contu Christauac, cer arreta, cer cuidadoa, cer aleguiñac eguiñquizon dauden ondo Confesatceco, bear becelaco damua iristeco. Ez gabaz pensatu, bigar egun andia, confesatcera juan bear det; eta aimesterequin, goicean jaiqui, Elizara juan, eta eratcen bada Confesorea, bear bada ciñantu gabe jarri belaunico confesonarioan. Modu egoquia, prestaera ona confesio on bat eguiteco. Ezta modu oberic lén bait lén echera biurceco; baña nola: Fariseoa becela, Elizan sartu zanean baño pecatu gejagorequin, eta Deabru guciac baña ichusiago. Ichiric dauzcagun Ceruco ateac zabaldu, eta zabalduric dauzcagun infernucos ateac ichi nai baditugu, espaciozago prestatu, menazago, damutu, eta

obeto confesatu bearco degu, nere enzuleac: ezta chanchaco gauza; eta esan dizogun Jaungoicoari aurrez, eta sarritan; bear becelaco damua da, Jauna, zure deja, zure saria, eta vorondatezcoa; bada escatcen dizut viotcetic, negarrez, eta suspirioz, cerren zurequico adisquidetasunac eguiteco chit larri nago, ajenatu nai det betico nigandic pecatua, eta pecatuaren occasio, eta arraza guztia; zure amodio andiagandic espero det gracia, edo mesede au; bada daquit guciz naico escaera dala au, cerren nai ez dezun pecatarien heriotza, baicic gucioc salvatcea. Nolo mortem peccatoris. Ala guerta dedilla gucioquin Amen.

5.10. Doma 10. Post Pentec. Deus, propitius esto mihi Peccatori. Luc. 18 Jauna, izan zazu piedadea, edo erruquia ni Pecatariaz.

JesuChristo gure Jaunac gaurco Evangelio Santuan eguiten digu, nere Enzuleac, humiltasunaren, eta arrotasunaren pintura, adierazteco, gauza bearra dala humiltasuna Ceruco Erreynua logratceco; beste lecu batean esaten duan cran: icasi zazute humillac izaten nigandic; bada naiz viotzez mansoa, eta humilla: nere contura aurquituco dezutela, ceon animen descansua, edo seculaco sosegua. Discite à me; quia mitis sum, et humilis corde, et invenietis requiem animabus vestris. JesuChristo gucion maisu jaquinsuac eracustean Ceruco misterio andiac genteari, barruntatu zuan, gentârtean arbatcen ciradela persona modu batzuec, beren buruai besteai baña guejago ceriztenac; besteac baña cerbait estuago leguea eren iritzian gordetzen zutelaco. Motivo justu au zalarario, batez ere, ojetara guidatzen zuan bere sermoja Jesus maitagarriac; parabolaren medioz, humiltasunaren valioa, eta cembait dagoquion Christauari humilla izatea, eracusteagaitican.

Esan cizten JesuChristoc: Egun batean guizon bi sartu ciraden Temploan alcarrequiñ; bata Fariseoa, eta bestea Publicanoa. Fariseoac arrotasunaz beteric, humillatuaren ordean Jaungoicoaren aurrean, alavatzen zuan bere burua, bere lanac, eta eguitecoac abonatuaz, eta beste gucien gaiñ andizcatuaz. Zuti cegoala, bere artean eguiten zuan: Graciac emate dizquizut, Jauna, beste guizonen guisacoa ez naizalaco; eta batez ere, onaco Publicano au becelacoa. Au, ta besteac dirade, Jauna, lapurrac, gaiztoac, lujuriosoac; baña ni beste moduzco guizon prestua naiz; bi bidar balurcen naiz astean, gañeraco obligaciozco balurraz ostein; nic ondo, eta zucen pagatcen ditut amarrenac; eta ez bacarric usatcen dan frutuetatican, baicic gañera beste egoscari, eta frutuetatican. Azquenic ezagun naiz beste guizon gucien artean, nere prestuquerietan, eta ontasunean. Sn. Agustinec itancen du; ¿ya por siacaso izcunza modu ojetan barrunta ditequean oracioaren señaleric, edo anzic? Quid rogaverit Deum, quaere in verbis ejus, nihil invenies. Datoz erregutcera Templo santura; eta bere burua abonatcea besteric, ezta beregan barrunta, edo ezagun. Noluit Deum rogare, sed se laudare. Berbera eguiten dute heregeac: beren buruac aguertu, besteac lurpean sartu; beren eguiteai asco iritzi, besteena abacatu; berenzat letradu, besteenzat fiscal gogorrac. Fariseoac, eta heregeac, itz batean esateco, alcarren ancecoac arrotasunean, eta JesuChristoren, ta bere legue santuaren contracoac, etsai amorratuac izatean. Veguiz eciñ

icusi dute, ez batzuac, eta ez besteac JesuChristoren jarraitzalleric; lotsagabe-
queria beti aurrera; prestuqueriaren iguja, eta alde gucietara gaiztaqueria.

*Contrara Publicano tristea chit humill, eta bere artean lotsaturic, veguiac lu-
rretic gora alchatceco quemenic, eta valoreric etzuala, jarri zan Temploaren baz-
ter batean, pechua colpeca joaz, pecatu eguiña guciz damu zuala, asperzaca esa-
ten cion Jaun Divinoari: Jauna izan zazu nizaz misericordia: Deus, propitius esto
mihi peccatori. Publicanoaren pechuco colpeac, edo bularra jotzeac adierazten
du campotic viotzecco damua, eguiazco contricioa, sentimentu vicia. Diferenteco
oracioguitea da, nere Christauac Publicano triste onena, eta diferentecoa izandu
zuan saria. Publicanoa bada, dio JesuChristo gure Jaunac, biurtu zala bere eche-
ra Templotican barcaturic bere pecatu guciac; baña contrara guertatu citzajon
Fariseoari; cerren Temploan sartu zanean baña pecatu guejagorequin itzuli zan
bere echera. Bada Jaungoicoac aditu oi ditu chit gustora, ta pozaldi andiarequiñ
humillen oracioac; baña guztiz igüi ditu arrotasunaz naasturic eguiten diraden
escaerac. Argatic dio Evangelio Santuan Jesu-Christo gure Jaunac: humilla al-
chatua izango dala; baña arro, superboa beeratua, menderatua, oñazpiratua:
Qui se humiliat exaltabitur; qui se exaltat humiliabitur.*

Guizona humillatceco, eta menderatceco pecatua gai dan becela, ala orobat
servitcen dio humiltasunetic irteteco viotcean sorcen dion lotsa osasunsua dalario.
Ecerc ere ez du guejago Christaua humillatu, eta memperatu bear arrotasunac ba-
ño; bere ecereztasuneraño beeratuarequiñ, Christauac aurquitzen du bere andita-
sunaren cimentu irmo, segurua, eta chit goraño alchatzecco modu egoquia. Guichi
asco bat alchatcea asco duana bere burua zoratzeco, erraz ezagun da. Iritzia izate-
tic datorquio gucien artean chiquiena izatea, tontoa, edo eraucia bere burua beste-
quiquo eguitea. Atseguñ du Jaungoicoac persona arroac lotsatu, menderatu, beera-
tu; eta humillac jasó, alchatu, eta andizcatu. Deus superbis resistit, humilibus
autem dat Gratiam. Asco, nai adiña, eta guejegui da, jaquitea, doai, talentu, ja-
quiunde, eta gañeraco gracia, eta mesede mota guciac datorquiola criaturari escu
batetican, Jaungoicoa berbera dala partitzalle justua, ezagutcecco arguiro, eta du-
datzaca, Jaungoicoaren servitzan eztala aurquitcen gauza chiquiric, edo menosic.
Ceruan Aiñgueruac diferenteac dirade diñatasunean jardueraz conforme; baña
alaz guciarren ere guciac dirade veneragarriac; cerren diraden Jaungoicoaren ma-
gestadearen Ministro andiac. Espiritu Santuaren doai miragarriac alerañoacoac di-
rade mesedez bacarric partitcen diradenac: Conseju doaja, jaquinduriarena,
itzcunzarena, mirariac eguitecoa, guciac erabat dirade emanac lagun urcoaren pro-
churaco; ez bañan iñolaz ere nor beraren gloriaraco, ta aurrerapeneraco. Emendi-
can datorquio Christauari gracia ojen ezagüera, eta esquer ona iduquitcecco obliga-
cio estua, eta humillatcecco motivo justua. Argatic Sn. Pablo Apostoluac egoqui, eta
leguez, ta videz dio: ¿Cer daucazu, Christaua, artuaz gañera? Eta artu badiutuzu
¿cergatican pantasiz jazten cerade, artu ezpacinduz becela? Quid habes, quod non
accepisti? Si autem accepisti ¿Quid gloriaris, quasi non acceperis?

Ezagutu dirade munduan Guizon jaquinsu andiac, Fariseoac becelaco ba-
tzuec, chit zaartu baña leenago aur biurturic. Egemplo, edo icuscari ojequiñ Jaun-

goicoac, gueron prochuraco nai digu eracutsi arrotasuna gueregandican ajenatu, eta humiltasuna estimatcen, maitatzen; gueroztic beraren ontasunac, eta guganaco amodio paregabeac alchatu gaitzan: *Qui se humiliat exaltabitur; et qui se exaltat humiliabitur.* ¡Arritzeco gauza da, nere enzuleac, jaquiñaren gañean Christauac, auts pisca bat besteric eztala, eta gueroztic auts izatera etorri bearco duala: *Memento homo; quia pulbis es, et in pulberem reberteris.* Alaere ez humillatcea; vanidadez, eta aicez burua beteric iduquitzea! ¡Arritzecoa da, eta zoraqueri andia, lur pisca au, daquialaric Jaungoicoari bacarric zor diozcala duan ecea, eta igarra; alaere arrotcea berezcoac balitu becela, eta aldartez oostu nai izatea gloria au berau Jaungoico eguilleari, eta emalleari! Jaquizute, nere Christauac, ceon gobiernoraco, arrotasuna dala viotz urri, chiqui, eta pendejoaren señale arguia; cerren viotz noblea, andia, eta honrradua, edo prestua escuarqui izango dezu humilla. Tonto, ez-jaquiñ gucien berezquia, edo manua oi da arrotcea, iritzia, fantasia: besteric ez becelacoac diradela uste izatea Fariseoen erara.

Humiltasunaren muga dio Escritura Santac, dala Jaungoicoaren bildur santua; eta bere medioz alchatzen da Christaua chit gora merecimentuetan. *Finis modestiae, timor Domini.* Eta David Erregue Santuac dio: Jaungoicoac humillac salvatuco dituala: *Humiles spiritu salvabit.* Argatic bada, nere Christauac, asmo artu det, gaurco sermojan azalcea cerbait cearo; Naita najezcoa dala humiltasuna, Christaua salvatuco bada. Contuz adi zazute ceon aciertoraco; bada orren ondorén nabill; eta bear dan eran eguiteco, esca dizogun Ama gracia partitzalle Ma. Santissimari onetaraco gracia, esanaz Aiñgueru Sn. Gabrielequiñ batera: Ave Maria.

Deus, propitius esto mihi Peccatori.

Eguiaz, eta menaz esaten dizutet, nere Christauac, Salvatuco danac humilla izan bear duala; naita naiezco virtutea dala humiltasuna; humilla eztanic ezta salvatuco. Pissa-ol bat eciñ alcha diteque, bestea jaisten ezpada; bada anima bat eciñ orobat alcha diteque Cerura; leenvici lurreraño beeratu, edo macurcen ezpada. Aurquitzen dirade Ceruan martiri izandu etziradenac munduan; beste asco Virgiña, edo castoac izandu etziradenac; baita ere guciz penitenteac, edo guciz contemplariac izandu etziradenac; bañan ezta aurquitzen bat bacarra Ceruan, humilla mundu onetan izandu etzanic; ezta aurquituco ere secula; cerren Ceruco ateac zabaldu bear dituanaren esana, eta erabaquia da. *Nisi efficiamini sicut parvuli, non intrabitis in Regnum Caelorum.* Zaudete seguru, aurchoen guisa humillac ezpacerate, etzerate Ceruraco. Eta da, cerren Ceruco ateac chit bajuac, eta estuac diraden: *Areta via est, quae ducit ad vitam.* Veraz ez dirade cabituco lodiaco, esponja becela arrotzen diradenac; tantai leguera alchatcen diradenac.

Baña conturatu zaitzte; eztala bastante humilla izatea, baldiñ eguiaz ezpada; irudipen utsa bada, eta azaleco humiltasuna. Gaur dan egunean esan diteque, humiltasuna, eta modestia irudipenecoac diradela modaco virtuteac; gorputceco soñetan modaco aguerceen diraden eran, ala animaco soñetan ere, modara janci bear dala, ecer izango bada genta artean. Icusico dituzute guizon, eta emacuma mundutar asco, dabilzala modestia andiarequiñ, veguiac lurrera macurtuta, jan-

cia bere modu batean guizacumac, eta emacumac abituquia bere Carmengo co-
rrea cincilica duala, lepocoa soledade modura, mantelina honrrazale leguera; itz
batean liburucho bat escuetan artu, munduac icusi deguion, errosario ale aundi
batzuaquiñ batera, beren buruac beata eguiñic; ozta ozta, batez ere guizonezcoa-
ri veguiratu, eta itz eguiten diotela, eta aiñ issill, aiñ baju, ece batere gor aicea
duanac, ez diote adituco itz bat bacarra. Esaten dizutet eguia, baldiñ campotic,
edo azaletic diruditen becelacoac balirade barrutican, eta viotzetic; eciñ izan li-
teque humiltasun andiagoric; baña icusi al baledi, cristaletic becela ojen barrua,
ojen viotza; icusico cenducate ego-aicez beteric; arrotasuna, sobervia, eta bere
alde estimacioa, andinaja, alde gucitic Fariseoen guisa: graciac ematen diozcat
Jaungoicoari; cerren ez naizan beste urlia, sandia, eta berendia becelacoa: Gra-
tias tibi ago, Domine, quia non sum sicut caeteri hominum.

Adituco dezute guizon baten aotic ¡ha! munduan ezta aurquituco ni baña gui-
zon ezerezagoric, almen guichiago duanic; pecatari andiagoric; ez dezute icusi-
co guiza artean certaraco, edo artaraco eztan guizonic; bañan ni ez naiz gauza,
escuzatarra becela bazterturic egoteco baicic; alde gucietara pobre, miserable,
eta ecer eza. Esan zajozute onela bere buruagatic, Aita Sn. Fran.co bat baliz be-
cela itz eguiten duanari, coitadu, simple bat dala; orduan icusico dezute odejetan
gora nola alchatzen dan zuen contra; nola amorratzen dan eciñ guejagoraño,
querella bat justiciaren aurrean zuen contra ifinteco zorian: Tange montes, et fu-
migabunt. Quea, sua, garra, eta picha dariola jarrico da puntuco. Aice guciac
beiñgoan naastu, eta ez dute alaco giraboll otsican ateraco Eoloco lece zuloetan:
Circum claustra fremunt magna cum murmure venti.

¡Ha! nere Christauac, era onetaco humiltasuna ezta gai Ceruan sarceco. Se-
dea dirudite campotic, baña contu; laster asco aguertuco dute tricu larrua baña
latzagoa dan mingaña; trillu eguiñgo dute por vidadeca. Chimistac, eta oñazca-
rrac veren viotz barrutic irtengo dute, mundu gucia ezeze, Ceruac erac icaratuaz.
David Erregue santuac eracusten du, Cerua iriquico duan humiltasunac, nolacoa
izan bear duan; eta itz bitan: Humiles spiritu salvabis. Jaungoicoac salvatuco di-
tu espirituz humillac diradenac. Bera da bacarric eguiazco humiltasuna; beste
gañeracoac dirade gezurrezco humiltasunac, irudipenezcoac, azalecoac; itz bate-
an, modaco humiltasunac, Ceruan sarreraric ez dutenac. Era onetaco humiltasu-
nac ez dirade humillac; baicican humiltasunaren señaleac. Constanzo Arriotar
Emperadoreac triunfo andian Erroman sartu zanean, etzion iñori ere abegorric
eguiten, ez burua macurcen; bacar bacarric Arcu altuac igaro bear cituanean,
macurcen zan; alace laburra zalaric berà, adierazo nai zuan, arcua baña altua-
goa zala berà. Onelaco irudipensuac dirade ascoren humiltasunac. Mingañaz hu-
mill, eta viotzez superbo arrò. Samuelec cargu eguitean Sauli bere pecatuaz, au-
tortu zuan gaiztaqueri andia; Jaungoicoac icustean Saulen autormena, duda -
gabe barcatuco cion aozcoa izan zan becela viotzecoa izan baliz autormen ura.
Etzuan humiltasunaren maisuac, nerequico mespreciatuco, izan baliz eguiazco
humiltasuna; bañan etzan palagatu, etzan erruquitu Jaungoicoa; cerren cecusen
miñgaiñ humilla, eta viotza arroa. Deus humiles spiritu salvabit.

Alaz guciarrenere, ez dirade beti alferrac, indar gabeac; valore, eta mercedu gabeac aozco, eta campoco humiltasunac; baldiñ mingaña, eta obrac viotzarequiñ alcarturican badaude. Santuetan ala ezagutu, eta icusi da ascotan. Gurre Aita Sn. Ignacio Lojolacoac firmatcen cituan paperac, eta cartac, ezarriaz Ignacio Pecataria. Sn. Franco. Borjari gau batean lagun batec, acordatzaca, eta sentitzaca, carcassaz bete cion aurpegui gucia; goicean icustean eguarguiz lagunac liquisqueria, barcacio escatu cion: eta eranzun cion santuac humill, humill; etzezala cuidaduric batere artu, etzedilla penatu; bada guela artan etzala aurquitcen bere aurpeguia baño liquichagoric, ciquiñagoric. Ala iracurten da santuen vicitzetan beste ascogatic. Eta dio S. Bernardoc, campoco humiltasuna dala vide, barrucoraco. *Humiliatio via est, ad humilitatem.*

Eguiazco humiltasunaren señaie egoquiac dirade, nere Christauac, Sto. Thomas Aquinotarraren esaeraz, humiltasuna amatuaz gañera, errecibitcea gustora, gozoro, eta vorondate onarequiñ. *Humiles spiritu sunt qui amant humiliationem, vel saltem eam recipiunt sine querela. Humiltasuna amatcea, da eguiazco humiltasunaren goeneco gradua: humiltasuna errecibitcea da leenvicico virtute onen gradu bearra. Ez daucazu, Christaua, aiñ Santu andia izateco obligacioric, nun da deseatu bearra dezun humillatzea, eta artan atseguñ arcea; baña daucazu obligacioa aiñ Christau cinzoa, eta ona izateco, nun da humillatcen, mespreciaetzen zaituzten dempora, edo ocasioetan, sentimenturic ez arceco, ez quejatceco, ta ez aserratceco. Au da humiltasun eguiazcoa, eta bera gabe salvatzeric eztagoana.*

JesuChristo gure Jaunac Aurren egemploarequiñ adieraci zuan eciñta egoquiago humiltasunaren virtute andia. Icusten dezute egun oro, nere Christauac, cer igarotcen dan mutilchoaquiñ larrien artean: guciac uste dute, daucatela escualdea Aurrai edoceiñ gauza eguiteco; naiz lotsagui, naiz belarrietatic tira, naiz concorreco bat eman, naiz edoceiñ gauza esan: picaro bat dala, chárria dala, mutico gaizqui acia dala. ¿Eta cer eguiten dute muticoac desprecio ojen ondoren? Guejena eguiten duanac inciri, negar pisca bat, eta ure lotsaz; issill issillchoric aldeguiñ, quejaric batere iragarritzaca. Janean, edanean, jancian, esateco moduan chacurcho baten erara tratatcen dirade; ba alaz guciarren ere quejatua- ren ordean, pozaren pozac ozta egoten dirade zuti. Bada jaquizute era onetacoa izan bear duala, Cerura jua nai duanaren humiltasunac. Eguiazco humiltasuna viotzean marcatuic daucanac, uste du guciac, dana dala beragan escualdea daucatela edoceiñ mesprecio, burla, desaire eguiteco. Guejenaz sentitzen du gorpuzac, gauza naturala becela; baña ispiritua conformatu, edo eraquidatcen da, onzat ematen du; ezagüera osoarequiñ, ala nai duala Jaungoicoac; ala conveni zajola, eta ala dagoquiola; cerren ala mercedu duan; eta jarraitcen dio onetan David Erregue Santuaren esanari: *Bonum mihi, quia humiliasti me. Milloica bidar graciac ematen diozcat Jaungoicoari; cerren humillatu naben; bada gracia au da, niri guejena conveni zatadana.*

Virtute gucién maisua dan Sn. Bernardo gloriosoac, eta batezere humiltasunarena, dio: bi umiltasun mota ezagutcen diradela; bata adimentucoa, eta bestea vorondatecoa. *Humilitas duplex est; altera cognitionis, altera affectionis. Leenvi-*

cicoarequiñ ezagutcen gueron burua, gueron ecer estasuna, eta humiltasun au lo-gratcen degu, pensatuaz ondo cer gueraden, gueron misseriac, eta misseriaren ondorengoac. Bigarren humiltasuna dalarío oñazpiratcen ditugu mundua, eta munduco izanac; eta dotriña egoqui au icasten degu JesuChristo gure Jaunagan-dic; ceñ izanic Ceru, lurraren jabea, humillatu zan gure amodioz Esclavo izate-raño. Exinanivit semetipsum, formam servi accipiens. Gure vorondatea humilla izateco, naita ez humilla bear du izan adimentuac. Vorondateagan dago, Sto. Tho-mas Aquinotarrac dioanez, batezere humiltasunaren virtutea; eta adimentuagan dago condicioa, ceña gabe iñolaere humiltasuna zucendu, guidatu eciñ diteque-an, eztaere iraunerazo. Vorondateari dagoquio, nere Christauac, gueron buruac sugetatcea Jaungoicoari, eta Jaungoicoagaitic lagun urcoari; eta Adimentuari dagoquio gueron ecereztasuna ezagutcea, eta Jaungoicoaren gucialtasuna jaqui-ñican, gueron lagun urcoa gueroac baño guejagotzat iduquitcea, eta estimatcea.

Jeremias Profeta santuagan dacusgu guztizco egemplo miragarria, gueron buruac ispillatceco, eta gueron buruaz cargu ondo eguiteco. Guciac daquite ja-quinsueñ artean, eta baitaere gañeracoac berei adituta, Profeta santu au izan za-la gucien artean jaquinsuena, arguituena, eta iztunic ederrena; beraren asmegui-ac, edo profeciac diradela nobleenac, arguienac; eta beraren celoa irmoena, eta iracequiena; aurreco, eta ondorengo profeta guciac baña servicio guejago eguin ciozcana bere Erriari; guejago sufritu zuan bere Erriaren amodioz, eta ascoz be-ar guejago eguin zuan bere demporan. Mereci izandu zuan Josias virtute andicoa-ren estimacio gucia; mespreciatu zuan Joaquíñ gaiztoaren persecucioa, desaire leguera; Nabucodonosor Barbaroetaraño guciac ecarri cioten errespeto andia. ¿Eta cer iritzi, cer uste zuala deritzazute zuala bere buruagaitican? Ego vir vi-dens paupertatem meam. Ni naiz esaten zuan, ni naiz, dacustanez, Guizon coita-du bat; naiz pobrea doajetan, jaquindurian, zeloan, lanvide gucietan; itz batean, naiz ecertaraco ez naizan guizamodu desdichadu bat. Ea! Christauac, ¿cer deri-tzazute izcunza modu oni? Izanic zan becelaco Profeta guciai erabat garaitu ciz-tena gai gucietan, ala ere aiñ baju eguiten zuan bere burua. Ezagun da beraren talentua, jaquiundea, eta viotzaren nobleza; cerren ezagutuaz gañera bere ecerez-tasuna, berac bere aoz humiltasun andiarequiñ autortu zuan, menaz.

Eguiaz esan nai dizutet, nere Christauac; eztaucagu motivo arguiagoric, eta andiagoric humillatze-co, gueron arrotasuna becelacoric. Ecer ere ez gaitu gue-ron soberviac baña guejago, eta errazago humillatu bear. ¡Ha! Profeta santuaren erara ezagutu, eta pensatcen balu Christauac sarritan, eta bear becela. Cer izan zan; cer dan; eta cer izango dan. Pensa beza cer zan; eta icusico du, naita ez, buz-tiñ pisca batequiñ eguiña dala: Formavit Dominus Deus hominem de limo terrae. Ecer ecetic alcartu cion gorputzari anima bat, bere ancecoa izan cediñ; Faciamus hominem ad imaginem, et similitudinem nostram. Bere Divina magestadearen anz andi au eman cion guizonari pensa cezan ondo cer fiñ, edo asmo altuetaraco eguiña zan; eta emendican motivo ar cezan Abere legueco vicimodua ez eguiteco: astu, ciquiñdu, eta liquistu etzezan deshonoratuaz Aberen vicimoduarequiñ, Jaun-goicoaren beraren semetasuna. Baña gorputza buztíñaz eguin cion guizonari, bei-

ñere aaztu etzediñ auscorra, eta ecereza zala; pensamentu onequiñ contiño humilla conserbatu cediñ arrotu gabetanic. Argatic gogoan sellaturic becela iduqui cezan egui au; esan cion: *Memento homo, quia pulvis es, et in pulverem revertetur.* Etorri dedilla bat, naiz jatorriz, naiz fortunaz Aundizu izatera; Erregue, edo Aita Santu izateraño; gogoan badauca Jaungoicoaren esaera; nere contura arrotuco eztala. Sn. Agustin Eliz-jaquinsuac itancen du ¿Cerez arrotcen cerade, Guizona? *Quid est quod te inflas? Cerbait baderitzozu cere buruari, sufritu zazu arcacusoen ozcada chiqui, lorican eguitea uzten ez dizuna. Pulcibus resiste, ut dormias.* Chimuch bat, elcho bat, erle, edo liztorraren ichachi arin bat iñolaere eciñ sufritu dezu. ¿Eta orrelaco misseria icusita, deritzazu cerbait cerala?

Baña cerana cerala, nere Christaua, etzerade beti izango. ¿Nun dirade zure aurreco Aasaba zarrac; aaide, eta adisqueideac? Nun dirade Elizaren asieratic onera izan diraden Aita santuac; nun dirade Erreynuetaco Erregue, Principe, eta Emperadore andiac? Arrazojarequiñ esango dezu: Jauna auts biurtu ciraden, aundizuac baciraden ere. Bada orobat guertaco zatzu zuri. Eta ajena becelacoa izango da zure suertea; ajec humillatu baciraden Jaungoicoaren esanera, oraiñ aurquituco dirade beraquiñ batera Ceruaz gozatcen; gogortu bacitzaizcan arrotasunaz Jaungoicoari, eta beraren legue santuari; oraiñ aurquituco dirade betico infernuan, sugar artean tormentu vici, vician Deabruac lagun dituztela. Contu eguizu, cere dempora gucian pecatu mortal bacar, bacar bat eguiñ dezula; pensamentu au berau asco dezu, humillatceco; cerren daquizun berac bacarric mereci zuala seculaco infernua eta oraiñ justua bacerade, cera Jaunaren misericordiaz, ez cerez. Sn. Pablo justua, santua, eta Apostulua zan; alaz guciarren ere etzeritzan diña bere buruari; cerren dempora batean peccataria izandu zan. Berac bere aoz autorcen zuan etzuala mereci, Apostulu izatea; bada perseguitu zuala Eliza Santa. Baldiñ suertez iñocencia gorde badezu, peccaturic eguinzaca; ez diozu zor dicha ori cere buruari, cere almen, edo indarra, baicican Jaungoicoaren ontasunari, gracia apartecoari; eta alde gucietara daucazu motivo justua humillatceco, ez arrotceco, eta Jaungoicoari esquerrac emateco.

Nere Christaua, esan zajoazu sarritan viotzez ta chit menaz Jaungoicoaren magestadeari: ¡Jauna, da posible ni ez humillatcea aiñ motivo ugariaquiñ eta Jaungoico humillatuaren aurrean! ¡Nolatan Jauna, veguiratu al deiqueot Jaungoico gurutz ilzatu bati bacarric nere erruquiz, nere amodioz il zanari, neregandican arrotasuna ajenatutzaca! ¡Ha! nere Jaungoico ona, nere vici modua dagoquit, ez izan nitequeala arroa, baicican eguiaz naizala! Bañan alaz guciarren ere, zure misericordia paregabeagan espero det aldatcea vici modu châr, eragabecoa; eta espero det arrotasuna ajenatcea. Cerorrec, nere Jesus maitagarria, aguincen didazu, zugandican icasteco humilla izaten eguiaz, menaz, eta viotzez: *Discite à me, quia mitis sum, et humilis corde.* Viotzetican, alaegui, ez azaletic; viotzetic, ez mingañaz bacarric. Jauna indazu ala guerta dediñ cere gracia indarsua; bere videz sartu nadiñ Ceruco Erreynu ondasunez garaitu artan. Ala guerta dedilla, nere Enzule devotoac gucioquiñ. Amen, Amen.

5.11. Doma. 12. Post Pentec. Vade, et tu fac similiter. Luc. 10. Zoaz, eta zuec ere eguiñ ezazu orobat.

JesuChristoren magestadeac gaurco Evangelio santuac esaten digunez, nere Enzuleac, icasvide andiac, eta egoquiac eman cizten bere Dicipuluai eta aditzen cioten gañeraco gente guciai. Suertosoac dirade, esan cizten, JesuChristoc, suertosoac dirade zuec icusten dezutena, dacusten veguiac. Beati oculi, qui vident, quae vos videtis. Profeta ascoc deseatu zuten Erregueaquin batera ni icustea, zuec icusten nazuten erara, nerequiñ, eta nere esanac aditzea zuec becela; bañan etzuten logratu mesede au. ¡Zorigaiztocoac ni beren artean iduqui, eta ocasio onezaz valiatzen ez diradenac! Onetan alchatu zan bertan aurquitzen zan Jaquinsu bat, chit arro, eta iritzi andicoa, eta gauza andi bat eguiten balu becela, eta bere galdearequiñ JesuChristo icaratceco ustean, itandu cion: Maisua, esan zada-zu arren, ¿cer eguiña irichico det betico vicitza? ¿Quid faciendo vitam aeternam posidebo? Bacequian sopra ere Jaquinsuac cer eguiñ; bañan probatu nai zuan, ja JesuChristo certanbait erori citequean; bada esaten bazuan, leguea gorde bear zala, bere ceremoniaquiñ batera, ceritzan etzetorrela casora, edo alfer lana zala, gauza verritzat Ceruco Erreynuaren alvista ematea; baldin esaten bazuan, etzala leguea gordequizunic, andican ezagungo zala Profeta falso, guezurtia zala. JesuChristoren magestadeac laster asco iguerri ciozcan Jaquiñsu arro, eta iritziari bere barrempeco asmoac, eta lotsaturic utzi zuan, esanaz: ez dezu jaquin bearric por cierto cer eguiñ bear dezun; sopra daquizu, bacarric falta dezu, eguiteco vorondatea. ¿Venturaz ez daquizu leguearen verri; cer dio legueac eranzun cion JesuChristoc? ¿Quomodo legis? Esan cion Jaquinsuac, legueac dio: amatuco dezu cere Jabe Jaungoicoa viotzez, animatic, eta al gucian, eta orobat cere lagun urcoa, cere burua becela. Diliges Dominum Deum tuum ex tota anima tua, ex tota mente tua, et Proximum tuum, sicut te ipsum. Chit ondo, eta guciz egoqui eranzun dezu, esan cion JesuChristoc Jaquinsuari, eguizu esan becela, eta vicico cerade. Recte respondisti, hoc fac, et vives. Letradua, icustean JesuChristoc ecinda obeto erabaqui ciola galdeera, bildurrac artu zuan, ceñiñ iguerri ceguion bere malicia, eta asmo dollorrac; eta nolabait ere estaldu najac itanduerazo cion JesuChristori verriro: ¿ja nor zan lagun urcoa? Et quis est meus Proximus? Jaquinsu onec, bere irecoen erara loturic ceucan bere adimentua, engañaturic vici zan bere superticio galgarriaquiñ, eta etzequian ondo lagun urcoaren verri; bada batez ere etzuan uste Erbestecoac, Juduaz camporacoac, Samaritanoac izan zitezqueala lagun urcoac; cerren igüi andia, gorroto mortala cioten alcarri, eta iñolaere eciñ icusi zuten batac bestea. Etzuten pensatcen gucioc erabat guiñadela Jabe batenac, Aita batenac, Jaungoico batenac; eta gucioc erabat guenduala alcar amatceco, estimatceco obligacio estua, eta andia, batac besteari on eguiñaz, mesedea eguiñaz, eta caridadez batac besteari edoceiñ gaitan veguiratuaz.

Etzan atrebitu Jaquinsua lotsaturic, JesuChristori, galdeera gejago eguiten, aspertu zan eguiñarequiñ: nor zan lagun urcoa; eta Jesus maitagarriac azaldu cion alde gucietara, aurrera quezcaric, edo dudaric eciñ iduqui cezaquasañ eran, parabola, edo ipui egoqui batequiñ, ceñetan verariaz sartu zuan Samaritanao;

aditu, eta icasi cezaten; Erbestecoac ere, Erricoac bezela estimatu bear ciradela, vegui onez veguiratuaz, eta aldarte, edo premietan mesede eguiñaz, Samaritanoac alde bat, edo caso gabe utzitzaca. Esan zuan Jesus maitagarriac, Jerusalendic Jericora cijoala guizon bat; eta irten ciotela videra lapurrac; eta zuan dirua quencea asco ecic eraso ciotela gojen bèan colpeca, eta utzi zutela erdi illean. Igaro zala suertez andican Sacerdote bat; baña icusi arren guizon coitadua era artan, etziola casoric eguiñ; andican laster igaro zala Levita bat; bañan besteac adiña caso eguiñ ciola guizon tristeari, ilzorian aurquitzen zala icusi bazuan ere. Azque nic igaro zala Samaritano bat, eta icusi beciñ laster, Zalditican jachi, eta guertu ratu citzajola guizon triste, erruquiren jajoari, eta bere igüicoa izanic alaz guciarren ere guciz cupituric, bereala al zuan becela lotu ciozcala zapiquiñ zauriac, olioz, ta ardoz ondo ganchituta; ifini zuala bere mando gañean, eraman zuala chit cuidaduz leenvici aurquitcen zan ostatura, eta egun gucia igaro zuan berarequiñ aleguiñ guciac eguiten ciarduala, guizon tristea sendatceco; biaramonean eman ciozcala bi diru hostalariari, esanaz, contu eguiñ ceguiola guizon ari, eta atzera coan pagatuco ciozcala berarequiñ castatzen zuan gucia barbero, eta boticatan, bere embarazoaz gañera.

Pensa zazute oraiñ ésan zezaquean iñorc parabola egoquiagoric Jaquinsuari eracusteco JesuChristogandic icasi nai zuana. Itandu cion Jesus maitagarriac, cer ceützan iru guizamodu ajec gaitic; nor zala Judu erituaren lagun urcoa; ja venturaz zan Sacerdotea, Levita, edo Samaritana: eta eranzun cion guizon erituaren lagun urcoa zala Samaritana; ceñac eguiñ ciozcan Aita batec seme maite bati eguiñ al ceizqueon mesederic andienac. ¡O! nere Christauac! eta ceñ erraz, eta egoqui eracutsi cion JesuChristoc Jaquinsuari deseo zuana. Adierazo cion etzala aidetasuna, adisquidetasuna, eta Erritarra izatea lagun urcoa eguiten zuana, baicican premian, beardemporan mesede eguiten zuana, naiz izan cedilla Erbestecoa. Jaungoicoaren magestadeac aguincen du, erabat gucioc, alcar estimatceco, alcarri on eguiteco. Jaungoicoa gucion Gurasoa dan ezqueroz, gucioc senide leguera alcar estimatu bear degu, nor dan, eta nongoa dan veguiratutzaca.

Gauza jaquiña da Jesus, gucion Salvadoreac eracutsi nai izan cigula gucioi; premian aurquitcen zan gucia zala gure lagun urcoa; eta Sn. Agustin Eliz Jaquinsuac argatican dio: Lagun urcoa amatzea aguincen duan leguea dala guciotara erabat zabalcen dan obligacio naita najezcoa, caridadeac escatcen duan gajetan.

Nai badezu, Christaua, Jaungoicoa zuzaz erruqitu dediñ cere premia orduetan, zu orobat erruqitu bear cerade cere lagun urcoquiñ. Gucionzat izango du Jaungoicoac justua, eta jaquinsua dan becela, neurri bat; neurcen dezun neurriarequiñ berarequiñ neurtuco zaituala; cerorrec lagun urcoari eguiten diozuna, Jaungoicoac cerorri egingo dizu. Ezta munduan salvatuco danic, mandamentu santuac gorde gabetaric; eta ezta posible gordetzea mandamentuac lagun urcoarequin caridadezco obrac eguiñ gabe. Argatic esaten dezu, nere Christaua, legue gucia, au da, mandamentu santu guciac daudela, edo cabitzen diradela bitan: Jaungoicoa amatzean gauza guciaren gañean; eta lagun urcoa gueron burua becela beragaitic. ¿Nolatan naico dezu bada, lagun urcoa amatu, ceurc, cerorri pre-

mietan inorc eguitea nai zenduqueana, cerorrec lagun urcoari eguiten ezpadiozu? ¿Gose, edo egarri ceranean, ez dezu deseatcen norbaitec socorritcea? Bada oro bat zuc ere gose, edo egarri danarequiñ al dezula eguiñ bear dezu. Larru gorrian aurquitcen bacerade, naico ez dezu jaztea? Bada zuc ere eguizu beste aimbeste soñic ez daucanarequiñ. Ez dezazula pensatu erruqui izanarequiñ bacarric cumplitcen dezula mandamentu santua; baldin al badezu, socorritzen ezpadezu lagun urcoa. Ez dute valio itzac, baicican obrac. Pilatos erruqui zan JesuChristoz pasioco demporan; baita ere bere Emaztea; negar eguin zuten Jerusalengo Matronac; eta ill beciñ laster, aurrez ill cedilla deadar eguiten zutenac erac, pechura colpeca iragarri zuten beren sentimentua: *Percutientes pectora sua*. Bañan alaz guciàrren ere, guciac utzi zuten gurutcean ciñcilica; bacarric Jose, eta Nicodemus guizon prestuac jachi zuten gurutzetic.

Obligacio andi onezaz conturatu zaitetzen, eracutsi nai dizuet nere Sermojan cearo: Jaungoicoac animatcen gaituala Caridade onetara; leguearequiñ, egemploarequiñ, eta aloguera, edo sariarequiñ. Gracia, bear det, Ave Maria.

Vade, et tu fac similiter...

Jaungoicoaren magestadeac aguincen digu, nere Christauac, estima dezagula gueron lagun urcoa, gueron buruac becela Jaungoicoagatic beragaitic. Esan nai du, eztala cumplitzen legue onequiñ bacarrican amatuaz lagunurcoa naturalezac berac muguitzen gaituan erruquia iduquiarequiñ, baicican amodio edo erruqui au valiotsua izateco, izan bear duala naturalezaz gaiñecoa, au da, alchatu bear degula Jaungoicoagana; bada au da Evangelio santuac eracusten duan amodioa, Christan legueco caridadea; bestea da naturalezaren mogimentua, viotz beracoa bat izatetic datorquiguna. Eta ala Abere bat, chacur bat era gaiztoan icusia-requiñ edoceiñ erruqitzen da, guztizco viotz gogorrecoa ezpada; bañan onelaco erruquia ezta caridadea, baicican naturalezaren berotasuna. Christan legueco caridadea da Jaungoicoagana zucendu bear dan caridadea. JesuChristoren magestadeari itancean, ceiñ zan leendavicico mandamentua, eta andiena; alcartu cituan bi amodioac Jaungoicoaren amodioa, eta lagun urcoarena, biac bat balira becela: Amatuco dezu, dio Jesus maitagarriac, Jaungoicoa: *Diliges Dominum Deum tuum*. Au da leenvicico mandamentua, eta andiena: *hoc est primum, et maximum mandatum*. Bigarrena da, amatuco dezu ceré lagun urcoa, cere burua becela; et proximum tuum sicut te ipsum. au da leenvicico legearen ancecoa. *Secundum autem simile est huic*. Onetan cegoala legue guciaren cumplimentua, JesuChristoc berac bere aoz autortu, eta eracutsi zuan: *In his duobus mandatis universa lex pendet, et Profetae*. Legue au berau publicatu zuten nere Aita Sn. Pedroc, eta Sn. Pablo Apostuluac: alcar estima zazute; Caridadea egon dedilla beti irmo zuen artean. Orobat Tesalonicatarrai escribitu cizten Sn. Pabloc, etzutela premiaric berac esateco, lagun urcoa amatu, eta estimatu bear zala; cerren Jaungoicoac berac eracutsi cizten. Galatarrai berebat escribi cizten; Legue gucia cumplitzen zala itz batean: amatuco dezu cere lagun urcoa cere burua becela; eta Erromatarrai esan cizten: lagun urcoa amaten zuanac, cumplitzen cituala mandamentu guciac: *Qui diligit proximum legem implevit: Plenitudo legis, est dilectio*.

Ez du esan nai Apostulu Santuac, juramentu eguiten duanac; barautcen ez duanac egun jaquiñetan; Gurasoi errespetoa ez diztenac, cumplitzen duala legue guciarequiñ; baicican dio: Lagun urcoa amatzen duanac bear dan eran, eta Jaungoicoagaitican; onelaco persona, edo Christaumoduac ez duala Jaungoicoa ofendituco gañeraco pecatu motaquiñ, eta cumplituco duala legue guciarequiñ. Gauza bearra, eta naita najezcoa da, Jaungoicoa, eta lagun urcoa amatzea; bañan alazguciarren ere Escritura Santan, dio Sn. Agustinec, aitatcen dala bata, berra asco baliz becela; cerren biac dauden alcarturic, bata dagoen lecuan aurquitzen da bestea. Alaco eran nai du Jaungoicoac lagun urcoa amatzea, ece, eciñ liteque amatu Jaungoicoa bera amatzaca; eta dio Sn. Gregorioc: Eziñ ditequean gauza dala, lagun proximoa, edo urcoa amatu gabetanic, Jaungoicoa amatzea. Per amorem Dei amor proximi gignitur, et per amorem proximi amor Dei nutritur; nam qui amare Deum negligit, profecto diligere proximum nescit. Sn. Agustinec esaten du: lagun urcoari caridade ezpazaco, eztala bacarric pecatu mortala, baicican pecatu gucien sustraja. Haec si non teneatur, et grave peccatum est, et radix omnium peccatorum. Sn. Joan Evangelistac arguiro dio: lagun urcoa amatzen ez duanac, ez duala Jaungoicoaren ezagüeraric, eta beraz arduraric. Qui non diligit, non novit Deum. Eta dio, azquenic: lagun urcoari amodio ez diotenac, pecatu mortalean vici diradela: Qui non diligit manet in morte.

Batac bestea amatzea, gauza bearra da gucion iraupeneraco eta cequianac becela, ifini zuan legue au Jaungoicoac; eta errazago, ta erasoago cumplitzeagaitic, eguiñ guinducen lagunarteraco, ez animali leguera basaarteraco. Sn. Basilioc dioan becela: Eguiñ guinducen batac bestearequiñ tratatceco moducoac, eta batac bestearen bearrecoac; eta ala batac amatcearequiñ besteac, moguitcen ditu ojec nor bera amatzera. Eta Christauac seculaco irmotuco du bere viotcean Christan Caridadea, naturalezaz gañeco amodioaz, edo Jaungoicoagana guidatzen danarequiñ; cerren onelaco amodioa, edo caridadea premia guztietara, eta persona modu gucietara zabalcen dan. Eta au da chedea ceñari batez ere veguiratu bear dion Christauac; gogoan iduquiaz beti, eta contiño Jesus maitagarriaren esana: Au da nere aguinta; bata bestea ama dezazutela, nic amatu zaituztedan eran: Hoc est praeceptum meum, ut diligatis invicem, sicut dilexit vos. Emendic erraz conturatu diteque Christaua, eztala asco amodio naturala, baicic Jaungoicoari darraicona. Ez liocate emango bestela aimbeste alavanza Caridadeari Escritura Santac, eta Eliz Gurasoac. Caridade mota onec obligatcen du Christaua, beiñere ez igüi izatea lagun urcoa; eta ez eguitera arrazoizco amodioaren contraco gauzaric. Ala esan cizten Erromatarrai S. Pablo Apostuluac: Dileccio Proximi malum non operatur.

Aguincen da Caridade eguitea bertatic bertara lagun urcoari premian aurquitzen dan demporan, eta eguiñ al daiqueogula. Deutoronomico ogueta bigarren Capituluac eracusten da egui au. Icusten badezu, dio: cere auzoco baten idia erraturic, alderanduric baso batean; ez diozu galcen utzi bear, baicican eramango diozu bere jabeari. Eta zure auzocoaren animaliac ezpadirade, eta ezpadezu ezagutzen jabea, eramango dituzu cere echera, eta nagusia aguertu bitartean gor-

deco dituzu, berari entregatzeco. Au berau aguincen du beste edoceiñ gauza galduarequiñ eguiteco. Si inveneris eam, ne negligas quasi alienam. Eta orobat aguincen du, Abere bat erortea suerteac ematen duan demporan, alchatcen laguncera. Egemplo chiquin ojequiñ adierazten digu Jaungoicoac, cer eguiñ bear degun lagun urcoaren premia estu, eta larrietan. ¡O! nere Christauac, cer dicha andia izango lizaquean gucionzat, osoro gordeco baguendu legue andi au! Bada, nere Enzule devotoac, anima gaitean onetara, pensatuaz ondo Jaungoicoaren magstadeac berac ematen digun egemplo ugariaquiñ.

Jaungoicoaren amodioari zor diogu, daquizuten becela gueran gucia, eta baitaere deguna. Jaungoicoac gure bearric ecertaraco ez duala, amatzen gaitu alaco eran, eta aiñ guztin, ece bere Seme bacar maitea eman cigun salvatuco baguiñan; Deabruaren mendetic libratuco baguiñaden. Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret. ¡Ha! nere Seme maiteac, esaten cizten Sn. Joanec here Dicipuluai, eta orobat esaten digu guri; Jaungoicoac amatu guiñducen, guero amatu guenzaquean baña ascoz aurretiago; bada eman cigun bere Seme maite bacarra, beraren medioz seculaco vicitza izan guenzan. Arrazoi da bada guero ere bata bestea estimatzea, maite izatea, ocasioetan lagundu, eta socorritzea. Carissimi, si Deus sic dilexit nos, et nos debemus alterutrum diligere. Berebat encargatzen gaitu S. Pablo Apostuluac, esanaz: imita zazute Jaungoicoa, bere Semeac ceraten aldetican, eta amatu zazute alcar contiño, Jesus maitagarriac gucioc erabat maite izan guinduzen eran. Guraso onaren exemploari jarraitu bear dio Seme onac. Au izan zan JesuChristoren beargaja jajotzatic gurutze santuan il zaineraño. Jajo zan, vicitu zan, eracutsi zuan, mesedeac eguiñ cituan, padecitu zuan, eta il zan azquenic alde gucietara guri amodio paregabea eracutsiaz. Et propter nos homines, et propter nostram salutem. Eriai, elbarrituai, gor, mutuai, trabajuz oatuai guciai eguiñ cizten mesede sendatuaz, cembait pecatari jarri citzaiozcan aurretic burcacio esque, ambaiti barcatu ciozcan pecatu guciac: illac azquenic piztutceraño. Eguin cizten mesedeac Erritarrai, Erbestecoai, ta adisquideai, eta bere Etsairic andienai; eta azquenic aiñ menaz, eta viotzez eguiñ zigun gucioi encargu estua, alcar amatzeco, ecen, berac maite izan guinducen eran, ala alcar maite izan guenzala; eta onetaraco uzten cigula mandamentu verria, edo apartecoa. Mandatum novum do vobis, ut diligatis invicem sicut dilexi vos. Etzetzen esan Dicipuluai JesuChristoc, izan bear dezute nere anza, ichuac arguitcen, gorrai belarriac zabaltzen, eriai osasuna ematen, illac azquenic piztutzen; baicican, estima zazute alcar, nic estimatu zaituztedan becela. Eta Sn. Agustinec gogoratcen digu arreta guejagoraco; aguinta au eguin zuala JesuChristoc ja ilceco dempora guerturatu zan dempora estu, estuan; eta ez beñ, eta bi bider, baicican iru aldiz. Beraren pasio, tormentu, pena, eta eriotzaco zorian erregutu cion Aita Eternoari Jesus maitagarriac guciac menaz guciac erabat, nere Aita Eternoa, izan ditecela bat, zu, ta ni gueran becela.

Guejen guejena guizona moguitzen duana beste baten esana eguitera da hordua, eta muga: eta gucien gañean eriotzaco horduan aguincen dan gauza; guciac barrenean; guciac viotzean guelditu oi da trance estu artan batac besteari eguiten

dion erregua, naiz haide, naiz parte, edo adisquide ez izanarren; gogotican iñolare eciñ quendu degu azquen horduan aditua; pensa zazute bada Christauac, ¿nolatan aldebat, eta ázturic utzi al dizoquegun Jesus maitagarriac bere eriotzaco trancean encargatutaco aguintari. Gurutzetic cincilica cegoala, Aita Eternoari escatu cion, gurutzilzatu zutenai barcatceco; gurutzetic cincilica cegoala, barcatu cion Lapurrari; gurutzetic cincilica cegoala, utzi cigun bere Ama Maria Santissima gueron Amatzat, ampara guinzan gueron animaco, eta gorputzeco premia guztietan; eta ¿nor izango da aiñ gogorra beraren mandamentua gordeco ez duana? Haec mando vobis, ut diligatis invicem, sicut dilexi vos: ama zazute alcar, nic amatu zaituedan eran.

Mundu gucian, nere Christauac, ezta aurquitcen batenzat gloria, eta pozaldi andiagoric, triste dagoan bat consolatzea baño, larru gorrian dagoana jaztea baño, persona bearra estalcea baño; Sta. Isabel Ungriaco Erreguiñac esaten zuan: bere anima ateratcen ciotela, ceritzala, hospitaleco pobreen artetic ateratzen zuten gucian; Sn. Pedro Nolascoren atseguñic andiena zan mazmorra artean ibiltea: Sn. Joan de Dios andiac esaten zuan: usai chárra, eta nazcagarria senti ciola, gaisso usaja etzuan gauza guciari. Oraiñdican guejago dana: Abraham Patriarcac legue zar demporan ceucan aiñ atseguñ guztizcoa obra misericordiac eguiten ciarduanean, ece, bere pozaldi gucia zan persona bearrac beragana jua, eta ajec servitzea aleguiñ gucian. Iru videzco jua citzaizcan beiñgo batean; eta icusi beciñ laster, beraganatu baña aurretiago, berac irten cizten videra, alderandu etzitecen bere echetic; ajen artean zaarrena zirudianari esan cion: mesede bat escatcen ciola; etzitecela batez ere jua bcstetara, bere echean nai zituala ostatuz; bada nai cituala servitu gustora. Domine, si inveni gratiam in oculis tuis, ne transeas servum tuum. Ecarrico det, esan cion, tiña batean ura oñac garvitu eta autsac quenceco; Eguzquiaren beroac erre, ta quiscalduta asnasa eciñ arturic zatzote, eta pisca bat atsedenzuzuna daucazute araco arbola aren guerizpean; ifinico da cerbait jateco alaitu zaitetzten, videari jarraitze; bada eztet besteric de-seo, zuen sosegua, eta alivioa baicican, obra gaiztoric eguiñ gabetanic.

Onela, nere Christauac, itz eguin cizten Abrahamec amodioz, eta caridadez graciazco leguea jarri baña aurretiago; Era onetan lagun urcoaren premiac erruquitzen zuan, eta jardutzen zuan on eguiten JesuChristoc mandamentu andia ifini baña leenago; ¿Cer izango zan bere demporan, bere eguinetan guertatu baliz JesuChristoren aguinta? Aditu balu Abrahamec Jesus maitagarriaren aotic: Mandatum novum do vobis, ut diligatis invicem, sicut dilexi vos. ¿Cer eguiñgo zuan lagun urcoarequin? edo obeto esateco, ¿cer eguiñgo etzuan? Gauza jaquiña da, gau, ta egun bera ibillico zala, ler eguiten becela nun icusico zuan premia, estalceco: eta nolatan ondoena mesedeac eguingo cituan Jesusen icenean. Cerren jaquizute, ez diradela Caridadezco obra guciac diruditen beciñ onac ascotan, eta ascorequiñ. Socorritcen da nescachacho pobre bat gaztea, eta cerbait ichurazcoa; eta bitartean bear bada goseac ilcen aurquitcen da achocho bat picochean Eguzquitzen jarrita, estomagoa otzac eta campotican edolaric berotu al baledi. Bilcen dirade limosnac familia triste bat mantenceco; cerren dauzcan alabacho

bi ez itsusiac; eta ezta arretaric arcen Senar Emazte zaar, eta coitaduac mantencoco. Era onetaco Caridadeac ¿Jaungoicoaren aurrean, Caridadeac izango ote diraden? Sarricho visitatu oi dirade Alargun gazteac, pachadacoac badirade; baña Alargun urtez cargatuaren, eta aurpegui cimurraren echeari alde ematen zaco. Limosna ugariac eguiten dirade aguriac, otsa banatu dezaqueten demporetan; bañan morroya, nescamea, zapatari, dendaria pagatzaca; aldian sarri atea joagaitican: ez nagoala Echean, datorrela beste batean: Visitatzen dirade gaisso orduetan Aberatsac; baña hospitaleco pobreac ez dute cuidaduric ematen. ¿Ote da Caridadea era onetan limosna eguitea; gaissoac visitatzea? Ez, nere Enzuleac, Sn. Pabloc dioanez: Non est acceptor personarum. Mundu gucira zabalcen ditu Jaungoicoac bere misericordiac; Eguzquiac Onai, eta gaiztoai argui eguiten dizte beraren aguintaz: Solem suum oriri facit, super bonos, et malos. Sostencen ditu Jaungoicoac Turcoac, Gentillac, heregeac, eta Christauac.

JesuChristo gure Jaunac piztu zuan Lazaro bere adisquidea, cerren escatu cioten beraren harrebac, eta JesuChristoren devotac. Baña orobat piztu zuan Naingo alargunaren Semea batere Ama, Semeen ezagüera gabe, eta mesedez escatu gabe. Magdalena Errecibitu zuan biguntasun, eta amodio andiarequiñ, cerren zan bere Erritarra, eta damuturic bere vicimodu charraz, eracusi cion JesuChristori amodio guztizcoa: Quoniam dilexit multum. Eta orobat Samaritana errecibitu zuan biguntasunarequiñ, etsaja zalaric, eta nescacha chit iritzia, eta itzonci. Ichuari eman cion vista, cerren escatu cion, deituaz ots andiaquiñ David Erreguearen semea. Fili David miserere mei. Bañan orobat, eta escatzaca sendatu zuan Perlesiac arturic aurquitcen zan guizon tristea. Juan zan Zaqueo aberatsaren echera, eta mesedez bete zuan Jesus maitagarriac; bañan berebat sarcen da chit gustora Arranzari pobre batzuen chaoletan, eta eguiten dizte mesede andiac, eta ugariac. Era onetan, nere Christauac, nor dan, eta cer dan veguiratzaca amodioz; erruquiz, ta Jaungoicoaren amodioan, eta icenean; eta era onetaco Caridadeac mereci dute Ceruco Erreynua. Beati misericordes, quoniam ipsorum est Regnum Caelorum. JesuChristoren magestadeac onelaco lagun urcoari deituco dizte pozaldiarequiñ juicioco egunean: Atozte, atozte Ceruco gloria gozoaren posesioa artu, eta seculaco beraz jabetzera; cerren gose ninzanean sostendu ninduzuten; larru gorrian aurquitzean, janci ninduzuten, gaisso aurquitzean visitatu ninduzuten. Bada Pobreaquiñ, persona beartsuaquiñ caridadez jardun dezuten gucian, nerequiñ jardun dezute, neri mesede eguiñ didazute. Atozte bada nerequiñ Ceruco Erreynuaz gozatzen. Venite benedicti Patris mei, percipite Regnum, quod paratum est vobis á Patre meo. ¡Ha nere Christauac! Egui au ondo, eta bear dan becela sinistuco baliz, ez liraque munduan icusico aimeste pobre tropa! ¡Ha! orain oarcen naiz, leguez, ta videz esan cenduala, nere Jesus maitagarria, Christau guichi salvatzen ciradela. Multi sunt vocati, pauci vero electi.

Baña, Jauna, esnatu nai degu bertatican lozorro onetatic; ezagutu nai degu zure nortasuna; cerren alde gucietara eracusten diguzun eraro Ceruco Erreynuaz jabetceco vide erraza. Zuri bada, Jesus maitagarria, veguiratu nai dizugu icastecco nolatan eguiñ caridade zucena, eguiazcoa, eta Ceruco saria mereci dezaquea-

na: Zugaran ispillatzen guerdela iritzi nai diogu gaurtican aurrera, pobreac, persona beartuac icusten ditugun gucian, caridade egiteco, zuri eguiten dizugula pensatuta. Onetaraco zure gracia espero degu ansiarequiñ, obra misericordiaz-coac eguiteco bear diraden era egoquian; gueroztic zuzaz gozatceco Ceruan. Amen, Amen.

5.12. Doma. 18. post Pentec.:

“...ez dirade iristen Calvarioco mendira, ez dirade jarten Gurutce Santuaren oñetan, bacarric sarcen dirade Santicurutzaz Legazpico festa demporan, ez gurutea bear becela adoratceco baicic danzaric danza, tabernaric taberna, cirquin-zuric cirquinzulo jostaquetan ibilteco, orduraco dirade promesac, orduraco buruco miña, eta orduraco pecatuac. Itz batean esateco, gorputzeco goatarenzat beti esnai, beti alerta; baña animaco gauzenzat beti lozorroan, edo locabica...”.

5.13. Doma. 20. post Pentec.:

“...Cuidado gazteac, baita zarrac ere veguiracunaquin, queñuaquin, dancetan pulzacaquin, Emacumai ancarequin gonac astincearequin; gueroeneco suac artu dezaque illetia, eta erre Echea. Contu; Contu; Contu...”.

5.14. Doma. 22. post Pentec.:

“...Conturatu bitez bada engaña ez ditecen nola nai mingañari jareguitcen diotenac artazuricetan, lina apaiñcetan, iturri, ibayetan; eta jaquin bear dezute, escuarqui emacumeacgaitic esan oi da, bere mingañac maratilla becela darabilzabela; ezta guezur guezurra; baña deritzat onetan Guizacumeac ere Emacumatu dirala. Cerren jarri diraden Guizonac bitu banatu, eraman ecarri, saldu erosi, berri jario batzuac eguinic. Berniz zulo, peatza punta orietan sorcen ezta guezur generoric ezta; andican badatoz echera, jarten dirade eren cicelu, edo aulquietan, pipea artu, chistua bota, eta murmuratu, bitu dituztenac banatu beste eguitecoric ez dute; obe lucate ascoz familiarequin dotriñea errepasatu. Juaten badira tabernara, suac arcen dizte viotza, eta viricac, eta eciñ sosegatu dirade dituztenac atera artean campora, haicea arcera, arjotu ez ditecen. Eta gueyago dana, erac esango dute aurrena; Au mundua jarri da! ez eguiñ eta ez esan lezaque oraiñ itz bat bacarra; emen orduco an da, an orduco Prancian; Au mundua! gueron demporan ez degu onelaco asco icusi, eta ezagutu. Urllia, Sandia, berendia, ápo-ta: cer guizon honrraduac. Aldamenecoac eranzuten dio: bai por cierto ¿norc esan cezaquean? Etziraden alacoac orien Aasabac. Artan ari dirade issilzaca, quirquirrac diruditela...”

5.15. Doma. 22. Post Pentec. Reddite ergo, quae sunt Caesaris Caesari; quae sunt Dei Deo. Mat. 22. Eman zajozute Cesari Cesari dagoquiona, eta Jaungoicoari, Jaungoicoari dagoquiona.

JesuChristo gure Jaunac esan ondoren Erregue batec nola bere Semearen eztejetara convidatu cituan persona asco, eta etzitzajola juan leenvicico convidatu cituanac, eta ojen lecuan jarri ciradela Erbestecoac; sopra ere Juduric guejenac, eta Fariseoac, ceñaquiñ itz eguiten zuan parabolac, aditu zuten zucen asco, certaraco zan, edo cer esan nai zuan Parabola egoquiac; eta gueldica, eta sentitzaca becela alde eguiñ zuten, cerren concienciaco arrac etzizten uzten aimbeste sufritzera; eta beren artean erretzen, eta quiscalcen zeuzcaten barrempeac arrabiaz, gorrotoz, eta eciñ icusiaz; eta aleguiñ guciac eguitemo asmo osoac artu cituzten, nola nai zala, Jesus maitagarria galceco.

Artu cioten gaitziritziac gogoratcen cizten Fariseoai milla modu, genteequico creitua galceco JesuChristori; eta onetan asmatu zuten, eren arteco batzarrea juntatzeco, ondoren erabaguitceco, cer burubide artu al ceiquean, certambait uts eraguiteco, eta quege emateco beraren contra. Beren asmo dollorrac cumpliteco, Fariseoac bialdu ciozcaten beren Dicipuluen arteco batzuac, Herodesen partidaco batzuaquiñ batera; eta uste izan zuten, naiz alde batera, naiz bestera, lazoan arrapatzea; eta itandu cioten: Ja venturaz ligito zan Juduac Cesari tributua pagatzea. Esaten zuten eren artean, baldiñ autorcen badu Juduac obligaturic daudela tributua pagatzera, gente comunarequiñ eztá etorrico ondo, eta ezagiuerazoco du, eztala Mesias; cerren Esclavo eguiten ditu Judutarrac; baldin esaten badu ez dagoala obligaturic tributua pagatzera Judu Erria; orduan Herodianoc quejatuco dirade, Cesarren contracoa dala esanaz, eta publicatuaz.

Obeto beren asmoaquiñ irteteco, abegor andia, eta guztizco errespetoa ecarri cioten itanceco demporan; ala ce, etzetocela engañuz, eta burlaz itancera, baicican jaquiñ deseotan; bada cequitela ondo, beti eguia cequiala esaten zorrotz, zana zan becela, cumplimentu gabetanic, eta personai veguiratutzaca. Magister scimus, quia veras es, et viam Dei in veritate doces. ¿Licet Censum dare Caesari, an non? ¿Ligito da Cesari contribucioa pagatzea? JesuChristoc erraz ezagutu zuan eren malicia, eta etzetocela beragana, jaquiteagaitic, baicican lazoan arrapateagatic. Eranzun cizten bada galdeerara; ¿Cergaitic zatozte embusterotzarroc ni tentatcera: Quid me tentatis hypocritae? Eracutsi zadazute tributua pagatcen dezuten dirua: Ostendite mihi numisma Censu: Agueru cioten Erromatar diru bat Emperadorearen sillua berequiñ ceucana; icusiaz beste gabe, esan cizten: ¿noren aurpeguia da silluan? ¿Cujus est imago haec? Cesar, edo Emperadorearen sillua da; Veraz esan cizten orduan, paga zajozute Cesar, edo Emperadoreari berari dagocana. Reddite, quae sunt Caesaris Caesari, et quae sunt Dei Deo.

Misterio andia duan eranzuera, nere enzuleac, ala Fariseoenzat, nola Herodianoenzat; cerren Fariseoai adierazo cizten, chit gaizqui eguiña zala, diruac Emperadore edo Cesaren sillua ceraman ezqueroz, pensatzea, burura etortea, libre ceudela tributua pagatcetic: eta Herodianoi adierazo cizten, Principeari tributua pagatceco obligacioac, etzituala libratcen Jaungoicoari Jaun soberanoa

zanez, cegoquiona pagatcetic. Esaten balizte becela; Emperadoreari zor diozute diruzco contribucioa; eta Jaungoicoari adoracioa, amodiozco tributua, errespetoa, eta alavanja.

Principeari tributua pagatceco aguincen dizute Jaungoicoac; baiña etzerate aurquitcen guichiago alaere obligatuac Jaungoicoari pagatcera Religio santuac aguiñcen dizuten tributua, ceña dan: bera amatcea, eta servitcea gauza gucien gañean, bere legue santua osoro cumplituaz, lejaltasunarequiñ, eta fede emanaz beraren esanai. ¿Gordetcen ote dituzuten obligacio ojec biac contuz, eta arretaz? Erregueac, eta Principeac dauzcate beren derecho leguezco, eta videzcoac Jaungoicoac emanican; eta orobat dauzca Jaungoicoaren magestadeac berac beretzat erreserbaturic gauza gucien jabea dan becela; eta iñolaere eciñ ucatu lequiqueonac. Eguiazco piedadeac erraz, eta eraro alcarcen daqui obligacio biac; eta gauza jaquiña, gauza ciertoa da, Principeac, eta Erregueac ez daucatela servitzari, eta mendeco lejalagoric, Jaungoicoarequiñ lejalac diradenac baño. Gañera dio Evangelio Santuac: Fariseoac, eta Herodianoac, aditcean errespuesta aiñ egoquia, eta jaquiunde andicoa, alde eguin zutela, miraturic alde gucietara, eta ceratcera eranzun etzequitela. Et audientes, mirati sunt, et relicto eo, abierunt. Miratu baciran ere, etziraden asco penatu, etziraden asco murguildu esanetara; cerrren beti beren seta gogoan zutela, arrotasunac gogortu, eta ichuten zituan, beren viotcetan lecu eman gabetanac JesuChristoren Dotriña eguiazcoari, eta beraren ezagüera eguiazcoari. ¡Ha! nere Christauac, ezta orduco gaitza bacarric gogortasun, eta ichumen au; bada gaur dan egunean Christan artean ascorequiñ guertatcen da; JesuChristoc viotzera itz eguiñagaitic Christauari, ez aditu eguitea, azcartasun guichi eracustea, eta betico lozorroan egotea!.

Miraturic guelditzen dirade liburu batean iracurtean Santu, eta Santen vicimoduac; martirien tormentuac, eta Virginen lejaltasuna, eta irmotasuna; arritcen dirade Sermolari bati Evangelio Santuco Dotriña eguiazcoa, JesuChristoren amodioa, erruquia, eta aleguiña Christaua Ceruratceco; aditzen dituzte Escritura Santaco egemploac chit gustora; bañan orretan guelditcen da gucia, ezta icusten emendaric, aurrerapenic, eta viotceco berotasunic. Ez dute imitatzen Aita Sn. Ignacio Loyolaco andia; ceñac Santuen vicitzac iracorten asi beciñ laster artu cituan vicimodu verria eguiteco asmo santuac. Miratzen zan icustean Santuen aleguiñac JesuChristori jarraitzece, JesuChristoren legue santua osoro gordetceco, JesuChristoren amodioz tormentu icaragarriac sufriteco; eta bere buruari itancen cion ¿Ojec etziraden ni becela guizonac, ni becela araguiuzcoac, eta senticorrac? Bada ¿cergaitican sajatu bear ez det nic erac becela gurutcea artu, eta JesuChristori jarraitceco? Pensamentu Santu onec alchatuerazo cion Santu gloriosoari bere viotza Jaungoicoagana; eta bitartean lejaltasunarequiñ, eta erruz Erregueri pagatu cion eran bere tributua Soldadutzan Pamplonaco gazteluan eritu zuten bitartean bala casco batequiñ; orobat Soldadutzaraco arturic ceuzcan neurriai aldebat utzi, eta JesuChristoren banderapean liztatu zan; Jaungoicoari zor cion tributua pagatceco asmo osoan: Redite, quae sunt Caesaris Caesari, et quae sunt Dei Deo.

Au da, nere Christauac, gucioc jarraitu bear diogun salla; eta argatic buruac eman dit, gaur nere Sermojan itz eguiteda Amarren, Primicien gañean; ceñac dudatzaca diraden Jaungoicoari, eta bere Ministroai zor zaizten tributua. Adi ezazute arretaz; bada gaur dan egunean Guizon verri batzuec sortu, eta aguertu dirade, Eliza santaren mandamentu Santu au Christauen buruetatic quendu nai izan dutenac; beren choraqueriai cobru nolana dala emateagaitic, beren lagun urcoen caltean. Esca dezagun gracia Ma. Santissimaren medioz: Ave Maria.

Reddite, quae sunt Caesaris Caesari, et quae sunt Dei Deo.

Jaungoicoaren magestadeac ecer ecetic eguiñ cituan fruetatic beren zatia erreserbatu, edo ispetu zuan beretzat. Icentatu cituan demporac, urteac, egunac, eta asteac; jOjetatic astean egun bat ispetu zuan beretzat. Eguin cituan munduco echeac, Jaureguiac, eta vicilecuac; ojetatic ispetu cituan beretzat Templo Santuac; orobat eguin cituan animaliac, idiac, ardiac, eta gañera beste animali, eta egazti mota asco; eta ojen artean autu cituan bere sacrificioetaraco animaliac testamentu zaarrean. Eguiñ zuan azquenic Guizona, eta gueitu cituan, zabalduaz munduco bazter guztietara, eta beste estadu, edo vicimodu ascoren artean autu cituan bere Elizaren ministrotzat Sacerdoteac, eta Religiosoac. Guisa onetan bertan lurrari eman cion bere najaz beste gabe frutuac, eta frutac sortutceco, eta ojetatic ispetu, edo erreservatu cituan amarren primiciac.

Abrahan Patriarca izandu zan leendavici amarren, primicien obligacioa ezagutu zuana leguez, ta videzcoa zala. Bada Chodorlahorror, eta bere iru Erregue lagunac garaitu cituan demporan, Melchisedec Sacerdoteari eman ciozcan amarrenac Jaungoicoaren izen santuan. Abrahamen egemploari jarraitu cion Jacob bere llobac. Emendican suerteac eman zuan, legue verrian amarren, Primiciac obligaciozcoac izatea. *Decimas, et Primitias tuas non tardabis offerre Domino.* Amarren, Primiciac pagatzeco obligacio estu au aiñ da zarra, eta premiazcoa, ece Gentillac erac ondo ezagutu zuten, eta pagatcen cizten beren Idolo, edo Jaungoico falsoai. Dionisioc, Alicarnasioc, Livio, Xenofon, eta beste batzuec autor dute Posthumioac guerran vitoria irabaci ondoren, eta beste Erromatar Capitan ascoc pagatu cituztela Amarren, Primiciac. Eta Herodotoc dio: *Guardiac ifinteco atarietan iñorc ondasunic batera igaro ez ditzan amarrenac Jupiter Idoloari pagatzaca. Siste ad singulas Portas aliquot ex satellitibus tuis custodes, qui vetent exportari opes, ut earum Decimae Javi necessario redantur.* Fariseoac, Sn. Lucas Evangelistac esaten duanez, ausardi, eta pantasi andiarequiñ autor zuan, cituan ondasun guztietatic pagatcen cituala amarrenac. *Decimas do omnium, quae possideo.* Gure Eliza Santaren bostgarren mandamentu santuac berac arguiro asco dio: Jaungoicoac ematen dizquigun ondasunetatic Amarren, Primiciac eguin ditzagula. Onetan Necazari, eta beste Christan modu ascoren artean, eta cinzoro legue santua ezagutzen duten artean, ezta icusi dudarican batere, ariqueta gure Españian, eta gure egunetan Guizon verri jaquinsuac, edo obeto esateco, verrichuac aguertu diraden bitartean; ez ezagutcen etzutelaco obligacioa, baicican gente comuna, eta iñocentea engañatceagaitic, ondo cetorquion eztiqueri pisca onequiñ. Aguindu zuten bada bacarrican amarren, eta Primicien erdiac pagatceco; uste

izan cezan necazariac prochu guztizcoa cetoquiola onenbesterequiñ; bada ez du te caltea beste aurrerapenican icusi. Eta guejago dana; nai izan cituzten amarren, primicia guztiac erabat quendu guizon verri jaquinsu sortu verriac; cerren beren asmo dollor, madaricatuac guidatcen cituzten Religio santua galcera, bere Ministroaquiñ batera.

Jaquin bear zuten guizon Verri oriec amarren, primiciac ciradela, Abulense Jaquinsuaren esaeraz, Jaungoicoaren magestadeari zor zaizcan Tributu motac, eguiten dizquigun mesede paregabe, eta ugarien alde. Jaquin bear zuten Sn. Agustin andiac dioala, Amarren, Primiciac diradela Jaungoicoari guizonac eguiten dion esqueiñte, edo ofrenda bat, ceñaren medioz autor duan, dala Criatura arrazoiz jancien artean amargarrena; cerren sortu zuan Aiñgueruen vederatzi coruen ondoren. Eta Trentoco Concilio sagraduac adierazten duanez, Amarren, Primiciac dirade Religio santuaren eguiturac Jaungoicoari gauza gucien Jabea danez dagozcanac; eta onez ostein, justiciac Eliz-Ministroai zor zaiztenac, beren Eliza lanvideac gaitican. Eciñ esan ala mesede, gracia, eta bendicio ematen diozca guizonari Jaungoicoac; ala gorputzeraco, nola animaraco, amarren, primicien tributu ojen alde. Galde bequio Sn. Agustini, eta eranzungo digu, ojen vitez, eta ordañetan ugaritcen dituala frutac, eta frutuac; ganaduac, eta ondasunac; ematen digutela gorputzeco osasuna; eta bere bendicio santua gueron eguiteco, eta lanbide gucietan. Sostencen du Eliza Santa, eta conservatcen du fede santua, gucion salvacioraco.

Jaquiñ zazute, nere Christauac ascotan, guiza aldi gucietan izan dituala Eliza santac alde gucietara Etsai errutsuac, eta madaricatuac, oartutzaca, Jesu-Christoren magestadeac arguiro asco esan zuala, Infernu gucia empeñatcen bazan ere Eliza santa galdu najan, etzutela goituco. Portae inferi non praevalerunt adversus eam. Bañan alaz guciarren ere, gure demporan aguertu diraden guizon verrijario ojen eran, eta batere ichuragabe, oraiñdaño ez diote, zuzen, eta batetan eraso auserdi andiarequiñ Elizari bere legue santuetan, eta dotriña, edo icasvidean; inguruca, edo ozta ezagun zala eguiten cioten alde batetican, edo bestetican; cerren cequitzen ondo Erregue justuac beren tronu, edo Jarlecuetan aurquitcen ciraden demporan disteatu, eta gaiñezca eguiten zuala piedadeac, caridadeac, eta Religio santua conservatceco ansia eguiaczoac, eta indarsuac. Orduoro, instanteoro, Erreyneu gucietan icusten zan zaleturic, eta alaituric gentera Templo santuac honratceco bere ministroaquiñ batera.

Gure Españiaco Erregue, etu Principe andiac onetaraco eguiñ dituzten aleguiñac, mundu guciac dacus, dudatzaca mirariz betetaco Templo sagradu ugari orietan; Erromaz campora bestetan iñun ere icusten ez diraden Eleiznagusi arri-tuetan, ceñetan cabitzen diraden jaquinduria, piedadea, justicia, eta Eliza santaren Columa, sendoac. Alaz guciarren ere zorigaiztoan gure egunetan ezagutu dirade guizon dollor, prestuez ez-jaquiñac España ederrean naasturic beren buruac oitura, eta aztura gaizto Religio santuaren contracoaquiñ, Templo santuen lecuan, Deabruaren Templo madaricatuac ifini nai izan dituztenac. Beren sajetac diratu dituzte aitzaquí abar Eliz-ondasunen gaiñ; eta azquenic amarren pri-

micien contra. Etzuten leenagoco demporetan auserdiric izan onetaraño Wicleflitac, Luteranoac, eta Calvinistac. Aditzen eman cizten gente tristeari, amarrren primiciac ciradela beste edocein tributu, edo Contribucio becela; eta beren asiera zutela Irileguean, eta iraupena argatican zutela aguiñtarien vorondatea zan bitartean; eta emendican artu zuten escualdea erdia baicican ez pagatceco; eta batzuen vorondatez guciac oso, eta garvi quenduco cituzten.

¿Norc oraiñdaño dudatu du amarrren primiciac pagatcea dala Eliza Santaren mandamentuetatic bat? Eta orobat ¿norc eztaqui bere iturria dacarrela naturale-zazco, eta Jaungoicozco legetican? Eliza Santaren aguiña dala, arguiro dio Trentoco Concilio sagraduac (Ses, 29. Cap. 12. de reform.) Amarrrenac pagatcea da Jaungoicoari zor dioguna; eta pagatu nai ez dituztenac, lapurcen dituzte besteren ondasunac, eta orobat pagatcea eragozten dutenac. Aguiñcen du bada Concilio Sagraduac, pagatu ditzatela aurrera, pagatcera obligatuac dauden persona mota guciac dagoquiten Eliza, eta persona guciai erabat, escomunioaren azpian, eta ez ditecela libratu escomuniotic, oso biurtu artean.

Berebat aguiñcen du legue naturalac, eta Jaungoicozcoac. Sn. Pabloc dio: Paga daquiola jornala bearlariari; Eta Eliza servitcen dutenac Elizatican sosten-du bear dutela. Qui Altari servit de Altari vivere debet. Eta Sn. Pabloc berac esaten cizten leenvicico Christau fielai, bere bear eguiñarequiñ mantencen bazan ere beren erruquiz, alaere zeucala derechoa, edo erac bera sostenceco videa. Eta ala dempora artan Christau fielac Apostuluen escuetan ifinten cituzten ondasunac, Religio santuari cegoquion gaucetan empleatceco, ministroac mantenceco, eta persona bearrac socorritzeco. Demporaz aciaz cijoan gentea, eta Christau Erriac cijoacen zabalduaz, eta argatic izendatu, edo señalatu bear izan ciraden onetara-co pagaquizunac. Erabat guciac ezagutu zuten pagatceco obligacioa, eta sacrilegio anditzat ceucaten ez pagatcea.

Irugarren Sigloan, edo guiza aldian vizi zan Sn. Cipriano; eta esaten zuan: Leenagoco legue zaarrecoc Sacerdoteai pagatzen citzeten eran amarrrenac, lurrac ematen cituan frutu guztietatic, ala orobat legue verrian usatcen zala pagatcea, Eliz ministroac beste lanetan sartu gabetanic, beren obligacio andiaquiñ cumpli cezaten gau, ta egun animen prochuan. Laugarren guizáldian orobat iracurten da, cer aleguiñac eguiten cituzten Eliz gurasoac Erritarrac amarrrenac pagatceco legue zar leguera. Sn. Geronimoc amarrren, primicien gaiñ dio: Juduac Sacerdoteai, eta Levitai legue zârrean pagatcen cizten becela, ala berebat Eliz Errietan aguiñduric cegoala pagatcea amarrren primiciac; eta gañera virtuteetan obetua izan nai zutenac, zutena saldu, pobreen artean partitu, eta JesuChristori jarraitu bear ciotela. Eta aimbeste aurrerapen virtutêtan eguiñ nai etzutenac, edolaric paga cezatela Sacerdoteai, eta ministroai cegoquitena, beren oficioen erara. S. Joan Chrisostomoc, S. Agustinec, eta beste Eliz guraso batzuec itz eguiñ zuten dempora artan Amarrrenen gañean oitura, edo usadio zarra becela; alaco eran ece Sn. Agustinec eguiñ zuan sermoi batean, esan cizten amarrrenac pagatcea zala Justiciazco zorra, eta besteren gauza lapurcen zutela pagatcen etzutenac.

Apostularren neurtarteac, erac esanac ez izanarren, edolaric dacazquite Elizasieraco dotriña, edo icasvideac, eta eman zaizte merecilaco errespetoa Christan artean; diote laugarren, eta bostgarren erreguelac, edo Eliz-legueac: Aldarean ez dute ofrendatu bear galburu verriac, maatsac, eta arguitaco olioac, eta incensua baicican ofrenda santua eguiteman. Beste gaiñeraco gaucen zati, edo primiciac bialdu bear dirade Obispo Jaunai, eta Sacerdoteai; baña ez dirade ifinten Aldarean; cerren jaquiña da, Obispoac, eta Sacerdoteac bialcen dituztela bereala partitcera Subdiacono, eta gaiñeraco Eliz guizonen artean. Matisconaco Concilio, edo batzarre sagraduac, seigarren siglo, edo guizaldian celebratuac esaten du: Jaungoico legueac, Sacerdoteen, eta Ministroen prochura veguiratuta, aguiñdu zutela amarrenac Erritarrac paga citzatela fruetetic Lecu Santuetaraco. Eta ezagun da obligacio zaarra zala orduraco amarrenac pagatzea, eta bacarric batzarreac verritu eguiten zuala, obligacio au ozturic cegoalaco gente artean; baña alaco eran azalcen du obligacioa ecen pagatu nai ez dutenac dio alderandu ditecela Eliza santaren zatitican, eta betico. Alferricaco gauza da, nere Enzuleac, izentatcea guero ezarritaco legueac obligacio onen gaiñean; bada arrazquero contiño gueituaz juan dirade onetaraco aguintac Eliz batzarre santuetan; asco da esatea Aita Santu Erromacoac autaturic daucatela amarren, primicien obligacio au, cimentaturican dagoala Jaungoico leguean, eta irmotu zutela Censurarequiñ pagatzalle gaiztoen contra. Carlo Magnoren erabaquietan iracurten dirade orobat legue, edo aguintac pagatuerazotceco amarrenac, eta sarritan Erregueac, eta Emperadoreac ezarri dituzte legue estuac Erritarrac obligatceco pagatcera Eliza santac aguiñdu becela.

Izentatu nai ditut bacarric gure Españiaco Erregueac; bada gai onetan empeñatu ciraden chit erruz, eta zorrotz: Dn. Alfonso, Dn. Joan, Dn. Fernando, eta Da. Isabel, Carlos V.o, eta Da. Joana iracurten danez Recopilacioa deitzen dan liburuan bostgarren tituluco bigarren leguean. Esaten dute arguiro Erreguetarariñooco guciac daudela obligaturican orò Jaungoicoari, eta bere Eliza Santari amarrenac pagatcera. Eta premia estuetan aldarte Erregueac beartu badirade amarren zati batzuac erreservatcera; au eguin dute, ez berenez, baicican Aita Santuen baibenarequiñ. Itz batean esateco Españiaco uso-costumbrea, edo oitura izanda beti, premia demporetan licencia escatcea Aita Santuai, Amarrenac edo beren zatiac arceco, premia estalceco aldarte estuetan; baita ere Elizaren amparatzalle, guizon honrradu prestuai eman zaizte amarren zatiac ascotan; argatic emendican dacarte asiera Eliz-Patrojac, eta ematen zaizte amarren zatiac Eliza ascotan. Eta da ezagun, ceññ gaizqui esana, eta asmatua dan egun ojetan, Erregueac emandaco ondasunac diradela Amarren, primiciac. Eliz lanac, eta Christau fiel guicien prochuac adierazten dute arguirò Amarren, primiciac diradela Eliz derechoac, Jaungoicoari zor zaizcan tributua.

¿Cer gauza justuagoric, Religio santuari, eta justiciari dagoquionic, sostencea baño Eliz ministroac, Christau fiel guicien salvacioraco ifiniric daudenac, eta gau ta egun artara empeñaturic dauden personac. Nai, ta ezcoa da Religio santua; eta Guizonac eciñ iñolaere apartatu litzaque Jaungoicoari zor dion errespe-

toac, eta JesuChristoc utzi cigun obligacioac osatu bear ditugu, salvatuco bague-
rade Christan leguearen videz; obligacio ojei Ministrotzaca ezta posible cobru
ematea; Eliz funcioac eciñ eguiñ ditezque ministro gabe; eta iz batean esateco,
Religio santuac cabitzen dituan lan guciac eguiten dituzte Eliz-Ministroac. One-
zaz langara aldarte ascotan icusi da, Eliz-Ministroac premi orduetan eguin dizte-
la Erregueai mesede asco eren socorruaquiñ; sostencen dituztela pobre, eta aide
asco; eman diztela beren vicimodua, jaquinduria, eta izaten dirade onelaco gui-
zonac Erreynuan prestuac, eta aurrerapen andicoac Erritar guztientzat, eta esta-
du guztietan.

Onembesterequiñ deritzat adierazten dala ondo, ta zucen, Amarren, primici-
ac pagatcea, dala Eliza Santaren aguinta; baita ere ancinacoa dala obligacioa,
eta certaraco. Eta gañera esan baidizutet, eztagoala calterican batere Amarrenac
pagatcetic; ezkala gure España ederra pobretu beiñ ere amarren, primiciac orò,
ondo, eta frutu guztietatic eguin diraden demporetan. Amaseigarren, eta amaz-
pigarren siglo, edo guizaaldiac edoceñi egui au eracutsico dio pensatuaz beste
gabe orduco guertaerac. Ez du bada, itzonciac dioten becela, amarren, primiciac
eguiñ bearrac Necazaria galcen; beste, niri azalcea ez dagoquidan, motivo asco
dirade pobrezaren sustrajac. Escritura Santac arguiro eracusten du, Jaungoicoa-
ri opatcen bazajo bere leguezco derechoac, edo tributuac, ez dago dudaric Jaun-
goicoac opatuco digula ondasunac; bañan zurquerian, dollorquiro bagabiltza
Jaungoicoarequiñ; zurquiro ibillico da bera ere gurequiñ. Conturatu gaiten Ma-
lachiasen esanaz: Jaungoicoac dio, amarren gucia, bildu dedilla eta servi dezala
bere Echecho janaritzat; eta arrazquero icus zazute euri ugariac bialcen ditudan,
edo ez Cerutic: *Inferte omnem decimam in horreum, et sit Sicus in domo mea; et
probate me super hoc, si non aperuero vobis Cataractas Caeli.* Babiloniatic judu-
ac viurcean, chit pobreac cecusten beren buruac, eta ucatu cioten amarrenac
Jaungoicoari; eta Jaungoicoac legortez, aicez, eta plagaz Aguztu gucia deseguiñ-
du cizten; eta argatic esan cizten, paga citzatela Amarrenac, eta ugarituco citua-
la soroac.

Amarren, Primiciac pagatu bear dirade Errietan uso costumbrea dan bece-
la; frutuac, eta frutac, on ta adiñ on, Jaungoicoac ematen dituan eran; ez gucia
edo guejena charra, gauza eztana; baicic guztiren echeraco becela. Au da Eliza
santaren legue santua cumplitceco modua; Jaungoicoac suerte ona emateco vide
zucena; bere graziaz, debocioz, eta ondasunez betetceco obra estimagarria; bera-
ren honrran, beraren alavanzan empeñatcen ditugula gueron almen guciac; Gra-
ciarequiñ batera Ceruco ondasunac gueroztic irabazteco. Amen Amen.

5.16. Platica sobre el modo de oir misa. Intret in conspectu tuo oratio mea; in- clina aurem tuam ad praecem meam. Psalm. 87, V.2.

Ondo pensatcen jarri ezqueroz, gauza arritcecoa, eta eragabea da, nere adi-
tzailleac, Christauac legue bearra izatea meza santua jai egunetan enzuteco.
Pensatcea bera asco lizaque supito illic erorteco, lotsaren pasioz, jaquiñaren ga-

ñean cer gauza dan sacrificio santu au; icusiric icusten dan becela gai onetan Christan artean aiñ zabarqueri andia. Jaungoicoaren Seme eguiazcoa icusten dalaric bada gure Aldaretan doi doja ez guejago, eta ez guichiago Ma. Santissimaren errai garvietan egon zan eran: Calvarioco mendian icusi zan eran ez guejago, eta ez guichiago: doi doja Aita Eternoaren alde escuitic Ceruan dagoan eran; ez guejago, eta ez guichiago juicioco egunean etorrico dan becela viciac, eta illac juzgatcera: eta doi doja icusten dalaric gueron pecatuen zorra pagatze-co, Aita Eternoa palagatceco, eta vitarteco indarsua eta valiotsua izateco hostia vicia eguinic, bere piedade, erruqui, eta misericordia andiaren ondasunac contiño gueron gaiñ issurteco; eta alaere Christauac legue premia, leguez obligatu bearra izatea meza santu bat jaioro enzuteco, gauza negargarria, eta eciñ iñolare sinistu leiqueana da; eta guejago dana: pecatu mortalaren azpian, condena-tceco sentencia gogorrarequin. Jaungoicoaren aldetic paciencia, eta sufrimentu andia dan becela, Christauari dagocanez dollòrqueri ecinda guejagocoa dà. Lotsa bedi Christaua alde gucietara beregan jarri, eta ezagutu dezan bere laburque-ria, eta esqueraiztoa.

Gogoan artu beza edoceñec Sn. Agustinec dioana: Meza ondo enzun bat bacarra asco dala mundu gucia salvatceco: oartu bedi Christaua, Sn. Gregorioc dioanaz: eztala posible meza ondo enzun ezqueroz, gueron animac Jaungoicoaren ofrenda viciac eguinzaca guelditcea; ez bedi àztu Christaua S. Bernardoren esae-raz: eztaquiala nolatan Christan errian pecatu eguin ditequean, aimbeste meza esaten dalaric: Vis capere possum, quomodo inter Christianos sint tot sacrilegia inter tot sacrificia. Onembesterequin iguerri, eta eguiaz esan lezaque, guichic meza ondo, eta bear becela enzuten duala. Erara datorquit bada, nere aditzalleac, gaur al dedan moduan zuei eracustea sermoi labur onequin, cer gauza dan meza santua, eta nola enzun bear dan prochuzcoa izateco.

Da bada mezaco sacrificio santua S. Pabloren esaeraz: Jaungoicoari contiño esqueiñten diogun hostia edo ofrenda cabugabea: Per ipsum offeramus Deo semper hostiam laudis. Da meza santua Sn. Dionisio Areopagitararen iritzian: Ceru gucia icaratu, eta Aiñgueruac chit bildurtcen dituan sacrificio santua: Caelorum suspensio, et Angelorum stupor. Da meza santua Teodoretoc dioanez: Jaungoicoaren gucialtasunaren muga, eta bere guganaco amodioaren neurria: Nec plus facere potuit, nec plus amare. Dio Sn. Agustinec, meza Santua dalario palagatcen dala Jaungoicoaren aserrea, eze bestela mundu guzia onezquero milla aldiz deseguinduco zala: Ipsi debemus, quod mundus millies non interiisset. Sn. Joan Christomoc dio, meza santua dala Fedearen eta Eliza santaren señaile egui-azcoa: Fidei character, et Ecclesiasticum stigma. Sn. Ambrosioc azquenic dio, dala meza santua, Jaungoicoarequico gure adisquidetasunaren paper ciertoa, eta es-peranza eguiazcoaren aguiuri segurua. Cerren meza santuaren medioz adierazten dio Jaungoicoari Christauac, bera dala bacarric gure jabea, ill, da vici gucioc gaudela beraren mendean, eta Criatura guci guciac berari zor diotela izatea. Ar-gatic dà meza santua, eguitecoric santuena, guciç sagradua, eta Religio santua-ren diñatasun goiticoa.

Guiza aldi gucietaco Christau onac meza santuaren gañean iduqui cituzten sentimentu, edo ezagüera ojec benetan, eta benetan marcatu cizten viotcetan meza santuaganaco errespetao, erreverencia, eta devocioa. Emendic adoracioa Templo santuain; emendic Sacerdoteen errespetao; alaco moduz ece, badirudi naturalazac berac marcatcen dituala Chistauen animetan errespetao ojec guciac, eta erac eren culpaz borratcen dituztela Christauari dagozquion doai gozoac, eta jarten dirala animala guisa, esateco moduan. Dacusgunez gueron veguiz, ez do ezagun asco Christauc, edo Elizan dagoan, edo dagoan abere artean. Aundizu, edo nagusiteguira juango ez lizaquean janciaquin datoz Elizara asco, eta asco. Egoera icusiaz beste gabe, ezagun da devocioaren falta, errespetao gabetasuna, eta pensamentua, eta gogoia, guciac erabat Elizatic campora daudela. ¿Norc esango du guero ojec meza ondo enzuten dutela? Edo obeto esateco ¿norc esango du ojec Christan anzic dutela? Mercatu batean formazago, erarago alcargana arbatcen dirade, Jaungoicoagana arbatcen diran baño. ¿Cer da bada cer mira iritzi, millatatic batec meza Santua ez ondo enzutea?

Meza Santuaren fin principala, edo leendavicicoa dà Jaungoicoa honrratcea, eta argatic dagoquio beraren interesari batez ere. Eguia dà, oracio eguiñarequin honrratcen dala Jaun soberanoa; baña dagoquio batezere gueron prochuari. Baña meza santua esatean, edo enzutean guidatu bear zaizca bacarric Jaungoicoari honrra, gloria, alavanja, eta errespetao guciac; gueroztic iturri batetic becela artu ditzacun Jaunaren graciazco edari gozo, ugariac. Veraz beste moduz, beste eratan, edo posturatan meza santua enzutea dà, Jaungoicoa deshonoratcea, ecer guichitan iduquitcea, eta Christauaren ancic ez izatea templo santura aiñ ezagüera guichirequin datozen Christauac. Meza santuan Christau bear bezelacoac iragarri bear dio Jaungoicoari bere mende dagoala edoceiñ gaitaraco; berari zor diola izatea, eta dan gucia eta beraz campora misseriz jancia, eta ecer eza dala, humiltasun onec gogoratuco diozca Christauari gañeraco Christan legueari dagozcan gauza guciac, eta maisu baten erara eracutsico diozca obligacio guciac. Contrara guichi ezagungo do Christauac Christaua dana, eta meza santua ondo enzun nai duala baldin bere modura, bere erara, eta ichuragabe gauzac artaraco zucencen baditu.

Badirudite batzuec Elizara datocela bacarric beren buruac eracusteagatic; beste batzuec, bata bestea esamiñatceagatic; eta onelaco beste jaquindeseo asco, eta bear ez diradenac. Bear dan decencia, edo modestiarequin etorri bear da Elizara, personari dagoquion moduan, choraqueric plazaraco utzita. Sn. Luis; Sn. Fernando, Sta. Isabel Erregue Erreguiñac ciralaric, etorten ciraden Templo santura, eta meza santura beren decencian, pantasi gabe, eta janci humillaquin; baña oraiño egunetan asco lecutan dan pobreenac dirudi Erreguiña bat. Alde guctic, burutic oñera arrotasuna, eta pantasia dagoala ¿nolatan iragarri zaijca Jaungoicoari humiltasuna, eta norberaren ecerestasuna? Nic eztaquit, zeoc pensa ezazute, nic diodan bitartean: Turco Errian, Moro artean, eta Judu Errian modestia, decencia, eta humiltasun andiagorequin sartu, eta egoten diradela beren Elizaz guezurrezcoetan Jaungoico falsoen aurrean.

*Icusico balituzte asco Christau Elizan Maometanoac, arrazoiz esango luca-
te; guc viciaren penan eciñ eguiñ guenzaque gueron mezquita, edo templo modue-
tan izcunzaric, eta zuec etzerate issilcen, bata bestearequin confesatcen baceun-
dete baña guejago ceon Eliza santuetan; orduraco dituzte ceon chisme, eta
embusteriac; orduraco familien nàsteriac, eta ceon guezurrac. Eta itz batean esan
guenzaque: Zuen Elizac eguiazco Elizac badira, eta Jaungoico eguiazcoa orietan
badago ere, zuec zeratela adoratzalle falsoac; eta Elizaco egoeratic juzgatu bear
baliz, iñorc Christautzat etzinduzcatela iduquico. Domus mea Domus Orationis,
dio Jaungoicoac herac, nere Eliza, nere Temploa, nere Echea dà oracio toquia, ez
chisme, eta verriqueta lecuca, Meza eta Vezpera ondoan ordu osoetan egoten cera-
ten becela egoteco. Elizan, ta batezere Mezaco sacrificio santuan egon bear da
atencio, eta arreta andiarequin, pensatu, eta ondo consideratuaz cer eguiten dan
Aldare sagraduan; bada berritcen da JesuChristoren pasio santua, eta heriotza;
verritcen da sacramentu santu aldarecoa, ceñetan Sacerdotearen itzaquin batera
jarten dan hostian, eta Calizan ogui, eta ardoaren ancean JesuChristo gure Jau-
naren gorputz santua, eta odola bere izate guciarequin Ceruan aurquitcen dan
era artan bertan, bere magestade, eta gloriarequin. Hoc facite in meam comme-
morationem. Mezaco sacrificio santuan cantatcen da: Sursum Corda: alchatu di-
tzacula gueron viotzac Cerura; eta ¿nola alchatuco dituzte batera bestera vegui-
ra, izquetan eta jolasean aurrac becela daudenac? ¿beren Echétan, beren artu
emanetan, plaza dancetan pensatcen baldiñ badaude? Elizan gorputza, eta cam-
poan gogoa dute onelacoac, eta argatic ez dute enzuten secula mezaric. Videntes,
non vident; audientes non audiunt, et percipientes non intelligunt.*

*Meza enzuten duan guciac unitu, edo alcartu bear dituzte beren espirituac,
eta intencio santuac Sacerdoteèn espiritu, eta intencio santuarequin; cerren guci-
oc daucate parte lan sagradu artan ministroarequin batera. Eta bere najez, edo
zabarqueriz mezataco demporan luzaro pensamentua, edo gogoa bestetan badau-
ca, ez du mezaric enzuten, eta eguiten du pecatu mortal. Atencioz, devocioz, eta
humiltasun andiarequin pensa beza Christauac Jesusen pasio santuan; pensa be-
za ordu artan bertan preso arcen dutela soldadu borreroac; orduan bertan lotcen
dutela socaquin erruz, eta burla, isseca eguiñaz pulzaca, eta gaizqui esaca dara-
matela Olibetaco baratzatic Jerusalengo Ciudadera; emen eguiten diozcatela
mesprecio icaragarriac, eta darabiltela echeric eche, palacioric palacio; guacen
Juez bategana, guacen besteagana; biurtu gaitean arutz, vetor verriz onutz zoroa
baliz becela, heriotzaguille bat baña mesprecio guejagorequin; pensa bitza
Christauac mezataco demporan nola azotez ezur da mami ebaqui zuten; pensa
beza nola aranza gogorrezco coroa buruan sartu cioten, cembait punta, ambait
odol iturri ceriozcala; pensa asperzaca ala ere nola ifini cioten sorbaldan Guru-
tce santua Calvarioco mendira juateco; pensa beza Christauac: gurutcearen
pisuac baña guejago munduco pecatuen cargac iru bider lurrera bota zuala Je-
suChristo Calvarioco videan; eta tiraca, ta pulzaca alchatu zutela soldadu Borre-
roac, eta eman ciotela lagun Simon Cirineo videan illic guelditu etzediñ gurutz il-
zaturic ill baña leen; pensa beza, cer pena, dolore, eta sentimentu arrigarriac*

igaroco cituan bere Ama Maria Santissimac era negargarri artan bere seme maitea icusi, eta gurutctic cincilica tormentu andi, eta ugarien artean ilceraño bere veguien aurrean iduquitcean.

Duda gabe pensamentu ojec Christauari áztuerazoco diote munduco beste pensamentuac, eta iracequico du bere viotza devociozco sugarretan, eta palagatuco du Jaungoico aimbeste vider aserratua, gueron pasio, eta griña gaiztoac mediante; bada mezaco sacrificio santua dà aiñ Jaungoicoaren gogocoa ece, sacrificio au dalario zabalcen ditu missericordiazco ateac, eta ichitcen ditu Justicia gogorrarenac. Cegatibait dio Sto. Thomas Aquinotarrac edoceiñ pecatu mortalequin eguiten zajola Jaungoicoari fíngabeco injuria, eta eciñ iñolaz ere injuria au borratu dezaqueala munduco Criatura gucien merecimentuac; pecatuaren maliciac erasan cion Jaun Soberano oni: damutu citzajola Guizona sortua: penitet me hominem fecisse, eta ugandiaren medioz galdu zuan mundu gucia, zorci personaz ostein; ala orobat aserraturic gaiztaqueria medio, erre, ta quiscaldu cituan Ciudad andiac, eta ojen artean Sodoma, eta Gomorra; orobat guerrata, eta izurri icaragarriaquin ondatu cituan gentetalde asco. Misseri, eta laceri triste ojen ondoren Patriarcac esqueñi cioten dempora artaco Sacrificio modu asco; bacarric Salomonec esqueñi ciozcan sacrificioan ogueta bi idi, eta eun, ta oguei milla Aari; baña dio Micheas Profetac ¿Venturaz palagatu ceiquean onembesterequiñ Jaungoicoaren aserrea? Nunquid placari potest Dominus in millibus Arietum? Ezta posible, guejago, eta sarriago esqueñita ere; mundu gucia sacrificatuarren, ez lucate valimenturic batere izango; bacar bacarric JesuChristo dà palagatzallea, paqueac, eta adisquidetasunac Aita Eternoarequin pecatarien mesedean eguiñ ditzaqueana, eta eguiten dituana Mezaco sacrificio santuaren medioz: Ipse est propiciatio pro peccatis nostris. Bera dà gure pecatuen missericordia, eta barcacioa iristen duana: bera dà Ostrillaquea Ugandia guelditceco, gaztelu indarsua defenditceco; boticaco guztizcoa animaco eta gorputceco trabajuac sendatceco. Eta itz batean esateco; Trentoco Concilio sagraduac dioan becela: bera da, palagaturic, sacrificio santu onequin Aita Eternoa, barcatcen dituana utseguite guciac, eta penitencia eguiazcoa eguiteco gracia ematen duana. Hac oblatione placatus, crimina etiam ingentia dimittit, Deus, gratiam, et donum paenitentiae concedens. Argatic esan zuan Sta. Theresac ¡O! mundu galdua, Sacerdoteric ezpaliz!; Vae mundo, si non essent sacerdotes! Bada meza santuac áztu erazotcen dio Jaun Divinoari bere aserrea pecatua dalario, eta Sacerdoteric ezpaliz, ez legoque meza santuric.

¡Contu bada Christauac! arretaz, devocioz, humiltasunarequin meza santua enzuteaz; ondo adituac izango dirade orduan zuen erregruac: Intret in conspectu tuo oratio mea, argatic esaten zuan David Erregue santuac chit menaz; pensatu soseguz, eta egoqui Jesusen pasio santua, eta irichico dituzute bear adina gracia, mesede, eta laguntasun ceon premietan, beraren honrrac, eta gloriac publicatcen dituzutela ala viotzez, nola aoz mundu onetan; gueroztic gozatceco beraz secula gucian Amen.

BIBLIOGRAFIA

Aldizkariak

- ALTUBE´tar Seber, 1929, 'Erderismos', 'Euskera' X, 1-4, 66. zk.
- ALTUNA S.J., Patxi, 1967, 'Larramendi´ren iztegi berria', 'Euskera' XII, (139-300 orr.).
- AMADOR CARRANDI, Florencio, 1951, 'Los hermanos y descendientes del general Zumalacárregui', 'BAP' 7, (177-197 orr.).
- ARANO, Jon Mikel, 1995-06-25, 'Klasiko baten aurkikuntza', 'Argia', 39. or.
- ARRUE, Antonio, 1956, 'Gerriko', 'Egan' 3-4, (33-43 orr.).
- EGIN egunkaria, 1995-11-08, 46. or.
- EL DIARIO VASCO, 1995-11-08, 64. or.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1995-11-08, 31. or.
- IBISATE LOZARES, Angel, 1992, 'El original castellano del 'Jaquin-bide Iritarautia'...', 'Scriptorium Victoriense' 39, Gasteiz, (222-227 orr.).
- IBISATE LOZARES, Angel, 1994, 'El Doctor Don José Feliz Amundarain...', 'BAP' L-1, (159-169 orr.).
- LAKARRA, Joseba Andoni, 1985, 'Larramendiren Hiztegitzaren Inguruan', 'ASJU' XIX-1, (11-50 orr.).
- SAN MARTIN, Juan, 1987, 'Cadizko Konstituzioa Euskaraz...', 'Euskera' XXXII-1, (393-397 orr.).
- SARASOLA, Ibon, 1986, 'Larramendiren eraginaz eta', 'ASJU' XX-1, (203-215 orr.).

Artxiboak

- Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Histori Artxiboa (DEHA).
- Iruñeko Apezpikutegiko Artxiboa (IAA).
- Oñatiko Gipuzkoako Protokolo Artxiboa (OGPA).
- Segurako Udal Artxiboa (SUA).

Tolosako Gipuzkoako Artxibo Orokorra (TGAO).
Urretxuko Udal Artxiboa (UUA).
Zegamako Udal Artxiboa (ZUA).

Liburuak

- ALTUNA, Jesus, eta beste batzuk, 1989, "*Los vascos a través de la Historia*", Gipuzkoako Kutxaren Argitarapenak, Donostia.
- ALTZIBAR, Xabier, 1992, '*Larramendi eta literatur-gipuzkera*', (325-360 orr.). Ikus, LAKARRA, Joseba Andoni, eta beste batzuk, 1992.
- ANGULO, José María de, 1976, "*La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*" I, Auñamendi 108, Donostia.
- ARANBURU, Pello Joxe, 1995, "*Juan Bautista Agirre Elola...*", Gertu, Oñati.
- ARANBURU, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1993, "*Juan Inazio Iztueta Etxeberria...*", Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ARANBURU, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1994, "*Klaudio Otaegi...*", Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ARANBURU, Pello Joxe, eta beste batzuk, 1995, "*Jose Ignazio Gerricko Enatarriaga...*", Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- ARIZNABARRETA, Abel, 1982, "*Euskal Historia...*", Elkar, Donostia.
- ASTIAZARAIN ACHABAL, María Isabel, 1995, "*La construcción de los caminos reales de Guipúzcoa en el siglo XVIII*", Diputación Foral de Guipúzcoa.
- AXULAR, Pedro, 1977, "*Gero*", Jakin, Arantzazu, Oñati. (Villasante, Luisen argitalpena).
- BILBAO, Jon, 1973, EGIPVko Bibliografía III, 557. or.
- EGIPVko DEV entziklopedia, Auñamendi, Itxaropena, Zarauz. (Zenbait artikulu).
- EL HUYAR Hiztegi Entziklopedikoa, 1993, Elhuyar Kultur Elkartea, Usurbil. (Hainbat artikulu).
- ESPASA CALPE entziklopedia, 1907-1930, Barcelona. (Zenbait artikulu).
- ETXAIDE, Yon, 1990, "*Hamasei Seme Euskalerriko*", Erein, Itxaropena, Zarautz.
- EUSKALTZAINDIA, "*Euskal Gramatika, Lehen Urratsak*" (EGLU), Bilbo: I (1985); I (eranskina) (1987); II (1987); III (1990); IV (1994).
- EUSKALTZAINDIA, 1993, "*Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*", Bilbo.
- GARCIA de CORTAZAR, Fernando, 1989, '*Las Carlistadas*', (226-243 orr.). Ikus, ALTUNA, Jesus, eta beste batzuk, 1989.
- GIL NOVALES, Alberto, "*Diccionario Biográfico del Trienio Liberal*", El Mundo Universal.
- GOENAGA, Patxi, 1980, "*Gramatika bideetan*", Erein, Donostia.
- GOÑI GAZTAMBIDE, José, 1991, "*Historia de los Obispos de Pamplona*" VII-IX, Universidad de Navarra, Pamplona.

- GOROSABEL, Pablo de, 1972, "*Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa*", La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao. (3 tomo).
- GUERRICO, José Ignacio, 1858, "*Cristau Doctriña Guztiaren Esplicacioaren Sa-yaquera...*", Mendizabalen alarguna, Tolosa. (I. tomoko sarrerako 'Breve noticia del autor y sus escritos', IV-V orr.).
- INTXAUSTI, Joseba, 1990, "*Euskara, euskaldunon hizkuntza*", Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. ('Euskara, aro modernoan', 66-103 orr. eta 'Euskara, aro garaikidean', 105-145 orr.).
- IPARRAGUIRRE S.J., Ignacio, 1975, "*Cinco Villas del Alto Goyerri...*", Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.
- IZTUETA, Juan Inazio, 1990, "*Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira...*", Klasikoak 37, EEE, Mensajero, Oiartzun. (Edizioaren prestatzailea: Ezeizabarrena, Maria Jose).
- LAKARRA, Joseba Andoni, eta beste batzuk, 1992, "*Manuel Larramendi...*", Andoingo Udala.
- LARDIZABAL, Francisco Ignacio, 1995, "*Testamentu Zarreko Kondaira I*", Klasikoak 72, EEE, Kriselu, Oiartzun. (Edizioaren prestatzailea: Urgell, Blanca).
- LAROUSSE, Nueva Enciclopedia, 1984, Planeta, Barcelona. (Hainbat artikulua).
- LARRAMENDI, Manuel de, 1853, "*Diccionario Trilingüe, Castellano, Bascuence y Latín*", Pío de Zuazua, San Sebastián.
- LARRAMENDI, S.I., Manuel de, 1969, "*Corografía de Guipúzcoa...*", Biblioteca Básica de Euskal Herria, Larrun, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., San Sebastián. (Edizioaren prestatzailea: Tellechea Idógoras, José Ignacio).
- LASA, F.J.I., eta beste batzuk, 1968, "*Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*", Auñamendi, Donostia.
- LUR Hiztegi Entziklopedikoa, 1993, Lur, Bilbo. (Zenbait artikulua).
- MICHELENA, Luis, 1987, "*Palabras y textos*", Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitarapen Zerbitzua, Gasteiz.
- MICHELENA, Luis, 1988, "*Historia de la Literatura Vasca*", Erein, Itxaropena, Zarautz.
- MITXELENA, Koldo, 1984, "*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*" I.eko 'Aurkezpena'. Ikus, SARASOLA, Ibon, 1984.
- MITXELENA, Koldo, 1988, "*Euskal Idazlan Guztiak...*" (EIG): II, Klasikoak 22, EEE, Etor, Zarautz; IV, Klasikoak 24, EEE, Elkar, Zarautz; VII, Klasikoak 27, EEE, Erein, Zarautz; VIII, Klasikoak 28, EEE, Labayru, Zarautz.
- MONTOYA, Pío, 1971, "*La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-1823)*", Izarra, San Sebastián.
- OTAEGI IMAZ, Beatriz, 1993, "*Felipe Agustín Otaegui...*", Beizama-Donostia.
- PAUL ARZAC, Juan Ignacio, 1986, "*Enciclopedia Histórico-Geográfica de Guipúzcoa*", Haranburu Editor, Donostia. (I-V tomoak).

- SARASOLA, Ibon, 1971, "*Euskal Literaturaren Historia*", Lur, Donostia.
- SARASOLA, Ibon, 1976, "*Historia Social de la Literatura Vasca*", Akal, Barcelona.
- SARASOLA, Ibon, 1984, "*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*", I, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia. (MITXELENA, Koldoren 'Aurkezpena').
- SORRARAIN, Genaro de, 1984, "*Catálogo de Obras Euskaras...*", Colección Bibliográfica, Serie Mayor, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao.
- TORREALDAY, Joan Mari, 1977, "*Euskal Idazleak Gaur...*", Jakin, Oñati-Arantzazu.
- VALVERDE, Lola, 1989, '*La Ilustración*', (192-222 orr.). Ikus, ALTUNA, Jesus, eta beste batzuk, 1989.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1979, "*Historia de la Literatura Vasca*", Aranzazu.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1979, "*Sintaxis de la oración compuesta*", Aránzazu, Oñate.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1980, "*Sintaxis de la oración simple*", Aránzazu, Oñate.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1981, "*Palabras vascas compuestas y derivadas*", Aránzazu, Oñate.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1983, "*Estudios de sintaxis vasca*", Aránzazu, Oñate.
- VINSON, Julien, 1984, "*Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*", Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián. (2 tomo).

ERANSKINAK

1. 1790-09-22ko Amundarainen “Relación de los méritos, grados y ejercicios literarios...”. Bertan Amundarainen 1771-1784 bitarteko Iruñea, Oñati, Zaragoza, Valladolid eta Madrilgo ikasketen ziurtapena egiten da (Jerardo Elortza jaunak, UNEDeko irakasleak, Lazkaoko Beneditarren monasterioko liburutegian aurkitutako agiria).

2. 1803-01-05ean Amundarainek Mutiloko Udalarari zuzendutako gutuna. Bertan Mutiloko bikarioak herriko Udalarari zenbait herri-lan nola egin iradokitzen dio, *‘herriarren eta herriarren hobe beharrear’* (OGPA II, 2 805. sorta, 4-6 orr.).

3. 1819ko maiatzean Amundarainek bere gotzainari zuzendutako gutuna. Bertan aurreko urteetako gerren ondorioz pairatu dituen eraso eta sufrimendu latzak kontatzen dizkio gotzainari, bide batez, Elizako diru-kontuak behar bezala eramán ezin izana zurituz. Gotzainaren ordezkariaren erantzun zorrotza ere azaltzen da (IAA, A, 25, 10. zk.).



RELACION DE LOS MERITOS, GRADOS

Y EXERCICIOS LITERARIOS

DEL DOCTOR

DON JOSEPH FELIX DE AMUNDARAIN Y MUGICA,
Presbítero, Confesor, Predicador y Opositor á Prebendas
de Oficio.



Consta es hijo legítimo: natural de la Villa de Cegama en la Provincia de Guipuzcoa, Diócesis de Pamplona: de edad de treinta y cinco años, que cumplirá en veinte de Noviembre del presente de mil setecientos noventa; y Presbítero con licencias de celebrar, confesar y predicar el Santo Evangelio en los Obisposados de Pamplona, Valladolid, Calahorra y Real Sitio de San Ildefonso. Tiene trece años de estudios mayores, habiendo cursado los tres primeros de Filosofía en la Universidad de Santiago de Pamplona con aplicación y aprovechamiento, arguyendo y defendiendo por su turno en los actos literarios, según costumbre de ella. Después cursó otros tres años de Leyes en la Universidad de Oñate con la misma aplicación. Fue Académico de ella, arguyendo y defendiendo según previenen sus constituciones; y concluidos dichos tres años, se graduó de Bachiller en Leyes á Claustro pleno, en que fue aprobado *nemine discrepante*, habiendo defendido antes un acto público en la expresada Facultad. Asimismo estudió otros tres años la Facultad de Sagrados Cánones en la Universidad de Zaragoza con la acostumbrada aplicación, donde se le confirió el grado de Bachiller en dicha Facultad, en que fue aprobado *nemine discrepante*, y defendido antes un acto público, según se ordena por las constituciones de dicha Universidad. Por especial nombramiento del Claustro de la misma fue Repasante en la Facultad de Cánones por espacio de un año, explicando esta Facultad á crecido número de Estudiantes; y presidió Academias públicas al título de *Jure Patronatus* de las Decretales de Gregorio IX; y también presidió otras en la de Leyes al §. 40. del título de *Rerum divisione* de las Instituciones del Emperador Justiniano. Incorporó el gra-

grado de Bachiller en Cánones en la Universidad de Valladolid , y fué aprobado *nemine discrepante* , donde cursó asimismo dos años la misma Facultad , asistiendo al segundo Gimnasio de ella , á que fué admitido con la misma aprobacion , habiendo sufrido el riguroso exâmen que previenen sus constituciones , leyendo por espacio de una hora al punto que le tocó por suerte , y sosteniendo la questão de él , respondiendo á los argumentos puestos por los Clásicos de dicho Gimnasio. Durante los dos cursos defendió por su turno cinco conclusiones á los capítulos de las Decretales de Gregorio IX , 4. *de Secundiis nuptiis* , 1. *de Adulterio* , 7. *de Electione , et electi potestate* , 7. *de Jure jurando* , 20. *de Præscriptionibus* ; y arguyó igualmente todas las veces que le tocó por su turno , y una por especial mandato del Gimnasio por tiempo de media hora con puntos de veinte y quatro al capítulo 10. *de Filiis Presbyterorum ordinandis , vel non*. Tambien tuvo dos ejercicios de tentativa para dos actos mayores sobre los títulos *de Clericis non residentibus* y *de Usuris* de las expresadas Decretales. Presidió en la referida Universidad de Valladolid dos veces conclusiones impresas , respondiendo á los respectivos argumentos en cada una por espacio de dos horas á los títulos enunciados *de Clericis non residentibus* y *de Usuris*. Por espacio de otros dos años fué Académico de la Real Academia de Sagrados Cánones , Liturgia , Historia y Disciplina Eclesiástica de España con la advocacion de San Isidoro , sita en la Real Casa-Oratorio de San Felipe Neri de esta Corte , desempeñando cinco disertaciones Histórico-Canónicas á los títulos 3 , 17 , 16 del lib. 2 de las Decretales de Gregorio IX , 27 del lib. 5 , y 17 del lib. 3 : tres sumas prácticas á los títulos 5 y 19 del lib. 2 , y 19 del lib. 3 de las mismas Decretales : otras tres lecciones públicas con sus respectivas conclusiones á los cap. 7 , tít. 7 y 2 , tít. 21 del lib. 2 , y cap. 1 , tít. 21 del lib. 3 de dichas Decretales de Gregorio IX. Tambien fué Académico en la misma Academia en la *Clase de Concilios* , en que tuvo dos disertaciones , la primera *pro examine* al Concilio general quarto *Calcedonense* , y la otra al *canon séptimo del Concilio segundo de Braga* ; y arguyó en ambas *Clases* de Decretales y Concilios siempre que le correspondió por su turno ; y ademas fué Diputado por la Academia en varias consultas , en que le aprobó su dictamen presentado por escrito y fundado en derecho , en cuyos ejercicios acreditó su talento y literatura. Incorporó asimismo el grado de Bachiller en Cánones en la Universidad de Oñate , habiéndosele aprobado el ejercicio de dicha incorporacion *nemine discrepante* ; y en la misma Universidad se graduó de Licenciado y Doctor en la Facultad de Cánones con previo riguroso exâmen y ejercicios literarios que ordena la Real Cédula de S. M. Ha sido Exâminador en varios grados mayores y menores en di-

dicha Universidad , arguyendo las veces que le tocó por su turno , según costumbre de ella. Asistió quatro años continuos con aplicacion y aprovechamiento al Estudio de Práctica de Abogado de los Reales Consejos. Hizo oposicion á la Prebenda Doctoral de la Real Colegiata de San Ildefonso en el año de mil setecientos ochenta y tres, cuyos exercicios se le aprobaron por el Cabildo de ella *nemine discrepante*. Se ha exercitado voluntariamente en los ministerios de celebrar , confesar y predicar con notorio zelo y aplicacion en la Iglesia Parroquial de San Lorenzo de la Ciudad de Valladolid , durante sus respectivos cursos ; y desde el año de mil setecientos ochenta y quatro hasta el presente en la Parroquial de la Villa de Cegama su patria , visitando enfermos en los Hospitales y fuera de ellos , ayudándolos á bien morir , y demas exercicios de piedad , y predicando el Santo Evangelio en los tiempos de Quaresma y Adviento , y otros Sermones Panegíricos que se le han encargado. Y por Testimoniales del Provisor y Vicario General del Obispado de Pamplona de trece de Marzo de este año , resulta asimismo que este sugeto es de buena vida y costumbres ; y que se halla sin impedimento alguno canónico, que le impida la obtencion de qualesquiera Canonicatos , Prebendas y otras Piezas Eclesiásticas de las Iglesias de estos Reynos.

Es copia de la original , que queda en la Secretaría de la Cámara y Real Patronato : de que certifico , como Secretario de S. M. y Oficial mayor de ella. Madrid veinte y dos de Septiembre de mil setecientos y noventa.

TÍTULOS, MÉRITOS, GRADOS
Y EJERCICIOS LITERARIOS
DEL DOCTOR

D. JOSEPH FELIX DE AMUNDARAIN Y MUGICA,
Presbítero y Opositor á Prebendas de Oficio.

- 35 años de edad que cumplirá en 20 de Noviembre del presente de 1790.
- 13 años de estudios mayores.
- 4 años de Práctica en Estudio abierto de Abogado de los Reales Consejos.
- 4 actos públicos, dos en Leyes y dos en Cánones.
- 2 actos impresos en Sagrados Cánones.
- 2 años Individuo Clásico en el segundo Gimnasio de Cánones de la Universidad de Valladolid.
- 1 año Repasante de Cánones en la de Zaragoza.
- 2 años Académico en la de Historia, Liturgia y Disciplina Eclesiástica de San Isidoro, sita en esta Villa y Corte de Madrid.
- 7 Disertaciones Histórico-Canónicas en dicha Academia: cinco á varios títulos de las Decretales de Gregorio IX, y dos al Concilio general quarto Calcedonense, y al canon séptimo del segundo Concilio de Braga.
- 3 sumas prácticas á varios títulos de las mismas Decretales.
- 3 lecciones públicas á varios capítulos del Cuerpo del Derecho Canónico.
- Grado de Bachiller en Leyes á Claustro pleno en la Universidad de Oñate *nemine discrepante.*
- Grado de Bachiller en Cánones en la de Zaragoza *nemine discrepante.*
- 2 incorporaciones de grados de Bachiller en Cánones en la Universidad de Valladolid y Oñate *nemine discrepante.*
- Grado de Licenciado y Doctor en Sagrados Cánones por la Universidad de Oñate.
- Examinador en grados mayores y menores en la misma.
- Licencias de celebrar, confesar y predicar en los Obisposdos de Pamplona, Valladolid, Calahorra y Abadía de San Ildefonso.
- Oposición á la Prebenda Doctoral de San Ildefonso; cuyos ejercicios se le aprobaron por el Cabildo *nemine discrepante.*
- Testimoniales de buena vida y costumbres del Provisor y Vicario General de Pamplona.

— 2 —

11

N.º 1.º Villa de Mutiloa:

Señor:

Estimulado, Como Parroco de la parroquia de V. S. y su vecindario, del bien estar, y utilidades tanto espirituales, como temporales de la Feligresia, en vista de la critica situacion en que se hallan los Caminos de la jurisdiccion de V. S. en las partes mas necesarias, y de mayor transito, à saber en la de Olano, y Euzelau, sin que en una, y otra haya paso q.º pueda transitarse à no ser con mucha incomodidad de los habitantes de V. S. pudiendo ademas, sobre venir con facilidad en ambas partes el q.º absolutam.^{te} se pongan intrasitables à menor q.º en aquella se construyan dos puentes pequeños, la una al par de Echavarri, y la otra al de Olano, y en la parte de Euzelau no tratándose de quitar la corriente al rio q.º la f.º del Camino, y q.º se dirija como antes de las abenidas q.º la contraria, resultando de la inaccion, ó falta de remedio la imposibilidad mas lamentable de q.º ni de dia, ni de noche pueda yo administrar los Santos Sacram.^{tos} à mis respectivas Obefas, lo q.º seria ciertam.^{te} para V. S. del mayor conve.^{to}, si sucediere el caso de ofe.

deberlo administrar, y no poderlo ejecutar si fulte
de pago, q^e vpre. ha de mantenerse de modo q^e
con decencia, y segun corresponde se pueda sub-
ministrar; estos objetos q^e no se deben mirar con
indiferencia, me hacen acordar à la alta con-
sideracion de V. à fin de que ponga en esta
parte el mas pronto remedio.

No se se de estar persuadido, q^e à cargo
de V. si las circunstancias q^e han mediado lo
año pasado, podra hallarse sin los medios
oportunos à subvenir à los gastos de reparacion
de Caminos; pero por otra parte puedo pre-
sumirme q^e V. podra adelantarse à ello por
aquel mismo medio (q^e segun voz publica) esta
premeditando reponer las paredes de la Cava
Concejal à trueque de terrenos, y cartañales:
pues sobre ser de preferible remedio la falta
de transito al de reponerse las paredes sobe
dichas, ocurre el gran inconveniente de que
de la referida reposicion en la forma q^e se
asegura, han de originarse crecidos, e inutiler
gastos, asi que si sola la reposicion es cal-
culable tanto gasto como si la nueva con-
struccion de la Cava Concejal; porque siendo
necesario si en su reposicion un apeo general
y sumo cuidado ademas en el derribo, etc.

5

solo aya tenera un imenso coste, q^o junto con la con-
struccion de las tres paredes de los extremos de la Cava
denará a caso à cortar tanto como la nueva reedifi-
cacion, à q^o U.S. se ha ocurrido q^o falta de medios,
fuera de q^o en preciosa la reedificacion à poder ser
y no la reparacion sola; pues solo U.S. q^o ademas
de ser Cava Convictorial, es tambien Cava menor, y
Taberna unica, y publica del Pueblo, y ni para uno
ni otro destino tiene disposicion, y q^o hasta la Car-
cel está en disposicion de q^o no merece nombre de tal,
sirviendole ademas q^o preciosa el Arrendador q^o uso
propio de la Cava indispensable, por q^o ni la plaza
puede destinarse à las veces à otra parte, debiendose
en Casa de igual naturaleza, donde es facil el
incendio, mirarlo con la mayor escrupulosidad, q^o toda
materia combustible tenga destino separado, y à
donde no llequen, ni se acerquen binos, q^o con mo-
tibo de fumar tragando, y llevando fuego caucion in-
cendio; ademas tambien se hace preciso q^o U.S. ten-
ga presente las varias, y repetidas Ordenes de V.M.
(q^o Dios què) en q^o q^o obiar incombeniente, y perjui-
cio se hálle dispuesto, q^o ninguno q^o no sea del
Arte, ó intelig^{te} tome à su cargo, y riesgo otra al-
guna Publica; y por lo mismo no debe U.S. admitir pro-
puesta q^o en esta p^{te} haya hecho à U.S. persona, ó
personas q^o no tengan el Titulo de Arquitectos, ó

acuerdo de obras, y tampoco la de esto sin la
previa condicion de q.^o previam.^{te} se hayan de
hacer ciertos fijando los articulos de las condi-
cibas condiciones, los plazos q.^o los pagos, y
la forma, modo, y en q.^o terminos se hayan de
satisfacer los gastos, y ultimam.^{te} en q.^o te-
rminos, o castañales, se acienda finalm.
a publica subasta q.^o el q.^o mas ventaj.
postura, o proposicion haga; p.^o manera que
de lo contrario podria U.S. verro en un ser vis-
erto q.^o acarrecasen a U.S. motivos de sentir
poco agradables, y de irreparables perjuicios, y
todo esto, recuerdo me muebo el solo interes
de q.^o tengo de la felicidad de U.S. y sien-
tar de un individuo, y natural, y tambie
a tomarme la libertad de proponer un medio
U.S. p.^o el q.^o caso loyrera poder ser suavis-
a objetos tan importantes insensidlem.^{te}, y en
sabiendose q.^o en este Pueblo hai bastante con-
mo de aguardiente, y p.^o ello no se paga cosa alg.
na ni q.^o los destinos q.^o tiene ordenados U.S.
a la Boua, ni q.^o otros q.^o U.S. podria imponer
las licencias necesarias, solicitar estas p.^o
los otros ramos, y uniendo con la viva anterior
del vino, la nueva del aguard.^{te}, se asegure
la reparacion de caminos, y se facilitare a
con otros la nueva construccion de la casa
sistorial.

Me ofrezco con este motivo a la disposici.
de

6

señor. Esperando de su rotunda bondad q. a la mayor
brevedad ponga su mano al remedio indispensable de la
composicion de Caminos en las partes sobre dichas,
como hai la mayor necesidad; y deves finalm. te la
entera felicidad de v. en todo sus designios; q.
que ruego al Señor con las mayores veras. Illustri-
sima, y Enero 5. de 1703.

A la disposicion de v. s.
Su mas at. Capⁿ y Vic.
D. D. J. P. Feliz de Amundarain

6
V. M. S. O. Obispo, y mi Señor

Señor,

A mi luego de haber entrado yo el infrascripto D. D. José Feliz de Amundarain de Vicario propio de esta Parroquia de la V. a de Mutila, empecé para mi decoracion la tormenta sangrienta de las guerras mas tiranicas con un Enemigo sanguinario, q. nada aborrecia mas q. las Iglesias, personas Eclesiasticas, y Religiosas de ambos sexos, como a V. S. es muy notorio con arto dolor, pues q. ha visto asolar, y saqueado los Templos, andar errantes las personas Eclesiasticas, y universalmente agitada la Nave de N. S. ta Iglesia con las mas atroces borrascas.

Precisado pues en este estado tan calamitoso ha conservado alomenos los vasos sagrados, y demas alaps, y no menos los libros Parroquiales, se logró el fin deseado trasportandolos de una parte a otra, y escondiendolos en subterranos; por cuyo motivo tomé el medio de llevar todas las razones de los bienes, rentas, y gastos ordinarios, y otros de la Igle. en un pliego mayor de marca por años, dividido en y casetas para despues reducirlo extensam. al libro de Fabrica: puer se han executado obras muy considerables, como la doradura del Altar mayor, dos Colaterales, muchas Imagenes para ellos, y fuera de ellos q. se un particular adorno, y magestad a la Igle. Se han repuesto esta Custodia, Cruz grande, naveta, y lamparas en lugar delas de Plata q. llevo la Provincia; nada ha faltado al Culto ni funciones; se ha reportado a los gastos ordinarios, extraordinarios anuales; se ha conservado el Melon en medio de los retosques q. haterido; se construyo el Campo Santo; se socorrio a la V. a para sus necesidades, llevo el Francés cierta cantidad, y con todo algo tiene sobrante, y surtida la Sacristia.

Este metodo q. adapte con todo mi cuidado, me valio al trocado de mis pensam.^{tos}; pues a los principios de la ultima guerra me forzaron la Puerta-ventana de mi quarto los Ladrones, entraron siete, y por

espacio de hora y media me traerón por todo el río
conoci de la casa preguntando por la trampa, o como
dijo q. tenía para guardar las cosas, y desengañado
empezaron ha robar quanto pudieron, a cuya razon
medio un des temple, y los dependientes les importu-
naban con q. se llamase al facultativo, y apura-
da, habieron la papelera y encontraron con tres
libras de polvora por desoxacia las hallaron, sin que
hubiese notado hasta el dia siguiente en el papel
de marca mayor q. hallaron, y me vi aboroto con
la perdida, por quedarme ^{te} abolutam^{te} imposibilita-
do a dar del cargo alguno, ni poder arreglar las cu-
entast, q. por la entera confianza de los Vecinos,
ellos lo han desado y pre. a mi cuidado, y no han
trascendido cosa alguna, al. ver, q. nada ha fal-
tado a la Tola antes ni han jugado hallarse
alcanzada.

Con la cortisima renta q. tengo, recargos
extraordinarios, contribuciones extraordinari-
as para ambos Ejercitos, granos de trigo, y ma-
iz para el Frances, y Paisanos, me vi sin poder
subsistir, ni atender a cosa alguna, y en este
lance echè mano delcaudal de la Tola, y lo he
dastado sin poder decir a punto fijo el qu-
anto, mas q. podran ser seis a ocho mil d.
y una de las tres decas q. me arreitaron los Fran-
cois. tube q. agradecer al Comandante de Ala-
za para evitar q. me trasportasen a Francia.

Este es mi deplorable estado, y no habiendo
confiado esto a persona alguna la mas
confidente, porq. no se macilase mi decoro, y re-
putacion, y por parecerme q. unicam^{te} v. s. t.
debia saber los asuntos en q. deben frisar ve-
los legos, para el efecto de evitar todas las
trascendencias, y remediar en quanto se pueda
los defectos por el Paternal amor, y prudencia
de v. s. t. previniendo como debo q. para en-
adelante vpre. se ponga en remate la Primi-

cia, y no se gobiernan por administracion de Leyes,
por quanto nada producen, y q. al dia siguiente
de Reyes se den las cuentas, y se archiven los con-
tingentes.

V. S. M.ª proveyera lo q. mas oportuno pa-
reciere ha remediar los males, e yo de parte
de su saculo Pastor lo he sido en quan-
to me han permitido mis cartas facultades en
lo respectivo al parto Espiritual, y conservacion
de la buena armonia, y union.

Dios Nro. Señor felicite los sermos de
V. S. M.ª como pido en mis otros sacrificios,
pues q. así lo he merecido. Santa visita de Segura

Yo el Sr. D. Juan de los Rios
B. el Anillo de V. S. M.ª su menor Casp.
J. P. Feliz de la Universidad

Santa Visita de Segura Dnde Mayo 2.º 1753.

Aunque merecen compadecirse los trabajos generales y
particulares que se han sufrido y no se pueda hacer un justo
caso de los papeles que se hayari extrañados no quite esto la
estrecha obligacion y necesidad para sanear las conciencias
de formar por un calculo prudente, en lo posible aproximado,
las cuentas que correspondan cortando en lo q. no se pue-
de averiguar por un partido medio y razonable. Si practicara
así el sup. en las cuentas entendiendo y dando las aunque sea
en papel claro simple a D.º Don Manuel Guerrero Benef.º
de Cerain a quien autorizamos con todas nuestras facultades
al efecto sin limitacion alguna, debiendo informar
nos del resultado y presentarse a nos se ejecutase p.
nuestra aprobacion, y cumplirse en el termino

3^o Mayo 1834
De dos Meras que el Encargado para pagar siendo
preciso.

En cuanto a lo que al parecer se han manifestado
las rentas por la Cilla tampoco se procedera bien en esta
igual proporcionada liquidacion a que con las mismas
calidades queda autorizado dho. Guerrero. Aunque contempla-
mos apreciable por esta para lo sucesivo el medio del
atendami. se debe calcular por las dazimas y las circums-
tancias el tanto que sera razon por ex por fundam. para
cada año con lo cual y la precisa oblig. de dar fianzas muy
seguras podria tambien Guerrero cometer de esta materia, e m-
comandados se pedira separadam. de la licencia.

Arto proveyo S. J. y
Jn. Am. Labayague
1834

Alto el desp.
Ceram y no
pago

A. 25 = 70

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITARAPENAK

GERRIKO Liburu-Saila

1. *Astez Aste. Alfabetatzeko*
Egileak: Testua: G.E.E.
Azala: Joxe Mari Telleria
Editorial PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979
2. *Ahaide Nagusiak*
Argazki Hitzza. Ikus-entzunekoa
Testugilea: J.A. Leunda
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.
Marrazkigilea: J.M. Telleria
Eragilea: G.E.E. - Lazkao
Inprimatzailea: Anaitasuna - Usurbil
Argitaletxea: PAX - Lazkao
3. *Euskal Kanta Xorta*. 1981
4. *Euskal Aditza. Alfabetatzeko*
1982 G.E.E.
Egileak: J.M. Aranburu, D. Amundarain, P.J. Aranburu, M. Bidegain, A. Idiakez, M.A. Maiz.
Gráficas Lizarra, S.A.
5. *Ixtorioa Moldatu-I. Eskolumeak txori-kabia bila*
G.E.E. 1982
6. *Baserri zaharra*
Baserri-tresnak. G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-I*
G.E.E. 1984
8. *Aditz Ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko*
G.E.E. 1985. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Beditarrak - Lazkao
9. *Aditz Ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu*
G.E.E. 1986. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu*
G.E.E. 1987. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
11. *Deklinabide Ariketak*
G.E.E. 1988. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
12. *Esamoldeak*
G.E.E. 1989. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Aralar - Ordizia
13. *Hizkuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierrin*
G.E.E. 1992. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.
Inprimategia: Beditarrak - Lazkao

GERRIKO Ikerlan Sariketa

- I. *Basogintza Goierrin XVIII.-XX. Mendeetan, Harizti-Pagadi eta Sail Zuhaizgabetuetatik Gaurko Pinudietara*. Mikel Sarriegi Etxezarreta
Urbia-Oltzeko Artzantza. Andoni Aizpuru Murua
Artzantzaz Artzain Familia Batekin. Ainhoa Galparsoro Sarriegi
G.E.E. 1990
- II. *Etnografiako ikerlan bat*. Nekane Arratibel Insausti
Meatzaritza Goierrin (1850-1950): Aztarnak. Beatriz Herreras Moratinos eta Josune Zaldua
Goena
G.E.E./M.E. 1991
- III. 3. *Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola
G.E.E./M.E. 1992
- III. 4. *Goierriko Biztanleria (1860-1986)*. Arkaitz Arruabarrena
G.E.E./M.E. 1992
- IV. 5. *Klaudio Otaegi (1836-1890)*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola
G.E.E./M.E./K.B. 1993
- IV. 6. *Migrazio-mugimenduak Olaberrian*. Arkaitz Arruabarrena Goikoetxea
G.E.E./M.E. 1992
- V. 7. *Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere "Cristau Doctriña guztiaaren esplicacioaren sayaquera (1858)"*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola
G.E.E./M.E./K.B. 1994
- V. 8. *Sasieta Mankomunitatea. Zabortegei Kontrolatua*. Garai Arruabarrena
G.E.E./M.E./K.B. 1994
- VI. 9. *Ataungo euskara*. Joxe Migel Azurmendi
G.E.E./M.E./K.B. 1996
- VI. 10. *Karobiak Ataunen*. Nekane Urdangarin eta Leire Munduate
G.E.E./M.E./K.B. 1996
- VI. 11. *San Adrian eta inguruen kondaira*. Xabier Azurmendi Albizu
G.E.E./M.E./K.B. 1996
- VII. 12. *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko euskal idazle ezezaguna*. Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola
G.E.E./M.E./K.B. 1998
- VII. 13. *Zegamako euskara*. Joxe Migel Azurmendi Albizu
G.E.E./M.E./K.B. 1998

